

Asisko
Frantzisko

Joseba Intxausti

Asisko Frantzisko

Saiakera biografikoa

efarantzazu
edizioa: Frantziakulturak • orrialdeak: 199

2018

Gure esker ona liburu honetako zenbait argazki eskuzabaltasunez utzi dizkiguten
Asisko San Frantziskoren basilikako frantziskotar komentutarrei,
Santa Maria degli Angeliko anai frantziskotarrei,
La Vernako anai frantziskotarrei eta baita
Greccioko anai frantziskotarrei ere.

Esker on berezia Felix Ibarrondori, bere ekarpen eskuzabalagatik.

Azala: Subiaco-ko Frantzisko

Edizio arduraduna: Joxe Mari Arregi
Maketatzaileak: Iñaki Beristain eta Aitor Sorreluz
Argazkiak: Iñaki Beristain eta Aitor Sorreluz

Jabetasunak:

© Edizio honena: Arantzuko Edizio Frantziskotarrak 2018

© Testuarena: Joseba Itxausti

-
ISBN: 978-84-7240297-3

Lege-gordailua: SS-0085-2018

Inprimaketa: Gertu inprimategia

Eskariak egiteko eta informazioa eskatzeko:

Arantzazuko Edizio Frantziskotarrak

Villamonte gaztelua, 2 - 4º. 01007 Gasteiz

Tel. 945 14 72 24 info@edicionesfranciscanasarantzazu.com

www.edicionesfranciscanasarantzazu.com

Facebook: <https://www.facebook.com/efarantzazu>

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70).

*Nire emazte Hélène-ri
La Verna-tik Arantzazurakoan.
Mila esker.*

Aurkibidea

Aurkibidea	9
Laburdurak	13
Hitzaurrea	15
Hagiografia eta Historiografia	21
1. Haurtzaro-gaztaroak (1181/82-1206)	23
1.1. Jaio eta norbait izan	23
1.2. Asis jaioterria, gaur eta iraganean	31
1.3. Gerra eta bake artean	35
1.4. Legendunen artean	40
1.5. San Damiango ahots hura	45
1.6. Familiako arazoak, Gotzainaren aurrean	48
1.7. Aldakuntzaren arrazoiak eta emaitzak	52
1.8. Sinetsi eta bizi?.....	53
2. Anaiarte egiten (1206-1212)	59
2.1. Ebanjelioaren eskakizunak	59
2.2. Anaiarte ebanjeliotarra	62
2.3. Ebanjelioa eta lehen Erregela (1209)	70
2.4. "Hamabiak" Erromara	71
2.4.1. Erromako laguntzaileak	72
2.4.2. Inozentzio III.arenekin	76
2.5. Erromatik Asisa	80
3. Ahizpartea egiten (1212...)	85
3.1. Ahizpa Klara di Favarone (1194-1253)	85
3.2. Klara, bere Ahizpartean	87
3.2.1. Erregela, pobretasun osoarekin? ..	88
3.2.2. Santa Klararen Erregela (1253)	94
3.3. <i>Testamentua</i> : Frantziskorenari eusten.....	97

4. Kristau herritarren zerbitzuan	103
4.1. Harremanak, nornahirekin	103
4.2. Frantzisko eta lehen anaien geografia.....	108
4.2.1. Bide neketsuak	108
4.2.2. Lurralde ezagun maitea	112
4.2.3. Herri eta hiriak	112
4.3. Frantziskoren inguru soziala	114
4.3.1. Sendiarekin	114
4.3.2. Pobreen arteko txiroenekin	115
4.3.3. Botere-inguruko arriskueta	117
4.3.4. Asisen agintedunak adiskidetzen	118
4.3.5. Eliz agintariekin zuhurtziaz.....	120
4.3.6. Ordenako agintaritzaz	124
4.3.7. Aberats ongileekin	127
4.3.8. Jakitunak eta anaia langileak.....	132
4.4. Etorkizuneko “Hirugarren Ordena”	135
5. Frantzisko bere Anaiartearekin (1209-1220)	143
5.1. Egokiera eragingarriak (1216...)	143
5.1.1. Gertatu eta esandakoak (c. 1216).....	146
5.1.2. Hugolino, adiskide babeslea	151
5.1.3. Egipton: bi munduren artean	158
5.2. Anaiarteko eta inguruko ardurak	167
5.2.1. Hazkuntza bizkorra	170
5.2.2. Ezinegonak eta irtenbideak	171
5.2.3. Heretiko eta anaia desbideratuak ...	177
5.3. Anaiak gizartera itzuli zirenekoa	180
6. Anaiartetik Ordenara (1209-1223)	185
6.1. Anaiartea/Ordena gobernatzen: agintariak	185
6.2. Kapitulu Jeneral eta Probintzialak	191
6.3. Frantzisko: garai egon eta dimititu (1220).....	195
6.4. Intuiziotik legeetaraino: Erregelak (1221-1223) .	198
Bi Erregelen arteko alderaketa	208
7. Bizitzaren udazkenean (1223-1226)	209
7.1. Eremitorioetan	209
7.1.1. Greccioko Gabon-gau hura.....	211
7.1.2. La Verna: mistikaren “zauriak”	215
7.2. Gaixo, baina pozik	220
7.2.1. Frantzisko eta gaixoak	220
7.2.2. Frantziskoren gaixotasunak	223

7.2.3. Poz benetako eta osoa	229
"Poz benetako eta osoa"	230
7.3. Anai-arreba sorkarien artean	232
7.3.1. Mundu maitagarria	232
7.3.2. Maite hautatuak	234
7.3.3. Otsoen artean: Gubbio.....	238
7.3.4. "Anaia Eguzki eta sorkarien kantika"	241
Anaia Eguzki eta sorkarien kantika	245
Izakien kantari (B. Gandiaga)	246
7.4. Azken joan-etorriak	248
Jainko Gorenaren gorespenak	249
7.4.1. <i>Testamentuak</i> (1226)	250
7.4.2. Azken ordukoak: Heriotza	253
7.4.4. Hilondokoak	256
8. Frantzisko, Historiaren memorian	259
Kronologia	267
Bibliografia hautatua	275

Laburdurak

Laburdura hauek Frantzisko eta Klararen idazkiei dagozkienak dira, eta horrekin batera garaiko idazlanetara sarrera ematen digutenak. Horretarako, iturri horien euskarazko edizio ezagunaz baliatu gara (Arantzazu, 2002, 14-16). Laukian, laburdurekin batera, idazkien izenburuak osorik jaso ditugu, eta ondoan baita argitaraldi horretan idazki bakoitzari dagozkion orrialdeak ere.

1 Er	Lehen Erregela. 131-153
1 FeG, 2 FeG	Fededun guztiei Gutuna. 95-104
1 KlaG	Pragako Ines Santuari Lehen Gutuna 1195-1198
1 Ku G. 2 KusG	Kustodioei Gutunak 113-114
1 Zel	Lehen Bizitza (Zelano) 177-274
1/2 PoPr	Pobretasunaren Pribilegioa, 1 eta 2 1207-1208
2 Er	Bigarren Erregela 153-160
2 KlaG	Pragako Ines santuari Bigarren Gutuna 1198-1200
2 Zel	Bigarren Bizitza (Zelano) 275-421
3 KlaG	Pragako Ines santuari Hirugarren Gutuna. 1200-1202
3 Zel	Mirarien Liburua (Zelano) 423-460
4 KlaG	Pragako Ines santuari Laugarren Gutuna 1203-1205
5 KlaG	Brujasko Ermentrudisi Gutuna 1205-1206
AEgKt	Anaia Eguzkiaren eta Sorkarien Kantika 93-94
AgG	Herri-Agintariei Gutuna 105-106
Ahol	Aholku espiritualak 119-130
AntG	San Antoniori Gutuna 117
BerAg	Bertuteei Agurra 92
BerBed	Anai Bernardori Bedeinkapena 168
ElGut	Anai Eliasen Gutuna 173
ErEr	Eremitarioetarako Erregela 160-161
GAiAz	"Gure Aitaren" Azalpena 70-72

GiJor	Gianoko Jordanen Kronika 1113-1143
HLaLe	Hiru Lagunen Legenda 489-533
JaGor	Jainko gorenaren Gorespenak 66-68
JgoAh	Jainkoa goresteke Aholkua 69-70
KlaAh	Klara eta ahizpentzako Aholku abestua 168-169
KlaBed	Ahizpentzako Klararen Bedeinkapena 1194
KlaBiz	Frantziskoren Klararentzako bizimodua 161-162
KlaBor	Frantziskoren Klararentzako Borondatea 169
KlaEr	Klararen Erregela 1175-1187
KlaTest	Klararen Testamentua 1189-1193
KleG	Klerikoei Gutuna 106-107
LeBed	Anai Leoni Bedeinkapena 68
LeG	Anai Leoni Gutuna. 117
LeLa	San Bonabentura: Legenda Laburra 877-906
LeLu	San Bonabentura: Legenda Luzea 733-837
LeLuMir	San Bonabentura: Heriotza osteko Mirariak 839-872
Lo	Frantzisko eta Lagunen Loretxoak 939-1111
MBiAg	Maria Birjina doatsuari Agurra 91
MiG	Ministro bati Gutuna 115-116
NekOf	Jaunaren Nekaldiko Ofizioa 74-90
OrdGor	Ordu guztietan esateko Gorespenak 72-73
OrG	Ordena osoari gutuna 108-112
PerAn	Perugiako Anonimoa 461-487
PerLe	Perugiako Legenda 535-634
Perlsp	Perfekzio Ispilua 635-732
PozBen	Poz Benetako eta osoa 129-130
SC	<i>Sacrum commercium</i> : Itun Santua 907-938
SDaOt	San Damian: Gurutzearen aurreko otoitza 65-66
SiTest	Sienako Testamentua 167
Test	Frantziskoren Testamentua 163-167
TOsag	Testigantza osagarriak 1145-1163

Hitzaurrea

Asisko Frantziskoren euskal biografia honek oharren bat edo beste behar du, zergatik idatzi den eta zertarako balio lezakeen aditzera emanda uzteko.

Lehenengo eta behin, euskal irakurle arruntari kultur informazio eguneratua emateko idatzi da liburua, asko baita azken mende-erdian ikertu eta argitu dena. Bestalde, ikusiko denez, kontakizun biografikoaren barruan jaso dugu iturrietako testu ugari, XIII. mendeko notiziek eta beraien garaiko interpretazioek begiratu kritikoren bat izan dezaten.

Lehen mailako irakurketa arruntarekin batera edo ondoren, gorago jo nahi duenari eskueran ematen zaizkio zenbait osagarri: bibliografia orokorra (liburuaren azkenean) eta bibliografia berezitua, orrialdeetan barna (oin-oharretan puntuz puntu emana). Interneteko lagungarriak ez ditugu galdu nahi izan eta saiatu gara horietarako estekak ematen.

Alde horretatik, irakurgaia da, noski, liburua; baina horren ondorengo ikasbidea ere izan daiteke, bere neurrian.

• • •

Ez da hau Santuaren euskarazko lehenengo biografia, ezta Frantziskoren idazkiak gure hizkuntzan jasotzen dituen estreinakoa ere. Aita Villasantek eman zigun euskarazko aurreko biografien berri (1977), eta ez dago hemen gauza bera errepikatzen ibili beharrik¹.

Hala ere, ez da gaizki etorriko izan ditugun euskal biografoetako izenik nagusienak gogoraraztea: K. Beobide (1885)², J.M. Azkue (1925)³, M.A. Antia ([1910], 1995)⁴. Beobidek, inguratu ahal izan zuen bibliografia ez hain kritikotik moldatu zuen bere idazlana; Azkuerena, oster, Santarelli-ren biografiaren itzulpena da, eta Antiarena, berriz, Chérancé-ren bizitzatik

¹ Villasante, L., 1977, "Atarikoa", in: [Villasante, L.; Zurutuza, J. L. (ed.)], 1977, *Anai Frantzisko. Arreba Klara*. Arantzazu: Arantzazu Argitaletxea. 11-28.

² Edizio berrian: Beobide, K., 1966 [1885], *Asis'ko loria*. Tolosa: Auspoa Liburutegia. (Irakurtzekoa da Aita Villasantek eman zion hitzaurrea: 7-12. or.).

³ Santarelli, A. M.; Azkue, J. M. [itz.], 1925, *Asistar Prantzisko donearen bizitza*. Bilbao: Dotxao-Urigüen.

⁴ Chérancé, L.; Antia, M. A. [itz.], 1995 [1910], *Aita San Frantzisko Asiskoaren bizitza*. Donostia: Klasikoak. Lehen edizio honen arduradun Ainhoa Beolaren hitzaurrea gogoan hartu behar da.

itzulia. Horien ondoan, bertsolariek ere gogotan izan dute inoiz Frantzisko (Ataño-k, adibidez)⁵.

Ezin ditugu, gainera, bazterrera utzi balio historiko eskasagoa duten Loretxoak. Legenda-istorioak dira, malenkonía salatariz mamituak; hainbat hizkuntzatar itzuliak izan dira, eta Literatura Unibertsalean bizirik ikusten ditugu. Euskal argitalpenen artean daude hauek ere⁶.

Euskal Herriko seme batek San Frantziskori sekula eskaini dion biografiarik helduena (alde handiarekin helduena; gaztelaniaz) Luis Sarasola lekeitiarraren San Francisco de Asís izan da⁷. Kasu honetan, orijinala da liburua, eta Sarasolak probetxu onik ateratzen Paul Sabatier artzain protestantearen eta berehalako ikertzaileen lanari (Sarasola 1929:xxv-xxix. or.). Lehenagoko L. Wadding (1625) edo ondokoak ahortzi gabe, ordutik hasi zen ikaslan kritikoa, XX. mende guztian osatuz joan dena; azken ordukoetan garrantzizkoa izan da 1965etik honakoan burutu den ikerkuntza kritikoa.

Italian bezala Alemanian, Erresuma Batuan, Frantzia, Estatu Batuetan eta Espainian itzal handiko ikertzaile eta argitaratzaileak egon dira azken hamarkada hauetan, eta ez da falta izan Frantzisko eta frantziskotartasuna aztertu duen Elkarre bereziturik, izan ere, "questione francescana" deitua gertatu baita (exegesi biblikoaz aparte), azkenean, Mendebaldeko Erdi Aroaren arazo historiografiko eta hermeneutiko aztertuen, Aro hartaz diharduen mundu akademiko orokorraren eskutik.

⁵ Zapiain "Ataño", S., 1981, *San Frantziskoren bizitza*. Tolosa: Auspoa (153).

⁶ Azkue, J. M. (itz.), 1923, *Aita Prantzisko duntsuaren ta bere prailien loratuak*. Tolosa: Muguerza (J. A. Lizarralderen hitzaurrearekin). Zurutza, J. L. (itz.), 2003, *Asisko Frantziskoren eta Lagunen loretxoak*. Oñati: Arantzazu. (Edizio paratzailea: P. Agirrebaltzategi; B. Atxagaren aurkezpena; X. Garridoren sarrera; X. Egañaren marrazkiak). Loretxoena izan da, beharbada, literatura frantziskotarretik zabalkunderik handiena izan duen idazkia

⁷ Sarasola, L., 1929, *San Francisco de Asís*. Madrid: Espasa-Calpe. (Bigarren ed.: 1960, Madrid: Cisneros).

Ehunka biografia daude dagoeneko San Frantziskori buruz argitara emanda, eta liburu honek berak argitan jartzen digunez, ez da soka hori eten, eta aurrera goaz... Esan dezadan, datu kuantitatibo hutsa izanik ere, zein deigarria den frantziskotar kaputxi-noek Bibliographia Franciscana agerkarian (Erroma) bilduta duten erregistro-kopurua, azken urteetan urtero 3.000 erreferentziatetik gora jasotzen dituela⁸. Erdi Aroaz ditugun espezialista jakitunen etengabeko ekoizpen intelektual eta editoriala da hori.

. . .

Beraz, hainbeste lanen ondoren zertara dator, bada, eskuetan dugun liburu hau? Erantzuna, iturrien ezagutzaren historiatik bertatik letorke, lehenengo, eta gero Euskal Herritik: euskarazko kultur komunitateak dituen hutsuneetatik eta euskal gizarte sekulartutik begiratzat eman beharko da erantzuna.

Frantziskogandik hasita, frantziskotartasunak bere jatorritik du mundua begiratu garbi batekin ikusteko jarrera, betiere Ebanjelioa abiapuntu duela⁹; baina, horrexegatik lanak ditu egungo sekulartasunean ikusgarri eta entzungarri izateko.

1. XX. mendean, iturri frantziskotarrak aurkitu, berorien azterlan filologikoa egin, edizio kritikoak prestatu eta albisteen balio eta fidagarritasun historikoak neurtzen lan zabala burutu da¹⁰; behin baino gehiagotan Ordenako politika ofizialak (1266...) ezkutari nahi izan zituen idazki batzuk aurkitu ez ezik argitara ekarri dira. Hori dena orain dago eskueran, osotasun hobean, ez lehenago; baina Frantziskoren gure euskal biografoek ez zuten izan aurrerapen horietaz baliatzerik.

⁸ <http://www.istcap.org/bibliographia-franciscana.html>.

⁹ Lehmann, L. 1988, "La espiritualidad secular franciscana", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 49, 1988, 109-130. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/LLehmann-LaespiritualidadsecularFranciscana.html>.

¹⁰ Edizio kritiko askorekin batera, frantziskotartasunaren inguruko iturri literarioak eskueran ditu irakurleak sarrera erosoko honetan: <http://users.bart.nl/~roestb/franciscan/fraanony.htm>.

Esate baterako, zalantza, iluntasun eta arazoz ereindako alorra da Frantziskoren idazki eta lehen hagiografiako kronologia, eta horrek bere ondorioak ditu, noski, biografia modernoa egin nahi denean. Gure aldetik, saiatu gara han-hemen aurkeztu diren “Kronologiak” begiratuta lan egiten. Bereziki gogoan izan ditut Brown (1964), Desbonnets (2002), Rusconi (2002), Garrido (2004), Fz. de Pinedo (2010), Herranz (2014) eta abar. Gehiagorik ezin izan dudanean saiatu naiz zalantzak non dauden aditzera ematen.

2. Zailtasun horiek gorabehera, azken hamabost urteetan hobera egin du gure ezagutzaren egoerak, eta aurreko tradizio eskasa gainditzeko gai izan gaitezke, derrigorrez liburu honekin izango ez bada ere. Liburu honen bidez ere zilegi izan dakiguke Euskal Herrian eta euskaraz informazio-hedakuntza laguntzea.

Euskal Herrian berton topa ditzakegun lanek beren aurrerapena ekarri dute. Hasteko, erdarazko hainbat ikerlan berriren gaztelaniazko hedakuntza Arantzazutik egin da (“Hermano Francisco” bilduma); J.A. Gerra astigartarraren eskutik etorri zaigu hori, katalogo aberatsa osatzeraino (alemanez, italieraz nahiz frantsesez egindako ikerlanak Arantzazutik zabaldu dira, beraz). Eskola ona izan da, askorentzat, eta neuretzat ere, ikas-egokierarik izan dudana neurrian.

Frantziskori eta frantziskotartasunari buruz Euskal Herrian frantziskotar kaputxinoek eman dutena ugaria da, jakite handiko adituak izan dituzte (Iriarte, Elizondo, Aizpurua, Azkona, etab.), edo aldizkari herritarragoetatik egin duten lana ezin da utzi albora, euskaraz ere egin dena (Apalategi, Zeruko Argia, etab.¹¹).

Eta horren ondoan, San Frantziskoren idazkiak eta XIII. mendeko haren biografiak euskarara itzultzeko parada egon da berrikitan; gezurra badirudi ere, XX. mende aurretik beroriek beren osoan ezagutzeko

modurik ez zegoen, hain zen larria isildu eta ezkutatutako iturrien egoera galdua.

Orain, 2002tik hona, eskuetan dugu Asisko Frantzisko. Idazkiak. Biografiak eta Garaiko Dokumentuak. Asisko Klara. Idazkiak argitalpena¹². Bi balio handi ditu honek: jatorrizko testua edizio kritiko seguruenetatik jaso du, eta dena euskaraz emanda dago (1.300 orrialde). Ondoko orrialdeetan agertuko diren iturrietako idazki historikoak liburu honetatik jasotakoak izango dira, hitzez hitz (inoiz, oso gutxitan, ukitu estilistikoren bat egin dudana arren).

Euskaldunok geure buruari zor diogun duintasunagatik, argitalpen horrek eskaintzen digun egokieraz baliatu naiz liburu xume hau irakurlego zabalago batentzat egokitzean. Nire aldetik, eskertronik beroena merezi dute edizio hori burutu eta paratu zuten lankideek, eta noski, baita idazlan honetan horretaz baliatu ahal izateko baimena eman didaten frantziskotarrek.

3. Eta ekarpen berriok izan lezakete zerikusirik (hala nahiko nuke behintzat) Euskal Herriak orain menderdi batetik hona bizi duen sekulartze prozesuarekin. Gure sekulartzean aurrerapen onak egon dira (jendearen askatasuna, norberaren erabakimenaren defentsa, iritzietan guztiekiko begiramena, etab.), eta eskasiak ere bai aldi berean (bizitzako arazo funtsezkoenen lausotzea, iraganetik ere etorkizuna ernaldu eta aberasteko gaitasun ahulagoa, norbanakoaren bakardade erlijiosoa, etab.). Noranahi goazela, bidea urratuz joan beharko dugu gizartearen eta erlijio-tasunaren ekinbide berrietan.

Kritika historiografikoak eskueran jarri dizkigun lorpenak aurrean ditugula ere, San Frantziskoren

¹¹ Argibide bibliografiko zehatzak: Pérez Aguirre, C.J.J., 2001, *Escritores de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón. 1900-2000*. Pamplona: Curia Provincial de Capuchinos.

¹² [Frantziskotarren Itzultzaile Taldea], 2002, *Asisko Frantzisko. Idazkiak. Biografiak eta Garaiko Dokumentuak. Asisko Klara. Idazkiak*. Oñati: Arantzazu, Edizio Frantziskotarrak. Bereziki azpimarratu nahi dut hemen gazterik hil zitzaigun Ramon Irizar frantziskotar oñatiarrak (1946-2011) liburu honi jarri zion “Sarrera”, biografia, idazkien aurkezpena eta abar laburtuta eskaintzen dizkiguna (21-56. or.). Zorretan nago berarekin.

biografia ez da gizarte sekulartuan irakurketa errazekoa: biografian agerian dauden balioengatik, nahitaez XIII. mendearen urruntasun kulturalagatik, protagonistak duen izaera poliedrikoagatik, dituen zalantza eta baieztapenengatik, etab. Hala ere, harritzekoa da nola XX. mendeko zenbait idazlek aurkitu dituen Frantziskogan oraingo mundu garaikidea aztertzeke aukera edo aitzakia (liburuko azken atalburuan esaten da horretaz zer bait).

• • •

Horiek eta beste hainbat idazle eta historialarik mende-erdi batean (1960-2015) jakite-ekarpen berria eta preziagarria eman digu; horien artean ez dira gutxi izan guztiz goi-mailako ikertzaileak. Saiatu naiz ekarpen horien berri jakiten.

Bere nortasunean, Frantziskoren asmoaren balioak aintzak dira, eta zer pentsa eman dezakete: gu ere Erdi Aroak eginak gara, hein batean (lehen Foruak, hiribilduak, Eskeko Ordenak); garrantzizko bidegurutze historiko bateko semea izan zen bera (Asisko gerratea eta Bake Akordioa, 1198-1210); Erdi Aroko pertsonaiarik erakargarrienetakoa da Asisko Frantzisko.

Mendebaldea Gurutzadetara zihoan urteetan, mintzatzeraz joan zen, ez gerra egitera (Egipto, 1219-1220). Gurutzadaren barruan aurkitzen zela, fronteko muga hautsi eta libreki eta bake-bidez kristautasunari buruz Sultanaren aurrean hitz egiten ausartu zen. Eta are gehiago: Erregelan (1223), atalburu hau utzi zien fraide anaiei: "Musulmanen eta beste fedegabeen artera doazenak" deritzana. Lehenengo aldiz jaso zen horrelakorik Ordena erlijioso bateko oinarritzako agiri batean. Gero, XIV. mendetik hona beti egon dira Palestinan frantziskotarrak.

Bat-bateko iraultzaile sozial zuzena izan gabe, hobekuntzarako deia egin zion garaiko gizarte italiarrari eta orduko Kristandade zerratuari; klase sozial guztiekin izan zuen harremanik; baina pobreen aldeko apustuari heldu zion osoro, pobreenen artean pobreena izateko delibero eta praxiarekin.

Bakearen mezulari gertatu zen nonahi, Asisen eta inguruko herrietan, Italian eta erbestean, gizartean eta Elizan. Ez da, bada, harritzekoa, XX. mendean Erlijio handietako buruzagi nagusiek nola aitortu zioten Frantziskori guztien arteko eredu bakezale eta bakegilearen izankizuna (1986).

Erromako Elizarekin harreman onetan bizi zela ere, ez zen nahasi heretikoen aurkako jazarpen, gurutzada edo inkisiziotan. Heretikoekiko harremana bere gisara eraman zuen Frantziskok: idazkietan ez ditu aipatzen, nahiz eta inguruan izan zituen; "desbideratuentzat", dogma ez baizik balio ebanjeliotarrak predikatzen zituen; bere prediku eliztarra isildu barik, herrietan etsenplu pertsonala utzi zuen ortodoxiaren adierazgarritzat.

Sinestun fededuna izan zen goitik behera, herritar laiko ortodoxoa. Gizarteko "mundutik" atera egin zen; baina berehala biziera berri batez baliaturik bertara itzultzeko, eta aurkitutako Ebanjelioaren albiste berria zabaltzeko, garaiko erlijiotasun herritarretik zetorrela eta Bibliako Hitzaz baliatzen zela.

Jakina da Natura eta sorkarien kantaria izan zela Asisko Frantzisko. Sumatzen zituen bikaintasun eta txikitasun guztien miresle eta maitalea. Orrialde hauetan barrena ugari izango dira kontzientzia ekologiko kristau horren adierazpenak. Naturaren aldeko zaleen zaindaritzat aitortuta dago (1979), eta Frantzisko I.aren Laudato si'. Denona den etxea zaintzeaz deritzan gutunean izadi-zaleen ikonoa da, gainera (2015).

Gizakiaren misterioa (nondik gatozen, zer/nor garen, nora goazen) eta giza ajeak (gaixotasun, oinaze edo heriotza, adibidez) aurrez aurre begiratu zituen, eta barne-baretasun eta poz umotuz zailtasun guztiei beren gainbalio kristaua bilatu zien. Bestalde, beti saiatu zen funts-funtsetik askatasun ebanjeliotarrari fidel izaten, boterearekiko mendeko baina libre izanik, giza kontzientziaren eskubideak errespetatuz.

Nola lekutu zuen Frantziskok Elizaren barruan bere askatasun ebanjeliotarra, pertsonala eta Anaiarte-

arena? Hastapenean, fraideen Anaiarte bera laiko-ena izan zen batez ere, berdintasun pertsonal osokoa; jatorriz kleriko gutxi egon zen lehen lagunen artean. Ordenaren klerikalizazioa geroago etorri zen (1239...)

• • •

Feudalismoaren garai haietan, Frantziskok hiru sailetan banatutako gizartea aurkitu zuen lehenengo: armadun, esku-langile eta otoizlariz osatua, eta halaxe banatua. Konbertsioaren ondoren, ez zen bera horren aldekoa izan, eta fraideen Anaiarte berrian guztien berdintasuna nahi izan zuen. Anaiartearen, apaizak bezain senide izango ziren anaia laikoak ere.

Urrun egon zen Frantzisko botere-lehiaketa guztietatik, adibidez inorentzat eskulanean zebiltzan anaiek ere ez zuten hartu behar beren eskuetan inolako aginterik; guztien zerbitzari izaten jarraitu behar zuten. Ez dirudi, beraz, Inozentzio III.aren egitasmo teokratikoekin zerikusirik izan zuenik...

Ezagutu zituen Frantziskok boteredunak, eta haie-tako batzuk adiskide ere izan zituen; baina Frantzisko herri-herriarekin ibili zen batik bat, ahulekin, gaixoe-ekin, pobreenekin; horiek zituen bereziki maite.

Irekitasun orokorra erakusten digu "Fededun guztiei gutuna" deritzan idazkian. Bata bestearen ondoan, kristau oro aipatzen du: erlijioso, laiko eta kleriko, gizon eta emakume. Eta, gainera, mundu osoan bizi diren guztiei bere begirunea eskaintzen die. Munduan diren gizaki guztien mendean jartzen da, eta gizakiagandik harago, inguruan begiratu eta abere eta piztia guztien zerbitzari gisara ere.

• • •

Biografiatuari zor nizkion leialtasun eta itzaletik idatzi dut liburu hau. eta nituen jakite eta baliabide mugatuen barruan ibili naiz, nire buruari iritzietarako askatasun-eskubidea ezagutzen niola. Ez dut ito nahi izan honelako idazketarako gaur egun bat-batean gainera etor litekeen bibliografia itzel besarkaezina-aren azpian. Eskueran izan ditudan langaiak aditze-

ra emanda daude Bibliografian eta oin-ohar bibliografikoetan

Biografoek, beren lanean, badute biografiatuarekin baldintzagabeko konplize izan eta haren sineskide bilakatzeko arriskurik; baina saiakera biografiko honetan tentabide hori ez zait hain arriskutsu gertatu, eta alderantziz, aitortu behar dut idazketa honek beti izan duela bion arteko enpatia askea.

Zer aurkituko du irakurleak San Frantziskoren biografia honetan? Liburuko izenburutik bertatik hasi behar dut: kanonizatu aurreko gizon eta kristauaz hitz egingo dute orrialde hauek (artearen, SAN-ik gabeko pertsonaiaz, alegia: Francesco edo Frantzisko-ri buruz).

Lehen-lehenik, Frantziskoren beraren idazkietatik egin dugu aukera; gero, hark XIII-XIV. mendeetan izan zituen biografietatik egin dira testu-hautapenak. Dena ere, mundu oso bat da, balio ezberdinak dituen idazki-ekoizpena, begira-puntu eta interes desberdinek eraginda idatzitakoa, aldian aldiko frantziskotartasunaren loraldi eta krisietan burutu den idazketa-lana, hasi Zelanorekin (1228/29) eta gure kasuan Loretxoak apainarekin burutu zena (latinezko lehen testua: 1327-1337).

Egun batez, bi adiskide on eta eremu horretan are jakitun hobeagoak direnei idazlan haietan testu-aukera bat egiteko eskatu nienean, aho batez ezezkoa eman zidaten. Berehalako batean egin zezaketela uste nuen aukera ez zen, nonbait, lan samurra. Orduan ez nuen ulertu; baina gaur, eskarmentuak eskolatuta, konprenitu dut zergatik: idazkietatik ez ezik biografietatik egiteko hautapen-lan hori, zaila izateaz gain noraezean joan daitekeen abentura dela esango nuke.

Argi dago iturri guztiek ez dutela balio historiko bera, hau da, batzuen egiazkotasun jator eta hutsaren ondoan, garaiko literatura hagiografikoak historikotasuna baino deboziozkotasuna eskaintzen zuela. Bestalde, fraide Anaiek, denek, ez zituzten ulertzen modu berean Frantziskoren nortasun pertsonala eta

borondate ebanjeliotar instituzionala; ondorioz, idazleek alderdi kontrajarrien interes kalkulatuak izan zituzten idazkietan, eta Nagusien aldetik erabaki eta aginduak egon ziren inoiz edo bestetan historia enkarguz idatzi (1229) eta guztiz ofiziala izkribatzeko (1260-1263), eta halakoak ez zirenak baztertzeko (1266). Dena den, tartean zeuden, gainera, lagun, adiskide eta testigu fidagarriagoen lekukotasunak, hau da, beren buruak "...nos qui cum eo fuimus..." errepikatuz idatzi zutenenak (1244/46).

Liburu hau saiakera biografikoa da, jatorriz euskaraz emana, eta bere neurrian hutsune kultural bat betetzeko idatzia. Ez da ezerezetik jaio berau, eta azken hamarkadetako jakite berriak aintzakotzat hartzen ditu, eta zinez ikertzaile askorekin naiz zordun eta esker onekoa.

Orrialdeetan barrena, lehendabizi irakurbide jarraitu biografikoa topatuko du hona datorrenak, behin eta berriz irudiz hornitua. Guztia Frantziskoren bizialdia bere hari kronologikoa zaintzen ahaleginduta. Gertakarien albistegi horren ondotik, hurrena informazio-bide osagarria bildu dugu, gehiago jakiten joan nahi duenarentzat. Orrialdeetako oin-harretan dago hori (liburu eta artikuluen erreferentziak), eta ahal izan ditudanetan, Interneterako estekak ere

jaso ditut, urte gutxietatik hona gero eta gehiago eta hoberik baitago Sarean Frantziskori buruz¹³.

Hainbat aditu eta hobetzaile izan du liburu honek, inoiz edo beste gaiari begiratua eman diotenak, eta era berean euskarari ere egoki zen gozatua ekarri diotenak. Eskerrak zor dizkiet eskainitako jakitea eta ez ordu gutxi eginkizun horretan eskainitakoei.

Paulo Agirrebaltzategi, Pello Huizi, Manolo Pagola izan dira liburuaren irakurle eta kritikariak. Iñaki Beristain eta Aitor Sorreluz-enak dira diseinu grafikoa eta maketazioa. Joxe Mari Arregik ardura zuzena izan du edizioa bideratzen. Bistan da azken buruan Frantziskotarren Arantzazuko Probintziak egin duela argitaragarri liburua, nahiz eta eskatu eta espero gabeko lana izan duen hau. Esker onez beterik nago guztiokin.

J.I.

¹³ Irudien hautaketa-banaketak oso libreki egin ditugu liburuan zehar, hainbat kasutan testuari jarraituz, sarritan irudien segida testuaren tresna osagarri gisa erabiliz, une biografiko jakinen bat edo beste azpimarratzeko, edozein modutan Frantziskoren ardura pertsonalei bide emanez. Euskal Herriko frantziskotartasuna ere aintzakotzat hartu dugu, gurean Frantziskoren eraginak bere lekuko grafikorik ere izan dezan.

Hagiografia eta Historiografia

Liburuko orrialdeetan zehar ez dira gutxitan agertuko bi termino hauek. Esanahi historiko ezberdina du bakoitzak; argitu beharra dago, beraz, adierazten dutena zer den. Santuen iraganak bere Hagiografia eta Historiografia izan ditzake.

Hagiografiak santutasun-ereduak moldatu eta aurkezteko balio izan zuen, Erdi Aroko Elizan eta gero, betiere protagonistaren bikaintasunak erakusten zituela: hasteko, Santuak izan omen zituen bertuteak, eta bizialdian eta erlikien bidez egin omen zituen mirariak azaltzen zituzten hagiografoek. Eta berehala, gizartean eta fededunen artean lortutako ospea aldarrikatzen zuten: Santutegiak eta elizak, pelegrinazioak, kankak, liturgia eta paraliturgia, ikonografia edo zaindaritza aurkezten zituztela. Santuarekiko jaiera eta debozioa segurtatu nahi zuen hagiografiak. Horren ahalegin guztiaren lehen adibide jatorra Tours-eko San Martin (†397) eta beronen berehalako hagiografia ditugu: *Vita sancti Martini*. Baina Erdi Aro osoko begi-bistako kasurik aberatsena Asisko San Frantziskorena dugu, ekoizpen literario berean informazio objektibo anitz duena, baina kasu bakoitzean begi kritikoa eskatzen duena, hagiografian lastoa eta garia ongi bereizteko.

Historiografia. Objektibotasun historikoa lortzeko egindako ikerkuntzatik dator hau, sarritan eliz munduko ikertzaile handiengandik. Frantzisko eta frantziskotartasunaren historiografia Ikertegi berezietuek, Unibertsitate eta Nazioarteko Kongresuek eta banako ikertzaileek landu digute; neurri batean hagitx gaztea den ikerlana da berau. Liburu honetarako saiatu naiz berori gogoan izaten. Hagiografia eta Historiografiaren artean eraiki zen Frantzisko eta Anaiartearekiko kontzientzia historikoa, eta biak edukiko ditugu gogoan, bakoitzari bere lekua eta balioa emanez.

(Accrocca, F., 2012, "Los orígenes de la conciencia histórica de los Hermanos Menores", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 123, 2012, 419-444)



Asisko bazter bat

1. Haurtzaro-gaztaroak (1181/82-1206)

Asisko Frantziskoren biografiari ekitean historia eta istorio zahar batekin topo egiten dugu. Gure pertsonaia hau aspaldikoa da eta beraren heriotzatik VIII. mendeurrena ospatuko da urte gutxi barru (1226/2026). Hala ere, labur esanda, iragan urrun eta lausoan erraz gal zitekeenak oroitzapen bizia eta egunekoa du gaur ere.

Horrek ez du esan nahi, ordea, beraren nortasuna eta bizialdiko gorabehera guztiak objetibotasun historikoan atzeman eta finkatzea samurra denik, ez iturririk falta delako, baizik eta, ugariak izanik, maiz objetibotasun ez-historikoz kutsatuta ditugulako: biografia *hagiografikoek* Frantzisko “santu egin” nahi zuten, eta “santu-eredutzat” aurkeztu. Asmo horrekin begiratu zuten Asisko Frantziskoren bizitza. Hala ere, albiste zuzen anitz ere jasotzen zutela, eta beren interpretazio ez hain fidagarriekin garaiko pentsamoldeen letuko gertatzen zirela.

Iragan historikoari begiratzean, historialariak beti dauka galdetu beharra, bere orainalditik ari dela, nola eta zein baldintzatan eraiki ahal izango duen iraganaren memoria jatorra (egiaz gertatuarena eta haren garaiko ustea nahasi gabe baina elkarrekin

datozela). Ikusiko denez, ondoko orrialdeetan jakite-osotasun hori erakusten saiatuko gara.

Garaiko biografietan badago albiste seguru, fida-garri eta iturri ezberdinetan ziurtagarririk, iritzi eta interpretazioek kutsatu gabe ere; zenbaitetan albiste apainduak dira, zinezko datu jakina beren gisara osatuta ematen dutenak; krisi baten barneko berriak direnean, gainera, ez da harritu behar, hala erabakita, garaiko biografoek zenbait gertakari albora uzteaz.

XX. mendean –esan dugu– aurrerapen handiak egin dituzte historialariek “arazo frantziskotarra” deritzaten horretan. Saiatuko naiz hemen segurtasun onetik hitz egiten.

1.1. Jaio eta norbait izan

Egia esan, jakin ez dakigu Frantzisko zein egun, aste, hilabete edo urtetan jaio zen. Ezin jakin horren errudun ez ziren izan gurasoak, parrokiako bikarioa edo udaletxeko idazkaria, lehen hagiografoek horrelako xehetasunei ematen zieten garrantzi eskasa baizik.

Historialariak, oro har, bat etorri zaizkigu jakin dezakeguna zer den iradokitzean, batez ere Frantziskoren ondoko bizialditik eskura ditugun albiste-apurak jasota: 1181eko azken asteetako batean edo 1182ko lehenengoetan jaio zela uste da orain. Hala ere, izen handiko historialariren batek esan du 1182ko ekainaren 24an, San Joan egunez, jaio ote zen (Rusconi 2002: 8).

Beharbada garaiko egutegien bakartasun finkorik ezak zerikusirik izan du jaiotza-dataren arazoarekin. XII. mendeko Italian ez zegoen nonahi onartzen zen egutegi bakarrik, urteak *Era* berdinez aditzera emateko. Hirietan, batetik bestera, Urte Berri eguna aldatu egiten zen. Urtearen hasiera ez zen izaten egun berean: batzuentzat urteko lehenengo eguna abenduaren 25a izan zitekeen (Kristoren jaiotza: Eguberria, alegia) eta besteentzat martxoaren 25a (Kristoren gizakunde eguna). Bestalde, batzuetan urtea bera ere batekoa edo hurrengo nahiz aurrekoa izan zitekeen, hiri ezberdinetako tradizioen arabera. Gauzak horrela eta Frantzisko-ren bataio-agiriaren faltaz, jaiotegunaren arazoa ezin izan da guztiz argitu.

Hala ere, ziurtatuta dago zein izan zuen bataio-izena (*Giovanni*), dakigunez senarra erbestean zela oniritzirik gabe amak jarritakoa. Pietro di Bernardone aita Frantziako bidaiatik itzuli zenean, honek beste izen bat ezarri zion jaioberriari, *Francesco*, Frantziari zion mirespen edo atxikimena adieraziz, noski. Giovanni di Bernardone haurra, aitaren erabakiz, *Francesco di Bernardone* bilakatu zen, beraz. Izen hau lehendik ezaguna zen Italian, arrunta izan gabe, eta geroztik familia hartan horrela onartutako izenak Italia osoa hartu du eta mundura indar handiz zabaldu da¹.

¹ Izenaren hedapenaz: https://it.wikipedia.org/wiki/Francesco_%28-nome%29#Origine_e_diffusione. Euskal Herriko "Frantzisko", "Patxiko", "Patxi" badirudi komentu eta Elkarre frantziskotarren hedapenarekin batera etorri zela, batez ere Aro Modernoan. Ik. zenbait datu: Omaetxebarria, I., 2016, *Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca*. Bilbo: Euskaltzaindia. 171, 177, 178.

Garai haietan Italiako hainbat herri eta hiritan gora zetorren klase sozial burgesekoa zen Frantziskoren familia. Aita handizkako merkataria zuen, Frantziako Azoka nagusiren batzuetara joateko ohitura zuena (Flandriako oihalak Champagne-n erosi eta Italiako Asisetik saltzen zituen); nolanahi ere, bere negozioetan ekintzaile eta lehiatua, Asisko burgesian leku jakin bat irabazita zuena, eta guztiari segida emateko gai izango ziren seme-alabak nahi zituen. Egin kontu, anaia gazteago bat ere izan zuela Frantziskok, Angelo zeritzana. Bazirudien, bada, aitak egindako lanak gerora ere emaitza onik eman zezakeela.

Jaio eta indartzen ari zen burgesiak ordura arte nagusi izandako gizarte feudalaren erregimena goitik behera aldatu nahi zuen, baina feudalismoaren keinu eta balio onenak hartzeko prest zegoen, betiere etorkizuna bere gisara moldatzeko xedearekin. Aurpegi-bitasun hori Frantziskoren sendian ageri zaigu: aitak irabaziei eta diruari leku eman behar die (garaiko modernitatea da), eta Frantzisko gazteak (hamasei-hemeretzi urte zituela) jakin zuen aitaren oihal eta salgaiak aurkeztu eta saltzen, eta aldi berean garaiko zalduneriaren ospea eta distira maite zituen. Taula Borobileko zaldunen istorioak indarrean zeuden gazteluetako festetan, eta entzute handiko juglare eta trobalariak ditu XIII. mende hark. Frantziskok ere maite ditu garaiko kopia eta kantak.

Bestalde, eliz gizonen eskuetan dago kultura idatzia, latinezkoa bezala hasi berri den erromantzeetakoa (gogora Errioxako Donemiliagan gure hurbileko Berceo, c. 1198-1264), eta kleriko eskolatuak dira jende alfabetatua eta jakite idatziz jantzia, batez ere latinez; hala ere, latin-ondoko hizkuntzentzat aukera berriak ari dira sortzen, eta Frantziskok berak sortuko du egunen batean italieraren lehen izkribuetako bat.

Eta gatozen Frantziskoren haurtzaroa zehaztera, XIII. mende hartan ez baitziren banatzen haur-

nerabeen urteak gure gizartean bezala. Jeneralean, banaketa jakina zuen denbora horrek, nahiz eta malgua eta ezberdina ere izan zitekeen berori: *infantia* deitzen zitzaion 7 urterainoko bizialdiari; Frantziskoren gurasoen *pueritia* 7/14 urte arteko aldiari; *adulescentia* 14/20 artekoari; *juventus*, 20/35 urteetakoari eta *virilitas* 35/50era zihoazen urteei. Eta datu garrantzizko bat: emakumezkoak adin nagusikoak ziren 12 urtetik aurrera, eta gizonezkoak 14tik aitzinakoan². Horren arabera, Frantzisko 1195/96an adin nagusira heldu zen; baina betiere gurasoen etxean bizi eta lan egiten zuela, garaiko familietan ohi ziren loturak hautsi gabe.

Frantzisko eskola apalekoa izango da, Asisko San Jurgi-ko lehen eskola txikian³ gaztetxo zelarik zerbait ikasitakoa: alfabetatua, noski, eta latina ere ikusi-ikasitakoa, neurriren batean (c. 1190-1195): maila honetako ikasketetan “abakoaren” (*abacum*) erabilera ikasten zen (eta berorren bidez, zenbaki arabiarren kalkulua eta merkatal matematikak), “gramatika” zen beste gaia (lehen irakurketa ikasten zen horren bidez, latinezko testu klasiko edo eliztarak erabilia).

Frantziskoren kultur egoera soziala zein izan zen jakin eta bizitzan horrek ekarriko zizkion ondorioak hobeki balioesteko, komeni da hemen garaiko eskolakotasunari begiratu orokor laburra ematea.



Asis: Erdi Aroko gaurko txokoa, eguneratuz joan dena

² Lett, D., , 2002, “Enfance”, in: Gauvard, C.; Libera, A.; Zink, M., 2002, *Dictionnaire du Moyen Âge*. Paris: PUF. 15-16.

³ Gianoko Jordan-en *Kronikak* ematen digu eskolatzearen berri (50. zenb.): “[Frantziskoren Gorpua] eraman eta harresi ondoan hobiratu zuten ohorez, San Jurgi elizan hain zuzen, gaztetan lehen ikasketak egin eta geroago lehenengo predikua egin zuen eliza berean”.



Asis Subasio mendiaren altzoan



A DI STATO
ASSISI
11011 Spello (Umbria) S
075813091

San Jurgiko eskolatzearekin bakarrik, garai haietan esaten zen bezala, zinez *"idiota"* izango zen gaztea eta gizona, hau da, soilik lehen eskola apala zuena. Frantziskok bere heldutasunean, horrela aurkeztu ohi zituen bere burua eta Anaia laiko zirenak, *"idiota"* bezala. Hortaz, Eskola handietako jakintzarik gabea zen Frantzisko, garaiko Arte-Fakultateetako *Trivium* eta *Quatrivium*-etako ikasbidea ibili gabea (ik. Schmucki 1982)⁴. Zer esan nahi zuen horrek?

Trivium-ak "arte liberalak" deituriko hiru sail zituen: gramatika, erretorika eta dialektika, mintzamen nahiz idazmen landuen bidez entzuleak eta irakurleak irabazteko baliozko prestakuntza eskaintzen zuena. *Quatrivium*-ak, ostera, errealitateaz ziharduten jakiteak eskaini nahi zituen: aritmetika, geometria, astronomia eta musika⁵.

Horien gainetik, esan beharrik ez dago, Erdi Aroko "zientzietan", Exegesia, Teologia, Filosofia eta Zuzenbidea izan zirela jakintzarik garaienak, XIII. mendeko Unibertsitate berriek bete-betean besarkatu zituztenak. Erdi Aroak aurrera egin ahala, ez zen faltako zientzia praktikoagorik ere, Medikuntza adibidez⁶.

Frantzisko ez zen eskolatu *Trivium-Quatrivium* haietan, eta are gutxiago Bibliaren Exegesian⁷, Teologia edo Zuzenbidean. Ziurki, eskasia hauek ez zioten lagundu Frantziskori, eliz munduko jakitunekiko elkarriketan edo egunen batean Anaiarteari eman beharko zitzaion Erregela juridikoagoa ontzen.

Esandakoaren arabera, "gutxienez, bere gaztaroan irakurri eta idazten ikasi zuen, bazekien behintzat

frantses eta latin apur bat, eta Duocento-ko poesia eta musikaz bazuen ezagutzarik" (Felder, 1948:364); pentsa daiteke Frantziatik zetorren modako kultura (*oïl* nahiz *oc* hizkuntzetatik zetorrena) azaletik bederen ezagutu zuela, segur aski aitak pasata, eta, gogokoa izanik, sortu zitzaizkion aukerez baliatzen asmatu zuelako.

Apaiz izan gabe, kleriko bihurtu ondoren (1209), Brebiarioa egunero latinez erreztatu behar zuenez, eta Biblia irakurtzen zalea zenez, bi egokiera horiek zituen hizkuntza horretan aurrera egiteko. Gainerakoan, behar izan zuenetan jakin zuen adituei laguntza eskatzen; baina ez zen itsutu jakite hutsaren aitzinean, eta begiak argi so egiten zion zientziari: ez zuen onartzen Teologiako "zientzia" huts eta espiritualki hutsala; aitzitik, kristau *bizitzarekin* elkartuta joango zen Teologia nahi zuen⁸; berezikiago begitan hartuak zituen Zuzenbide eta legegizonen jakite eta katramilak, Erregelaren inguruko buruhaustea sortu zizkiotelako ere bai⁹.

Frantziskoren beraren aitorpenak eta biografoek esandakoak esanguratsuak dira, haren eta hasierako fraide lagun gehienen eskolaztea zein zen antzemateko. Testamentuan eta Zelano-ren lehen bizitzan ageri da Frantziskok bere ezjakiteaz zuen kontzientzia. Baina aitorpen pertsonal horren ondoan gogoraztekoa da ingurukoek eta jakitun batzuek nola ikusi zuten delako ezjakintasun hura.

Eskolagabeak ginen eta guztien menpeko (Test 19). [Eta Ordena osoari zuzendutako gutunean, berritoki:] *Gauza askotan huts egin dut neure erru handiz, batez ere Jaunari hitzemandako Erregela ez betez [...] edo ezjakin eta eskolagabea naizelako* (OrG 39).

⁴ Schmucki, O., "«Soy ignorante e idiota»" (CtaO 39). El grado de formación de San Francisco de Asís, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 31, 1982, 89-106. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmucki.htm>.

⁵ Arte-Fakultateetako irakaskuntza, programa eta metodoei buruz: Verger, J., 1999, *Culture, enseignement et société en Occident aux XII^e et XIII^e siècles*. Rennes: Presses Universitaires (PUR). 157-168.

⁶ Erdi Aroko Zientzia positiboez: Taton, R., 1971, *Historia general de las ciencias. I. La ciencia antigua y medieval*. Barcelona: Destino. 463-696.

⁷ Manns, F., 1979, "Francisco de Asís, exégeta", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 23, 1979, 205-224.

⁸ Matura, Th., "Francisco de Asís, ¿«teólogo»?", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 115, 2010, 37-48.

⁹ "No hay duda de que rechazó hasta el más mínimo acercamiento a la cultura jurídica, de la que temía su habilidad para cambiar el sentido y el alcance general de las normas y el valor específico de las palabras" (Manselli 1997a: 277).

Gizon dohatsu honek ez zuen inolako heziketa kulturalik. Hala ere, Jainkoagandik datorren jakinduria ikasiz eta betiko argiaren distiraz argitua, Liburu santuen zentzu sakona zuen. [...]. Noizean behin Liburu santuak irakurtzen zituen, eta behin bere gogoan ezarria oroimenean gordetzen zuen betiko. Oroimena zuen liburuen ordezkari; behin entzuten zuena ez zuen alferrik entzuten [...]. Esaten zuen hau zela ikasteko eta irakurtzeko metodo emankorra, eta ez mila liburutan batera eta bestera ibiltzea (2 Zel 102).

Terni hiriko plazan herriari predikatu zion batean, Frantziskok hitzaldia bukatu zuen unean, zutitu zen hiriko gotzaina, gizon zentzudun eta espiritualala, eta honela hitz egin zion herriari: «Jaunak Eliza landatu eta eraiki zuen hasiera hartatik gaurdaino, beti argitu izan du hitzez eta etsenpluz indarberrituko zuten

gizon-emakume santuen bidez. Orain, berriz, azken aldi honetan, Frantzisko gizon pobre, mespretxatu eta ezikasi honen bidez argitu du» (Perlsp 45).

San Jurgiko haur-nerabe eskolak baino areago, bizitza osoan Eskritura Santuetako irakurgai eta Ofizioko otoitzaldiek (ongi begiratu, esan eta gogoeta-tuek) osatu zuten Frantziskoren kultura erlijiosoa, eta bestalde, bertso eta kantutan beti bizirik izan zuen zaletasunak eman zion juglareen kultura.

Eskola kontuetatik at, biografoek laburki deskribatu ziguten zer-nolako izaera erakutsi zuen Frantziskok gorputzez eta gogoz. Lehenik, gizasemearen gorpuzkera ezagutzen dugu, Zelanok xehetasunak ongi jaso baldin bazituen, behintzat. Honela begiztatu zuen Frantzisko aurrez aurre ezagutu zuen biografo honek:



Frantziskoren gurasoei omenaldia: Hagiografiak nahiko ahaztu zituen gurasoak gogoratuz Asisko herriak jasotako oroigarria

*Garaiera arrunta zuen, txikia handia baino
gehiago; burua erdi tamainakoa eta biribila;
aurpegia luzexka eta irtena; bekokia laua eta
txikia; begiak ertainak, beltz aratzak; ilea
beltza; bekainak zuzenak; sudurra neurrikoa,
fina eta zuzena; belarriak tenteak eta txikiak;
lokiak lauak; mihia ezitia, sutsua eta sarkorra;
ahotsa indartsua, gozoa, argia eta ozena;*

Horrekin batera, Santu baten nortasunaz ari zenez, beharbada ez zaigu gertatuko Zelano hain sinesgarri; baina badu interesik, temperamentuz edo ahaleginez, heldutasunean zein bertute nabarmenago ikusi zitzaizkion jakiteak:

Portaeraz gozoa [zen], izaeraz lasaia, hitzetan atsegina, aholku ematen burutsua, hitzemanabetetzen leiala, kontseilu ematen zuhurra, zere-



Zangoza (Nafarroa): Frantziskotar kaputxinoen komentua. Herri honetan egon zen seguruenik Anaien Euskal Herriko lehenengo "lekua", Zangoza Zaharrean (Rocaforte, 1210eko hamarkadan). Mende erdi bat geroago eraiki zen bertako lehen komentua, gerora osatu eta ederturik ikusten dugun hau izatera iritsi zen arte.

*hortzak elkartuak, berdinak eta zuriak;
ezpainak meheak eta finak; bizarra beltza eta bakana; lepoa mehea; sorbalda zuzena;
besoak laburrak; eskuak txikiak; behatzak luzeak; azazkalak irtenak; zangoak meheak;
oinak motzak; azala leuna; haragia eskasa;
jantzia latza, loa oso laburra, eskua txit zabala
(1 Zel 83).*

ginetan eraginkorra, gauza guztietan onginahiz betea. Adimenez barea, gogoz gozoa, espirituz neurritsua, kontenplazioan jaso, otoitzari etengabe emana eta gauza guztietan sutsua. Asmoan tinko, bertutean egonkor, grazian iraunkor eta beti aldarte bereko. Barkatzeko bizkor, haserretzeko nagi, buruz zorrotz, oroimezez azkar, arrazoitzen zoli, aukera egiten zen-

tzudun eta gauza guztietan tolesgabe. Bere buruarekin zorrotz, besteekin bihozbera, guztiekin zentzu oneko. Hitzun bikaina, aurpegiz alaia, begitartez atsegina, zabarkeria eta lotsagabekeriarik gabea (1 Zel 83).

Total: Ebanjelioetan Jesusen hautzaro-gaztaroekin gertatzen denaren antzera, Frantziskoren biografian ere asko da falta zaiguna, jakin ez dakiguna, isildua eta hagiografo bakoitzak bere erara nabartua; horregatik, historia kritikoak sarritan aditzera eman ohi duen eszeptikotasuna (adibidez, Merlo 2005: 16-18). “Arazo frantziskotarra” deitu denaren parte da hori dena; horregatik da premiazkoa ahal duguna finkatuz joatea, hainbat albiste ziurtagarria baita.

1.2. Asis jaioterria, gaur eta iraganean

Gaur egun Asis-era hurbiltzen den erromes edo turistak bi puntu paregabe ditu herri osoa begiratu bakarrean besarkatzeko: bata, herriaren oinetan zabal-zabal ageri den lautada, eta bestea, Subasio mendiaren maldan bizkartzain gisara ageri den La Rocca gaztelua.

Lautadatik begira, ezker-eskuin, herrigune zabala ageri zaigu: lehendabizi, ezkerretara, nabarmen eta garbi “San Frantzisko” eliza-komentuak, bertako bi elizak, kanpandorrea eta, tartean gordeta, ondoko plazak. Eraikin hauek eta bistan diren arkupeak atzeko malda pikoari eusten diotela ageri dira.

Berehala datoz, herriko etxe apalak, jauregi zaharrak, elizak, han-hemen kanpandorreak, huts-tarteren bat edo beste, eta guztien gainetik La Rocca, boteretsuen gotorlekua. Bertatik begiratu nahi badugu, oinetan ikus daiteke herri osoa, maldan beheara: pinudi eta zuhaitzen tartetik barruntatzen ditugu eraikin-teilatuak, etxebizitza, karrika, eliza, plaza eta enparauak: denak elkar-trabatuta, elkarri eusten baleude bezala.

Etheen gainetik gora San Rufino katedrala, Herri-Kapitainaren Jauregia bere Dorrearekin, hor dago Chiesa Nuova-ko kupula linternaduna, Sta. Chiaren basilika-monasterioak ere, eta Gotzaindegia...

Hau dena ikustekoa da, baina San Frantziskok ez zuen ezagutu hori guztia, hain zuzen, bera zela-eta, hura hilda gero eraikitako franko baitago orain Asisen. Nola aldatu den Pietro di Bernardone aitaren etxe ondoko plaza, geroztik lasaitasun ederra duela!

Eta zer esan Frantziskoren egunetan eraikitzen ari ziren San Rufinoko fatxadaz? Non dago, ordea, Frantziskok ezagututako San Jurgi, harresietatik at zegoen hura eta Santuaren gorpua aldi batez gorde zuena? Ez dago San Jurgirik, Santa Klararen elizak hartu baitzion lekua (1257-1265).

1230etik aurrera zerbait zinez handia eraiki zen Asisen: “San Frantzisko”, handia, ederra, aberatsa, eta “Pobretxoak” ezagutu balu, segur aski kopetilun begiratuko zukeena; baina hortxe dago, agintariekin, herritarrek eta fraideek halaxe nahi izan zutelako.

Herritik lautadara gatzela, badago Frantziskok maitekiro bisitatuko lukeenik, zerbait itxuraldaturik izan arren: bere betiko lekuan, San Damian, txukun; baina Santuak “Dama Pobreak” deitzen zituen klara-tarrak ez daude jada bertan, eta Frantziskori mintzatu omen zitzaion Gurutziltzatua Sta. Klara basilika berrira eraman zuten. Anaia fraideek zaintzen dute orain San Damian.

Lautadara jaisten ari garela, badirudi beneditarrek Frantziskori eman zioten “sail txiki” hura desagertu dela (*Porzioncola* deitzen zutena); baina, tira, espero ez genuen lekuan aurkituko dugu San Frantziskoren kaperatxoa, aterpe onean, gorde-gordeta, eliza erraldoi baten barruan: 1569-1679 urteetan jaso zuten Aingeruen Andre Mariaren Basilika berri hau, hain zuzen Portziunkulako kaperari estalpea emateko.

Frantziskoren egunetako harresi barrukoa gaurko herrigunearen perimetroa baino aski hertsia goa zen. Geroztik, Asis-en hegoaldea osorik aldatu da,



Asis: San Rufino katedrala. Frantziskoren bizialdian ari ziren eraikitzen asistarrak Katedral hau (1140-1253).

herriguneak ibar-aldera egitean, La Rocca-k, aldiz, betikoan iraun duen bitartean. Gaurko Asiseko albiste historiko eta topografiko ugari bilduta du Uribe-k (1990), eta garai hartako gizarteaz esan beharko dugu zerbait.

Frantziskoren bizialdiko Asisko Udalerria ez zen murrueen barruan zegoen erdigunea bakarrik, baizik eta osorik eskualde kozkorra zen, bere lautada eta guzti. Guztiak 2.255 auzo-su zituen, familia banarekin. Udalerri zabal horrek 13.000ren bat bizilagun izan zitzakeen: lautadan %35, herriguneko muinoan %20 eta mendialdean %45 (Fz. Pinedo 2010: 213). Inguruko herri handia Perugia zen urte haietan, hain zuzen Asisen ondoan arerio politiko eta militarra suertatu zena. Hori gorabehera, Frantziskoren urteetan Asisek iraunaldi luzeko aldakuntza sozio-politikoak ezagutu zituen.

Spoletoko dukerrian zegoen konderria zen Asis, eta La Rocca hartuta 1160az geroztik Inperio Germaniarreko indarrek agintzen zuten herrian (Rapp 2000: 213-217), bertako zenbait familia aliatu zuela. 1177an Enperadore alemanak Konrad von Urslingen du Spoleten eta Asisen bere ordezkoko buruzagia, politiko-militarra, Perugiak Aita Santuen babesa edo bilatzen zuen bitartean. Dena den, sistema inperialaren barruan bazuen Asis-ek autonomia moduko bat, betiere, artean, hiriko familia gutxi batzuek kudeatzen zuten eskumenarekin.

Inozentzio III.a Aita Santuak, aukeratu eta berehala, bere eskumen politikoa zabaltzeko ahaleginei ekin zienean (1198), laster ikusi zuen asmo haiek zein abagune ekar zezaketen: Inperiotik Aita Santuen mendera pasatzea, beste gabe. Baina, herrian bertako tirabira sozio-politikoak gorabehera, asistarrak nahiago izan zuten, azken buruan, beren burua beren gisara gobernatu, nahiz eta 1198tik 1210era doan hamarkada pasatxoan, listar, gerra eta bakeakordioek ez zuten bide samurra izan Asisen.

Izan ere, herritarrak beren artean banatuta zeuden, gutxienez bi talde nagusitan bereizita: alde

batetik, *boni homines* deituak, herrian betiko jauntxoak zirenak, eta bestetik *homines populi* bezala izendatu ohi zirenak. Bakoitzak zituen bere jende armatuak. *Boni homines* haiek beren gazteluak zituzten, eta boterez eta ondarez ongi errotuak zeuden gizartean eta ekonomian; *contado* deituan (herri inguruko eskualdean) zituzten lur-sailak eta nekazariak, eta *militia* bat ere bazuten, Enperadorearen zerbitzuko, noski. Ez ziren sendi asko *boni homines* hauek (hogeiren bat), baina indarra ziren, eta gogorra, beren esanetara zituzten mendekoekin.

Homines populi zeritzenek, oster, jatorri sozial nahasiagoa zuten: lurrari ez hain lotuak, ofizio berrietako lagunak, artisautza bezala merkataritza eta finantzetara emanak, ekonomiako bide berrietan zailduak, lan berrietarako askatasuna zutenak, azkenean Italiako burgesia aurreratuko ekile ausartagoak. XII. mendearen hondarretan, *homines populi* asistar haiek gai ziren arma eta guzti beren interesak defendatu eta askatasun politikoa galdegiteko. Pietro di Bernardone, gure protagonistaren aita, bete-betean zen klase sozial honetakoa, eta hemezortzi-hogei urteko Frantzisko semea ere eroso aurkitu zen itzulinguru hartan.

Burgesia ekile hau hiritarra zen, beraien aberats bideak murre-barruetan zituztenak, beste *boni homines* haiek gaztelu, lur-sail eta sistema feudalari atxikiak ageri zaizkigun bitartean. Espazio eta erakunde-testuinguru ezberdinetakoak dira *homines populi* burgesak eta *boni homines* feudalak. Honela, Asisko herria erdibituta dago.

1198ko altxamendu herritar armatuak, bi xede izan zituen: aginte inperiala apurtu eta herriko klaseen arteko egoera zaharra irauli. La Rocca gotorlekua hartu eta desegin ahal izan zuten matxinatuek, eta *boni homines* asistarrak aspaldidanik arerio zen Perugiako hirian aurkitu behar izan zuten beren iheslekua eta aliatua.

Asisko altxamendu hark, bi hirien arteko berehalako gerrak, Collestrada-ko perugiarren garaipenak (1202,

azaroa) eta aurkakoen nolabaiteko bake bortxatuak (2003) ez zuten lortu garaiek eta herriko egoera sozio-ekonomikoak eskatzen zuten egoera berri iraunkorrik, Frantziskok, Perugiako presoaldia eta gaixoaldi bat iraganda, bere bide pertsonala aurkitu eta eratzen zituen bitartean (1204-1209). Asisen 1210eko Akordio historikora heldu behar izan zen, herria herritar guztiekin *comune* bihurtu ahal izateko.

Zer zen, ordea, Italian *comune* bat? Halakoak "Udallerriak" zirela esanez has gaitezke, Udallerria eta bertako Udala. Hortaz, hiria eta lurraldea; baina, batez ere, elkar-bizitza modu propioan eraturakoa, herritar guztientzat eskumen publiko berdinak zituen, nahiz eta diferentzia ekonomiko eta sozialak ez ziren ezabatzen. Beren gainetik ez dute jaun agintaririk nahi, eta *Podestà* edo Alkatea herritarrek hautatua nahi dute. *Podestà* herriko magistratu gorena zen, justiziaz, onezkoak egite lagunduko zuena, tartekaritza ofizialak egingo zituen, baina betiere kargua epe jakin baterako zuena. Horrela saihestu nahi izan ziren feudalismoak jasanarazitako bidegabekeriak, herritarren eskubide politikoa zabaldu eta segurtaturik, eta parte-hartze politiko orokorra bideratuta.

Comune haien sortzeko lehen oinarria herrietan elkarren laguntzarako eraturako Kofradia edo El-karte pribatuak izan ohi ziren, gehienetan: ermandadeak eta ofizio berekoen elkartasunak. Batak besteari laguntzeko zin-hitza egin ohi zuten horrela elkartzen zirenek. Halakoek premiazkoa ikusten zutenean, elkartuta *homines minores* deituen multzoa osa zezaketen, jarduera politikoari heldu, agintarien gehiegikeriei aurre egin eta bizi-modu libreagoa eratu.

Gerraondoan, 2003ko bi aldeen arteko hitzarmenak ez zuen gerrako zauria ongi itxi, benetan garaile eta garaituak ez ziren berdindu beraien eskubideetan: asistar errefuxiatu guztiek ez zuten izan Asisera itzultzerik; baina, horren ondoan, *homines minores populi* herritarrek ez zituzten eskuratu Udalerako espero zitezkeen eskumen politikoak.

1210ean, bada, "Pax et Concordia" itunak samurtu eta ezabatu behar izan zituen ezinegonak, erabaki berrien bidez aurreko eskasiak nolakoak izan ziren erakusten zituela. Handik aitzina, 1172-1173 aurretik Asisen bizi zirenak betebeharrak eta zerbitzu feudaletatik aske izango ziren udallerri osoan, dirukopuru edo ondasun batzuen truke; gainera, bi aldeek (*maiores / minores*) elkartasunean jardun beharko dute, herri osoaren onerako; bestalde, Udalaren subiranotasuna aitortzen da, eta Udalak osorik eta bakarrik bere gain hartzen ditu edozein jaunekiko harremanak eramateko eskumena, dela Aita Santua, dela Enperadorea; azkenik, Udala izango da segurtasun eta bakearen begiralea. Horrela sortu zen Asisko *comune* edo Udala eta Udallerri ez-feudala, Aita Santuekin harreman onetan, bere nortasun politikoari eutsiz, eta biztanlezkora egiten zuela, nonbait.

Frantziskotartasunak ekarriko zuen goraldiaren aurretik ere, Elizaren presentzia garrantzizkoa izan zen Asisen XIII. mendeko lehen hiru hamarkadetan, bere San Rufino katedrala zuelako (kalonje eta guzti), berorren zerbitzu erlijioso eta ondasun mota ezberdinekin. Ezagunak ditugu lehenagotik zetozten herriko hainbat eliza, handi eta txiki (kapera eta otoiztegi), eta orduan bertan egiten ari ziren erakuntza berri edo zaharberrituak: elizgune apalagoen artean ditugu San Pietro, San Paolo, San Stefano edo San Gregorio de Murorupto, eta nagusietan, berriz, bost handi behintzat: San Frantzisko, Chiesa Nuova, San Rufino katedrala, Sta. Maria Maggiore, Sta. Chiara (San Jurgi).

Horrela, herrigunekoak ez dira gutxi, baina Aingeruen Andre Mariarena gehitu behar da, beheko haranean, eta Udallerriko mendialdean bi eremitorio: Le Carceri eta Rivo Torto. Gaur hilerria den San Paolo delle Abbadesse (Bastia), moja beneditarrena, Sant'Angelo di Panzoko penitentziagileen egoitza bezala, ez dira ahaztekoak, Klarari eman zioten babesagatik ere (1212).

Esanahi historiko nabariagoa izan zuen, San Benedetto al Subasio-ko monasterio beneditarrak, honek utzi baitzizkion Frantziskori Portziunkulako ermita eta etxola, bere sailarekin¹⁰; hain zuzen, monasterio honek bere loraldia XIII. mendean ezagutu zuen, inguruetakoko eliza, ospitale, kapera, lur-sail anitz eta bertako jopuak bere eskumenean zituela. Ondasun eta esbubide horiek denak Asisko Udalerriko ekonomiarene parte ona ziren, San Rufino katedralaren ondarearekin batera. San Frantziskok ezagutzen zuen, noski, egoera hori.

Herri eta eskualde horietatik, gizaki ibiltari eta unibertsal izan zen Frantzisko, jaiotzez eta bizitzaz, iseka egin ziotenean eta, halaber, zeru gorenera jaso zutenean. Asisen jaio zen, eta bertan hilko zen.

1.3. Gerra eta bake artean

Gizarte horretan eta gatazka eta irtenbide horien artean bizitzea egokitu zitzaion Frantziskori, “munduko” bizieran zela (1198-1205), eta ondoren ere bai, oso bestelako gisa batean, “Anaia Txiki” bezala, eskale eta predikari zebilela, eta orobat otoizlari, “leku” eta elizatxoetan¹¹.

Liburu honetako bi protagonista, Frantzisko eta Klara, une honetako politikak eta liskarrek kolpatuta ikusten ditugu: Klara-ren sendia errefuxiatu gisa Perugian aurkitzen dugu, asistar *boni homines*



Iruñea: San Frantziskoren irudia, izen bereko Plazan (1926), Hiriko frantziskotarren presentzia historiko ezberdinak gogorarazten dizkigula

erbesteratuen artean. Asisen, 1198ko errebolta herritarraren ondoren Frantzisko une batez *homines populi* garaileen artean dago, beti prest Perugiara ihesi joandako asistarren kontrako gerrara joateko (1200eko urtarrilean).

Frantziskoren sendia ez zen arrotza izan jazoera politiko eta armatuaren aurrean. Badakigu aitaren kofradiak edo klaseak armak eskuetan zituela jada gerrarako. 1198-1203an hasi zen bizitzen gaztea borroka sozial ankerrenaren esperientzia, bere tenperamendu biziarekin eta garaiko zalduneriaren ametsekin.

Alde batetik, Asisko gizartea gerra zibil batean sartu zen (1198), biztanleak bi alderditan banatzen zirela; bestetik, Asis eta Perugia bi hirien arteko gerra dago, izan ere aspalditik ziren arerioak, eta aukera zuen orain bakoitzak oreka politiko hobeturen bat lortzeko. Asisko errebolta herritarraren aurkako Perugiaren aliatu onenak Asistik ihesi

¹⁰ <http://www.iluoghidelsilenzio.it/abbazia-di-san-benedetto-al-subasio-2/>

¹¹ Motte, I. E., 1975, “Se llamarán Hermanos Menores”, in: *Selecciones de Franciscansmo*. 12, 1975, 274-280. <http://www.franciscanos.org/-espiritualidad/MotteI-SeLlamaranHermanosMenores.html>.

etorritakoak dira. Han ere armak prest daude, eta gerrara doaz.

Horri aurre egin behar izan zitzaion, eta Frantzisko bere herritarrekin batera (*minores*) armak hartu eta *comune* berriaren defentsaren alde atera zen. Zen-

Ez zen hori aurreikusita zuena, baina jakin zuen umore ona ez galtzen, eta ahal izan zuenean lagun arteko giroa gozatzen. Honela kontaktzen digu Zelanok, bere ukitu hagiografikoarekin:

Perugia eta Asis hirien arteko gerran triskantza handi samarra izan zen, eta Frantzisko preso erori



Asis: *Rocca Maggiore* deituriko gazteluarekin. Berau izan zen Udalerriaren (*comune*) askatasun herritarra irabazteko eskuratu behar izan zen gotorlekua.

bait talka gaiztoren ondoren, Collestrada-ko gudua jo zuten, San Giovanni zubiaren ondoan; ez, behar-bada, gudu handia, baina bai aski asistarrak garai-tuak izateko, haietako multzo bat atxilotu eta preso eramateko. Hauen artean zegoen Frantzisko, eta etxera itzultzerik ez zuen izan, Perugian eman zioten ostatu, bertako espetxean. 2002ko uda edo azaroa izan zitekeen.

zen beste askorekin batera, eta giltzapeturik espetxeko miseriak jasan zituen. Kartzela-lagunak tristurak jota zeuden, euren zoritxarreko gatibutzaz aieneka; Frantzisko, berriz, Jaunarekin alaitzen zen, katei irri eta mespretxu eginez.[...].

Atxiloturiko lagunaren artean bazen zaldun harro bat, guztiz eramanezina. Beste guztiek hura baztertzea erabaki zuten arren, Frantziskok

pazientziaz eraman zuen beti. Jasanezina jasaten du eta beste guztiak harekin bakeak egitera erakartzen. (2 Zel 4).

Urtebete luzatu zen Perugiako hura, harik eta 1203ko azaroan Asisko bi alderdi kontrajarriek (garaile eta galtzaile) akordio batera heldu ziren

marra beltzez deskribatu zuten gaztearen gaixoaldi hau, hiltzear egon zela adieraziz. Sukar handiak izan zituen, eta amets gaiztoak, itogarriak. Sendatzean, mundu ederraren bila irtenda, itxuraldaturik topatu zuen paisaia bera ere:



Asis: Subasioren oinetan segurtasunak zainduz

arte; esan izan da, gainera, aitzak ez ote zuen diruren bat jarri Frantziskoren erreskate-ordaina eskaintzen zuela. Hitzarmen politiko hura behin-behineko konponketa izan zen, betiere Asisko herriaren etorkizuna baldintza gatazkatsuan uzten zuena; mehatxu eta ahuleziaz betetako tregoa zen.

Presondegitik zekarren eritasunak edo halaxe suertatu zenak trantze txarrean jarri zuen Frantzisko, jada jaiotetxean zela, familian. Biografoek oso

Gaixoalditik zertxobait susperturik, makila baten laguntzaz etxean batera eta bestera ibiltzen hasi zen indarrak berreskuratzeko. Egun batean kanpora atera zen eta inguruetara arreta biziagoz begiratzen hasi. Baina soroen edertasunak, mahastien atseginak, edozein ikusgai ederrek, ezerk ez zion plazerrik eman. Harrituta zegoen bere baitan izandako bat-bateko aldaketaz, eta ergeltzat jo zituen gauza horien maitaleak (1. Zel 3-4).

Bilaketa-ahalegin baten hasiera izan zitekeen gaixondo hura, baina indar berritzearekin bateratsu ireki ziren amets berrietarako gogoak ere, hainbat herritarren artean ikusten baitzen ahalegin berrietan saiatzeko gogoak, jakinik arriskuen artean ere suertatzen direla aurrera egiteko aukerak. Amets egiteak bere indarra zuen, hain zuzen, zalduneria hain abestuen pasadizoetan, eta gerlariak eta gerrek beren publizitatea zuten juglareen *sirventés*-etan, hau da, okzitanieraz gai moral eta politikoe-tarako ohikoak ziren bertso-kantuetan.

Italia gerra txiki eta handi ugariren lurraldea zen, eta halakoetan Okzitaniako doinuak han ere lagun-du ohi zuten. Nork daki Pugliarako Aita Santuaren deia Asisera heltzean, Frantzisko ez ote zuten kantu berriak erabakiak hartzera sustatu. Are gehiago, gurutzada hartarako herriko jaun zaldun bat bere taldea osatzera zihoala jakitean. Kutsu hagiografikoa duten pasarte hauek ematen digute horren berri:

Egun haietan, hain zuzen, Asisko zaldun bat arma prestaketa handiak egiten ari zen: ospe hutsalaren haizeak puztuta, bere gudataldea Pugliara eramatea erabaki zuen, dirua eta ohorea irabazteko asmoz. Honen berri jakin zuenean, Frantziskok, buruarin eta arras ausart zenak, espedizioan parte hartzeko tratua egin zuen harekin (1. Zel: 2, 4).

Baina historia honetan, garaiko ohiturei jarraiki, badakigu ametsen bidez etorkizuna eskueran izatea ere gerta zitekeela. Begira, bada, zer gertatu zitzaion:

Ezkutari bat lagun harturik, zaldi gainera igo eta Pugliako lurraldera abiatu zen. Bere ibilaldiaz beste ardurarik gabe, Spoleto hirira heldu zen. Gaua egin zenean, lotara erretiraturik, erdi lotan zegoela, nora joan nahi zuen galdetzen zion ahots bat entzun zuen. Hark bere asmo guztiak zehatz-mehatz agertu zizkion. Orduan, ahotsak esan zion: «Nork egin diezazuke on gehiago, nagusiak ala morroiak?» «Nagusiak» erantzun

zion. Eta ahotsak: «Zergatik, bada, morroia aukeratu nagusia utziz, eta mendekoa printzea utziz?» Frantziskok, orduan: «Jauna, zer nahi duzu nik egitea?». «Itzul zaitez zeure jaioterrira, erantzun zion ahotsak, eta bete Jaunak agertuko dizuna». Eta bat-batean, Jainkoaren grazia-ren indarrez, gizon berri bihurtu zela iruditu zitzaion. (PerAn 1, 6).

Nahiz eta Freud-ek ametsei buruzko hainbat irakaspene eman zigun, gaur egun harritu egiten gara oraindik ametsei halako eragin erabakigarria aitortzeaz. Hala ere, historia zaharra da hori eta ez Mendebaldeko kulturetan bakarrik¹², eta behin eta berriz topo egingo dugu orrialde hauetan ametsak gizakien bizitza eta etorkizuna moldatzeko izan zuten zerikusiarekin. Ametsen interpretazio erlijiosoak Frantziskoren bizitzan leku nabaria du, eta Erdi Aroko historian nola begiratu izan ziren jakitea ongi etorriko da.

Grazia klasikoan, Platon edo Aristoteles saiatu ziren ametsen izaera eta esanahia aztertu eta ulertzen; Erromako Antzinateak ere horrelakorik izan zuen, eta Zizeron eta idazle erromatarrek beren iritziak eman zituzten ametsen balioari buruz; horren guztiaren ondotik, kristautasunak ikasi zuen zerbait aurreko tradizio hartatik¹³.

Gregorio Handiak (c. 590) hiru motatako ametsak bereizi zituen: gose edo janak sor zitzaizutenak, deabruak eragindakoak eta, azkenik, Jainkoagandik zetozenak. Beraz, horren arabera, Erdi Aro kristauan ametsak aintzakotzat hartzekoak ere izan zitezkeen, eta hala gertatu zen ondoko mendeetan (Le Goff 1999: 950-968).

Frantzisko jaio baino lehentxeagotik, XII. mendean hasita, ametsei buruzko teoria kristauak indar berria hartu zuten. Gogorarazi daitezke hemen

¹² Literatura islamiarra aberatsa da ametsei buruzko gai honetaz.

¹³ Klauck, H.-J., 2012, *L'environnement religieux gréco-romain du christianisme primitif*. Paris: Cerf. 225-230.

orduko idazlan hedatu batzuk, bere autore eta izenburuekin: Paskal Erromatarra-ren *Liber thesauri occulti* (1165); Hildegard Bingen-ekoaren (†1179) *Causae et curae*; Joanes Salisbury-koaren (†1180) *Policraticus*.

Leon Tocan-ek (Leo Tuscus, latinez), tradizio arabi-
arreko Achmet-en oniromantzia (ametsen historia
eta praxia) itzuli zuen Konstantinoplan, hau da,
ametsen bidez etorkizuna antzemateko jakitateaz
ziharduena: *De interpretatione somniorum* (1177).
Zistertar batek, Alcher Klarabalekoak († c. 1180)
definitu eta finkatu zituen ametsen azterketarako
metodoak, bere *Liber de spiritu et anima* idazkian.
Caesarius Heisterbach-ekoak *Dialogus magnus visi-
onum ac miraculorum* (1219-1223, ikuskari eta
mirarien elkarriketa nagusia) gehitu zion horri.
Honela, bada, garai haietako ezagutza jakituna eta
herritarra besoz beso doaz elkarrekin, jakintza-
liburu hauetako lorpenen ondoren.

Ikusten denez, idazlanetariko asko Frantzisko jaio
baino urte gutxi lehenagokoak dira. Ez dut uste
Frantziskok obra horiek ezagutu zituenik, baizik eta
herritarra da haren ametsekiko ustea, ondoren
beraren bizipenen arabera garatu zena.

XIII. mendeko Teologiak arduraturik begiratzen
zituen ametsen egia eta fidagarritasuna (Albert
Handia), eta beraien osagarri bezala Ebanjelioetan
ausaz bilaturik haien esanahia ziurtatzearen bidez-
kotasuna. Tomas Akinokoaren edo San Bonaven-
turaren arabera, ametsek diotena Eskritura Santuen
argitan segurtatu behar da. Horrela, bada, amets
batzuk mundu erlijiosoarekin loturik geratzen dira,
eta etorkizuneko gertakarien aurreikuspenentzat har-
daitezke, nahiz eta betiere ametsen sorrera-izaera
ongi begiratu behar den.

Erdi Aroko ametsena historiografia egunekoan
aztertu berri du (Le Goff 1999: 950-968; Schmitt
2002: 241-315). Amets kontutan, Frantzisko ez zen
izan inolako salbuespena, eta esandako honek
berdin balio du Frantziskoren beste une batzuetako

jokabidea ulertzeko. Testuinguru horretan (eta erli-
jotasun herritarrean areago), Frantziskok eta bero-
nen ondoko hagiografiek baliozkotzat hartu
zituzten amets-mota batzuk, eta bizitzarako bila-
keta-tresna gisara begiratu. Spoleto-ko amets eta
ahotsa ondoko pausoetan Frantzisko aurrera bul-
tzatuko dutenak izango dira.

Ametsei buruz hori guztia esanda, bestelako
mundua da Erlijio handietan eta Kristautasunean
ere ageri zaizkigun bizipen mistikoena, beren feno-
menologia eta historiarekin ageri zaiguna. Gure
Euskal Herrian eta euskaraz, XX-XXI. mendeetako
gertaera kultural estimagarriak daude eremu hone-
tan. Esaterako, Ama Sorazu zumaia-aren idazlanak,
gaztelaniaz (1924)¹⁴, eta Markinako karmeldarrek
beren Eskola Mistikoaren euskal itzulpenak: Jondo-
ni Gurutzekoa, Teresa Avilakoa, Teresa Lisieux-koa
(1990-2015)¹⁵.

Eta gatozen gurera. Puglia-rako prestakuntza eta
joan-etorriak 2005eko apiril-uztailetan gertatu ziren,
eta alferrikako zeregin haien ostean, zerbait berria
hastera doa gure gaztearen bizitzan, 22ren bat urte
dituela. Aldaketaren lehen keinua, soinean eta
ondoan daramatzen jantzi eder, arma garesti eta
zaldia Folignon saldu eta jasotako diruak, lehenik,
San Damian konpontzeko utziko ditu eta azkenik
zertarako garbirik gabe bazter batean geratuko dira.

Artean oraindik, txirotasunaren esanahi kristaua
ulertzera heldu gabe, segur asko; baina, bai,
horretan ere pobretasunaren ulerpen-aro bati

¹⁴ Sorazu, A., 1924, *La vida espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo*. Valladolid: Impr. Casa Social Católica. Sorazu, A., 1929, *Vida de la R. M. Angeles Sorazu*. Valladolid: Impr. Casa Social Católica. (Ed. Nazario Pérez). Villasante, L., 1950, *La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu, Concepcionista Franciscana (1872-1921)*, *Estudio místico de su vida*. Arantzazu: EFA. Euskaltzaindiaren: http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/villasante/dokumentuak/18.pdf. Villasante, L., 1990, *Angeles Sorazu. Bizia eta mezua*. Donostia: Erein.

¹⁵ Karmel argitaldarien *Katalogoa*: http://www.karmelaldizkaria.eus/katalogoa.php?pag=kat_liburuak&PHPSESSID=mo1483uu0cj5fd8t7r6trnbqo1.

hasiera ematen diola (Mollat 2006: 129-152)¹⁶. Etxera iristean ikusi beharko du, aitaren negozioan jarraitu ala bestelako bizibideren bat hautatu, alferrikako gastu haiek zertan geratu diren jakin nahiko baitu aitak ere; baina Frantziskok ezin ulertuak bere buruarekin ditu batik bat

Hagiografoei jarraiki, badakigu 2005eko abuztuaz geroztik zein bizimodu daraman: ordura arteko biziera lagata, eta bihotz-berritzea aitzina doala, bakardaderako joera du, baina monasterio edo antzekoetara jo gabe, eliza eta kaperatxoetan otoitzera emana, pobreei limosna banatuz eta elizguneetara biltzen dela. Egia esan, herriko lagunartetik ihesi dabil, bere buruari zer izan eta zer egin galdetuz.

Bihotz-berritzearen ibilian, une eta izaera ezberdineko gertakariak pilatu ziren. Aurrera baino lehen, Uribe iradoki dituen sei unetan epeka dezakegu ikusiz joango garena: 1) Bere baitako barne-aldaketa. 2) Pobreen topaketa. 3) Legendunekin aurkitzea. 4) San Damiango otoitzaldia. 5) Ebanjelioaren irakurketa. 6) Anaian arteko elkarbizitza¹⁷.

Aurrera egiteko, beregan dituen burutazio eta sentimenduak argitu beharko ditu, lehenik. Eta bere gogoaz argitzeko, erromesaren bakardadea hautaturik, Erromarako bidea hartu zuen 2005eko udazkenean (aste beteko ibilaldia zen hori, oinez). Zelanok eta San Bonabenturak, biek, jaso zuten erromesaldi honen albistea:

Behin erromes joan zen Erromara, eta pobretasunaren maitasunagatik bere jantzi finak kendu

eta pobre batenak jantzirik, pozik eseri zen pobreen artean San Pedro elizaren atarian (pobre asko biltzen baitzen han) eta, bere burua haie-takotzat hartuz, gogotsu jan zuen beraiekin. Sarriago egingo zukeen hau, baldin eta jende ezagunaren lotsak galarazi izan ez balio.

Apostoluen Buruaren aldarera hurreratu zenean, erromesek egiten zituzten limosna kaskarrengatik harrituta, eskua bete diru bota zuen. [...].

Sarritan ematen zizkien eliz jantziak apaiz pobreei ere, guztiei zor zitzaien begirunea erakutsiz, baita maila apalenekei ere. Honela, apostoluen mezua zabaltzeko eginkizuna hartuko zuenak, fede katolikoarekin guztiz leial, Jainkoaren ministro eta hauen ministerioarekiko begirunez betea agertu zen hasieratik. (2 Zel 4, 8).

Garai hartan debozio santuz San Pedoren hilotia bisitatu zuen. Eliz atarian behartsu-multzo handia ikusirik, bai errukiaren gozotasunak eta bai pobretasunaganako maitasunak eraginda, haietan behartsuenari bere jantziak luzatu zizkion eta, haren zarpailak soinean, egun osoa pobre haien artean eman zuen berebiziko barne-pozez beterik. Horrela, munduko ospea gutxietsi nahi zuen eta apurka-apurka Ebanjelioko perfekziora iritsi. (LeLu 1,6).

Hiri Santuan Erromako pobreen bizitza ezagutu zuen, beraz, eta Elizaren hango egoera barruntatu; bizipen berrietarako prestaturik itzuli zen Asisa.

1.4. Legendunen artean

Konbertsioaren bilakaeran eta finkatzen ari zen bizimodu berrian, legendunen presentzia erreplikatu eta indartuz joan zitzaion Frantziskori. Hiru Lagunak dira zertzelada xehez legendunekin harremana nola hasi eta aldatzen joan zen azaltzen di-gutenak, aldi berean Jaunaren deia eta eskea zeintzuk izan omen ziren aditzera emanda:

¹⁶ Paul, J., 1980, "La pobreza franciscana", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 27, 1980, 387-396. Gaur eguneko gogoetatik azalpenak: Todeschini, G., 2004. *Ricchezza francescana, Dalla povertà volontaria alla società di mercato*. Bologna: Il Mulino. (Frantsesez: ID., 2008, *Ricchezza francescaine. De la pauvreté volontaire à la société de marché*. Paris: Verdier).

¹⁷ Uribe, F., 2001, "El proceso vocacional de Francisco de Asís. Los seis encuentros que determinaron su vida", in: <http://www.franciscanos.org/formacion/uribe.htm>. Iriarte, L., 1975, "La vía de la conversión en San Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 11, 1975, 181-190. <http://www.franciscanos.org/selfran11/iriarte.html>.



Garai bateko Rivo Torto apalak (Asis) honelako eliza ederra du orain, sorrerako oroitzapenak gordetzeko.

Frantzisko Jaunari kartsuki otoitzean ari ziztzaion batean, erantzun hau jaso zuen: «Frantzisko, beharrezko duzu lehen giza erara maite eta eduki nahi izan duzun guztia mesprezatu eta gorrotatzea, nire nahia ezagutu nahi baduzu. Horrela egiten hasi ondoren, lehen gozo eta leun iruditzen zitzaizuna, jasanezina eta samina egingo zaizu, eta lehen latz egiten zitzaizun hartan gozotasun handia eta neurrigabeko leuntasuna aurkituko duzu».

Hitz hauekin pozturik eta Jaunarengan indarberriturik, Asis inguruan zaldiz zebilen batean, legendun [lepradun] batekin egin zuen topo

bidean. Legendunenganako nazka betikoa zuen arren, bere buruari gogor eginez, zaldi gainetik jaitsi eta txanpon bat eman zion, eskuan muin eginez. Legendunaren bake-besarkada hartu ondoren, berriro zaldi gainera igo eta aurrera jarraitu zuen. Ordutik aurrera bere burua gero eta gehiago mesprezatzan hasi zen, Jaunaren laguntzari esker bere buruarekiko erabateko garaipena iristeraino.

Egun batzuk geroago, dirutza handia hartu eta legendunen etxera joan zen, eta, denak batera bildurik, limosna bana eman zion bakoi-tzari, eskuan muin eginez. Handik itzultzean,



Rivo Torto: Frantzisko legendunarekin

lehen benetan samin egiten zitzaiona, legendunak ikustea eta ukitzea alegia, gozotasun bihurtu zitzaion.

Izan ere, berak zioenez, hain samin egiten zitzaion legendunak ikustea, ez baitzen haien bizilekuetara hurreratu ere egiten. Errukiak eraginda beste norbaiten bitartez haiei limosna egiten bazien ere, aurpegia bestaldera jira eta sudurra tapatzen zuen eskuekin. Baina Jaungoikoaren graziari esker, legendunen lagun eta adiskide egin zen eta, bere Testamentuan dioen bezala, beraiekin bizi zen eta apalki zerbitzatzen zituen (HLaLe 11. lk. 1 Zel 17; 2 Zel 9).

Hiru Lagunek emandako lekukotasun horren ondoan, Frantziskok berak Testamentuan aitortzen digunaren arabera, bat-batean giza izaeraren mugatasuna agirian jarri zitzaion une hartan: ez gara geure buruaren jabe, eta zernahi ezbeharrek honda gaitzake, gaixotasunak nahiz beste aldartek. Azken segurtasunak beste nonbait bilatu behar ditugu, eta bilaketa horrek konbertsioa eskatzen zuen, balio-sistemaren aldakuntza:

Jaunak honela eman zidan niri, anai Frantziskori, bihotz-berritzen hastea. Bekatutan nengoe-la, oso samina gertatzen zitzaidan legendunak ikustea. Baina Jaunak berak eraman ninduen haien artera, eta errukiz tratatu nituen. Eta bekatuetatik aldentzean, samin zitzaidana gozo bihurtu zitzaidan gorputz-arimentzat. Eta handik alditxo batera, munduko bizieratik atera nintzen (Test 1-3).

“Munduko bizieratik atera nintzen” zioen Frantziskok, “mundu” terminoak penitentziagileentzat zuen esanahi kritikoa gogoan zuela. Jada Testamentuko pasarte horren aurretik idatzitako bi Erregeletan (1 Er 14; 2Er 3, 10-14) aditzera emanda zeukan Frantziskok “mundutik” irtetea biziera berriak nolakoa izan behar zuen, eta nolakoa nahi zuen anaia txikien jokabide berria, betiere frantziskotartasunean “mundu” terminoak aditzera emango zituen alde onak ere gogoan hartuta¹⁸.

Beraz, topaketa pertsonala ez da bakarrik izango bi lagun arteko besarkada edo musuaren pasaerako anekdota iragankorra, baizik eta errealitate sozialarekiko konpromiso iraunkor bilakatu zitzaion bat-batean (legendunen “haragi ustelak garbitzen” jarrita eta “guztiei bere zerbitzu arduratsua eskainiz”).

¹⁸ Dijk, W. C., 1980, “San Francisco y el desprecio del mundo”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 27, 1980, 334-344. <http://www.franciscanos.org/historia/VanDijkWC-SFcoYEIDesprecioDelMundo.htm>.

Eta ondoko beste pauso bat dator, kasu honetan Anaiartearen bizitza ukitzen zuena: 1. Erregelak ere jasota du legendunekiko anaien espiritualitate eta politika Frantziskok nolakoak nahi zituen, Anaiartearen legendunen artatzaile bihurtzeraino. Irizpide praktikoko batez, legendunen ospitaleak eskola bihurtu ziren fraidegai zetozenentzat, haien artean lan egin eta haiekin biziz, eguneroko jardunean (hori ere: “eginbide santu, zuzen eta onesta” baitzen guztientzat). Gainerako arautegia gorabehera, Anaiarteko arauetan legendunen aldeko harreman-irizpideak eta haiekiko portaera emanda geratu ziren:

*Hala ere, anaiak eska dezakete legendunentzat limosna, hauen premia nabaria denean (Er 8, 10). Eta poz hartu behar dute, jende baxu eta mespretxatuarekin, behartsu, ahul, gaixo, **legen-***

*dun eta bide-bazterretako eskaleekin batera bizi izateaz. (1 Er 9, 2). Egunez, berriz, lanean zekite-nek beren eskuez egiten zuten lan, **legendunen etxeetan** edo beste leku egokietan, guztiei apalki eta begirunez zerbitzu eginez (1 Zel 39).*

*Ordenaren hasieran, **anaiak legendunen etxeetan** haiek zerbitzatzen egotea nahi izan zuen, bertan apaltasun santuaren oinarria jar zezaten. Eta Ordenara zetozen noble nahiz xumeei, beste gauzen artean esaten zitzairen, **legendunak apalki zerbitzatu** behar zituztela eta haien etxeetan bizi, lehenengo Erregelan agertzen denez (Perlsp 44).*

Orokorrean, behartsuak bertako inguruan ditu Frantziskok, herrian eta bailaran, baina behartsuen



Rivo Torto: bertan atondutako otoitz-lekua

artean legendunak gizarterik gabeak ziren gainera, edo gizarte kristauak baztertu eta deserriratuak, maite zituztenek ere albora utziak. Esango genuke kasik gizatasuna ukatzen zitzaizela, erabaki horrek erritual liturgikoan bere lekua zuela.

Diagnosi oker askoren emaitza zen garaiko legendunen lagunarte eria. Legena eta legenarra (berau *mycobacterium leprae* baziloaren legen beltza) nahiz azaleko eritasun kroniko gaizki antzemanak hartu ohi ziren legen edo legenarra bezala (dermatosi mota oso ezberdinak, denak nahasita), eta guztiei garaiko osasun-lege sozial eta eliztarrek ezartzen zitzaizkien. Legenaren definizio mediko, juridiko eta gizartekoak zailtasun nabariak zituen, artean.

Eliz arauak haien alde hamaika eginahala egin zuten arren, Testamentu Zahar eta Berritik zetozen aurreiritzi eta oroitzapen erlijiosoek, trabarik franko jarri zuten, halako arazo larri eta handi bati modu eragingarrian erantzuteko. Gizarte pobre eta ezjakinegia zen Erdi Aroko hura behar zen tamainako erantzuna eman ahal izateko.

Horrezaz gain, esan ere esaten zen, legena eta legenarra bekatuan zigorra ere izan zitezkeela; hortaz, sendagile adituei ez ezik apaizei ere eman zitzaien legendunen osasun-egoera epaitzeko zeregina. Testamentu Zaharrean Lebitarrenetik hasita (13. atalburu osoa), diagnosia egiteko ardura apaizena zen, eta berauek gorde beharko zuten prozedura xeheki adierazita zegoen Eskritura Santuan. Azkenik emango zitzaion trataera esanda dago (13, 45-46).

Nazareteko Jesusen bizialdian legena hedaturik ageri zaigu Palestinan, Ebanjelioak ere egoera horren lekuko dira, eta argigarri da zein izan zen Kristoren jokaera eritasun harekin topo egitean. Ahaztu gabe, gizarteko beren biziera segurtatzeko apaizengana joan eta legezkoak bete zitzatela esaten zien Jesusek sendatzen zituen gaixoei.

Jesusek ongi aintzakotzat hartu zituen bere sorterriko legendunak. Lehen lagunak bildurik zitue-

larik, oharpen hauek eginez bidali zituen garai berrien mezua zabaltzera: "Senda itzazue gaixoak, biztu hildakoak, garbitu legendunak, bota deabruak. Doan hartu duzue, eman doan" (Mt 10, 5-8). Mateok gogorarazten digu, Jesus-ek esan zuenez, legendunak sendatzea Mesias-en etorreraren seinalelako bat zela (Mt 11, 4-5); hori zen judutasunean ere uste zena.

Jesusek maitatu eta osatu egin zituen legendunak; baina gizarteak (kristauak ere) legenaren azken arrazoiak bekatuan ikusteko joera izan zuen, eta halako ezbehar kutsakor eta arriskutsuaren aurrean ez zen lortu garaiko gizartean benetako oreka orokor osorik.

IV-VII. mendeetan, garaiko teologo kristau handiek (Anbrosio, Agustin, Gregorio Handia edo Isidoro Sevillakoak, adibidez), Bibliako pasarteetatik ekin eta gaixotasunari buruzko interpretazio alegorikoak ematen hasi ziren, bekatu eta eritasunaren arteko loturak aipatzen zituztela.

Geroago, uste izan denez, Gurutzadekin Mendebaldeko legendunak edo legenardunak (Hansen-en baziloak jotakoak) biziki ugaritu ziren (XI-XII. mendeetan), horrek ekarri zituen ondorio guztiekin: neurri profilaktikoak, gaixoen bazterketa, legen-ospitaleak, arazoaren ideologiazioa, etab.

Haienezako San Lazaro edo Madalenaren bizileku eta ospitaleak ugaritu egin ziren, nabarmen; legendunen gorputzak zaindu egin behar ziren, denen onerako eta gogoan izanik, hain zuzen, arimak ere "bekatu-legenetik garbitu" behar ziren bezala, garaiko hizkera erabiliz esateko (Manselli 1997a:44-46).

Oroitzapen hauek balio digute Frantziskok legendunekiko izan zuen jarrera berria hobeki balioesteko. Spoleto haranean ez ziren gutxi legendunentzat jarritako ospitaleak, eta horien arteko bat Portziunkulatik bertan zegoen San Salvatore delle Pareti. Hortaz, Frantziskok bazuen legendunak non zerbitza (Uribe 1990: 108-112).

Konbertsio pertsonalerako balio izan zion Frantziskori legendunen topaketaren bizipenak; horregatik, ospitaleetako jarduera anaia guztien eta bereziki etorri berrien hezkuntzako jarraibide egokia izan zitekeela uste izan zuen. Anaiartearen eginez joateko lanabes praktikoa, alegia.

Eta poz hartu behar dute [Anaiak], jende baxu eta mespretxatuekin, behartsu, ahul, gaixo, legendun eta bide-bazterretako eskaleekin batera bizitzean (1 Er 9, 2).

[Frantziskok] bere elkartearen "Anaia txikiaren Ordena" deitu zuen. Apaltasunik handienarekin Ordenaren hasieran, anaien kopurua ugaltzen hasi ondoren, anaiak legendunen etxeetan egoitea nahi izan zuen haiek zerbitzatzen. Eta garai hartan Ordenan sartzea eskatzen zutenei, noble nahiz xume, beste gauzen artean esaten zitzaizkien, legendunak zerbitzatu behar zituztela eta haien etxeetan bizi (PeLe 9; ik. Esser 1976: 56-59).

[Frantziskok] bere eskuz legenardunak gogotsu zerbitzeaz gainera, aginduta zeukan Ordenako anaiak, munduan zebiltzan edo bizi ziren bitartean, Kristoren maitasunagatik legenardunak zerbitzatu behar zituztela, Hark bera ere guregatik legenarduntzat hartua izatea nahi izan baitzuen (Lo 25).

Bere aldetik, berehala heldu zion legendunei dirutan ere laguntzeari: "Egun batzuk geroago, dirutza handia hartu eta legendunen ospitalera joan zen, eta, denak batera bildurik, limosna bana eman zien, eskuan muin eginez" (HLaLe 11). Ez zen izango hori, noski, Pietro di Bernardone aitaren ekonomiaren mesedetan.

Behartsuenei laguntzen ziharduela, bere barnebilaketari emana zebilen Frantzisko gaztea, errezo eta elizetan, aurreko urte edo hilabeteetako egun-pasa eta gaupasak utzita; ez jaiotetxean, behar zen lana egiten, baizik eta etxeko lantegitik kanpo, familiartearen ustez, nondik nora zihoan jakin gabe.

Egia esan, Frantziskok berak ere jakin ez zekien garbi hilabete haietan zein norabidetan ekin behar zion bizitzari.

1.5. San Damiano ahots hura

Horrela zebilela (1205eko udazkenean edo gauden), halako batean sartu zen Asistik lautadarako bidean zegoen kaperatxo batera. Xumea zen eraikina, sobera hondatua, segur aski Italiako landerrietan zenbait eliz zerbitzutarako baliatu ohi zirenetako bat, apaiz kapilaua ere bazuen.

Frantzisko otoitzaldi bat egitera sartu zen; bazegoen han Gurutziltzatuaren irudi bizantziar bat, segur aski lehendik ezagutu eta maite zuena; aurreko hilabeteetan bezalatsu, osteraren otoitzari helduko zion, bere burua aztertu, etorkizunaz hausnartu eta bizirik zuten fedetik erantzunak bilatzeko. Beste hainbat aldiz eginga zuen bezala; baina, oraingoan, "ezohiko barne-ukituen eraginez" barnetik itxuraldatuta sumatu zuen bere burua¹⁹.

Frantziskok inoiz edo bestetan errepikatutakoa hagiografoek beren erara eman zuten biografietan, mirarizko zertzeladaz apainduta:

Trantze horretan [otoitzean] zegoela, inoiz aurrez entzungabeko zerbaitek gertatu zuten: Kristo gurutziltzatuaren irudiak ezpainak ireki eta margotik hitz egin zion; bere izenez deituz, esan zion: «Frantzisko, zoaz, berriro nire etxea, oso-osorik hondatzen baitago, ikusten duzunez». [...]. Obeditzeko prestatu zen, bere indar guztiak bilduz agindua betetzeko (2 Zel 10).

Gertakaria horrela jazo zen ala ez jakiteak ez du hemen axolarik; historikoki dakiguna da, otoitz-une hark ondorio ziurak izan zituela, lehenik Frantziskoren bizitzan eta ondoren abiaraziko zituen egitasmoetan: "Ikaraz eta txunditurik, kordegabeturik bezala gelditu zen entzun zuenagatik. Obeditzeko

¹⁹ Otoitzaldia: 2 Zel 10; LeLu 2, 1; LeLa 1, 5; HLaLe 13. Kaperaren zaharberritzeko diru bila: 1 Zel 8-10; LeLu 2, 2; LeLu 1, 6; HLaLe 16; PerAn 7.

prestatu zen, bere indar guztiak bilduz agindua betetzeko" (2 Zel 10)²⁰.

Zertan obeditu, ordea? Lehendabizi betebeharrekoa argi zegoen, Frantziskoren ustez: "zoaz, berrizta nire etxea", hantxe bertan hondaturik zegoen kapera zaharberritu behar zuen. Entzuna eta erabakia elkarren ondoan etorri ziren, berehala. Une hartako historia, eta istorioa ere, zizelkaturik geratu ziren Frantziskoren eta anaien oroimenean.

Hiru Lagun minek (Leon, Rufino eta Aingeruk) berrogei urte geroago honela gogoratu zituzten Frantziskoren San Damiango bizipen pertsonala eta berehalako erabaki praktikoa:

Barne pozez jaiki zen Gurutziltzatuaren ikuskari eta mintzaldi hartatik, gurutzearen ezaugarriaz babesturik; zaldi gainera igo eta, kolore anitzeko oihalak hartuta, Foligno izeneko hirira joan zen. Zaldia eta eramane zuen guztia bertan salduta, San Damiango elizara itzuli zen zuzenean (HLaLe 16).

Hortaz, San Damian-en esan omen zitzaionak ("berrizta nire etxea") burubide aldaketa ekarri zuen bertatik, izan ere ikusiz joango garenaren arabera, koherentziaz eta lerro zuzenez marrazten baitzuen beti gazteak bere bizitza. Hala ere, hagiografiek diotenez, esandakoa ez omen zuen ongi ulertu, "etxea" ez omen zen han bertako eraikin hondatuarena bakarrik, baizik eta Eliza osoarena, geroago Inozentzio III.aren ikuskarian ametsetan adierazi omen zitzaion bezala (1209).

Gurutzearen aurreko ezustekoaren ondoko ototza utzi zigun idatzita Frantziskok, labur eta trinko;

segur aski gero San Damianen sarritan esan zuena (Frantz. Itz. Taldea 2002: 66):

*Jainko goren eta aintzatsua,
argi ezazu nire barne ilunpea.
Eta emadazu fede zuzena,
itxaropen ziurra eta maitasun betea,
zentzua eta ezaguera, Jauna,
zure agindu santu eta egiazkoa bete dezadan.*

Otoitz honetako izenondokoak kontuz hautatuak dira, inondik ere, eta kasu bakoitzean Frantziskoren bizipen erlijiosoek zituzten alde sendo eta ahulagoak iradokitzen dizkigute: Jainkoa izaki guztietatik harago dagoen eta den *gorena* da eta *ospe* osoa berea da; Haren bila, Beragandik espero dugu *argia*, gure barne *ilunak* argitu eta fede *zuzenez* emango zaigun itxaropen *ziur* baten bidez maitasun *betera* iristeko; guztion eraginez bakoitzaren gizatasuna zentzatu eta ezagutzaz horni dadin eta burubide santu eta egiazkoz bideratu²¹.

San Damiangoaren biharamunean udazkeneko hilabeteak ez ziren izan gozoak bernardonetarrenean, hain zuzen Frantzisko etxeko ondasunak beste molde batean erabiltzen eta gastatzen hasi baitzen²².

Puglia-rakoan egindako gastu handi eta izandako burubide kaskarraren ondoren, bigarren salmenta hauek ez zioten lagunduko Frantziskori aitarekiko harremanetan. Jakin beharra zeukan honek jada sobera heldua zen semeak zein bizibide hautatzen zuen, gogoan izanda, gainera, Angelo anaia ere etxeko semea zela. San Damiango gertakaria etxe-bazterrak gehiago nahastera zetorren, zalantzarik gabe.

²⁰ Moriceau, R. 1987, "El Cristo de San Damián. Descripción del icono", in: *Selecciones de franciscanismo*. 46, 1987, 45-51. <http://www.franciscanos.org/enciclopedia/moriceau.html>. Asseldonck, O., 1987, "El Crucifijo de San Damián visto y vivido por S. Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 46, 1987, 17-41. <http://www.franciscanos.org/enciclopedia/asseldonck.html>.

²¹ Arregi, J., 2010, "La Oración ante el Crucifijo de San Damián", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 115, 2010, 65-85. Lehmann, 1991, "En busca del sentido. La oración de San Francisco ante el Crucifijo de San Damián", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 58, 1991, 65-76. <http://www.franciscanos.org/enciclopedia/lehmann.html>

²² Kapera zaharberritzeko diru bila: 1 Zel 8-10; LeLu 2, 2; LeLu 1, 6; HLaLe 16; PerAn 7.



San Damiango gurutzea, gaur egun
Santa Klaran dagoena, Frantziskori
mintzatu omen zitzaiona

1. 6. Familiako arazoak, Gotzainaren aurrean

Foligno-n zaldia eta abar salduta gero, hona nola joan ziren kateatzen ondoko gorabeherak, Frantziskoren biziera ez ezik ingurukoenak ere ukituko zituztenak:

Bertan [San Damian-en] apaiz pobretxo bat aurkitu zuen; fede eta debozio handiz eskuetan muin eman ondoren, zeraman dirua eskaini zion, eta bere asmoa jakinarazi zehatz-mehatz. Apaizak, erabat txunditurik eta haren batbateko konbertsioaz harri eta zur, ezin zuen sinetsi. Eta adarra jotzen ari zitzaiola pentsatuz, ez zion dirurik hartu nahi izan ere. Frantzisko biziki ahalegindu zen esaten zionaz apaiza sinestarazten, eta arrenka eskatzen zion utz ziezaiola berarekin bizitzen.

Azkenean apaizak onartu zion berarekin gelditzea; baina ez zuen dirua hartu nahi izan, haren gurasoen beldurrez. Horregatik, Frantziskok, diruaren benetako arbuiatzaileak, leiho batera bota zuen, hautsa bailitzan gutxietsiz (HLale 16).

Horrela, bada, bazuen non bizi, apaiz kapilauarenean; bere pobrean ere nahikoa zuen etxetxo hura. Sendiak ere bazuen, noski, zerikusirik egoera berriarekin, eta arriskutsua zen Frantziskoren portaera "xelebrearekin". 1205eko udazkena gorabeheratsua izan zen bernardonetarrenean.

Ezohikoa zen portaera hura ikusita, bazuen apaizak aitari beldurrik izateko arrazoirik franko, azkenik herri txikian guztiak elkarren auzo. Pietro di Bernardone bazen nor Asisko herrian, eta esamesik ez zen faltako.

Apaizak zuhurtziaz jokatu zuen: hobe dirurik ez hartu, eta gehienez ere etxetik kanpo kale gorrian omen zegoenari aterpea eman. Egoera horretan, aitari ere iritsi zitzaion, noski, semearen berririk.

Toki hartan [San Damianen, alegia] Frantziskoren egonaldia luzatzen ari zenez, aita bazterrak miatzen hasi zen, bere semeari zer gertatu ote

zitzaion jakin nahian. Eta erabat aldatua San Damianen bizi zela jakin zuenean, bihotz barnean erremindurik eta ustekabeko gertakari horiez kezkatuta, lagunak eta auzokoak bildu eta San Damianera joan zen lasterka batean. (LaLe 16).



Frantzisko bere aitarekin Asisko Gotzainaren aurreko epaiketan

Zein burubide behar zen semea zentzatu eta betiko bidera ekartzeko? Aitaren kezka gorabehera, aita-amak ere ez zetozen ados, nonbait, eta ama behintzat saiatuko zen nolabait semea esku eta hitz leunagoz laguntzen. Aita zen, ordea, urak derri-gorrez bide-oneratu nahi zituena eta horretarako zenbait lagun semearen bila bidali zuena.

Baina Frantziskok, Kristoren zaldun berriak, erasotzaileen mehatxuen berri izan eta bazetozela jakin zuenean, aitaren haserreari baretzeko astia ematearren, prestaturik zuen koba ezkutu batera joan zen eta hilabete osoa eman zuen bertan gordeta. Koba hau aitaren etxeko batek bakarrik ezagutzen zuen. Han, ezkutuan, noizbehinka eramaten ziotena jaten zuen. [...]. Inoiz ekartzen zioten jatekoa ere zuloan ezkutaturik jaten zuen, eta bestelako zerbitzuak ere isilpean egiten zizkieten (1 Zel 10).

Egoera hartatik irteteko, deliberamendu ausarta hartu zuen Frantziskok: ezkutalekua utzi, eta herrian barna joango zen bere berri ematera ez ezik gizartean hain lander eta zarpail ibiltzeko erabakita zuela adierazteko, baita bere jaioterrian ere. Zelanok ematen digu pasadizoaren berri, nahiz eta ez gauden behartuta xehetasun guztiak sinestera:

Frantziskoren inguuko zarata eta algara hiriko plaza eta kaleetan luzaroan zabaldu zen eta irri egileen oihuak han eta hemen entzun ziren; horrela bada, askoren belarrietara iritsi zen haien hotsa, eta azkenik Frantziskoren aitarenetara ere bai. Hau, semearen izena entzunik eta herritarren zalaparta hura haren kontra zuzendua zela ikusiz, laster batean jaiki zen, baina ez semea askatzera, galtzera baizik. [...]. Erruki oro baztertuta, zoko ilun batean preso eduki zuen hainbat egunez. Eta semearen gogoa bere nahira makurtuko zuela pentsatuz, lehenengo hitzez eta gero zigor eta katez saiatu zen (1 Zel 12).

“Eskua erantsi zion eta batere begirune eta lotsarik gabe eraman zuen etxera” aitak, salatzen du biografoak. Bizitzan izandako bigarren edo hirugarren presoaldia zuen hau Frantziskok.

Hori horrela, berriz ere ama dugu aita-semeen artean. Aita bidaiara joan zelarik, biek izan zuten patxada hobeagoz elkarrekin “konfesatzeko”.

Amak ez zuen ontzat ematen senarraren jokabidea, eta hitz gozoz mintzatu zitzaion

semeari. Baina semea bere asmotik ezin zuela aldendu ikusiz, ama-erriak hunkitu zitzaizkion eta, kateak puskaturik, libre joaten utzi zion (1 Zel 13).

Zoritarrez, ez dugu ezagutzen ama-semeen arteko solasaldi haiek nolakoak izan ziren; baina, pentsa daiteke, Frantzisko sotilak, eta harremanetan abilak, ongi eta hobeki agertu zizkiola amari bere nondik norako asmoak eta zergatiak. Zorigaitzez, ama desagertu egiten da biografoen idazlanetatik, eta ez dakigu deus gehiagorik Frantziskoren amari buruz, zerbait geroago aitarekin gertatzen ez zaigun bezala²³.

Etxera etortzean, semearekin ez zuela atarramentu onik izan ikusita, herriko agintariengana jo zuen aitak, ea gauzak bide onera ekartzeko modurik ba ote zegoen; hauek kontu eskatu zioten Frantziskori, baina Hiru Lagunek esaten digutenez, aitarentzat emaitza kaxkarrarekin:

Ondoren, herri-agintarien jauregira joan zen [aita], bere semeari auzia jartzera eta etxetik ostu zuen dirua itzularaz ziezaiola eskatzera. Herri-agintariek, berriz, aita hain aztoratuta ikusita, deia bidali zioten Frantziskori mezulari baten bidez, beraien aurrera ager zedin. Baina Frantziskok erantzun zion mezulariari Jainkoari esker librea zela eta ez zegoela herri-agintarien eskumenean, gorengo Jainko bakarraren zerbitzari zela eta. Herri-agintariek ez zuten behartu nahi izan, eta erantzun hau eman zioten aitari: «Jainkoaren zerbitzura jarri denetik, ez dago gure eskumenean» (HLaLe 19).

Familian eta Udaletik semearekin deus hoberik ez zuela lortzen eta galdutzat eman beharko zuela ikusita, semeak hartu zizkionak eta hartzeko arris-

²³ Psikologiatik ere, Pika eta Frantziskoren ama-semeen arteko harremanen analisisa jada egin da. Hona erreferentzia bat: Charron, J.-M., 1995, “La identificación materna y la dinámica fusional”, in: ID., 1995, *De Narciso a Jesús. Francisco de Asís en busca de la identidad*. Oñati: EFA. 79-104.



Frantziskori aitak ezarri zion presondegia

kuan zeudenak salbatzeko, Elizaren bide ofizialari heldu zion, bada, aitak.

Aitak eskatuta, Gotzainaren deiari erantzunez, berorren epaitegira agertu behar izan zuen Frantziskok. Semearen gain izan zezakeen guraso-eskumena galdurik zuela ikusita, harremanen arazoa zeregin ekonomiko bilakatu zen: pobrentzat hartutako ondasunena eta semeak etorkizuneari izan zitzakeen oinordeko-eskubideena.

Aitak, ikusiz ezin zuela semea hasitako bidetik atzerarazi, dirua berreskuratzen jarri zuen bere eginahal guztia. Jainkoaren gizonak diru hura guztia pobreei jaten ematen eta leku hura berriztatzen erabiltzeko asmoa zuen. [...]. Hiriko gotzainaren aurrera eraman zuen semea, haren

eskuetan aitarengandiko oinorde-eskubideei uko egin eta zeukan guztia itzul ziezaion. Frantziskok ez zien, ez, eskubideei uko egin, baizik eta arras pozik eta gogo biziz azaldu zen guztia lehenbailehen betetzeko (1 Zel 14).

Jendaurrean ofizialki egindako epaiketa izan zen hura, garai haietan ohi zen gisara. Gotzainak eta ikusleek ere izan zuten zer esan edo zer iritzi, aitaren zakarkerien eta salatuaren guztiz ezohiko jokabidearen aurrean. Agerikoa da biografoak erabat aitaren aurkako salatzaile direla beraiei idatzietan (horretan ez dira guztiz fidagarriak); baina, alde batetik, Gotzaina modu nabarmenean eta, bestetik, jazotakoaren ikusleak Frantziskoren alde agertuko zaizkigu biografietan.

Guido II.a zen Asisko gotzaina urte haietan (1204-1228). Une hartan eta ondoko urteetan, Asisen bertan eta gero Erroman Elizaren eskumenean geratutako Frantziskoren babeslea izan zen Guido; zinez ulertu zuen "Pobretxoaren" egitasmo espirituala. Epaietakoan ere ez zion harrera txarrik egin, eta errespetuz begiratu zuen Frantziskoren une hartako burubide sinbolikoa:

Behin gotzainaren aurrean, batere luzapenik edo duda-mudarik gabe eta ezein aginduren zain egon edo hitzik esan gabe, berehala, jantzi guztiak erantzi eta jaurtiz, aitari itzuli zizkion. Barruko galtzak ere kendu egin zituen, denen aurrean guztiz biluzik geldituz.

Gotzainak, Frantziskoren barne-jarreraz oharturik eta haren bihotzeko suaz eta iraupenaz harriturik, berehala altxatu, beso artean hartu eta bere mantuaz bildu zuen. Argi eta garbi ulertu zuen hura guztia Jainkoak inspiratua zela eta bere begiz ikusitako Jainkoaren gizonaren portaera misterioaren baten adierazle zela. Horregatik, haren laguntzaile bihurtu zen aurrerantzean; babesa eta adorea eman zizkion, eta maitasun-erraiz besarkatu zuen (1 Zel 15).

Eliz literaturak bezala Arteak ere Frantziskoren bizitzako unerik erabakigarrien artean jasota utzi digute Gotzainaren aurreko epaiketa hau, eta protagonistaren geroko bizi-burubide ebanjeliotarra argitzeko balio izan zuen gertakariak²⁴. Ondoko lehen asteetan (1206ko martxo-maiatzetan edo), Gubbio-rantz atera zen Frantzisko, eta han legedunen artean lan egiten jardun zuen aldi batez.



Spoleto: gerrarako irten; baina, "Jainkoaren graziaren indarrez, gizon berri bihurtu zen", eta etxera itzuli.

Epaiarekin, erabat argi geratu zen, orduan indarrean zegoen "Kristandadearen" bitariko erregimenaren barruan (Eliza eta Inperioa), Frantzisko Elizaren botere-barrutikoa zela, eskumenez bere agintariak Elizakoak zirela, eta bizitzako jokoretua berori zela. Horrekin batera, balio erlijioso jakin batzuk azpimarratzen zituen Frantziskoren jarrerak: kristau arrunten artean derrigor bete

beharrekoak ez zirenak batzuk (jabetasunik eza, adibidez), baina ebanjeliotarrak izan nahi zutenak beste zenbait (mundukoa Jainkoaren zerbitzuan bizi beharra). Horrek guztiak orduko mugimendu pobre zaleetan jartzen zuen Frantzisko.

Horaino iristean, garaiko Zuzenbidearen arabera eta Elizaren esanetara, Frantziskok nahi zuen biziera har zezakeen Asisko herrian eta herritarren artean; estatus sozial berrirako eliz aterpe juridiko segurua ezagutzen zitzaion. Egindako aukera legendunen artean bizitzea izan zen, baina erabaki honek izan zituen ondorio zabal eta iraunkorrengatik premiazkoa da hautapen hori orduko gizartean eta geroagoko gertakariekin batera begiratzea, Frantziskoren bizialdian eta sortuko zen Anaiartean alkantzu jarraitukoa eta definitzailea gertatu baitzen berori.

Horiek horrela, gurasoen jokabideez ez ote liteke deus esan? Frantziskoren biografiarako albisteak amaren aldekoak ditugu, eta ama-semeen arteko harremana emakume maitati batena da, gaztearen ibilera berriak ahal zuen neurrian ulertzeko, aitaren haserretatik babesteko eta, preso gertatu zenean, askatzeko ere. Zer ulertzen ote zuen ama gajoak semearen hautapen haiez! Ez zen erraza seme "artista" haren ateraldiak argitzen.

Aitarena, bestelako historia izan zen. Pietro di Bernardone, merkatari ekintzaile eta lehiatza zen, Asisko herri txiki hartatik urruneko bidaiak egiten zituena, inguruetako merkatariarekin batera hainbat negozio-bidaia luze egiten zuena, Flandriako oiha preziatuak Champagne-n erosi eta etxeko denda edo lantegitik saltzen zituena. Ez da ahaztu behar, bestalde, garai hartako gazteak, mutil eta neska, gaurkoak baino lehenago egiten zirela "gizon" eta "emakume", eta Frantziskok, hogeitaz hobe bat urtera arte, seme zaharrena zenez, negozioaren etxeko ardura ere izan zuela, batez ere aita erbestean zenean.

²⁴ Hasteko, Giotto-k margotuta utzi zigun (1295-1300) Asisko San Frantzisko Basilikan, epaiketa honetako irudia.

Pietro di Bernardone-ren itxaropena, Frantzisko seme zaharrena zen, familiari segida emateko ez eze baita negozioari jarraipena emateko ere. Burges langile eta saiatuaren gogo eta ahaleaginean zegoen hori dena. Pentsa daitekeenez, inoren “biziera ebanjeliotarra” ez zen erraza ulertzen, gutxiago seme maiorazkoarena. Frantziskoren hagiografoek aitaren inguruko gertakariak oso beren ikuspuntu erlijiosotik begiratu zituzten; baina, bistan zenez, Frantziskoren istorio eta burutazio ebanjeliotarrak urrun zeuden sendi arrunten asmoetatik.

Bernardone-k aski buruhauste izan zuen, segur aski, semea gerrara joan eta preso eduki zutenean, eta geroxeago, Pugliarako zalduntarako gastuak egin, eta Spoletoetik, amets bat zela eta, berehala itzuli zenean. Bestalde, gizartean, semeari ez zitzaion falta arrakasta sozialik, eta lantegian (hala nahi zuenean) bazekien bezeroekin adeitsu eta atsegina izaten, eta lanari eusten; baina, horra non, hasten zaion gizona aldrebeskeriak egiten, herritar guztien txorimalo. Hori ez zen, unean uneko alferrikako gastu batzuen kontua bakarrik, aita jakin behar zuen, gainera, semeak etxeko erantzukizunak nola eramane nahi zituen.

Frantziskoren lehen hagiografo haiek gupidarik gabeko astinduak eman zizkioten aitari, eta XX. mendeko historialariek ez dute deus handirik esan aitaren burubidea ulertzeko. Geroko santutasun-ospeak ez zuen deus balio orduko egoera hobeki konprenitzeko.

Hagiografoen kontrako iritzi guztiak tarteko izan arren, gaztearen konbertsio ondoren ere suma zitekeen aitaren baitan semearekiko barneborrokarik, Hiru Lagunek idatzi zutenei begiratzen badiegu:

Semea hain egoera errukarrian ikusita, atsekabe beltzez betetzen zen [aita]. Biziki maite izan zuelako, lotsatu egiten zen haren gorputza gehiegizko mortifikazioz eta hotzez erdi hilik

ikustean, eta hainbesterainoko nahigabea ematen zion, ezen aurkitzen zuen edozein tokitan madarikatu egiten baitzuen (HLaLe 23).

Jakitekoa litzateke, Bernardonek eta Pika amak, biek, nola bizi izan zuten Frantziskok gero irabazi zuen onarpen sozial eta eliztarra, eta aitortu behar da Frantzisko 1206an ez zela berehala ulergarria gertatzen: hala ere, Gotzainaren aurrean ikusleak bere alde jartzea lortu zuen; baina, nahitaez, nekeza zen, oso nekeza, biluzik agertzeko keinu haren bidez aita orduan bertan irabaztea, beste gabe jendaurrean hala uko egin zionean²⁵.

1.7. Aldakuntzaren arrazoiak eta emaitzak

Honaino ikusi duguna oso bakarrik burutu zuen Frantziskok: lagunetatik urrunduz zihoala, aitaren borondate eta iritzien kontra, hainbat herritarrek iseka egiten ziola, agintarien susmopean...

Gotzainaren harrera onak eta epaiketako ikusle herritarren begikotasunak lagundu zuten aita ezarri nahi zion iraganetik askatzen; baina estatus pertsonal berria berez zama ebanjeliotar arrisku-tsua zen, inondik ere. Handik aitzina, aurreztutako ondasun pilaturik gabe eskuratu beharko zuen eguneroko ogia, behin eta berriz eskulanari helduta, besterik ezean limosna-eskean, gaueroko aterperik gabe, jabetasunik izateko asmoak lagata, pobreagoari norberaren pobretasunetik emanez...

Egoera horrek, ordea, aurrera egiteko oinarri sendoa zuen: Ebanjeliotik eskaintzen zitzaion fedezko oinarria, Jainko Aitaren probidentzia begiralea, salbamenerako penitentzia askatzailea, munduarekiko jarrera askea...

²⁵ Gogoratzekoa da Sarasolak ere, bere biografian eta Jörgensen-irrarai, mota honetako galderak izan zituela aitaren jokabideari buruz (Sarasola 1929: 78, 1. oh.).

Gizarte konbentzionalean, aitzak Gotzainaren aurera eraman zuen arte bizi izandakoan ikusi zuen Ebanjelioa modu berrian bizitzeko mugak non zeuden. Frantzisko eskuzabala zen, ondasunak erabiltzen bezala ondasunak banatzen, diru eta oihalean. Behar zenean hartu, eta "behar" ez zuenean ere bai, hau da, barruak eskatzen zionean. Juxtu, hori zen aitzak onar ez zezakeena.

Maitasunean, Jainkoa zen lehenengoa, Jesus Nazaretekoa hurrena, Jesus gurutziltzatua ondoren, Andre Maria pobrea eta munduko behartsu guztiak azkenik. Egitasmo ebanjeliotarra ez zen proposatu dirua irabazteko, edo erosotasunerako, salbamen bidea urratzeko baizik. Irizpide hori ongi finkatuta, ebanjelio zaleak ere mundua aintzakotzat hartu beharko zuen, beti pobre izanik²⁶.

Proiektu horren altzoan jartzen zuen Frantziskok bere burua, eta hautatutako horretatik aitzina egin nahi zuenak beste hainbeste egin beharko zuen. Hala ere, eragozpen, zailtasun eta ezin ugarirekin aurki zitezkeen egitasmo hori, kontu eginik, gainera, Frantziskok ez zuela monje izan nahi, hau da, ondasunak izango zituen monasterioren bateko monje.

Gizartean txertatu nahi ziren hautakizun ebanjeliotarrek berekin zekarten laster edo geroago arazo eta itaun andana, nahitaez aintzakotzat hartzekoa teoriaran eta praxian:

Bakarrik eta bakardadean, ala lagunekin eta gizartean biziko zen Frantzisko?

Etor zitezkeen Anaia berriak nola onartuko ziren talderako?

Erabat eta bakarrik otoitzera emanak izango ziren anaia? Ala "Berri Ona" zabaltzeari ekingo zioten?

Klerikoak edo laiko eskolatu gabeak era eta maila berean izan zitezkeen "penitentziagile"?

Apaz-lanekoa izango zen fraideen bizimodua, ala laiko herritarrena?

Balio berrien predikari gisako bizitza ibiltaria izango zuten haiek, monasterio edo komenturik gabea?

Erregularik beharko ote zen: nolakoa? Eliz tradizioetik San Benito edo San Agustina hartuta, ala berriren bat, Ebanjelioetako esaldietatik jasotakoa?

Eliza hierarkikoarekin nola moldatuko ziren fraide penitentziagileon harremanak? Erroman, Diozesietan, Parrokietan?

Bidegurutze sobera zeuden galdera guztiei erantzun bateratua aldi berean eman ahal izateko. Bistan da, San Damiango gertakariak, elizgune hondatuen zaharberritzeak eta legendunen arteko bizitzak Ebanjelioaren sakonetik erronka orokor baten aurrean jarri zutela Frantzisko. Ondoko orrialdeetan ikusi beharko dugu hori.

Nola ausartu zen Frantzisko inguruak laguntzen ez zuen bideari ekiten, itxura guztiz premiazko zen prestakuntzarik gabe eta kasik baliabide praktikorik ezeari? Barruak esan zion, nonbait, halaxe jokatu behar zuela. Eta kito.

1.8 . Sinetsi eta bizi?

Itaun horiek oinarritzko problema batera garamatzate: Nondik zetorkion Frantziskori, orduan eta gero, erabakiak hartu eta ekinbideak bultzatzeko gogo eta indarra? Ziurki, ez jakite eskolatu goren batetik: "ezjakina" zen. Otoitzetik, entzundako aho-tsetatik, ikuskarietatik ala guztiaren funtsean fedebizipenetik? Komentzimendu gotorrak izan zituela

²⁶ Anaiei, Anaiaitearen eta jarraitzaileen artean, frantziskotartasunak ekonomia eta ondasunekiko kudeaketa soziala arretaz begiratu izan du Frantziskoren mezuari jarraiki, beti asmatu ez bada ere. Anaiaitean Ordenako Erregelen arabera, eta gizartean, adibidez, ekinbide interesgarriak egon ziren hurrengo mendeetan. Ik. Carabajo Núñez, M., 2007, "Montes de Piedad y finanzas. La aportación franciscana en el campo económico", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 108, 2007, 445-464. http://www.selfran.org/60arti/100/00imag/108_07.pdf. Berau zabalago: Carabajo Núñez, M., 2007, "Trabajo, finanzas e identidad en la lógica franciscana del don", in: *Antoniano*. 82, 2007, 59-93.



San Damian: Ahizparte klaratarra sortu zen lekua. Lehen monasterioa 1270 inguruan Klaratarrak lehen komentu honetatik Santa Klararen Basilika eraiki berrira joan zirenetik Anaia fraideak dira bertako bizilagun (c. 1270).



segurua da, eta segurua, era berean, "Jainkoaren grazian" sinesten zuela. Gizaki arrunta zenez, pentsa daiteke horietako denetatik egon zela Frantziskoren kasuan.

Hipotesi horiek denak banan-banan argitzeak lanak emango lizkiguke; baina ezin dugu aitzina egin Frantziskok fedezko munduarekin izan zuen ohiko harreman-bizibidea aipatu barik. Komeni da hemen, aurrera baino lehen, Frantziskoren "teologia" posibleaz eta espiritualtasun errealaiz zerbait esatea.

Frantzisko Bibliaren irakurle intuitiboa eta kontenplaria izan zen²⁷, eta ez orduantxe jaiotzen ari ziren Unibertsitate eskolastiko bateko irakaslea. Jainkoa, Kristo, Maria, gizadia, kosmosa, bizitza edo hilondokoak otoitz eta esperientzia pertsonaletik so egin zituen, ez liburu teoriko jakintsuetatik. Ohar honek balio du baita Frantziskok zientziarekiko izan zuen errezelozko jarrera konprenitzeko ere.

Egia esan: Frantziskoren burubide praktikoa hori ez zen berria, aurreko mendeetako Elizaren historiari zetorren (VI-XII. mendeetatik), eta monjeen tradizioari esker ere heldu zitzaizen Frantziskori, Anaia-teari eta berehalako tradizio frantziskotarrari²⁸.

Badakigu Anaiartearentzat Frantziskok ez zuela nahi izan aurreko monakatuaren antolamendu juridikoa; baina, ezagututa edo ezagutu gabe, bere garaiko esperientzia espiritual eta herritarrean zetorkion Jainkoagana eta kristau misterioetara horrela hurbiltzea, otoitzean eta liturgia bizian, adibidez.

Zientzia kristologiko akademikoaren eta Kristorekiko (eta zabalago, gainerako sinesgai kristauekiko) espiritualtasun pertsonal arrunt eta saiatuaren arteko balantzea egitea eskatuko luke honek. Ez gara

hemen horren urrutira joango; baina zilegi bekit, zehazkiago, Frantziskok, bere erara, baina aurreko monjeen eta garaiko tradizioari jarraiki, Kristorekiko ibileran zein erro praktikoa izan zituen gogoratzea.

XIII. mendean jardutean, berehala gogorarazi izan da garaiko Unibertsitate berrien arrakasta eta berrietako korrante ezberdinetan egin eta burututako Teologia akademikoa. Teologia kristauaren Historian ongi aitortutako gertaera kulturala da hori. Akinokoak bere *Summa* idatzi zuen (sinesgai kristauak jakite eta "zientzia" gisara azaltzeko), eta Bonabenturak, adibidez, *Itinerarium mentis in Deum*. (Teologiaren "zientziatasuna" ukatu gabe, beste bideren bat ere irekitzeko)²⁹.

Horien aurretik, ordea, eguneroko ibilera arruntan bide-tartea eginda zegoen espiritualtasun praktikoa, kristauek Jesus Nazaretokoagana hurbiltzeko ahaleginean. Jean Leclercq beneditarrak ekarri zuen argitara espiritualtasuneko bizipen horren eboluzioaren historia, San Benito, Kasiano, Cluny, Zister edo Hildegarda gogoan zituela³⁰.

Hain zuzen, Kontzilio kristologiko handien ondoren (Nizea, 325; Kontantinopla I.a, 381; Efeso, 431; Kaltzedonia, 451), Kristorekiko doktrina finkatuta geratu zen, eta horren gain eraiki zitekeen, teoria berri handirik gabe ere, espiritualtasun kristotarra. Izan ere, monjeen artean ezaguna da burubide hori: "su actividad cultural [monjeena, alegia] se ejerció en el ámbito de la piedad, pero esta suponía una fe ilustrada, y estimulaba una reflexión que contribuía al progreso de la teología. Es cierto que, por lo general, los monjes no se preocupan de problemas [teológicos]. Lo suyo es contemplar los misterios" (Leclercq 1999: 16).

²⁷ Fürst, H., 1984, "Francisco de Asís. Su conocimiento de la Sagrada Escritura", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 38, 1984, 243-255.

²⁸ Vilanova, E., 1999, "La teología franciscana", in: ID., 1999, *Història de la teologia cristiana*. Barcelona: Facultat de Teologia de Catalunya. I, 735-765.

²⁹ Hona leiho bibliografiko jakingarri bat: https://fr.wikipedia.org/wiki/%C3%89tienne_Gilson.

³⁰ Jean Leclercq, J., 1993, *Regards monastiques sur le Christ au Moyen Age*. Paris: Desclée de Brouwer. (Gaztelaniaz: 1999, *Consideraciones monásticas sobre Cristo en la Edad Media*. Bilbao: Desclée de Brouwer).

Frantzisko ere misterioen *begiratu* horretan bizi izan zen, hortxe hasi eta hazi, heldutasun betearino, Bolognan Zuzenbidea edo Paisen Teologia ikastera joan gabe, baina teologoak estimatu zituela. Hori bai, berorien zeregina *jakitea* zen bitartean, Frantzisko La Verna-ra igo zen maite zuena *begietsi*, topa eta *bizitzera*.

Gurera gatozela, esan dezagun Frantziskoren ondoren Anaiarteak bere teologo handiak izan zituela (Erdi Aroan, Alexander Halles-koa, Bonabentura, Eskoto eta abar; Modernitateari ateal irekitzean, G. Okham), baina Frantzisko bera jaiera, debozio eta mistikako kristaua izan zen. Bere muga horiekin

ere, aitortu behar da Frantziskoren abiapuntu pertsonal horrek bere marka utziko zuela Teologia frantziskotarrean³¹.

Tradizio espiritualetik jasotako balioekin eta bere baitan zaindu zuen bilakuntza eta gogogarapenetik hartutakoaz baliatu zen bere eta anaiei bizitzeko ganorazko funtsa ziurtatzen.

³¹ Ik. Goitia, J., 1985, "Un trozo de cristología viviente: Francisco de Asís," in: *Selecciones de Franciscanismo*. 42, 1985, 411-451. Vorreux, D., 1977, "Francisco de Asís y Jesús de Nazaret," in: *Selecciones de Franciscanismo*. 18, 1977, 308-316. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/VorreuxD-FcoDeAsisYJesusDeNazaret.html>.



Frantzisko senitartean predikari. (Giotto)

2. Anaiartea egiten (1206-1212)

Konbertsioaren ondoren Frantziskori uste eta espero ez zuen zerbait suertatu zitzaion, Asis bertako herritar batzuk ingurura etorri, Frantziskoren bizi-aukera berriak onartu, elkarrekin bizitzen jarri, eta denen arteko biziera jakina asmatu zuten: hilabete batzuen ostean, lehen herritar “anaia” haiek “Anaiarte” bihurtu ziren. Atalburu honetako historia dugu hori.

2.1. Ebanjelioaren eskakizunak

Gotzainaren babesarekin, eskuak eta oinak libre zituen Frantziskok, “bizilekuak” bilatu, eta aldi berean bakardadeko otoitzean nahiz penitentziagileek ohi zuten gisan ibiltari herriz herri edo auzoz auzo joateko.

Bakarrik dago, harrera eskasagoa ala ona ere egiten dion jenderik aurkitzen du; bidelagun izan zitzakeenen artean denetarik dago; baina batez ere pobrea da eta lan-eskean dabil, herrian bezala landerrian; ordainetan ematen diotena hartzen du, beretzat eta pobre lagunentzat. Lanez bizi ezin denean, limosna-eske ere ibil daiteke, kalean eta etxez etxe.

Gutxi gorabehera, 1206ko udatik 1208ko apirila arte, bere kontura dabil, eta lagun finkorik gabe, dakigunez. Jan eta bizitzeko lanak baditu, hantemen. Ebanjelioaren ildotik egin nahi du aitzina, eta lanari ekinez ermita eta elizatxoak txukuntzen ditu. Arian-arian, ezaguna, burlatua eta onartua gertatzen ari da, lehenago merkatari-dendari gisa ezagutu zutenen artean, eta baita beraren asmo ebanjeliotarren berri jakinik, iseka egin edo estimua agertzen ziotenen artean ere. Asis ez da herri handiegia, eta denek ezagutzen dute elkar.

Jarrera berri horiek lagundu ere egiten diote, jendearekin hitz egin eta, aukerarik denean, predikuak egiteko¹, bere penitentzia-bizitzaren arrazoiak azaltzeko. Denek doaz jakiten Gotzainaren babesa duela; zintzoa dela gizona, bihotz onekoa eta otoitzera emana. Herriko eta eskualdeko legendunak ez ditu ahortzi, eta haiek zerbitzatzeko prest dago beti; garaiko zerbitzu sozial zaila zen hori,

¹ Godet, J. F., “El papel de la predicación en la evolución de la Orden”, in: *Selecciones de Franciscanismo* 22, 1979, 103-116. <http://www.franciscanos.org/historia/Godet-ElPapelDeLaPredicacion.htm>.

baina Udalak bezala eliz Erakundeak zaindu behar zutena, gizartearen onerako.

Urte eta erdi hartako albiste zehatzagorik apenas dugun iturrietan. Noiz suertatu zen ziur ez dakigun gertakizun bat daukagu tartean. Seguruenik, San Matias-en egunekoa da bata (1208ko otsailaren 24), eta beste xehetasun ezberdinez kontatzen zaiguna bigarren bat balitz, hau 1209koa izan daiteke, anai Bernardo etorri berria tartean denez.

Hala ere, kontakizun biek ere, bakoitza bere ñabar-durekin, tokia dute hemen, arrazoi ezberdinengatik. San Matias eguneko Ebanjelio-irakurgaiak zer zioen azaltzean, Sinoptikoetako pasarte hautatuen arteko laburpen batez baliatzen da Zelano kontakizuna osatzeko (Mt 10,7-10; Mk 6,8-9; Lk 9,1-6; 10,4):

Egun batez, eliza hartan Ebanjelioa irakurtzean, Jaunak ikasleak predikatzera bidali zitueneko pasarte egokitu zen. Jainkoaren santua bertan zegoen eta, ebanjelioko hitzak hobeto ulertu nahian, meza ostean ebanjelioa azaltzeko eskatu zion apalki apaizari. Honek puntuz puntu azaldu zion dena. Frantzisko santuak entzun zuenean Kristoren jarraitzaileek ez dutela urrerik, ez zilarrik edo dirurik eduki behar; ez dutela zakutorik, ez poltsarik, ez ogirik, ez biderako makilarik eraman behar, ez eta oinetakorik eta aldatzeko jantzirik eduki ere, baizik eta Jainkoaren erreinua eta bihotz-berritzea hots egin behar dutela, bat-batean, Jainkoaren Espirituak eragindako pozez gainezka, honela esan zuen: "Hauxe da nahi



Frantziskoren lehen Anaiak: Rufino, Leon, Egidio, Akursio, Silbestre, Rufino, Maseo

dudana, hauxe bilatzen dudana, hauxe bihotz-bihotzez egitea irrikatzen dudana" (1 Zel 22).

Liturgiak lagun zezakeen, beraz, biziera berriak nolakoa izan behar zuen ezagutzen. Horren ondoan, XIII. mendean, bazegoen Bibliara hurbiltzeko modu librerik ere, esaterako Ebanjelioetan pasarteak zozketa bidez edo ausazko bilaketaz Jainkoaren borondatea eta etorkizuneko norabide pertsonala ezagutzeko modurik. Erlijiotasun herri-tarrean bizirik zegoen bilaketa-modu horri "sortes sanctorum" deitzen zitzaion². Nahiz eta Eliza hierarkikoak susmoz begiratzen zuen halakorik, herria ez ezik eliz gizonak ere baliatu izan ziren horretaz. Hau da Frantziskoren kasua.

Ondoko gertakaria goizenik 1208koa da, Bernardo Frantziskorengana bildu eta gerokoa, Anaiartearen hasiera-hasierakoa:

Hau guztia ikusi eta entzunik [Frantzisko nola zebilen ezagutu eta iseka egiten ziotela ikusi ondoren], *Asisko bi gizaseme, Jainkoaren graziaren ukituak eraginda, Frantziskori aurkeztu zitzaizkion apalki. Haietako bat anai Bernardo izan zen eta anai Pedro bestea. Xaloki esan zioten Frantziskori: «Hemendik aurrera zurekin bizi nahi dugu eta zuk egiten duzuna egin. Esaguzu, bada, gure ondasunekin zer egin behar dugun». Haien etorreraz eta asmoaz pozez beterik, Frantziskok erantzun zien bihotz onez: «Ea, goazen Jaunari aholkua eskatzera».*

Asisko eliza batera [San Nikolas-era?] *joan ziren, bertan sartu eta, belauniko jarririk, apaltasunez honela egin zuten otoitz: «Jainko Jauna, aintzazko Aita, zure errukiarengatik ager iezaguzu, arren, zer egin behar dugun». Otoitza bukatzean, bertan zegoen apaizari*

esan zioten: «Jauna, erakuts iezaguzu Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelioa».

Apaizak liburua zabaldu zienean, beraiek ez baitzekiten oraindik liburua erabiltzen, honako pasarte hau aurkitu zuten berehala: "Guztiz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun". Liburua berriz irekitzean, hau aurkitu zuten: "Nire ondoren etorri nahi duenak," etab. Beste behin liburua ireki eta hau atera zitzaion: "Ez hartu deus ere biderako," etab.

Gauza hauek entzutean, biziki poztu ziren eta esan zuten: «Hona nahi genuena, hona bilatzen ari ginena!» Orduan Frantzisko dohatsuak esan zien: «Hauxe izango da gure Erregela». Gero, bere bi lagunei agindu zien: «Zoazte eta bete Jaunaren kontseilua, entzun duzuen bezala» (PerAn 10-11).

Ebanjelioko egitasmoa argi zegoen bere orokorrean, eta horretarako elkartu nahi zutenek jakin zezaketen nolakoa izan zitekeen biziera ebanjeliotarra. Jantziz ere aldatu ziren, tunika zakarra, txanoa, soka bat gerriko gisara, oinutsik eta makilarik gabe ibiliko ziren. Jantzkerak jakin horrek bereiziko zituen "Anaia Txikiak" gainerako penitentziagileetatik, eta zer esanik ez, erlijiosoetatik. Ondoren, jantzkerak horrek bere bidea egin zuen, eta 1220a baino lehen Anaiak hain barreiatu eta ugari izan arren, lortu zuten abitu bakarraren ezagugarria. Hortaz, janzkeraz ere nortasun berria hartuko zuten Elizan eta gizartean (Esser 1976: 159-171).

Aurrean zuen gizarte-balioekiko haustura pertsonala modu ezberdinetan antzeztu ahal izan zuen, batzuetan modu oso apalean, ez derrigor Gotzainaren aurrean egin zuen bezala:

Behin batean, bada, jaiki, platera hartu eta, [Asisko] hirian sarturik, atez ate eskean ibili zen, janari ezberdinak katiluan bilduz. Lehen zein leunki bizi izan zen zekien jende asko txunditurik gelditu zen hura hain harrigarriro aldatua, bere burua horrela gutxiesteraino, ikustean (HLaLe 22).

² Ik. Bibliaren eta Ebanjelioen gain egin ohi zen ausazko zozketa horretaz zenbait albiste jakiteko: <http://ducange.enc.sorbonne.fr/SORS2> eta https://en.wikipedia.org/wiki/Sortes_Sanctorum.

Limosna eskean ez ziren bukatzen gero Ebanjelioaren araberrako bizierak zituen berariazko zailtasunak: esate baterako, komenturik gabe nola antola lagunarteko egunerokotasuna; ibiltari zebiltzala nola, aldi berean, zinez Anaiartekoak izanik guztien arteko loturak zaindu; nola moldatu gainerako penitentziagileen artean herri ezezagunetan heretikotzat hartzen zituztenean? (Esser 1976: 185-208).

2.2. Anaiarte ebanjeliotarra

Frantzisko beraren bizitzan eta ondoko hamarkadetan sortuz joan zen Anaiartean lagun guztien arteko senidetasun kristaua hertsiki segurtatu nahi izan zuten, eta horrekin batera Ordenako balio ebanjeliotarrak³. Batak bestearekin izandako bizipenen bidez, otoitzean, gogoetarekin eta denen ahalleginez biziera ondus trinkotu ahal izan zen Anaiarte. Eskarmentuaren, solasaldien eta hausnarketaren emaitza izan zen hori, azkenean prozesu mantsoa⁴, Ebanjeliotik bere oinarriak zituena, baina betiere garaiko historiaren barruan bikaindua⁵.

Lagunarteak hilabeteak zeramatzan denak elkarrekin bizitzen zirela; batak bestea ezagutzeko aukera zuen; denek talde berean lanak banatu eta

usadioak finkatzen ari ziren; beren joan-etorrietan ikusten ari ziren non eta zertan zeuden zailtasunak, eta guztiek ere nola eraman burubide bera, elkarrekin lehenengo eta inguruko gizartearekin gero; era berean ikasten ari ziren Ebanjelioaren lekukotasuna nola aurkez zezaketen, eta tokian tokiko eliz eta herri-agintariekin harremanak nola zaindu behar zituzten⁶.

Frantziskorengana etorri eta berorren lagunaren artean leku hartzea erabaki larria zen, nornahiren bizitza goitik behera aldatzen zuena. Eta alderantziz: Anaiarteak ere erne ibili behar zuen, zetorrena nor zen ezagutu eta taldera egokitzen asmatuko ote zuen begiratzin.

Badakigu lehen lagunak nola bildu ziren elkarrengana: Ebanjelio-biziera onartu, ondasunak txiroei eman eta gainerako Anaien bizierara egokituta. Gehiago gabe, Frantziskoren esanetara zeudela. *Perugiako Legenda*-ri sinetsi nahi badiogu (PerLe 70), hasiera-hasieran anaia guztiek zuten anaia berriak hartzeko askatasuna, geroago Frantziskok bakarrik; berau Lur Santuetara joatean, Mateo Narni-koari pasatu zion egiteko hori, Bikario gisara; azkenik, Ministro Probintzialak ageri zaizkigu harrera-ardura horrekin (PerLe 70; BAC 645, 2. oh.).

Bestalde, Nobizio-aldi antolatuturik ez zegoen etorri berrientzat, elkar-bizitzan ikasten zuten Anaiartean bizitzeko behar zena. Fraidegaiantzako Nobizio-aldia Honorio III.ak ezarri zion Anaiarte frantziskotarrari (1220) (Esser 1776: 209-218). Ikusiko dugu.

1208ko urtea da Frantziskok lehenengo lagunak izan zituena. Zalantzarik gabe, Frantzisko beraren erakarmenak indar nabaria izan zuen jarraitzaileak bereganatzean: harekin izandako elkarriketek, herrian egindako predikuek, ikusten zitzaizkion

³ Congar, Y. M., 1977, "San Francisco de Asís o el absoluto del Evangelio en la cristiandad", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 16, 1977, 28-40. <http://www.franciscanos.org/selfran16/congar1.html>. Assendolk, O., 1979, "Vivir hoy el Ebanjelio según el espíritu de San Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 23, 1979, 241-257. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/AsseldonkOvan-VivirHoyElEvangelio.htm>. Bibliaz: Esser, K., 1978, "La Palabra de Dios en la vida de San Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 23, 1979, 191-204. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/Esser-LaPalabraDeDiosEnLaVidaDeSFco.html>.

⁴ Schmucki, O., 1981, "Descubrimiento gradual de la forma de vida evangélica por Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 46, 1987, 65-128. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmuckil.htm>.

⁵ Garaiko Ebanjelio-zaletasunaz: Varii, 1999, *Évangile et évangélisme (XII^e-XIII^e siècles)*. Toulouse: Éditions Privat. Testuinguru historiko kulturalaz: Leclerc, 1982, "Francisco de Asís. Encuentro del Evangelio y la Historia", in: 32, 1982, 239-253. <http://www.franciscanos.org/selfran32/leclerc1.html>.

⁶ Steiner, M., "La experiencia de la fraternidad en san Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 19, 1978, 97-115. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/Steiner-LaExperienciaDeLaFraternidadEnSFco.html>.

xalotasun eta konbentzimenduak, ezaguna zen haren biziera latzak, herrian pixkaka irabazitako estimuak, Gotzainaren onarpenak, guztiek lagundu zuten, Anaia taldetxoa osatuz joaten.


Baina Frantziskok beti ikusi zuen hori, Jainko Aita-ren opari gisa: "...eta Jaunak Anaiak eman zizkidan" idatziko zuen handik hogei urtera Testamentuan.

Asisko gizon bat izan zen. Honen ondoren, anai Bernardo, bake-misioa besarkatuz, bizi-bizi joan zen Jainkoaren santuaren atzetik zeruetako erreinua irabazteko. Bernardok sarri bere etxera gonbidatua zuen aita dohatsua, eta beronen biziera eta ohiturak ikusi eta egiaztatzeko aukera izan zuen (1 Zel 24).

Frantzisko ez zen izan, hilabete haietan, dena eta erabat gizartetik urrundurik bizi zena; alderantziz, predikuak eta jendearekiko harremanak ere zaindu zituen, aipatuak ditugun pobre eta legendunekin noski; baina baita bestelako klase sozialetakoekin ere. Hori izan zen, hain zuzen, **Bernardo Quintavallekoa**-rekin harremanak izateko abagunea⁷:

Askoren artean zabaldu zen Frantzisko dohatsuaren bizieraren eta irakaspen xaloaren berri. Orduan, gizaseme batzuei, Frantziskoren konbertsiotik bi urtera, haren antzera penitentzia egiten hasteko gogoa sortu zitzaion. [...]. Horietan lehenengo, oroitzapen santuko anai Bernardo izan zen. [...].

Egun batez, ezkutuan Jainkoaren gizonarengana joan eta bere asmoa adierazi zion. Erabaki zuten arratsalde batez Frantzisko Bernardoren etxera joatea. [...]. Izendatutako arratsaldean, bada, Frantzisko dohatsua bihotzeko poz handiz Bernardoren etxera joan zen eta gau osoa elkarrekin eman zuten. Bernardo jaunak, besteren artean, honela esan zion: «Nor bait bere jaunarengandik hartu dituen ondasun gutxi edo askoren jabe izan bada urte



Andre Mariaren Portziunkula: kapera eta etxolak

Hala ere, bihotz-berrituta etor zitezkeen artean ez zuten denek aurrera egiteko adorerik izaten. Adibidez, itxura guztiz urrats hori ematen estreinakoa izan zenak ez zuen gero jarraitu, ez dugu ezagutzen haren izenik, ez geroko albisterik. Tradizio hagiografikoak berehala beste bat aurkeztu digu "lehenengo" jarraitzaile bezala, Bernardo: "Fraide Txikien Ordenako lehenengo landaretxoa" (2 Zel 109).

Horien artean, Jainkoaren gizonari debozioz jarraitu zion lehena, izaera erlijioso eta xaloko

⁷ Comodi, B., 2015, "Bernardo de Quintavalle, primer compañero de san Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 130, 2015, 115-152. Manselli 1997b: 350-364.

askotan eta ez baditu aurrerantzean eduki nahi, zein izango litzateke haiekin jokatzeko modurik onena?».

Frantziskok erantzun zion eman zizkion jabeari itzuli beharko zizkiokeela. Eta Bernardo jaunak: «Beraz, anaia, hemengo nire ondasun guztiak zuk egokien deritzozun erara banatu nahi nituzke, horiek eman dizkidan nire Jaunaren maitasunagatik». Santuak esan zion, orduan: «Bihar, goizean goiz, elizara joango gara eta Ebanjelioen liburutik jakingo dugu Jaunak bere ikasleei zer irakatsi zien». (HLaLe 27-28).

Beraz, biziera berriko lehenengo lagun ezaguna zinez Bernardo Quintavalle-ko hori dugu. Lehenengo bi anaiak 1208ko apirilaren 16an elkartu ziren. Bernardo bazen nor Asisko gizarte hartan, izan ere bizitza pobreekin egin nahi zuen Frantziskok estreinako Anaia aberats hau izan baitzuen, bat-batean pobre bilakatutako aberatsa.

Bernardoren Anaiarteko historia pertsonalak arrastoa utzi zuen Ordenaren oroitzapenean, eta hagiografoen lanetan behin eta berriz ageri zaigu, betiere haren santutasuna goraiatuz. Frantziskok berak izan zion estimua ederki asko ageri zaigu Santuaren "Gomendioetako" bedeinkapen batean. Argi dago Bernardoren jokabide hark eta ondoko haren bizierak noraino ukitu zuen Frantzisko, halakoxea izan baitzen Ordenan aitortu zion lehentasun balio eredugarria. Frantziskoren hitzetan esateko:

Anai Bernardo izan zen Jaunak eman zidan lehen anaia; bera izan zen Ebanjelio santuaren perfekzioa lehenengo eta oso-osorik bete zuena, ondasun guztiak behartsuei banatuz. Horregatik eta beste meritu askorengatik, behartua nago bera gure Elkarte osoko beste edozein anaia baino gehiago maitatzera.

Beraz, Ministro jeneralak, nornahi dela ere, ni neu bezalaxe maita eta benera dezala nahi dut eta agintzen dut, ahal dudan neurrian; eta gainerako Ministro probintzialek eta Elkarte

osoko anaiek ere har bezate ni neu bezalaxe (Frantzisko: Bernardori bedeinkapena, 2-4).

Hil baino lehenagotik ezagututa zegoen biografiatan Anai Bernardo-ren *rol*-a (1246)⁸, baina haren oroitzapenak ondoren ere luze iraun zuen eta *Loretxoak* bilduman islaturik dago hori (2-5, kap.); geroago, Bernardori buruzko aurreko albiste oro bildu zuen B. Pisakoak bere *De conformitate*-an (1385-1390)⁹.

Frantziskoren lehen biografoak berariaz esaten digu (1229), Frantziskorentzat nolako poza izan zen pobretasunean berarekin bizitzeko lagun bat zuela ikustea.

Bernardoren Jainkoagana itzultzea eredu bilakatu zen gero konbertitu zirenentzat, ondasunak saldu eta behartsuei banatzeari dagokionez. Izugarri poztu zen Frantzisko santua halako gizonaren etorreraz eta konbertsioaz, honela Jaunak berari buruz zuen ardura adierazten baitzion, beharrezko zitzaion kidea eta adiskide leiala emanez. (1 Zel 24).

Segurutzat eman daiteke data ezagunik gabe Konpostelara egin omen zuen pelegrinazioa, eta jakin nahiko genuke, Hernáez de la Torre-ren zenbait mende geroagoko kontakizunaren arabera (1722), Bernardo Nafarroan nola egon eta ibili zen ere; baina fidagarritasun historiko handirik gabeko iturriak dauzkagu kasu honetan¹⁰.

⁸ Manselli, R., "Bernardo da Quintavalle", in: [http://www.treccani.it/enciclopedia/bernardo-da-quintavalle_\(Dizionario-Biografico\)/](http://www.treccani.it/enciclopedia/bernardo-da-quintavalle_(Dizionario-Biografico)/). Bernardorekiko Frantziskoren estimuaz: Manselli 1997a: 82.


⁹ Bartolomeo de Pisa, 2006, *De conformitate vitae B. Francisci ad vitam Domini Iesu*. Quarachi: Analecta Franciscana (4).

¹⁰ Hernáez de la Torre, D.; Sáenz de Arquiñigo, J., 1722, "Dexa en Rocaforte Nuestro Padre San Francisco al Beato Quintaval y funda en Pamplona el convento de San Pedro", in: ID., 17822, *Primera parte de la Crónica de la Provincia de Burgos de la Regular Observancia de Nuestro Padre San Francisco*. Madrid: Geronimo Roxo. 11-15 (IV. kap.). Edizio berria: Abad Pérez, A., 1990. *Crónica de la Provincia Franciscana de Burgos*. Madrid: Editorial Cisneros.

Bernardorekin batera bigarren izen handi bat dugu, data berean edo, **Pietro Cattani**-rena. Hau ere ez zen nornahi munduan, kalonje eta jurista bezala aipatu izan da. Prestakuntza eta estimu ona zuen bere bertute, nortasun eta prestakuntzagatik. Frantzisko lagundu zuen Ekialderako bidaian (1219-1220); hori ez ezik, itzultzean Frantziskok Anaiarteko agintea berari eman zion; baina denbora gutxirako

diogu zuek eta nik». Eta berehala haren aurrean makurtuz, "obedientzia eta begirunea" agindu zizkion (2 Zel 143).

Ondoko lagunaren etorrera noiz eta zein segidaz gertatu zen segurtatzen ez da erraza; baina hemen tartean emango dugu Silbestrearena. Bere historia berezia du honek, juxtu Bernardorenaren kontra-



Gasteiz: San Frantzisko Komentua (a. 1236-1930). Hiru probintzietako Komentu-Burua izan zen.

izan zen hori, 1221ean hil baitzen. Hagiografoak honela kontatzen du Frantziskok Cattani-ri agintea nola utzi zion:

Apaltasun santuaren bertutea gordetzeko, konbertitu zenetik urte gutxira, kapitulu batean [1220ko irailean, Portziunkulan bildutako Kapitulu Jeneralean] anaia guztien aurrean uko egin zion Ordenako buru izateari, esanez: «Hemendik aurrera hilda nago zuentzat; baina horra hor Pedro Cattani anaia: beroni obedituko

koa. Apaiza zen **Silbestre**, eta diruzalea ere bai, eta Frantziskok San Damianerako harriak erosi zizkionean, tratante gisara jardun zuen, eta marmarreen nonbait. Frantziskok bigarrean ordaina osatu zionean, ados jarrita joan zen etxera, baina ez kontzientzia onarekin, dirudienez.

Egun batzuk geroago, ordea, apaiza, Jaunak inspiratuta, Frantzisko dohatsuak egin zuenaz gogoeta egiten hasi zen, eta honela zioen bere

baitan: «Errukarria benetan ni, zaharra izanik ere, mundu honetako ondasunak irrikatzen eta bilatzen baititut. Gazte honek, berriz, arbuiatu eta gaitzetsi egiten ditu Jaungoikoaren maitasunagatik».

Hurrengo gauean gurutze guztiz izugarri bat ikusi zuen ametsetan: haren gailurrak zerua ukitzen zuen, eta oinaldea Frantziskoren ahoan finkatua zegoen, eta besoak munduaren bazter batetik besteraino zabaltzen ziren.

Esnatu zenean, apaizak jakin zuen eta sendo sinetsi Kristoren egiazko adiskidea eta zerbitzaria zela Frantzisko, eta sortu berria zen Ordena berehala zabalduko zela mundu osoan zehar. Eta horrela, Jainkoaren beldur izaten hasi zen eta bere etxean penitentzia egiten. Azkenik, handik gutxira, sortu berria zen Ordenan sartu zen. Bertan santuki bizi izan zen eta aintzaz beterik hil (HLaLe 31).

Bernardorena gertatu eta berehala, 1208ko apirilaren 23an etorri zen Portziunkulako lagunartera **Egidio**. Bera ere, Frantziskoren gisa, eskola handirik gabea zen eta beharbada horregatik eraman nahi izan zuen honek berarekin lehen Misiorako irten zirenean, kasu honetan Ankonako Marketara. Xume-xume Jainkoaren maitasuna eta penitentzia aldarrikatzen ibili ziren.

Egidio eskulanetara emana zen, eta Santutegietarako ibilaldiak ere sarritan egin zituen, Frantziskok horretarako askatasun handia ematen baitzion; Konpostelara ere joan zen, eta, nork daki, beharbada Euskal Herria zeharkatu zuen.

1215etik aitzina, erabateko aldakuntza izan zuen Egidio, eta Perugia ondoko Favarone-ko eremitoriora bilduta, bizitza kontenplarian gora egin zuen¹¹. 1225-1226.ean Rietin ageri zaigu, kardinal baten

inguruko eskulanak egiten, eta ondoko urteetan, hil zen arte (1262), hainbat bakardade-lekutan bizipen mistiko etenik gabea ezagutu zuten ingurukoek¹². Zelanok honela aurkezten digu Anai Egidio:

[Cattani etorri eta] handik laster, anai Egidio jarraitu zion: gizon xume eta zuzena, eta Jainkoari begirune ziona. Hau luzaroan bizi izan zen, santutasun, zintzotasun eta jainkozaletasunean; eta obediencia perfektuan, eskulanean, bakardadeko bizitzan eta kontenplazio santuan erdugarri izan zen guretzat (1 Zel 25).

1208ko udazken-neguetan, beste hiru lagun etorri ziren taldera (Felipe Longo zeritzana horien arteko bat). Bigarren Misio-aldi batera irten ziren, iritsi berria zen zazpigarren lagun batekin, oraingoan Rietiko Poggio Bustonera. Bizkortzen ari zen taldea, ez bakarrik elkarrekin bizitzeko, baita penitentiaren predikua egiteko ere¹³.

Azken orduko lagun berri batekin (zortzi Frantziskorekin) lau predikari-bikote ziren, eta Ebanjelioetan esandakoaren modura, jada binaka hirugarren Misio-aldi bati ekiteko moduan. Halaxe egin zuten, eta badakigu Bernardo eta Egidio Firenze-ra joan zirela. Misio-aldia amaitzean, 1209ko lehen asteren batean Pontziunkulara itzuli ziren azkenik.

Taldeak elkarbizitza antolatu eta frogatzen jarraitu zuen, eta aldi berean fraide ibiltarien biziera nola eraman ikasten, hau da, egunerokoan otoitz eta lan egin, eta behar zenean limosna-eskean. Bizitza apala, inguruko herritarrekin bizitzen zutena, lana haien etxeetan edo lur-sailetan eginez, uza bilduz edo ereintzan lagunduz, noizbehinka ermitaren bat konponduz. Denen arteko gizalegeak erakutsi be-

¹¹ Brunette, P.; Lachance, P., "Fray Gil de Asís, místico y rebelde", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 123. zenb., 2012, 445-465.

¹² Vecchio, S., 1993, s. v. "Egidio di Assisi", in: *Dizionario biografico degli italiani* (42). Milano: Treccani.

¹³ *Penitentzia* terminoaren adiera ezberdinak gogoan hartu behar dira hemen: Esser, K., 1977, "La penitencia según san Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 18, 1977, 270-276. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/Esser-LaPalabraDeDiosEnLaVidaDeSFco.html>. Goffi, T., 1991, "Penitencia y penitentes: referencias históricas", in: Flores, S. de; Goffi, T.; Guerra, A., *Nuevo diccionario de espiritualidad*. Madrid: San Pablo. 1558-1561.



Asis: Portziunkulako kaperako erretaula

har zuen jatortasun ebanjeliotarra egiaz nolakoa zen Anaiartean:

Aginpidea eman zaiona eta handien bezala jotzen dena, berriz, izan bedi txikienaren pareko eta gainerako anaïen morroi. Eta anaia bakoi-tzarekin izan eta erabil beza errukia, antzeko egoeran bestek ere berarekin izatea nahiko lu-keen erruki bera. Eta anaïak egindako hutsegite-agatik ez bedi harekin haserre, baizik eta eroapen eta apaltasun guztiz onean zentza beza eta eraman (2 FedG 42-44).

Horrela, bada, geroan "Anaiarte" izango zen lagunarte horrentzat guztiek onartu zituzten iriz-pide berak, Anaïen arteko Ebanjelio-berdintasun jatorra ezartzeko, berdintasun onean bizitzeko eta baita egunerokotasun praktikoa harmonia bake-tsuan finkatuz joateko.

Frantziskoren Testamentuan deskribatzen zaizki-gu garai haïetako bizimoduaren xehetasunak. Anaiartearen lehen eskuko albïstea da ondoko hau, Frantziskorena berarena:

Bizimodu hau hartzeko asmoz zetozenek eduki zezaketen guztia behartsuei banatzen zieten, eta honako hauekin aski zuten: tunika bakar bat, barru eta kanpo adabatua, gerriko soka eta az-piko galtzak. Eta ez genuen beste ezer eduki nahi. Kleriko ginenok, beste klerikoen erara errezatzen genuen Ofizioa; laikoek, berriz, Gure Aïtak esaten zituzten. Eta oso gustuko genuen elizetan egotea. Eskolagabeak ginen eta guztien menpeko.

Nik neure eskuz lan egiten nuen, eta egin nahi dut; eta tinko nahi dut, gainerako anaïa guztiek ere lan egin dezatela lanbide egoki batean. Lanbiderik ez dakitenek ikas dezatela, ez lansa-ria jasotzeko gutuziaz, etsenplua emateko eta alferkeria uxatzeko baizik. Eta lansaririk ematen ez digutenean, jo dezagun Jaunaren mahaira, aterik ate limosna eskatuz. Jaunak agertu zidan, agur gisa hau esateko: «Bakea dizula Jaunak» (Test 16-20)

Lehen Anaiarte hartan guztiak izango ziren ber-din: laikoak eta klerikoak, eskolatuak eta ezjakinak, aberats kumeak eta sehaska apalekoak, etab. Au-rreko monakismo tradizionalen ezaguna zen "monje" eta "konbertsoen" arteko bereizketarik ez zen ametzitzen, Nagusi ere guztiak izan zitezkeen, laikoak eta apaizak berdin.

Egiaz, feudalismoak monakatuan lehendik ezarrita zeuzkan monje-izaera ezberdinak ez ziren onartzen, eta beraz berdintasun osorako bizimoldea ezarriko zen denen artean. Benetan "senide berdinak" izan behar zuten Anaiarte bakar eta berdinduan.

Errezo ofizialerako bereizketa txiki bat egin behar izan zuen Frantziskok: Brebiarioa irakurtzeko gai ez ziren "laiko" ez-klerikoek, liburu horren orde-z, "Gure Aïta" kopuru jakin bat esango zuten¹⁴; gainerakoan, Anaiarteko eskubideak denetak eta berdinak izan ziren, nahiz eta luzaroagoan, ondoko hamarkadetan alegia, Ordenaren klerikalizaioak ekarri zituen aldaketak, baina ez lehen orduko Anaiarte hartan (Esser 1976: 66-71)

Bazegoen horretarako beste arrazoirik ere: ibiltari zebiltzan askotan, baina ez ziren ezagunak gertuko edo urrunagoko eskualdeetan, eta Italiak peniten-tziagile susmagarri anitz zuen urte haïetan, hereti-koak ere bai. Komeni zen Eliza hierarkikoaren onespenen bat eskuetan izatea, eta horretarako Aïta Santuak onartzeko agiriren bat prestatzea, "Asisko penitentziagile" haïek nor eta zer ziren jendartean azalduko zuena. Predikari ibiltariak, gainera, diozesiz diozesi joan behar zuten, eta pre-miazkoa zen denetarako balioko zuen egiaztagiri orokorren bat.

¹⁴ Frantziskok *Gure Aïta*-ren parafasia utzi zigun, bere idazkien artean; begiratzekoa da Ebanjelioko otoitz hori nola ulertu zuen jakiteko. Ik. Lehmann, L., 1997, "Meditación sobre la oración del Señor. La Pará-frasis del Padrenuestro de san Franciscode Asís", in: *Selecciones de fran-ciscanismo*. 77, 1997, 203-225. ID., 1988, "Venga a nosotros tu reino. El Padrenuestro con San Francisco de Asís", in: *Selecciones de Francisca-nismo*. 50, 1988, 269-299.

Frantziskok amesten zuen santutasun-eredua lehen anaien izen eta bertuteekin marraztu zuen, gainerako eta geroko anaiek jakin zezaten halakorik egon bazegoela Anaiartean bertan, eta eskuragarria zela denentzat ere hautatutako biziera ebanjeliotarrear:

[...]. *Esaten zuen, anaia txiki onak ondoren aipatzen diren anaia santuen biziera eta ezaugarriak beregan bildu behar zituela: alegia, anai Bernardoren **fedea**, neurri betean izan baitzuen hark fedea pobretasunaren maitasunarekin batera; anai Leonen **xalotasuna** eta **garbitasuna**, biziki garbia izan baitzen benetan; anai Aingururen **kortesia**, Ordenara sartu zen lehen zalduna izan baitzen, eta gizalegez eta onberatasunez jantzia; anai Maseoren itxura atsegina eta **naturaltasuna**, bere **hizketa eder** eta debotoarekin batera; anai Egidiok betebete izan zuen kontenplazioaren bidez altxaturiko espiritua; anai Rufinoren etengabeko **otoitz bertutetsua**, etengabe otoitzean ari baitzen: lotan edo zerbait egiten ere, haren gogoa beti Jaunarekin zegoen; anai Juniperoren **pazientzia**, pazientziaren neurri betera iritsi baitzen, beti begien aurrean zeukan bere kaskartasuna sakon-sakonetik ezagutuz eta gurutze-bidetik Kristo imitatzekeo desira handiaz lorturikoa; Lodiko anai Joanen gorputzeko eta espirituko **indarra**, bere garaiko gizon guztien gainetik baitzen indartsua; anai Rogerioren **karritate**, bere bizitza eta jardun guztia maitasun-garretan eman baitzuen; anai Luzidoren **ardura** nekaezina, kezkatu hilabete batean ere ez baitzuen leku berean egon nahi izaten: lekuren bat gogoko egiten hasten zitzaioneko, ihes egiten zuen handik, esanez: Mundu honetan ez daukagu egoitzarik, zeruan baizik (Perls 85; ik. 1 Zel 102).*

Horra, bada, Frantziskok zuen santu-familia, gogoko zuen ebanjeliotasuna ispatatzen ziona. Lehen urte eta erdiko anaiak eta bertute guztiak

ez ditu biltzen pasarte horrek (1208-1209/10); baina izenak eskueran daude, bakoitza bere nortasunarekin. Lehenengo taldeko ia denen biografiak ezagunak dira, eta Erromara joandako horien jarraian datoz lagun berrietako zenbait ere (Rufino, Leon¹⁵, Junipero, Pazifiko). 1209-1215. urteetako bigarren olatualdiko anaia batzuk (Rufino, Leon, Elias...) zinez garrantzizkoak izan ziren Frantziskoren bizitzan. Guztiak edo gogoan hartuta, hauek lirateke “Anaia Txikiak” deituko direnak (Merlo 2005: 25, 27).

1) Bernardo Quitavalle-koa, Pietro Cattani, Egidio, Sabatino, Morico Txikia, Giovanni Capella, Filippo Longo, Giovanni Constancio-koa, Barbaro, Bernardo Vigilante eta Aingeru Tancredi.

2) Giovanni Notiono-koa, Rufino Escipione-koa, Leonardo, Leon, Junipero, Jacobo, Tebaldo, Agustin, Maseo Marignano-koa, Elias, Iluminato, Pazifiko, Simon Collazone-koa.

Guztion talde-nortasuna ezaugarri hauekin ageri zaigu: “mundua” utzi dute, baina herri-herrikoak dira, eta herritar pobre eta baztertuenen artekoak sarritan: beren ekonomia jabetasunik gabekoa da, eskulanaren borondatezko ordain-saria jasoko dute eta besterik ezean limosnari esker biziko dira; gaixok eta legendunak maitatu eta zaintzen dituzte; aita eta senidetzat Jainkoa eta Jesus gurutziltzatua dituzte; eliza apaletan egiten dute otoitz, edo eremitorioetako bakardadean; salbaziorako bidean, penitentzia eta konbertsioaren beharra predikatzen dute; biziera ebanjeliotarra besarkatu dute, eta berorren arabera *anaiartea* dira, elkarren senide. Gizartean “Anaia Txikiak” deitu eta izango dira.

¹⁵ Lehen-lehen orduko laguna izan ez arren, anai Leon-ek presentzia hurbila eta iraunkorra izan zuen Frantziskoren ondoan (Frantziskoren idazkari eta aitor-entzule zela). Calì, T., 2005, [http://www.treccani.it/enciclopedia/leone-d-assisi_\(Dizionario-Biografico\)/](http://www.treccani.it/enciclopedia/leone-d-assisi_(Dizionario-Biografico)/). Block, W., 2013, “Fray León, ‘ovejuna de Dios’. Algunas notas sobre el perfil espiritual del compañero de Francisco de Asís”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 126, 2013, 389-418.

2.3. Ebanjelioa eta lehen Erregelak (1209)

Anaia-lagunartea bildu samartu zenean, Frantziskok hurrena zegokion egitekoari ekin zion, hau da, Ebanjelioaren arabera "propositum vitae" bat idazteari; biziera berrirako gida izan behar zuen horrek. Ez zen bera lege-gizona, ez zuen kode kanonikoari buruzko ezagutza teknikorik, teologoa ere ez zen; baina Ebanjelioaz jabeturik zegoen, irakurritz eta otoitzez ondu zuen Ebanjelio zaletasuna¹⁶. Eta bizitzako jardunbidean bazuen ustegabeko berritasun bat¹⁷: bazituen Ebanjelioaren argitara erakarri eta berak gidatzen zituen Anaiak. Ebanjeliotasuna izango zen guztiaren oinarri¹⁸.

Hurrengo urratsak horren osagarri eta luzapen izan behar zuen, "bizierarako proposamen" arautzailea, alegia, beharrezko izango ziren onarpenak izango zituen eta nornahiren aurrean aurkezpen erara erakusteko ziurtagiria, Diozesietako gotzain, herrietako agintari edo elizetako Bikarioen aurrean predikua edo limosna-eskea erraztuko zituen.


Eta Jaunak anaiak eman zizkidanean, inork ez zidan erakutsi zer egin behar nuen, baizik eta Goi-goikoak berak agertu zidan Ebanjelio santuko moldearen arabera bizi behar nuela. Eta nik hitz gutxitan eta sinpleki idatzarazi nuen, eta Aita santu jaunak baietsi egin zidan (Test 14-15).

Frantzisko dohatsuak, egunetik egunera Jaunak jarraitzaileak gehitzen zizkiola ikusiz, bizi-

molde edo Erregela idatzi zuen hitz gutxitan eta sinpleki beretzat eta anaientzat, ordura arteko eta gerokoentzat. Ebanjelioko hitzez baliatu zen gehienbat, hura perfektuki betetzea baitzen bere irrika bakarra; beste gauza gutxi batzuk baino ez zituen erantsi, elkarrekin biziera santua eramateko beharrezko zirenak. (1 Zel 32).

Guztiaren ondorioz, Frantziskok "asmo gidari" bat idatzi zuen (*propositum*). Badirudi inork halakorik eskatu aurretik idatzi zuela, gainera.

Anaien kopurua pixkana-pixkana gehituz zihoala ikusirik, Kristoren zerbitzariak bizi-proiektua



P. Zurbano: Nobizioentzako Erregelari buruzko liburuxka, Euskal Herrian fraidegaian hezkuntzan 1968ra arte erabili izan zena

¹⁶ Gerken, A., 1994, "La intuición teológica de san Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 68, 1994, 166-190.

¹⁷ Kristautasunean Frantziskoren proposamenak eta frantziskotartasunak egin zuten ekarpen orijinalari buruz azalpen orokor argia eta aberatsa: Fz. de Pinedo, A. M., 2004, *La experiencia cristiana de Francisco de Asís y la identidad franciscana*. Oñati: EFA. Laburrago: Martín Velasco, J., 1984, "Cristianismo y franciscanismo", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 39, 1984, 471-490. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/MartinVelasco-CristianismoYFranciscanismo.html>.

¹⁸ Steiner, M. 1978, "La experiencia de la fraternidad en San Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 19, 1978, 97-115. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/Steiner-LaExperienciaDeLaFraternidadEnSFco.html>.

idatzi zuen hitz xumeez beretzat eta bere anaienez; bertan, Ebanjelio santua betetzea jarri zuen ezinbesteko oinarritzat, beste gauza gutxi batzuk erantsiz, elkarrekin modu bateratuan bizitzeko beharrezkoak ziruditenak. (LeLu 8).

Derrigorrezkoa zen arautegi malgu bat, ez bakarrik talde bat zirelako, baita inguru soziala nahasia ageri zelako ere. Kontu egin behar da halako biziera ibiltaria zerabilten asko “heretiko” susmagarriak zirela, Luzio III.ak Lyon-go pobreen eta Lonbardiako Umiliati deitzen aurkako legeak eman zituenetik (*Ad abolendam hereticam pravitatem*, 1184), eta zer esanik ez 1208-1209 urteetan.



Erregelaren historia: Vatikanoko II.aren bezperan (1961) frantziskotarrek^{9m} Erregela buldatuaren (1223) historia hau argitara eman zuten, etor zitezkeen eskakizun berriei erantzun ahal izateko ere

1208ko urte hartantxe “garbitu” zuten Inozentzio III.aren delegatu Pierre Castelnau kardinala (1208ko urtarilaren 15ean, goizaldera), heretikoen peskizan edo zebilela. Gurutzada baterako deialdia bilakatu zen hilketa hura, eta Frantzian eta Italian, Unbrian eta Asisen, bakoitzak bere erara, biziko zuen Aita Santuak deituriko kristauen arteko lehenengo Gurutzada (1209-1229). (Niel 1997: 73-90; Lambert 2003: 411)¹⁹. Inozentzio III.arentzat bere aita-santualdiko unerik larriena izan zen: hiru egunetan egon omen zen hitzik egin gabe Aita Santua, Gurutzadara deitzea erabaki aurretik.

Jazoerak hainbesteko abiada hartzen ari ziren hilabeteetan ekin zion Frantziskok bere proposamena idazteari, beraz. Ebanjelioak eta ondoan zituen Anaiak behatzen zituela, bai; baina guztiz bere gisara eta otoitzean egin zuen lan.

2.4. “Hamabiak” Erromara

Hainbeste korapiloren artean, Erregelak bere indarra izan zezan, talde barnean ez ezik gizartean eta Elizan ere, garbi ikusi zuen Frantziskok zer egin behar zuen: lagunartea berarekin zihoala, Erromara joan Aita Santuarekin mintzatu eta premiazko onespena jaso.

Frantzisko dohatsuak ikusten zuen Jauna anaien kopurua eta merezimenduak gehitzen ari zela (hamabi lagun baitziren, guztiz onak eta asmo berbera zutenak). Orduan berak, hamabi-garrenak, taldearen gidari eta aita zenak, honela esan zien beste hamaiki: «Anaiok, Jaunak bere onginahian gure elkarte hau gehitu egin nahi duela ikusten dut. Goazen, beraz, Erromako gure eliza ama santuarengana eta jakinaraz

¹⁹ Lambert-ek katarismoaren bere historia honela amaitzen du: “La historia fundamental del catarismo se desarrolló en Europa occidental, principalmente en ciertas áreas del Languedoc y el norte y el centro de Italia. Allí fue donde la herejía tuvo mayor impacto y donde fracasó o fue aplastada” (Lambert 2003: 411).

diezaioGUN Aita santuari Jauna gure alde egiten hasi dena, haren borondatez eta aginduz aurrera eramanez agun hasi duguna» (HLaLe 46).

Talde Bernardo, Pedro, Egidio, Silbestre eta abarrek osatuko zuten. Guztiak ere ikus zitzatela Kurian, ikus zitzala Aita Santuak, jakin zezatela Elizaren mendean jardun nahi zutela, penitentzia eta Ebanjelioa predikatzen; ez zebiltzala, inondik ere, Hierarkiagandik ihesi, eta are gutxiago haren aurka²⁰. Horregatik:

Idatzi zuena Aita santuak onartzea nahi zuen eta gizatalde xalo harekin, Aulki Apostolikoaren aurrera aurkeztea erabaki zuen, Jainkoaren gidaritzapenez bakarrik fidaturik (LeLu 8).

Biografoen "hamabiak" horrek balio sinboliko-biblikoa du, denen artean Apostoluen gisako taldea errepikatzen zutela aditzera emateko; baina baliteke hain zuzen hamabi izatea, Erromarako onarpen bila irten zirenak. Hara zihoazela, bidean nondik norakoak hautatzeko gidari gisara Anai Bernardo izendatu zuten, eta hark erabakitako ibilbidean barna joan ziren Hiri Santura.

1209ko udazkenean edo 1210eko lehen asteetan jarri izan da erromesaldia. Frantziskok ez zuen bakarrik joan nahi izan, eta Erroman laguntzen izan zituen goi-bitartekariak gehienbat beraren harreman pertsonalen emaitza zen.

Gaurko historialariek Erroman jarrera ezberdinak aurkitzen dituzte Frantzisko eta lagunek zekarten proposamenaren aurrean. Iturri hagiografikoek ez dute aipatzen Kuriako administrazioan kontrako jarrera edo azpilanik egon zenik, aldeko bitartekariaren ahalegina goraipatzen duten bitartean. Horren arabera, Kuriako eginbideak zangotraba okerrik gabe joan bide ziren²¹.

Nolanahi ere, garbi dago Aita Santuak arretaz begiratu nahi izan zuela eskuetan jartzen zitzaion proposamena²². Ondoko testuan San Bonabenturak aipatuko dizkigun balizko arrazoien ondoan, besterik ere bazegoela argi dago (Eliza barruko erreformazale herritarrekiko politika eta etorkizun posiblea, adibidez) (Manselli 1997a: 106-119). Harreman-kudeaketa haren emaitza nolakoa izan zen ezagutzen du Bonabenturak, eta Frantziskoren nortasunak nola lagundu zuen esaten digu:

Erromako Kuriara iritsi eta Aita santuaren aurrera eramanez zutenean, Frantziskok bere asmoa azaldu zion, apalki eta arren eskatuz goraxeago aipaturiko Erregela onetsi zezaiola. Ikusi zuen Kristoren Ordezkarik Aita santu Inozentzio III.ak, bere jakinduriagatik oso ospetsu zenak, Jainkoaren gizonaren arima xaloaren garbitasuna, haren asmoaren sendotasuna eta borondate santuaren sugarra eta, harrituta, prest azaldu zen Frantziskoren eskabideari baietza emateko. (LeLu 9).

2.4.1. Erromako laguntzaileak

Frantziskok Erroman izan zituen laguntzaileen artean ageri zaizkigu, lehenengo Guido II.a, Asisko Gotzaina, eta berorrek batera Kuriako Joan San Paolo-koa, kardinal beneditarra eta Sabinako gotzaina, eta azkenik baita Aita Santua bera ere.

Guido II.a Gotzainak (a. 1204-p. 1228) Frantziskoren azken hogeitaz urteak egin zituen Asisen. Ezagutzen dugun bien arteko harremanean, gogora ditzakegu lehen-lehenik Guido-k aitarekiko auzian nola babestu zuen Frantzisko, nola lagunduko dion Erroman Inozentzio III.aren auzia joango denean, eta eri zela nola hartu zuen Asisko bere jauregian. Hierarkiatik, Guido izan zuen gertuko

²⁰ <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/KEsser-Autoridad-y-obediencia-en-la-primitiva-familia-franciscana.html>.

²¹ Berezilari ezagunen eskutik ikus daiteke Erromako Kuriaren historia, s. v. "Curie", in: Levillain (ed.) 1994: 500-532.

²² Powell, J. M., 1979, "El papado y los primeros franciscanos", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 23, 1979, 265-276. <http://www.franciscanos.org/iglesia/powell.html>.

agintaria, eta beroni aitortu behar zaio Frantziskori eman zion lehen aterpe juridikoa.

Frantzisko Erromara bere proposamenarekin heldu zenerako, **Joan San Paolo**-koak (c.1150-1214/15) ibilera luzea beterik zuen Erromako

berehalako batean hautatu zuten ondokoa, Lotario de Conti de Segni: Inozentzio III.a (1198-1216).

Aurretik eta ondoren, Aita Santuen zerbitzari fide-la izan zen Joan San Paolokoa, ez Kuriako Adminis-trazioan bakarrik, baita erbesteko diplomazian ere:



Erroma: Laterango elizaren ondoko monumentua, Italiako zaindariari eskainia

Kurian eta Aita Santuen zerbitzuan, Italian bezala Frantzian (1192...), Kurian bertako zereginetan eta erbesteko legatu ordezkari gisara. Monje beneditarra eta medikua izanik (horri esker, beste zenbait bezala), leku bat irabazia zuen Kuriako Administrazioan.

1192an kardinal egin zuen Zelestino III.ak (1191-1199), eta beronek Aitasantutzatik dimitituko omen zuela eta ondoko bezala aurkeztu nahi izan zien gainerako kardinali Joan San Paolo-koa. Asmoak ez zuen aurrerabiderik izan, eta Aita Santu hori hiltzean,

Kurian (behin eta berriz 1192-1208), Italian (1198-1199), Frantzian (1200-1201). Horrek guztiak Erromako gobernua ezagutu eta berorren arazoetan trebatzeko egokiera eskaini zion, eta aldi berean, Kuriatik urrun zeuden gai politiko eliztarrak bertatik bertara ezagutzeko ere bai (Frantziako hegoaldeko mugimendu ebajeliotar edo "heretikoak", adibidez)

Badirudi, Kurian bezala bere kanpoko jardunaldietan, erlijioso-erakunde (Ordena, Monasterio...) eta eliz erakunde sekularren (Kabildo, Parrokia...)

arteko tirabirak konpondu eta bideratzen berezitu zela, hain maiz egin behar izan baitzuen halakoetan epaile eta tartekaritza lana.

Frantziskorekin topo egin zuenean, bada, ongi zekien zer esan nahi zuen “ebanjelio zaletasunak”, eta beronek doktrinaren aldetik zituen jatortasun, anbiguitate, eta desbiderazioak (baldotarrak, kata-roak, albitarrak; *umiliati* deituak), eta erreforma zaletasun hark gizartean hartu ohi zitzakeen antolaera kontrajarriak (Erromaren nahiz Hierarkiaren aurrean; tokian tokiko botereen arteko elkar-lanean).

Joan San Paolokoa kataroen aurkako Gurutzada prestatzeko eginkizunetan ibilia zen (1200-1201), baina ez dirudi arazo militar hark itsutu zuenik, edo behintzat Kuriako politika ofizialaren ondoan bestelako Ebanjelio-bideak ere premiazkoak zirela ikusi zuen²³.

Hortaz, Frantzisko Erromara iritsi zenerako, Joan San Paolokoak gertutik ezagututa zituen bi hauta-bide posible eta arrisku bat: lehenik, Mendebaldeko monakatu beneditar zistertarra eta haren ondoan mende-erdi batetik ordura arte garatuz zihoan biziera ebanjeliotar askea, eta bion ondoan, ataka gaitza, heterodoxiara lerratutako mugimendu berriak. Hirurak ere aintzakotzat hartzekoak ziren, nahitaez, Erromako Elizaren politikan.

Horregatik, Frantziskori entzun ondoren, kardinalak seguruenera jo zuen, eta zera galdetu zien: Zergatik ez zarete antolatzen monje edo eremita gisara, Erregela ezagun baten arabera, eremitorioetan edo monasterio-biziera eramanez? “Frantzisko santuak, ordea, ahal zuen apaltasun handienaz uko egiten zien argudioei, ez haren proposamena gutxien zuelako, baizik eta, desira altuagoak eramanez, beste zerbaiten bila zebilelako” (1 Zel 33).

Inozentzio III.aren biografia (1160-1216) eta aita-santualdia (1198-1216) Elizaren Historia handian oso presente dagoena da²⁴, baita Kristandade deituan bi botereen arteko harreman eta zerikusiak elkar mugatzeko egin zituen ahaleginak ere, betiere Elizaren eskumena gainerako guztiaren gainetik jartzen zuela.

Erroman eta Parisen egin zituen ikasketak, eta beharbada Bolognan. Teologia eta Eskrituran oso aditua, bereziki asmatu zuen, Zuzenbidean barrena zihoala, eliz gobernu eta erreformarakoak bideratzen. 1189an egin zuen kardinal Klemente III.ak (1187-1191).

Inperioarekin eraman zuen tirabira teoriko eta praktikoa izan zuen Inozentzio III.ak ardura korapilotsuetako bat, Elizak bere baitan izan behar zuen eskumen oso eta bakarrari zegokiona, alegia: *plenitudo ecclesiasticae potestatis*, esan nahi da Elizako beste aginteren eskumenik gabekoa, Elizako izendapen eta ondasunetan esku erabat librea izango zuena. Teoria argia izan bazitekeen ere, garai haietako jardura politikoan ez zen erraza irizpide hori ezartzea.

Inperioan eta Frantzia/Ingalaterrako nahiz Italiako bitzita politikoan eskurik izan zuen Aita Santu honek eta bete-betean egon zen presente, egoki uste izan zuenean eskumikuak eta indarra ere erabiliz. Frantziskoren Puglia-rako asmoa ere testuinguru horretan gertatu zen (1205). Aita Santuen “Ondarea” berreskuratu eta finkatzen saiatu zen, eta horretan izan zuen zerikusirik Perugia eta Asisekiko politikarekin ere, *comune* jaioberrieekin harremanak segurtatzen zebilenean.

Pobretasun ebanjeliotarra aldarrikatzen zutenen taldeak kontuz eta interesaturik begiratu zituen

²³ Gaffuri, L. 2001: s. v. “Giovanni di San Paolo”, in: http://www.treccani.it/enciclopedia/giovanni-di-san-paolo_%28Dizionario-Biografico%29/.

²⁴ Hanne, O., 2012, *Innocent III. La stupeur du monde*. Paris: Belin. VI-IX (Frantzisko eta Domingo Aita Santuaren aurrean: irudiak), 153-164 (Monakatu eta mugimendu ebanjeliotar berriei buruzko Aita Santu honen politikaz).



Erroma: Laterango eliza, Aita Santuen Katedrala. Frantzisko hemen egon zen 1215eko Kontzilioan

Inozentzio III.ak, komeni eta ahal izan zenean, Eliza barnean ere haïetako batzuei leku egiten ziela.

Lehendik Aita Santuekin gorabeherarik franko izan zuten *umiliati*-entzat leku juridiko erosoak aurkitu zuen Inozentziok (1201), eta halatsu egin zuen baldotarren adar batekin. Aldi berean ez zuen ahaztu Ordena erlijioso zaharren erreforma ere. Baina diplomazia ez ezik armak ere erabili zituen “heretikoen” aurka, (berezikiago bere azken urteetan (1209-1216). (Levillain 1994: Gouyotjeannin, 876-882).

Protagonista nagusiak ezagututa, goazen harreman haiek nola joan ziren ikustera.

2.4.2. Inozentzio III.aren

Anaiek, jada Erroman zirela, itxaron egin behar izan zuten harremanak bide ofizialeetatik hasi aurretik; baina, bitartean, izan zitzaizkien laguntzaile egokiak ezagutu eta hautatzeko parada izan zuten. Bertan zegoen ongi ezagutzen zuten bat:

Erromara heldu zirenean, Asisko gotzaina aurkitu zuten han; honek poz handiz hartu zituen. Izan ere, xera berezia zien Frantzisko dohatsuari eta gainerako anaia guztiei. Baina ez zekien zergatik joan ziren eta aztoratzen hasi zen: beldur zen beren sorterrira utzi nahiko ote zuten, harrigarriak egiten hasia baitzen han Jauna anaien bitartez. Biziki pozten zen halako gizasemeak bere elizbarrutian edukitzeaz, eta harro zegoen haien bizibide eta jokabideaz. Baina zergatik joan ziren jakin zuenean, asko poztu zen, eta beren helburua lortzeko laguntza eta aholkua agindu zien. (HLaLe 47).

Beren Gotzainaren eskutik lotu ahal izan zuten goian ikusi dugun Joan San Paolokoarekin harremanik. Esanda daukagunaren arabera, Kuriara eta Aita Santuarengana ate onetik sartzeko aukera izan zuten, bada. Hiru Lagunek honela gogorarazi zuten hori dena hogeita hamar urte geroago:

Asisko gotzaina Santa Sabinako gotzain zen kardinal baten ezaguna zen [...]. Asisko gotzaina mintzatua zen kardinalarekin Frantzisko dohatsuaren eta honen anaien bizieraz; horregatik, Jainkoaren gizona eta honen anaïetako batzuk ezagutzeko gogo bizia zeukan.

Erroman aurkitzen zirela jakitean, haiek deitzeko agindu eta begirune handiz eta maitekiro hartu zituen. Harekin bizi izan ziren egun gutxietan, hitz eta egite santuz hunkiturik utzi zuten [...], eta eskatu zien, mesede berezi bezala, ordutik aurrera beren anaïatzat eduki zezatela. Gero, zergatik etorri ziren galdetu zion Frantziskori, eta, honek bere gogoa eta asmoa agertu zionean, Kurian bere bitarteko izatea eskaini zion (HLaLe 47-48).

Funtsean, horrelatsu joan ziren, nonbait, lehen harreman haiek, testuak dioen gertakarien balio-espen xalo hori bere horretan hartu ala ez. Arestian ikusi dugu, kardinal honek Kurian eta Elizan zuen pisua zer-nolakoa zen, eta beronen iritziak zein itzal izan zezakeen Kurian eta Aita Santuaren aurrean.

Era berean, esan dugu zerbait Inozentzio III.ak une hartan eta Elizaren gobernu-politikan zituen arazo nagusienei buruz. Egiaz, Joan San Paolokoa zen eskuetara zetorkien “proposamena” Kurian hobekien uler zezakeenetakoa, eta antzeko arazoetan Inozentziorekin sintonia onean jardun ohi zuena.

Itzuli zen kardinal hau Kuriara eta esan zion Aita Santu Inozentzio III.ari: «Ebanjelio santuko bizimoldearen arabera bizi, eta denetan Ebanjelioaren perfekzioa gorde nahi duen gizon guztiz on bat aurkitu dut. Sinetsirik nago Jaunak Eliza santuaren fedea beronen bitartez eraberritu nahi duela mundu osoan». Hitz hauek entzutean, guztiz harrিতa gelditu zen Aita santua, eta kardinalari agindu zion Frantzisko dohatsua beregana ekartzeko.

Biharamunean, Joan kardinalak Aita santuari aurkeztu zion Jainkoaren gizona. Frantziskok

bere asmo santua osorik azaldu zion Aita santuari. Aita santua aparteko zentzutasunez hornitua zegoen, eta ontzat eman zituen santuaren asmoak, behar den moduan. Aholku ugari eman ondoren, bedeinkapena eman zion, esanez: «Anaiok, zoazte Jaunarekin, eta hots egin penitentzia gizon-emakume guztiei, Jaunak berak adierazi nahi izango dizuen eran. Eta Jainko ahalguztidunak kopuruz eta graziaz ugaritzen zaituztenean, jakinaraziezaguzue eta guk gauza gehiago emango dizkizuegu eta seguru garrantzizkoagoak ere gomendatuko dizkizuegula».



Frantzisko Erroman, Aita Santuarenean

Frantziskori eman ziona eta ematea pentsatzen zuena Jaunaren gogoko zen ala ez jakin nahi zuen Aita santuak. Alde egin aurretik, santuari eta honen lagunei esan zien: «Ene seme maiteok, zuen bizimoldea gogorregia eta latzegia iruditzen zaigu. Zuek hain gogo bero ikusita, badakigu ez daitekeela zuetaz zalantzarik egin; baina zuen ondorengoak ere gogoan izan behar ditugu, bizibide hau beharbada latzegia irudituko baitzaie». Baina haien fedearen sendotasuna eta itxaropenaren aingura irmoki Kristogan finkatua ikustean, eta jakinik ez zutela aldendu nahi hartua zuten asmotik, honela esan zion Frantzisko dohatsuari: «Ene seme, zoaz eta eska Jainkoari ager diezazula zuek nahi duzuen hori bere gogokoa den ala ez, Jaunaren borondatea ezaguturik, zure nahi horiei amore eman diezaziegun (HLaLe 48-49).

Ez da erraza jakiten Hiru Lagunen azalpen horretako zer den, benetan, hitzez hitz hartzekoa, eta zer izan daitekeen ondoko hamarkadetan gogoratu eta gisa berri batean esana, hau da, idazlearen atzera-begiratuko memoria moldatua.

Bi kezka, behintzat, ageri dira Inozentzio III.aren hitzetan: proposatutako bizimoldea gogorregia ikusten zuen, ugalduz joan zitekeen taldearentzat ("ondorengoak ere gogoan izan behar ditugu"), eta, artean, berretsi beharra zegoen Jainkoaren nahia hori zen ala ez.

Hamarkada batzuk geroago, San Bonabenturaren *Legenda luzea*-k akaso hobeki jaso zuen gertatutakoaren albistea (1263), Inozentziok gogoan zituen arrazoi bibliko-pastoralak eta Elizako gobernantza-arauen zuhurtzia gogorarazi eta azpimarratuta:

Erromako Kuriara iritsi eta Aita santuaren aurrera eraman zutenean, Frantziskok bere asmoa azaldu zion, apalki eta arren eskatuz goraxeago aipaturiko Erregela onets ziezaiola. [... Egin zion azalpenagatik] harrituta, prest azaldu zen Frantziskoren eskabideari baietza emateko.



Inozentzio III.aren ametsa:
Frantzisko erortzear zen Elizari eusten

Hala ere, ez zuen onartu berehala Kristoren pobretxoak aurkeztutako bizi-proiektua, zenbait kardinali proiektua berria eta giza indarrentzat zailegia iruditzen baitzitzaion. Bazen, ordea, kardinalen artean gizon agurgarri bat, San Paoloko Joan jauna, Sabinako gotzaina. Honek, Espiritu Santuaren sutan pizturik, Aita santuari eta bere anaia kardinali esan zien: "Pobre honek eskatu, Ebanjelioko bizimoldea onestea baino ez digu eskatzen. Beraren eskabidea zail eta berriegia delakoan ukatzen badiogu, ibil gaitetzen kontuz ez diezaiogun Kristoren Ebanjelioari berari irain egin". [...].

Arrazoibide horien aurrean, Pedro Apostoluaren ondorengoak Kristoren pobrearengana itzuli eta esan zion: "Ene seme, egin otoitz Kristori zure bitartez bere nahia adieraz diezagun, hura argiago ezagutuz, zure desio santuak seguruago onartu ahal ditzagun".

Jainko ahalguztidunaren zerbitzaria otoitzera eman zen kartsuki eta, bere otoitz santuen bidez, lortu zuen berarentzat zer-nolako hitzak esan behar zituen jakitea eta Aita santuarentzat barne-jarrera egokia (LeLu 8, 10).

Kontakizun historikoaren harian, gero gertatu omen zena garaiko ohitura erlijiosoen arrastoan doa. Ikusi dugu aurreko orrialdeetan ikuskari eta ametsek garaiko erlijiotasunean izan ohi zuten presentzia argigarria; Frantziskoren bizitzan horrelako anitz dago, eta etorkizunerako une erabakigarri hartan egon zen halakorik:

Adi-adi entzun zituen Kristoren Ordezkariek [Frantziskoren azalpenak]. [...]. Eta kontatu zien nola ametsetan ikusi zuen Laterango Basilika lur jotzeko zorian zegoela, eta gizontxo pobre, txiki eta itxura eskaseko batek bere bizkarra ezarriz eusten ziola, eror ez zedin. Eta esan zuen: "Hauxe da, egiaz, bere biziera eta doktrinaz Kristoren Elizari eutsiko diona".

Une hartatik bertatik, Frantziskorenganako jaiera bereziz beterik, haren eskarira erabat makurtu zen, eta Kristoren zerbitzaria amodio bereziz maitatu zuen beti. Ez zion eskatutakoa bakarrik eman, baizik eta aurrerantzean askozaz gehiago emango ziola agindu zion. Erregela onetsi zion eta penitentzia predikatzeko baimena eman; eta Jainkoaren zerbitzariaren lagun ziren anaia laiko guztiei tontsura txiki batzuk egiteko agindu zuen, Jainkoaren Hitza askatasunez hots egin ahal zezaten (LeLu 3, 10).

Inozentzio III.aren amets-gertakizun hau Sto. Domingoren bizitzan ere topatzen dugu: garaiko jarraitzaile frantziskotar eta domingotarren memorian, biak izan baitziren garaiko krisian Elizaren sostengu eta izanberritzaile²⁵.

Amets edo ikuskarietatik errealtatera gatozela, esan dezagun Asisen Gotzainak bertako elizbarrutirako eman zien babes juridikoa, oraingoan Kristandade osorako Erregela onartuak eta tontsura honek eman ziela. Kleriko bihurtu ziren, bada, Elizaren Erakundean eta aginte zibilaren aurrean. Ondoko hamarkada osoan (1221 eta 1223raino), Erregela-proposamen berretsi honek bere indar juridiko osoa izan zuen Frantziskoren Anaiartean, beste lehenagoko Erregela monastikoetara jo gabe.

Onartutako *propositum vitae* haren jatorrizko testurik ez da aurkitu garaiko agirietan, eta hitzez hitz nolakoa izan zen ez dakigu. Balizko testua berridazteko ahaleginak egin diren arren, hipotesi ezberdinek ezin izan dute arazoan ziurtasunik ekarri. Hala ere, Erregela ez-buldatuko (1221) lehen atalburuko testua izan daiteke jatorrizko haren-gandik gertuena dagoena; baina kapitulu hori aholku biblikoek osatzen dute, zinezko arautegi juridiko batek baino.

²⁵ Ik. Constantino de Orvieto, a. 1256, *Narración sobre Santo Domingo*, in: Gómez García, V.-T., 2011, *Santo Domingo de Guzmán. Escritos de sus contemporáneos*. Madrid: EDIBESA. 452-453

Hain biziera berria frogatzen ari ziren lehen urteetan, funtsezko irizpide orokorrak erabat finkoak izan behar zuten (oinarri ebanjeliotarra, jatorrizko gizarte zaharretik libre izatea, erabateko pobretasuna, etab.); baina gainerako arau zehatzetan ez zegoen zergatik hain zurrun izan, "bizitzak" berak aholkatuko zuenaren arabera moldatuz ez joateko.

Anaien bizieraren berritasunak oso gogoan hartzekoak ziren, Anaiak ez baitziren "eremitak", ezta "monjeak" ere, bietatik zuten zer bait: hasieran, "ermitau" gisara ibili ziren, "ermitauen" jantziekin eta hauek bezala kontenplazioan; hala ere, Ebanjelioa entzutean, jantzi eta bizimoduz aldatu ziren, eta bidari eta predikari bilakatu. Era berean, monjeak bezala, elkarrekin bizi ziren, talde bat osatzen zutela; baina ez zeukaten monasteriorik, ezta, nonahi zela ere, egonkor egoteko asmorik. Eskeko predikari ibiltariena zen haien lanbidea, bere ondorio sozial eta pastoral guztiekin.

Esaterako, XIII. mendean hizkuntza herritar neolatinoek Italian ere kultur abiaburu bizkorra bizi izan zuten, eta hain zuzen Erdi Aroko latinaren sostengatzaile izandako elizgizonetako zenbait ere gertatu zen kultur aldakuntza haren baitako eragile. Eskeko Ordenetakoen predikuak, orokorrean, eta Frantzisko eta honen jarraitzaileenak batik bat (herrian herritar izan nahi zutelako), eragin nabarmena izan zuten hizkuntza herritarren kulturatzean. Erabaki juridiko batek (predikuaren anaienezako baimenak) eta Frantziskoren Anaiarte predikariak bizkortu egin zuten hizkera herritarren eliz erabilpena eta garaiko latinari gaina hartzeko ahalegina²⁶. Hori gertatu zen berehala hizkuntza

neolatinoetan, eta baita alemanieran ere²⁷. Frantzisko izan zen, nahitaez, bere sekulartasunean, herri-tartasun linguistikoki bultzada berria eman ziotenetako bat.

2.5. Erromatik Asisa

1206-1209. etako misio-ibilaldiek aukera eman zieten, noski, Unbria eta Italiako eskualde ezberdinak ezagutuz joateko; aipatu ditugu Frantziskoren Erromarako bi erromesaldi (1205, 1209), eta gehiago ere izango dira hurrengo urteetan.

Erromara joandako hamabi Anaiek ez zuten han geratzeko asmorik, baizik eta Asisen betiko bizierara itzuli eta Unbrian nahi zuten jarraitu; hala ere patxada onean itzuli nahi izan zuten, elkarrekin egoera berria aztertu eta aurrera egiteko erabakiak hartuz joateko. San Bonabenturak, mende-erdi bat geroago, honela eman zigun ordukoaren berri:

Frantziskok, goiko graziaren eta Aita santuaren aginpidearen babesa zuelarik, konfiantza osoz Spoleto haraneko bidea hartu zuen, Kristoren Ebanjelioa bizi eta irakasteko prest. Bidenabar, lagunekin hizketan zihoan, hausnartuz nola leial bete hartutako Erregela eta nola Jainkoaren aurrean zintzotasunez eta justiziaz bizi, nola beren buruak santutu eta besteentzat eredu izan. Eta elkarrizketa hauek luzatu zituztelarik, berandu egin zitzaizen. Ibilaldi luzearen ondoren nekatuta eta goserik, leku bakarti batean gelditu ziren (LeLu 4, 2).

Aita Santuaren berrespenak ez zituen konpon-tzen, noski, eguneroko beharrianak, eta denen artean eta denentzat bizitzeko baliabideak inguratu beharra zegoen. Hori da, Zelanok ondoko pasartean azaltzen diguna, mirariek ere beren laguntza zekartela, nonbait:

²⁶ Baldelli, I., 1997, "Francesco d'Assisi e il volgare", in: Varii, 1997, *Francescanesimo in volgare (secoli XIII-XIV)*. Spoleto: Centro Italiano di Studi sull'alto Medioevo. 3-39. Delcorno, C., 1995, "La lingua dei predicatori. Tra latino e volgare", in: Varii, *La predicazione dei frati dalla metà del '200 alla fine del '300*. Centro Italiano di Studi sull'alto Medioevo. 19-45. Arazoa "iraunaldi luzeagoko" historian begiratzeko: Rusconi, R., 1981, *Predicatori e predicazione (secoli IX-XVIII)*. Torino: Einaudi. 972-977. Zink, M., 1982, *Le prédication en langue romane*. Paris: Honoré Champion. 128-129.

²⁷ Erdi Aroko predikuaren ahozkotasuna, sarritan, idatzira pasatzean latinera itzulita eman izan zen.



Asis: Aingeruen Santa Maria (1569, 1840)

Toki bakarti batera iritsi ziren, bideko nekeagatik lehertuta eta goseak; ezin zuten jatekorik aurkitu, paraje hura urrun baitzegoen eta ez zen inguruetan inor bizi. Baina Jainkoa arduratu zen, eta bat-batean gizon bat atera zitzaien bidera ogia eskuetan zuela, eman zien eta alde egin zuen. [...].

Ogia jan eta indarrak berriturik, Orte hiritik gertu dagoen toki batera iritsi ziren, eta hama-bost bat egun egin zuten han. Haietako batzuk hirira joaten ziren behar zuten jatekoaren bila eta atez ate eskuratzen zuten apurra beste anaiengana ekartzen zuten, eta denek batera jaten zuten esker onez eta bihotzeko alaitasunez. Eta hondarrik gelditzen bazen, han ezin baitzioten inori eman, inoiz hilobi bezala erabilitako zulo batean gordetzen zuten, hurrengo egunean jateko. Toki bazterra eta bakartia zen hura, eta ez zen inor edo ia inor igarotzen handik (1 Zel 34).

Bakardadeak izan zitzakeen, hortaz, bere mugak, gizartekotasunak konpon zitzakeenak, hirietan biziz edo hauen inguru hurbilean. Horixe izan zen, behin-behingo bederen Anaiek hobetsi zutena, Asisko Rivo Torto-n. Subasio menditik Asisko haranera, Portziunkula ingurura zetorren erreka bihurri bat zen Rivo Torto hori.

Frantzisko dohatsua bere lagunekin Asis inguruan zegoen Rivo-Torto izeneko tokira biltzen zen. Han bertan behera utzitako txabola bat zegoen, eta haren itzalean bizi ziren etxe handi eta ederren mespretxatzailerik porrokatuenak, eta han babesten ziren eurijasetatik. Santuak zioen bezala, «izan ere, txabolatik jauregitik baino bizkorrago igotzen da zerura».

Seme eta anaia guztiak leku berean bizi ziren aita dohatsuarekin, neke handitan eta gabezia gorrian; askotan ez zuten batere ogirik, eta beren estualdian Asisko lautadan han-hemen eskean biltzen zituzten arbiekin etsi behar izaten zuten gosea arintzeko. Leku hura, bestalde, hain zen

estua, nekez egon baitzitezkeen bertan eserita edo etzanik. Hala ere, ez zen marmarrik, ez kexarik entzuten; aitzitik, bihotz barez eta gogo alaiz pazientzia mantentzen zuten. (1 Zel 42).

Rivo Tortoko hau izango da, Anaiarteak eliz baimen guztiak zituela, taldean eratu zuen lehen bizilekua, basoan, egiazko jabetasunik gabe, otoitza eta limosna-eskea bizi-ardatz zituela eratua. Baina, orduan behintzat, bizialdi laburra izan zuen Rivo Tortok, espero ez zen bisitariak etorri zirelako. Hiru Lagunek kontatzen digute han suertatutakoa:

Hain zen estua toki hura [Rivo Torto], nekez eser zitezkeen eta atseden hartu. Askotan ez zuten ogirik izaten, eta han-hemenka eskean ozta-ozta bildutako arbiak jaten zituzten. Jainkoaren gizonak bordako zeharretan idatzita zeuzkan anaien izenak, bakoitzak, otoitz egin edo atseden hartu nahi zuenean, bere lekua jakin zezan, eta, hain leku estua eta itxia zenez, inolako zaratak barne isiltasuna hautsi ez zezan.

Egun batez, anaiak leku hartan zeudela, nekazari bat etorri zen bere astoarekin, bertan astoarekin batera ostatu hartu nahian. Eta anaiek aurre egin ez ziezaioten, barrura sartu zen, astoari esanez: «Sartu, sartu, leku honi mesede egingo diogu eta». Frantzisko santua, hitz hauek entzun eta nekazariaren asmoa ezagutzean, asalatu egin zen haren kontra, batez ere bere astoarekin zarata handia egin zuelako, eta une hartan isilean otoitzean ari ziren anaia guztiak aztoratu zituelako. Orduan, Jainkoaren gizonak esan zien anaiei: «Anaiok, ongi asko dakit Jainkoak ez gaituela deitu astoei ostatu emateko eta jendearekin harreman ugariak izateko, baizik eta bereziki otoitzean eta eskerrak ematen jarduteko, noizbehinka gizonei salbamen bidea hots egin eta aholku osasungarriak emanez».

Beraz, legendun behartsuentzat utzi zuten borda hura, eta Portziunkulako Santa Mariara aldatu ziren; lehen ere bizi izanak ziren haren

ondoko etxetxo batean, eliza bera lortu baino lehen (HLaLe 55).

Bizileku-aldaketa horrek Anaiartearen ondoko historia markatuko du, Frantziskoren gogoari jarraituz eta Ordenaren erreferentzia nagusiak Portziunkula horri loturik ageri baitzaizkigula. Erregelara bertara ere iritsi zen Portziunkularekiko Frantziskoren borondatea. Lehen Erregelak aditzera eman zuenez (1221), San Migeletako Kapitulua ez zuen izango biltzeko leku jakinik (1 Er 1); baina besterik da urteroko Mendekosteko Kapitulua kasuan:

[Beneditar] *abadeagandik Santa Mariako leku hau lortu ondoren, Frantzisko dohatsuak erabaki zuen bertan Kapitulua biltzea urtean bi bider: Mendekoste egunean eta Mikel santuaren jaian. Mendekoste aldian anaia guztiak biltzen ziren Santa Marian, eta Erregela nola zintzoago bete ari izaten ziren; anaiak probintzia ezberdinetara bidaltzen zituzten herriari predikatzen eta beste anaia batzuk beren probintzietan*

bana zitzaten. Frantzisko santuak, berriz, aholkuak, zentzarazpenak eta aginduak ematen zizkien (HLaLe 57).

Eta ministro guztiak, itsaso eta mendiez haraindikoak hiru urtetik behin eta gainerakoak urtean behin, Mendekosteko Kapitulura etorriko dira, Portziunkulako Santa Mariaren eliza ondorra, Anaiarte osoaren ministro eta morroiak besterik erabakitzen ez badu (1 Er 1-2).

Honela, bada, Anaiarte ibiltari hura, Subasioko Abade beneditarrak utzitako elizatxo eta ondoko bizileku apalean egonkortu zen, eta Portziunkula honetatik hasi zuen Italiarako eta mundu osorako hedapena.

Bizpahiru urte geroago (1212), fraideen Anaiartearen ondoan mojen Ahizpartea jaio zen San Damian-en, horrela Bigarren Ordena sortu eta Senitarte frantziskotarra, gizon eta emakume, osatzen zela.



Santa Klara eta beraren taula biografikoa

3. Ahizpartea egiten (1212...)

Frantzisko fraideak izango ziren gizonezkoen Elkartea eginez joan zen 1208tik aurrera, lagunak etorri zitzaizkionetik aitzina. Dena, lagunak etorri ahala gertatu zen hori ("...eta Jaunak Anaiak eman zizkidan..."), aurretik talde-asmorik izan gabe.

Lehen ordu hartan, taldetxoa izan zirenean, ez zen egon Anaia haien bizi-ereduari formalki heldu zion emakumezkoen. Ikusi dugu 1209an Aita Santuak "biziera-egitasmo" ebanjeliotarra nola onartu zien; baina Erromara agertutako hamabiak gizonezkoak ziren.

Ez ote zegoen Asisen eta inguruetan biziera berria onartu eta Frantziskoren bidetik joango zen emakumerik? Egia esan, franko emakume zebilen urte haietan bizimodu kristau berriak entseatzen, Flandrian, Renania, Frantzian edo Italian¹. Bien

¹ Adibidez, aspaldidanik zetozen emakume beneditar, klunitar edo zistertarrak zeuden, alde batetik, eta XII-XIII. mendeetan *begina* deituen garapena garrantzizko eredu gertatu zen Berant Erdi Aroan: biziera elkartu eta arautua zuten emakume laikoak genituen horiek. Internet-en hainbar argibide aurki dezake irakurleak *beginei* buruz. Ik. Varii, "Les femmes de Dieu", in: Berlioz, J. (ed.), 1994, *Moines et religieux au Moyen Age*. Paris: Éditions du Seuil. 171-226.

bitartean, Frantziskok bere predikuei eutsi zien, penitentziara deituz eta berak egindako hautua zein zen erakutsiz.

Nornahirentzat balio zezaketen Frantziskoren eta anaien predikuak, eta bizi-ereduak, baita emakumezkoentzat ere; "Kristandade" deituriko herrialdeetan emakumeak eta garai haiek ikusi eta entzuteko prest zeuden, gainera. Lehen emakume protagonistarekin hasiko dugu hemengo aurkezpena.

3.1. Ahizpa Klara di Favarone (1194-1253)

1212ko martxoarekin 18/19ko gauean, hau da, Erramu Igandetik Astelehen Santurakoan, joan-etorri handiko ospakizuna izan zuten Portziunkulako elizatzuan Frantziskok eta lagunak: ospakuntza liturgiko baten bidez "Penitentziarako" sagaratu zuten Klara Favarone di Offreduccio, Frantziskoren jarraitzaileen artean lehenengo emakumezkoa².

² Kuster, N., 2007, "La tabla historiada de Clara de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 107, 2007, 163-195. Klararekin hasita, frantzisko-tartasunak eta Frantziskok berak beren "baitan" hartu zuten emaku-

Gaztea zen Klara, 17 edo 18 urte, baina adin nagusikoa. Frantziskorekin hitz egin eta elkarrekin ados zirela, Klarak ihes egin zuen gurasoen etxetik, Elizaren babesean penitentziarako “biziera” berria hartzeko asmoarekin. Portziunkulan zeuden beraren zain Frantzisko eta fraide lagunak. Elizkizun xume baina formal batean, ile-mototsa moztu zion Frantziskok, Elizaren esanetara penitentziarako sagaratzen zuela aditzera emanez (Bartoli 1992: 75, Klale 7-10).

Artean, Klarak eta lagunek hori bakarrik zuten buruan: ez zen Anaiarteko kide izango, ez zuen inork pentsatu “Ahizparte” bat egin behar zenik ere; baizik eta Klara, Frantziskoren esanetara, bere gisara moldatuko zen, pausoz pauso penitentiagilearen biziera eratuz joateko.

Aitzina egiteko lehenengo traba familiarena izan zitekeen, eta Frantziskok, behin-behingo, Abadesen San Paolo Monasterio beneditarrera eraman zuen Klara, aterperik izan zezan behintzat, baina moja izan gabe. Hemen aurkitu zuten sendikoek *zerbitzari* lanetan, hain zuzen, klase “duintsuna” galduta, beste batean Frantzisko, aitarekin hautsita gero, Gubbiorako bidean sei urte lehenago San Verekundo monasterioan aurkitu zen bezala (1206).

Egun batzuen ondoren, Panzoko penitentiagileen egoitzara aldatu zen Klara (Bartoli 1992: 87-89), eta aste batzuen ondoren, azkenik, San Damian-era; berau izango zuten Klarak ez ezik etorriko zitzaizkion ondoko lagunek emakume penitentiagile hauen lehenengo sortetxea.

Nondik zetorren, baina, Klara? Zer-nolako bizimodu izan zuen gazteak bere familian? 1194an jaio zen Klara Asisen, San Rufino plazako gurasoen

jauregian; hortaz, Frantzisko baino hamabi edo hamahiru urte gazteagoa zen. Frantziskoren sendia ez bezala, Klararena aristokrata zen, Asisen *maiores* deitzen zirenen klasekoa, goi-aristokraziakoa izan gabe (*militēs*).

Ikusita daukagun udal iraultzakoan (1198...), galtzaileen artean suertatu zen Favarone familia; erbesteratuta, Perugian aurkitu behar izan zuen segurtasuna, harik eta 1203ko akordio behartuarekin sorterrira itzultzeko aukerarik izan zuen artean. Gazte baina adin nagusiko zela ezagutu zituen Klarak familiaren aldarte txar hauek.

Kulturaz eta eskolaz garaiko aristokraziaren goranahian hezitako gaztea zen Klara: kultura zaldun-gortesauan, alde batetik, eta garaiko hagiografia irakurrian, bestetik. Ama Ortolana fededun elizkoi eta jantzia ageri zaigu iturrietan. Dena den, sendiak bere kidetasun sozialak zituen, eta hiriko aristokrazian ongi landaturik ikusten dugu berori. Beraz, seme-alabekiko etorkizun-asmoak finkatuta zituen familiak, Klara ezkontzara bultzatzen zuela eta ezkongai “onak” proposatzen zizkiola.

Aurpegiz ederra zenez, senarra eman nahi izan zioten; eta ahaideetako hainbatek ezkontzeko eskatzen zion. [...]. Eta ikusi zuen aitak eta amak eta ahaidekoek berari zegokion nobleziaz, handikiro, ezkondu nahi zutela, gizon handi eta boteretsuekin; baina neska (orduan, hamazazpi urte edo izango zituen) ez zuten inola ere konbentzitu” (Kanonizazioko lekukoak, 18, 2; 19, 2).

Testuinguru horretan, lau une ezberdin azpimarratu izan dira Klararen penitentziarako itzuleran: Frantziskorekin izandako topaketa, familiarekin bizi izandako tirabira, Portziunkulako sagaratzea eta San Damian-go biziera pobrea (Bartoli 1992: 66-84).

Badakigu behin baino gehiagotan isilpean joan zela Frantziskorengana, ahaidekoek ikusi gabe, alegia. Bestalde, lekukoek esana da, Frantziskok ezagutzen omen zuela gaztea, beronek ere pobreei

mezketasunaren balioa. Ik. Paolazzi, C., “Mujer y dimensión femenina en los escritos de san Francisco”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 78, 1997, 422-438. <http://www.franciscanos.org/estudios/CPaolazzi-MujerDimensionFemeninaEscritosSanFrancisco.html>. Dalarun, J. 2009, “Francisco y Clara, masculino/femenino en Asís durante el siglo XIII”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 112, 2009, 119-131.



San Damian, goiko kapera

lagundu ohi zielako segur aski (inoiz Portziunkulako lanetarako laguntza bidaliz, esate baterako). Denak ere, Frantzisko predikari gisa zebilen herri txiki bateko bizilagunak ziren; bestalde, badakigu Rufino lehengusua Klara lehengusina baino lehen bildu zela Frantziskoren lagunartera.

3.2. Klara, bere Ahizpartean

Orduan emandako urratsak nola joan ziren jakiteko ez da izango lekukorik txarrena Klara bera, Frantziskok beraren gain izan zuen eragina nola bizitu eta ikusi zuen aditzera ematen baitigu. Honela dio Klararen 1253ko Testamentuak:

Zeruko Aita goi-goikoak, bere erruki eta graziaz bihotza argitu nahi izan zidanean, gure aita

Frantzisko dohatsuaren etsenpluz eta irakaspenez bihotz-berri nendin, hura konbertitu eta pixka batera, nire konbertsio ostean laster Jaunak eman zizkidan ahizpa gutxi batzuekin, obediencia hitz eman nion gogo onez berari, haren biziera txalogarriaz eta doktrinaz Jaunak eman zigun grazia argiaren arabera (TestKI 24-26).

Konbertsioa dago, beraz, tarteko, hau da, bizitzarako balio-sistemaren aldaketa, eta eredu praktiko zehatza aurrean duela egiten du hori Klarak, eta gerora beti aitortuko du bere burua "Frantziskoren landarexka apala" bezala. Baina ez zen hori bakarrik izan, zeren, esaten digunez, laster izan baitzituen ondoan ahizpa gutxi batzuk.



San Damian, goiko kapera; Sta. Klara hil zen txokoa

Nabarmendu behar da hemen aristokraziako alaba bat tradizio monasteriotar beneditarrean sartzea oso ohikoa izan zela Erdi Aroan eta gero: familiaren ondaretik herentzian zegokion dotea eman ohi zitzaion mojaiari, horrela monasterioan bizitza osorako segurtasun ekonomikoa bermatzen

ziotela. Ez zen hori, ordea, Klararen kasua. Alaba bezala, Klarak bazituen, noski, sendiaren ondarearen gain eskubide batzuk, eta sendia beldur zen, alaba galtzeaz gain, ez ote ziren etxetik nonahira joango hari oinordekotzatik zegozkion ondasunak ere.

Doterik ez zuen nahi; bai, ordea, Frantziskoren etsenpluari jarraiki ondasunak pobreen artean banatu, ondasunen jabetasuna utzi eta txirotasunaren askatasuna irabazteko. Erabateko txirotasunari eutsiz, Klararen bizialdi osoko arazo larri batekin egiten dugu topo. Frantziskok irakatsia zion Klarari nola ulertu pobretasun ebanjeliotarra; jarraitzekoa zen hori; baina, monasterio batean hertsiki itxita bizi behar zuten klaratarrek, ordea, nola erantzun behar zieten eguneroko premiei, ez baitziren fraideen gisara munduko ibiltariak, edo han eta hemen lanera edo limosna eske joango.

Pobreziaren hau 1212tik 1253a artean arazo bizia izan zen Klararentzat, hain zuzen Frantziskoren biziera ebanjeliotarrari ez baitzion traizio egin nahi izan. Azken finean, konponbide juridikoa ere aurkitu beharra zegoen, emakume haien biziera itxia eramangarri izan zedin.

Galdera horiek denak nornahirentzat baliozkoak ziren, eta Klarak ere aintzakotzat hartu behar izan zituen. Are garrantzizkoagoak, gainera, klaratarren kasuan, kontu eginik Erregela idatzi onartua nahi zutela (1212-1216.etan, frantziskotarrek ez zeukaten halakorik, idatzi eta onartuta), eta emakume-elkarteentzako erabateko jabetasun-ezaren araua onartzea oso zaila zela Erromako tradizio kanonikoan.

Erregelarena arazo formala gehiago zen beste ezer baino (ikusiko dugu hori); baina "Pobretasun-pribilegio" deituaren arazoari behin-behineko irtenbideetatik aurrera egitea ez zen gertatu eroso.

3.2.1. Erregela, pobretasun osoarekin?

San Damiango "Dama Pobreak" arau eta legeetan Klarak nahi zuen bidetik eramatea ez zen samurra

gertatuko: berrogei urteko ahalegina behar izan zuen emakume fundatzaileak bere helburuetara iristeko (1212-1253). Hiru Aita Santuk (Honorio III.a, Gregorio IX.a eta Inozentzio IV.a) eta hainbat kardinalak izan zituzten harremanak Klararekin, behar edo komeni izan zenean San Damiana ere bisitaldiak egiten zizkietela.

Pribilegio deitzen zen hau gehiago zen zama eta traba handia, alde ezberdinetatik. Betidanik ongi ikusia eta arautua zegoen monasterioko norbanako bakoitzak bere ondasun pertsonalen jabetza uztea; baina lehenagoko monasterioek beren ondarea gordetzeko usadioa zuten eta ondasun berriak ere eskura zitzaketen, horrela ondare zainduaren bidez monasterioari eta bertako monje edo mojei segurtasun ekonomikoa ematen zitzaiela.

Klarak nahi zuen “pobretasun pribilegioak”, oster, goitik behera aldarazi nahi zuen egoera hura, izan ere Anaiartearen edo Ahizpartearen Erregelan bertan elkarte edo Ordenaren **talde-jabetza** ezabatu nahi baitzuen, taldea ondasun-jabetasunik gabe eratu eta eguneroko lanetik edo limosnatik bizitzeko xedearekin. Erabaki honek, Eskekoen leku, komentu edo monasterio frantziskotarrak inguruko aldarte ekonomikoen menpe jartzen zituen, eta zer esanik ez erregimen horretan biziko ziren emakume “itxiena”, kasu honetan klaratarrena³.

Argi dago, beraz: aurreko monasterio-tradizioan jabetasun pertsonalik ez zegoen; baina monasterioak berak aberatsak ziren, batzuetan oso aberatsak, eta norbanakoak aterpe ekonomiko segurua zuen monasterioan. Talde-segurtasun horri uko egitea zen, bada, erabateko pobretasunak bilatzen zuena.

Horregatik, legegizonek halako araua Ordena baten Erregelan onartzeko aurkako irizpide

politiko-juridikoak izan ohi zituzten, Erromako Kurian eta nonahi. Baina horixe zen Klarak nahi zuena, inolako jabetasunik gabeko San Damian. Hala ere, gero eta ugariago ziren Unbria-Toskana haietan erabateko pobretasunaren asmoa arau bihurtu nahi zuten emakumezkoen lagunarteak, eta Honorio III.a. Aita Santuak berak ikusi zuen mugimendu eta indar sozial hura lehenbailehen bere eskuetan hartu eta Erromatik gidatu beharra⁴. Frantziskok ezagutu berria zuen Hugolino kardinalari eman zion horretarako ardura.

Hugolino de Segni hau (1155-1241) aukera-aukerakoa gertatu zen orduan (1218), eta ondoko hamarkadetan Frantziskoren adiskide gisara, fraide Anaiartearen bilakaeran (ikusiko dugu hori) eta Klararen egitasmoak behin-behingo behintzat bideratzeko. Hugolino saiatu zen, kardinal zelarik eta Aita Santu gertatu zenetik ere (1227-1241: Gregorio IX) Klararen xedeak ezagutu eta berauek lehendik indarrean zegoen monakatu berrituenaren eremuan txertatzen (hau da, zistertarrean). Hugolinok abilezia leberra erakutsi zuen Italiako antsia sozio-espiritualak Elizara bideratzen, eta hain anitza zen mugimendu ebanjeliotarrei irtenbide juridikoak bilatzen. Klaratarren kasua da Hugolinok aintzatzat hartu zuen haietako bat.

Hugolino eta Frantzisko, alde batetik, edo Hugolino eta Klara, bestetik, elkarrekin nola moldatu ziren premiazko ñabardurez azaltzeak lanak ditu; baina esan dezagun, bederen, behin-behineko irtenbidea eman ziola Hugolinok Klararen eskeari (1219).

Alde batetik, Erregela orokor bat eman zien klaratarrei, eguneroko biziera arruntari araubide zehaztua eta historikoki ere ongi bermatua izan


³ Aipatu gabe ezin liteke utzi data goiztar bateko (1216) Inozentzio III.aren “Privilegium paupertatis” deitua, Klarari eman omen ziona, nahiz eta beraren jatortasun historikoa ez den izan erabat onartua. Ik. Omaechevarria 1999: 232-236; Alberzoni 1999: 260.

⁴ Garaiko emakumezkoen mugimenduak: Vauchez, A., 1997, “Santa Clara y los movimientos religiosos femeninos de su tiempo”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 78, 1997, 439-452. Bartoli, M., 1994, “El movimiento franciscano de los orígenes y la mujer”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 69, 1994, 407-418. <http://www.franciscanos.org/historia/Vauchez-SantaClaraylosmovimientosreligiososfemeninos.htm>,



Santa Klararen jaiotetxea, San Rufino Katedralaren alboan





Santa Klararen bizitzak bere lekua izan zuen ikonografia margotuan

zezaten (San Benitoren Erregela, Zisterrek nahiago izan zuen erara ulertua), eta bestetik, ekonomiaren aldetik, aipaturiko erabateko txirotasun-pribilegioa San Damiani ezagutzen zitzaioa (Ahizpartearen talde-jabetasunik gabea. “Monakismo hugolino-tarra” deitu izan zaio aldibereko izaera juridiko bi-koitz horri (1219), Hugolinok, Aita Santu bilakatzean, berretsi zuena (1228). (Alberzoni 1999: 237-238).

Erregela edo “forma vitae” batean eman zion Hugolinok izaera juridikoa San Damian-goaren ildoan zetorren zenbait monasteriotako bizierari. Lateran IV.ak Erregela berririk egitea debekatu zuenez, formalki San Benitoren hartu eta berorren barruan komeni izan ziren moldaketak eginda damiandarrek beren arauak izan zituzten (San Frantziskoren *Forma vivendi* eta *Ordinationes regulares* deituak, adibidez). Hau dena, klausura hertsu batean gorde nahi izan zuen Klarak, ahal zela San Damianen bertan fraide frantsizkotarrak kapilau eta limosna-eskale zituela. (Alberzoni 1999: 238-244; Omaechevarria 1999: 203-205, 213-232).

Hona iristean esan beharra daukagu Euskal Herria ez zela egon urrun San Damianen garatzen ari zen emakumezkoen erlijiotasun honetatik, Italiatik kanpo ezagutzen dugun lehenengo komunitate “damiandarra” Iruñekoa izan baitzen, hain zuzen Gregorio IX.ak izenpetutako agiri batean Iruñean eta Erriberrin gordeta egon dena (1228ko apirilaren 12koa). (Omaechevarria 1999: 215; 1972: 44-45).

Ondorioz, eta eskatu duzuenaren arabera, gure babes apostolikor sendo-berritu egiten dugu txirotasun gorenerako zuen asmoa, eta agiri honen agintez onartu egiten dugu zuei inork jabetasunik ez ezartzea.

1228ko urte hark berariazko bi emaitza izan zituen: eredu eta sare Hugolinotarrean sartu zen San Damian; baina, aldi berean, monasterio honi bere “txirotasun-pribilegioa” deituaren eskubide osoa aitortu zitzaion, *Sicut manifestum est* buldaren bidez (1228ko irailaren 18koa).

San Damian-erako emana izan zen agiri hau, preseski; baina iritsi zen apurka beste zenbait monasteriotara ere, ez beti berdintasun berean, baina bai eredu bakar baten bila edo. Erromaren laguntzaz eta Anaia Txikien eraginez ere garatzen ari zen sare osoari batasun eta balio orokorragoa emateko lana Inozentzio IV.aren ardura izan zen, 1247an, artean Sta. Klara bizirik zela.

Ordurako, San Damian eta hurbileko zenbait monasteriok buruturik zuten hogeita hamar urte eta gehiagoko esperientzia; ikusita zegoen, era berean, emakumezkoen mugimendu damiandar-frantziskotarra nola ari zen antolatzen, Eliza, Diozesi eta fraideen Ordenarekiko harremanetan; ikusita zegoen, jaioberritako zenbait gehiegikeria neurri hobera ekarri beharra. Une ona izan zitekeen, Aita Santuaren eskuetatik Erregela-testu berri bat indarrean emateko, bide batez San Benitoren utzi eta San Frantziskoren 1223koari helduz: hori nahi izan zuen *Cum omnis vera religio* buldak (1247ko abuztuaren 9an). (Omaechevarria 1999: 242):

Zuei [San Damiango abadesa eta moja guztioi, eta etorriko direnei] San Frantziskoren Erregelan profesa egitea onartzen dizuegu, hiru botoei dagokienez bakarrik, hau da, obedientziari, norberaren jabetza uzteari eta betiko kastitateari dagokienez.

Irizpide horien barruan, Inozentzio IV.aren Erregela honek garrantzizko urratsa eman zuen, beraz, Klarak beti sutsuki aitortutako emakume damiandarren frantziskotartasuna betirako Ahizparteko Erregelan bertan baieztaturik utzi baitzuen. Horrek, ordea, testu labur horretan bertantxe izan zuen muga garbia: jabetzari zegokionez, moja bakoitzak norberaren jabetza pribatuari uko egin behar zion; baina, hori agintzean, Erregela berriak aipatzen ez zuen Ordenaren beraren jabetasuna isilduta geratu zen. Horra, bada, Klararen ahalegin berrietarako betiko zergatia, bizi-bizirik.

Inozentzio berak ikusi ahal izan zituen sinatutako Erregela bere hartan ezartzeak piztu zituen zailtasun, enbarazu eta aurkakotasunak, eta 1250eko

ekainaren 6ko buldak esaten zuenez, Aita Santuak ez zuen nahi izan arauak nonahi eta noiznahi betebeharrekoak izateko asmorik.

3.2.2. Santa Klararen Erregela (1253)

San Damian-en eraginez sortu edo haren ingurura hurbilduz edo joan ziren monasterio ezberdinen txirotasunarekiko jarrera eta eraketa ez zen izan guztietan berdina (1228-1250); eta, nolanahi ere, San Damianek beti eutsi zion "txirotasun-pribilegioari", gainerako zenbaitek aldi batez bestelako irtenbideak onartu arren. Aita Santuek ere ezin izan zuten aldendu Klara Frantziskoren eta beronen jatorrizko asmoetatik⁵.

San Damian-en izaera eta geroa finkatu nahian, bi korronte nagusik egin zuten lana: Gregorio IX.ak (Hugolinok) eta Anaia Txikien Ordenako haren lagunik hurbilenak norabide juridiko eta politiko berean zihardutela, alde batetik, eta bestetik San Damianen autonomiarik handiena eta bertarako ezaugarri propioak gorde nahi zituzten Anai Elias eta honen esanetara beste hainbat fraide. Anai Elias ia bi hamarkadetan izan zen Ordenako buru, Bikario Jeneral (1221-1227) eta Ministro Jeneral gisa (1232-1239)⁶. Besteak beste, hauek babesle onak izan zituen Klarak.

Klarak bere baitan zuen oroitzapen pertsonalak eta nornahik Frantziskorekiko aitortzen zion lekukotasun

jatorrak indar handia zuten, noski; guztiek gogora zezaketen mojen San Damian jaiotzean Frantziskok izan zuen eskumena, bertako Ahizpei aitortu zien estimua, eta bizitzako azken hilabeteetan nola bildu zen berriro ere San Damian ingurura.

Egia esan, serora edo mojen mugimendua anitza eta nahasia ere bazen Italia Erdian, eta Erromak guztientzat gobernagarritasun erosoagoa bilatzen zuen, juridikoki berdinduagoa eta aurreko mendeetan finkatu berria zen tradizio juridikoaren gain garatu behar zena (Graziano-ren *Dekretalak*, 1140); ez da ahaztu behar Gregorio IX.a prestakuntzaz eta buruz legegizona zela.

Ez zen hori, ordea, Klarak gehien estimatzen zuen aberastasuna, eta bai Ebanjelioaren intuizioa eta askatasun sortzailea. Inozentzio IV.arena ikusita (1247), are argiago zegoen Klararentzat adibidez sorrera-iturrietako oinarritzko pobretasun-balioaren arazoari heldu beharra. Hortik jaio zen *Santa Klararen Erregela* (1253), Ordena erlijioso baterako Historian emakumezkoak idatzitako lehenengo Erregela. (Omaechevarria 1999: 264-294).

Monasterio eta norbanako bakoitzaren ekimenari, aurreko Erregela damiandarretan baino askatasun gehiago utzi nahi izan zion Klarak; erabakietan moja guztien parte-hartze zabalagoa; guztiak ere "ahizpatzat" hartzen ditu, eta ez dira "dama pobreak" ahizpa pobreak baizik.

Eredu eta hautapen ororen gaintetik, Erregela honetan Frantzisko da sorreratik Klarak eta Ahizpek onartu duten eredu jatorra; Erregelaren lehen lerroetan gogorazaziko du "Frantzisko aita txit bedeinkatuaren landarexka" dela bera, pertsonalki. Hamabi atalburutan eratu zuen Klarak bere Erregela hau, ondoko gaiak biltzen zituela⁷:

⁵ Begira Frantziskoren eta Klararen Erregelen arteko zerikusiak, Lainati-ren idazlan honetan: <http://www.franciscanos.org/estudios/lainati.htm>. ID., 1975), "La Regla franciscana y la II Orden", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 10, 1975, 11-026. <http://www.franciscanos.org/estudios/lainati.htm>. ID., "La Segunda Orden Franciscana", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 66, 1993, 341-391. <http://www.franciscanos.org/stacla/Lainati-LaSegundaOrdenFranciscana.htm>.

⁶ Datu horiek, beste gabe, aski adierazgarriak dira Anai Elias-ek duen garanti historikoaz, baina historiagrafia gutxi-asko ofizialak ez diote onik egin haren memoriari. Berrikitan badago Anai Elias-i justizia hobia egiteko ahaleginik: DHGE. xv, 167-183. Ik. Id., xviii, 1977, 827 (Cl. Scmitt, s.v. "Élie d'Assise"). Pompei, A., 2003, "Fr. Elías de Asís y la Orden Franciscana en el 750 aniversario de su muerte", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 96, 2003, 436-458.

⁷ Lainati, Ch. A., 2002-2003, "Novus Ordo, Nova Vita. Regla de santa Clara", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 92, 2002, 209-224; 93 2002 393-406; 94, 2003, 86-111; 95, 2003, 184-199., Bartoli, M., "Chiara e la Regola dei Frati Minori", in: *Italia Francescana*. 84, 1209, 219-229. Garrido, J. ???, *La forma de vida de Santa Clara*. Arantzazu: EFA.

- Ahizpa pobreen biziera.
- Mojagaiei zein harrera egin behar zaien.
- Otoitz-Ofizioa, baraua, aitortza eta jaunartzea.
- Abadesaren hautatzea eta ofizioa, Kapitulua.
- Ahizpa guztien artean aukeratuko dira ofizialak eta aholkulariak.
- Isiltasuna, mintzalekua eta burdin-sarea.
- Jabetasunik gabeko txirotasuna.
- Lan-modua, eta limosnen gobernu ageria.
- Ahizpek ez bezate deus izan, ez etxe, ez leku, ez gauzarik.
- Hutsegiteak nola zuzendu, beti ere haserrerik gabe.
- Abadesari zor zaion esanekotasuna.

- Klausura gordetzeaz.
- Bisitari, kapilau eta kardinal babesleaz.

Klararen pozerako, hil baino lehen iritsi zitzaion arautegi berria berresten zuen Inozentzio IV.aren *Solet anuere* bulda (1253ko abuztuaren 9koa). Kasik miraria, hainbeste ahaleginen ondoren, damiandarren erabateko txirotasuna arau bihurtzen zuela!

Bi egun geroago, 1253ko abuztuaren 11n hil zen Klara, betiko bere monasterioan, San Damianen, klausura barruan, Frantziskoren hiru lagun bere ondoan zituela, Junipero, Aingeru eta Leon, hirurak ere leialtasun historikoaren lekuko. Hurrengo egunean lurperatu zuten San Jurgi elizan, hain zuzen mende-laurden bat lehenago Frantzisko ehortzi zuten eliza berean.



San Damian: Ahizpartearen jangela



San Damiango Koru zaharra

Egun haietan Inozentzio Aita Santua Asisen zegoen, eta hiletakoan han egon zen; urte bereko urriaren 18an abiarazi zen kanonizaziorako prozedura ofiziala, herritarrek mirariak aldarrikatu eta erromesak San Jurgira, Klararen erlikien ingurura, iristen ziren bitartean. 1255ean, hil eta bi urtera, Alejandro IV.ak aldarrikatu zuen Santutzat Klara, eta San Jurgi elizaren eremuan jaso zen Sta. Klararen Basilika berria (1257-1265). Berau eraikitzen ari ziren urteetan joan ziren bizitzera hara San Damiango Ahizpa pobreak.

Hil aurreko Erregelaren garaipena, ordea, bizialdi laburrekoa eta tristea izan zen, Klararen begira-puntutik so egiten badiogu behintzat. Urbano IV.aren *Beata Clara* buldak (1263ko urriaren 18koa) urak uharka zaharrera eraman zituen osterako pobretasun arazoan. 1219-1247etan landutako arauetatik hainbat jaso zuen bulda horrek; baina

azkenik bere funtsean Hugolinoren hartara (1219) itzularazi zuen dena. Hau da, Urbanoren Erregela horrek ez zuen jaso txirotasunaren pribilegioa, eta klaratar gehienentzat mendetarako hauxe izan zen indarrean geratutako Erregela⁸.

Ondoko mendeetako Historia bitan banaturik joan zen klaratarren artean, Klarak nahi izan zuen pobretasunera bildua bata (monasterio gutxi-nena), eta tradizio urbanotarraren arrastoan garatu zena bestea⁹, adarrak handiena, harik eta Vatikano II.ak eta ondorengo urteek lehen iturri klaratarrari

⁸ Historia horren ondoko atzera-begiratu bat: Unanue, J., 2011, "La Regla de Clara y la Regla de Urbano IV", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 119, 2011, 293-306.

⁹ Uribe, F., 1996, "El iter histórico de la Regla de santa Clara", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 75, 1996, 405-432. <http://www.franciscanos.org/stacla/uribe.htm>.

lehentasun nabaria eman dioten arte (Omaechevarría 1972: 263-270).

Kontzilio honek eskatutako “iturrietara itzultzeak” gaurko biziera klaratarrean sekulako astindua ekarri du, egindako bide historikoa berrikusi, izan-berritu eta etorkizunerako egitasmoak xedatzeko. Iturrietan, Klararen hitzari eta karismari jatortasunik asebateena aitortu zaie, eta haren azken orduetako testuek joan-etorri biziaren dute berriro gure artean, Klara eta Frantzisko elkarrekin inoiz baino lotuago ikusten ditugula.

3.3. *Testamentua*: Frantziskorenari eusten

Frantziskok bezala (1226), Klarak bere *Testamentua* idatzita utzi zuen (1253). Bizitza osoko haren “egitasmo-politika” adierazteko balio izan zion horrek; garrantzizko testua da, beraz. Azken bi data haien artean kasik 28 urte pasatu ziren, Frantzisko hilda, eta Klara ohean gaixorik, esperientzia gogorra eta inguruko ahizpentzat kontenplazio eta penitentzia eskola zelarik; Klara heldutasun erlijioso batera eraman zuten urteak dira, testigu guztien harri durarako (KlaLe 39). *Testamentua* da heldutasun horretako hitza.

Dituen esanahi biografiko eta gaiengatik, merezi du berori San Frantziskoren Testamentuarekin aldeatzea, dituzten kidetasunak neurtzeko. Oro har, Frantzisko eta Klararen zenbait pasarte bata bestearentzat idatziak dira, edota Klararen kasuan Frantziskoren oinordekotza zaintzeko asmoz emanak. Hein batean, guztiei emango diegu begiratu bat hemen, *Klararen legenda* (Zelano: 1255) ere aintzakotzat hartzen dugula¹⁰.

Klara Frantziskoren Anaiartera hurbildu zenean (Portziunkula, 1212ko martxoan), jada baziren seiren bat urte Frantzisko bihotz-berrituta Asisen

predikari gisa zebilela. Pentsa liteke, iturrietan horrelako albisterik ematen ez bazaigu ere, hamabihamasei urteko Klara gazteak bazekiela Frantziskoren aldarri ebanjeliotarra zein zen, predikuz eta etsenpluz adierazia (baita San Rufino katedralean ere: 1 Zel 23). Eta, sendiarentzat beharbada ezustekoa izan zen ihesa, ez zen deus halakorik izan Klara eta Frantziskorentzat, ongi adostu eta prestatua baizik.

Hagiografiek azaldu ohi zuten janzkera teologiko-espiritualekin ikus dezakegu Frantziskoren lehen biografoak idatzitakoa, artean Klara bizirik zela:

Toki dohatsu eta santu honetan [San Damian-en, alegia] izan zuen bere hasiera zoriontsua Andre Pobreen eta birjina santuen elkarte ospetsuak eta Ordena guztiz agurgarriak; Frantzisko dohatsuaren bidez sortu zen, hau konbertitu eta sei urtera. Bertan, Klara andrea, asistar jatorrikoa, harri guztiz eder eta gogorra, haren gainean ezarritako beste harrien oinarria izan zen. Anaien Ordena sortu ondoren, aipaturiko andrea gizon santuaren aholkuz Jaunagana bihurtu zenean, askoren aurrerabiderako lagungarri izan zen, kontaezin ahalako jenderentzat jarraibide.

Jaiotzaz noblea eta graziaz nobleagoa; gorputzez birjina eta gogoz arrunt garbia; adinez gaztetxoa, baina espirituz heldua; bere asmoan iraunkor eta guztiz sutsu jainko-maitasunaren desiran; jakinduriaz jantzia eta apaltasunean aparta; Klara (Argia) izenez, argi goa bizieraz eta guztiz argia bertutez. Andre honen gainean altxatu zen harribitxi preziatuz osaturiko eraikuntza noblea (1 Zel 18-19).

Aitorpen honek badu balio ofiziosoa bederen, Klara ere Anaiekin batera Frantziskoren Senitarte berekoa egiten baitu. Hasieretako iragan hura gogoraraziz kapitulu osoa idatzi zuen Klarak bere Erregelari (1253), testu juridikoa izan behar zuen horretan San Frantziskoren beraren hitzen bidez

¹⁰ Frantziskotar Itzultzaile Taldea 2002: 164-167. Omaechevarría 1999: 132-197, 342-354.

aparteko lekukotasun historikoa eskaintzen digula, eta fraideen zerbitzuetarako damiandarrek jatorriz zuten eskubidea defendatuz. Laburpenak izango ez lukeen indarra duelako, kapitulua bere osoan jaso dut hemen:

Zeruko Aita gorenak bere graziaz bihotza argitu zidanean, gure aita San Frantzisko dohatsuaren etsenpluz eta irakasenez bihotz-berri nendin, haren konbertsiotik denbora gutxira, nire ahizpekin batean obediencia hitzeman nion gogo onez.

Eta Aita dohatsuak ikusi zuenean ez zela gu beldurtuko gintuen pobretasunik, nekerik, atsekaberik, irainik eta munduaren mespretxurik, baizik eta hori guztia atsegin handitzat jotzen genuela, maitasunak eraginik hitz hauetan bildu zigun gure bizimoldea: "Jainkoak inspiraturik, zeruko Aita errege goi-goiko eta gorenaren alaba eta mirabe egin zarete eta Espiritu Santuarekin esposatu, Ebanjelio santuaren perfekzioaren arabera bizitzea hautatuz. Beraz, zuentzat, neure anaientzat bezalaxe, ardura maitekorra eta axola berezia izan nahi dut eta beti izango dudala hitz ematen dut, pertsonalki edo anaien bitartez". Eta hori arduraz bete zuen bizi izan zen bitartean, eta bere anaiek ere beti halaxe egitea nahi izan zuen.

Eta onartu genuen pobretasun santutik inoiz alden ez gintezen, ez gu eta ez gure ondoren etortzekoak zirenak ere, hil baino lehentxeago bere azken borondatea idatzi zigun berriro honako hitz hauetan: "Nik, anai Frantzisko txiki honek, Jesu Kristo gure Jaun goi-goikoaren eta bere Ama txit santuaren biziera eta pobretasunari nahi diet jarraitu eta azkena arte horietan iraun. Eta zuei, ene andreei, arren eskatzen eta kontseilatzen dizuet, bizi zaitezte beti biziera eta pobretasun txit santu horietan. Eta zaudete erne, horretatik inoiz inola alden ez zaitezten inoren irakasenez edo kontseiluz".

Eta nik, neure ahizpekin batera Jainko Jaunari eta San Frantziskori hitzemandako pobretasun santua gordetzen beti arduratsu jardun nuen bezala, era berean nire ofizioan ondoren etorriko diren abadesa eta beste ahizpa guztiek ere, huts egin gabe azkena arte gorde behar dute, hau da: ez dute ez ondasunik edo jabetzarik hartuko edo edukiko, ez zuzenean eta ez bitartekoen bidez; ezta arrazoiz jabetza bezala har daitekeen beste ezer ere, monasterioaren inguru on eta bakardaderako behar den lur puska bat izan ezik; eta lur hori ez da landu behar, ahizpen beharretarako baratze bezala ez bada (KlaEr 6, 1-15).

Harreman eta oinarri horien gainean eraiki zen, alde batetik, Frantzisko eta Klararen arteko adiskidetasun fundatzailea¹¹, eta bestetik, Ahizpa eta Anaiei arteko Senidetasun bakarra eta zerbitzuetarako eskubidea, nahiz eta azken hauek horretarako beren une eskasago eta krisiak ere pairatu behar izan zituzten gero.

Testamentuan ere ezin izan du saihestu Klarak Frantziskori zor zionaren oroipena, eta Ahizpei zera gogorarazten die Testamentuan:

Jainkoak egin dizkigun mesede zoragarriak gogoratu behar ditugu, ahizpa maiteok; eta beste askoren artean, bere zerbitzari maite gure aita Frantzisko dohatsuaren bitartez gudan egin dituenak, gure konbertsio ostean ez ezik, baita munduko huskerietan genbiltzanean ere. Izan ere, Santu honek, artean anaia eta lagunik ez zeukanean, konbertitu eta berehala, San Damiano eliza jasotzen ari zela (hor sentitu zuen goiko pozak bete-betearen eraginda, mundua uzteko bultzada), pozez beterik eta Espirituak argiturik, guri buruz profetizatu zuen Jaunak gerora bete zuena [Ahizparte zabala izango zela, alegia, San Damiangoa]. [...].

¹¹ Assendolk, O., 1992, "Amistad entre Francisco y Clara", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 62, 1992, 181-194.



Santa Klara Basilika (1257-1265)

Zeruko Aita goi-goikoak, bere erruki eta graziaz bihotza argitu nahi izan zidanean, gure Aita Frantzisko dohatsuaren etsenpluz eta irakaspenez bihotz-berri nendin, hura konbertitu eta pixka batera, nire konbertsio ostean laster Jaunak eman zizkidan ahizpa gutxi batzuekin, obedientzia hitz eman nion gogo onez berari, haren biziera txalogarriaz eta doktrinaz Jaunak eman zigun argiaren arabera. [...].

Eta gureganako maitasunak eraginda, egin-behar hau hartu zuen bere gain: pertsonalki eta bere Erakundearen bidez, gutaz ardura saiaturia eta ardura berezia izatea, bere anaiez bezalaxe (KlaTest 6-14, 24-26).

Suma daitekeenez, San Damiango Aizpartea Frantziskorekin ez ezik Anaia Txikien Ordenarekin harreman hertsietan ikusten du Klarak. Frantziskok hala nahi izan zuelako, noski, eta baita bere karisma erlijiosoa “frantziskotartasun” horretan landaturik ikusi eta nahi zuelako ere, nahiz eta eliz Erakunde erlijiosoaren arteko politika ez zen joan beti Klarak nahi zuen bide horretatik.

Gogora, bestela, Gregorio IX.aren *Quo elongati* buldak (1228), Anaia Txikien San Damiango mojen kapilautza haien Ordenaren eskumenean ez baizik Kuriarenean jartzea erabaki zuenean, zein fermuki erantzun zuen Klarak, kapilauen zerbitzu pastoral hori eman behar ez zutenek ez zeukatela zertan monasteriorako limosna-eskale izan ere (beraz, hala nahi bazen, San Damian premiazko bi zerbitzu haiek gabe geratuko zela). Pobretasun osoaren pribilegioa bezala, azken buruan kapilau frantziskotarrek zuten minoritate-ezaugarri hau segurtatu zion Aita Santuak San Damiani. Azken finean, Klara bere kapilau frantziskotarrekin geratu zen. Emakume fundatzaile hau ez zen batere “erraza”, ezta Aita Santuentzat ere, baina bai leial eta garbia bere karisma eta moldaera juridikoa segurtatzen. (Alberzoni 1999: 245, 248-252).

San Damianen lehen urteetan (1208-1215) eta Frantziskoren azken bietan (1224-1226) bereziki gogoan eta hurbil izan zituen Frantziskok San Damian, eta hango Klara eta Ahizpak. Azken gaixoardiko larrialdiari aurre egitean, San Damianen egin zuen egonaldi luzea, eta ondoan arbatzaz egindako etxola batean idatzi zuen *Anai Eguzkiaren kantika* (1225eko maiatzean).

Egun haietan eta toki berean, sorkariengatik “Jaunaren Gorespenak” eratu eta gero, Frantzisko dohatsuak beste bertso santu batzuk egin zituen, bere doinu eta guzti, San Damian monasterioko Andre pobreen kontsolamendurako, bai baitzekien oso atsekabetuak zeudela bere gaixotasunagatik. Baina zegoen egoeran haiek bisitatza eta kontsolatzaera personalki joatea ezinezkoa zitzaionez, lagun bidez bidali zizkien bertsook. Hauen bidez orduko eta betiko bere nahia azaldu nahi izan zien laburki: alegia, nola bizi behar zuten elkarrekin maitasunean bat eginik. Izan ere, anaiak artean gutxi zirenean, Frantziskoren beraren etsenpluz eta predikuz bihurtu ziren Kristorengana (PerLe 85).

Adiskidetasun min zaharraz sentibera ageri zaizkigu Frantzisko eta Klara, biak ere larriki gaixo eta elkarrekin zuten adiskidetasunaren beharrean:

Frantzisko dohatsua hil zen astean, larriki gaixo zegoen andre Klara, Ahizpen Ordenako lehen landaretxo, Asisko San Damian monasterioko Ahizpa pobreen abadesa eta Jainkoaren Semearen pobretasuna gordetzen Frantziskoren lehiakidea, eta beldur zen Frantzisko baino lehenago hilko ote zen. Negarrari eman zion saminki eta ezin zen kontsolatu, uste baitzuen ezingo zuela hil aurretik Frantzisko dohatsua ikusi, Jainkoaren ondoren bere aita bakarra zena, bere gorputz-arimetako kontsolatzailea eta bera Jainkoaren grazian lehenengoz oinarritu zuena (PerLe 13).

Klaratarren komentua Arizkunen,
XVIII. mendeko lekuko ederra (1737)



Iruñeko Sta. Graziako Komunitateak (1228) Erriberrikoan
izan zuen segida (1804). Komentua egon zen Argaren
erriberan, komunitatearen izena hartu zuen Sta. Graziako
zubia baino ez da gelditzen egun.

Ondotxo zekien hori dena Frantziskok, eta egun haietako bi testu, labur baina hagitz hunkigarri, ditugu Klarari eta arreba/ahizpa haiei zuzenduak: bata, Klararen Erregelako 6. atalburutik jasota goian eman ditugun hitzena ("Azken borondatea" bezala aurkeztu ohi direnak), eta bestea hauxe, San Damian ondoan Unbriako italieraz ahizpentzat ondutako bertso musikatuena (Frantz. Itz. Taldea 2002: 168-169):

*Entzun, pobretxoak, Jaunak deituak,
bazter eta lurralde askotatik bilduak.*


*Bizi zaitezte beti egian,
hil zaitezten obedientzian.*

*Ez bizi bizitza kanpokoak,
hobea baita espirituzkoa.*

*Amodio handiz erregutzen dizuet,
Jaunak emandako limosnak
kontuz erabil ditzazuen.*

*Gaixotasunaren zamapean zaudetenok,
eta beraiek zaintzen nekatzen zaretenok,
bakean eramazue dena batzuek eta besteok.*

*Garesti salduko baituzue zuen nekea,
erregina izango baita bakoitza
zeruan koroatua Ama Birjinarekin batera.*



I. Omaetxebarria gernikarra izan da munduko eta Euskal Herriko klaratarren historia orokorrerako ekarpen ezin baztertua egin duena. Hona beraren argazkia eta idatzitako klaratarren *Historia* liburua.

4. Kristau herritarren zerbitzuan

Ahizparteaz bildutako albisteetatik, gatozen osteraz ezauna dugun Anaiarteko berrietara, hasia baitzen berau kristauartean gero eta ezaunagoa izaten.

Kristau bataiatuekiko kezka konbertsio unetik bertatik zorrotza izan zen Frantziskorengan (1206), eta 1212an Klara eta Silbestre egin zuten kontsulta aurretik ere prediku-kontenplazioen arteko bitariko biziera ageri zaigu; aparteko “lekuetan” otoitzean bizi bai; baina noizbehinka herrietara lanera, eskera edo predikua egitera irten ohi ziren (1208). Ez ziren bizi, beraz, herritarrengandik erabat isolaturik.

4.1. Harremanak, nornahirekin

Taldearen lehen misio-aldian Frantzisko Apeninoen beste aldera joan zen, Egidiorekin batera, Ancona-ko Marketara; bigarren misio-aldian zazpi lagunak Rieti-ko bailarara joan ziren, hango he-

rrietan predikua egitera (Poggio Bustone-n, “Buon giorno, buona gente!” esanez agurtu omen zituen herritarrak); hirugarren misio-aldia, osteraz, binaka egin zuten zortzi lagunek, bikote bakoitza bere aldetik zihoala, baina ez dakigu juxtu nora joan zen Frantzisko. Hori dena 1208ko lana da, eta 1209ko lehen asteetan une egokian etorri zenean Portziunkulara itzuli ziren. Orduan eta gero ez da ahaztu behar bizitzeko han-hemen “leku” hautatu aldakorrak izaten zituztela lehen Anaia haiek:

Edozein lekutan seguru bizi ziren; beldur eta ardura guztietatik libre; inolako kezkarik gabe itxaroten zuten hurrengo eguna, eta ez ziren gauerako ostaturik aurkitzeaz ere larritzen, nahiz eta bidaietan neke handiak jasan. Maiz, hotzik handieneko egunetan, beharrezko zuten ostaturik ez aurkitzean, [herrietako udal] labeetara biltzen ziren edo haizpe eta kobazuloetan apalki babesten (1 Zel 39).

Ibilera aske hori zen haien lege, eta aukera ematen zien inguruko herritarren artera joan, herritarrekin lan egin eta jatena bilatzeko, eta ahal bezain pronto beren hizketaldi eta sermoitxoak egiteko.

Eliz harreman konbentzionaletik ezer gutxi zuen usadio hark; baina, lagun eta ezagutu berrien arteko elkarriketa arrunta suerta zitekeen egokierarik aproposena Ebanjelioaren berri emateko, sarritan basoan, soroan nahiz obraren batean elkarrekin ari zirela, edo atsedenaldiaz baliatuta sortzen ziren solasaldietan. Erregela onartuta izan aurretik ere, ikasita zeukaten mota guztietako herri-herritarrekin moldatzen.

Ostera, 1209tik aurrera horretarako baimenduta zeudenez, penitentziarako deiak eta gonbita ere egin zitzaizkion; gehienak ez ziren klerikoak, baina garai haietan laikoei aitortu ohi zitzaizkien eskubideaz baliatu ahal izan ziren horretarako. Anaiak, pobreen artean pobre ziren, behartsuak, bizimodu latza zeramatenak, Ebanjelioa ezagutu eta zabal zezaizkionak; gehienak, eskola handirik gabeak, baina bihotz zabalekoak; herritarren penak eta nekeak ere bizi zituztenak.

Egin kontu, alde batetik, sistema feudaleko lan-gileak zirela herritar gehienak, jaunen edo monasterioen jaurerrietako lurrari eta bertako eginbeharrei lotuak (esklabuak, serbuak¹), oro har gorabide sozial zurrunezko gizartea, batez ere bakoitzak bereari eutsiz bizi zena. Hala ere, Jaun eta mendeko feudalen ondoan klase berri bat ari zen garatzen, burgesia, berariazko izaera sozial eta erlijiosoa erakusten ari zena. Alde batetik, tradizio feudala zen nagusi²; baina, bestetik, azkarki

zetterren harreman sozio-ekonomiko berriaren eraikuntza (artisans, merkatari eta finantzariena batik bat).

Eta horrekin batera, erlijiotasun-modu berrien premia³. Kristauek mundu honetarako zerbitzu erlijioso hobeak behar zituzten, eliz arduradun hobeak, sinesgai birpentsatuak⁴. Sinesgaietan eraberritze posible haren adibiderik nahi bagenu, Purgatorioaren XII. mendeko sinesgaiarena (Le Goff), eta Portziunkulako Indulgentziarena (1216) aipa daitezke, eskatologiaren mundu honetarako esanahia kudeatzeko balio izan zutenak⁵. Horrela, Frantziskok bere bizialdian eskaini zuen proposamena ere (ebanjeliotarra eta pobrea), une historiko aipatutakoa heldu zen Italiako gizartera:

[Eslavonia/Dalmaziatik etorrira, 1212] *berehala, hainbat eta hainbat gizaseme on eta egokik, kleriko nahiz laikok, Gorengoaren graziaz eta borondatez, mundua utzi eta deabruagandik kementsu ihes eginez, Frantziskori bere bizimodu eta asmoan jarraitu zion. [...]. Berrira Portziunkulako Andre Mariaren elizara itzuli zen. Eta luzaro gabe zenbait gizon eskolatu eta noble elkartu zitzaizkion haren biziera hartzeko gogotsu (1 Zel 56, 57).*

Balio estatistiko handirik ez badute ere, herritarrek Frantziskorekin izan ohi zuten talde-harremanen laudoriozko albistea jasota geratu da hagiografietan, Zelano-ren honetan, esaterako:

"Servidumbre"/"Vasallaje", Azpimarratzekoa da historiografian J.-C. Schmitt-en obrak urte batzuetatik hona eskaini duen Erdi Aroko erlijiotasun herritarren aurpegi berritua (Schmitt 1990).

³ Le Goff / Schmitt 1999: s. v. "Artisans"/"Individu"/"Liberté et servitude", "Marchands". Bonnassie, P., 1983: "Aldea", "Comuna", "Corporación", "Feria"/"Villa"/"Piedad"/"Prédication".

⁴ Gogoan har historiografian J.-C. Schmitt-en obrak eta erakusten digun garaiko erlijiotasuna (Schmitt 1990). Testuinguru hartan, Frantziskori buruz Bonnassie-k zera esan digunez: "En la historia de la piedad medieval debemos reservar un lugar importante a San Francisco de Asís" (Id., 187).

⁵ <http://www.porziuncola.org/indulgenza-della-porziuncola-40-1.html>

¹ Fédou, R. (ed.), 1982, s. v. "Siervo", in: ID., 1982, *Léxico histórico de la Edad Media*. Madrid: Taurus. 136.

² Erdi Aroaz diharduten hiztegi historiko erosoetan autore ezberdinen zenbait artikulua begira daiteke. Adibidez: Le Goff / Schmitt 1999: "Clercs et laïcs", "Féodalité", "Ordres", "Quotidien", "Seigneurie", "Travail" edo "Terre". Bonnassie, P., 1983: "Esclavitud", "Feudalismo", "Feudo", "Hambre", "Limosna", "Mendigos / Mendicantes", "Ordenes", "Paz (de Dios)", "Piedad", "Señorío",



San Frantzisko, sermolari, herri, eliza eta katedralatan, Gotzainek babesten zutela

[...]. Ascoli hirira heldu zen. Eta ohi bezala Jainkoaren hitza gartsuki hots egin zuelarik, Goi-goikoaren esku-hartzeaz hainbesteko graziaz eta debozioz bete zen ia herri osoa, elkar zapaltzen baitzuten santuari entzun eta hura ikusi nahian. Aldi hartan hogeitamar gizasemek, kleriko eta laiko, Elkarte santuko abitua hartu zuen Frantziskoren eskutik.[...]. Edozein hiritan sartzen zelarik, poztu egiten ziren elizgizonak, kanpaiak jotzen zituzten, gizonetzkoak biziki alaitzen ziren eta emakumeak ere bai haiekin

batera, hurrek txalo egiten zuten, eta maiz zuhaitz adarrak eskuetan eta salmoak kantatzen irteten zitzaizkion bidera (1 Zel 62).

Entzuleak ez zitzaizkion falta izan Frantziskori, herri eta elizetan, eta bizitzan aurrera egin ahala, gehitu eta ugarituz joan zitzaizkion. Baina hizlari ona ote zen gure predikaria? Badakigu erakarmen handia zuela jendartearen, eta lehen biografoak "hiztun bikaina" zela esan zigun (1 Zel 36 eta 83); horrek ez du esan nahi, ordea, garaiko Erretorikaren

arrastoan zebilenik. Estualdiren batean edo, nola konpondu ohi zen azaltzen digu hagiografiak:

Erabatekoa zen haren tinkotasuna eta ez zion ezeri kasurik egiten Jaunaren gauzei baizik. Izan ere, hainbat aldiz Jainkoaren hitza milaka eta milaka gizon-emakumeen aurrean hots egiten

Inoiz gertatu ohi zitzaion sermoia aldeaz aurretik prestatua eramatea, baina herriaren aurrean aurkitzean aurrez pentsatua ahaztu eta beste ezer esaten ez asmatzea. Orduan, inolako lotsarik gabe jendeari aitortzen zion, gauza asko zituela aurrez pentsatuak, baina ezin zuela haie-tatik bat ere gogoratu; baina bat-batean halako



Frantzisko, predikari. Hasierako entzule bakanak ondoren jendetza bihurtu ziren eliza eta herriko plazetan.

zuenean, konfidantzazko lagunarekin jardungo balu bezain seguru sentitzen zen. Haren begietan, entzule multzo handia lagun bakar bat bezala zen, eta lagun bakarrari jendetza handiari besteko arduraz predikatzen zion. Gogo garbitasunetik zetorkion hitz egiteko segurtasun hau eta, prestatu gabe mintzatzean ere, gauza harrigarri eta ezohikoak esaten zituen.

hitz-jarioz mintzatzen zen, non entzuleak txundituta uzten baitzituen. Beste batzuetan, berriz, zer esan ez zekiela gelditzean, bedeinkapena ematen zion herriari eta bidali egiten zuen, hori zelarik predikurik onena (1 Zel 72).

Bestalde, badakigu hainbat eliza eta katedralako pulpitudan (Asisko San Rubino-tik hasita) leku egiten zitzaiola, eliz arduradun guztiak begi-

ramen osoarekin hartu eta inori lekua kentzen saiatzen ez zelako.

“Jaunaren errebelazioz ikasi zuen agur hau: «Bakea dizula Jaunak». Bere sermoi guztietan, predikua hasieran, bake agurra egiten zion herriari”, dio Hiru Lagunen Legendak (HLaLe 26). Predikua gertatu zen herritar guztiei, inolako bereizketarik gabe, Ebanjelioaren mezua aldarrikatzeko lanabesa, klase eta kultur maila ororen gainetik.

Frantzisko, kontenplari fina, ez zen bizi izan garaiko gizartetik kanpo: fraideen ekonomia bera jendearen borondatearen gainean jaso nahi izan zuen (lana libreki ordaindua, limosna), eta kristau salbamendua sustatzeko prediku-harremana premiazkatatzen jo. Funtsean eta orokorrean, bere bokazio berria laster ezagutu zuen (“Ebanjelioari jarraitu”); baina bokazio horrek beharreko zituen ekinbide zehatzagoak nolakotzen kosta egin zitzaion (1206-1212)⁶. Mantso joan zen barne-bilakaera hori, baita Frantziskoren kasuan prediku-jarduerak ezaugarri bereziak bazituelako ere, beraren aurreko tradizioan ezohikoak zirenak alegia⁷.

Zalantza guztien ondoren, bere buruari eta anaiari galderak egin eta benazko aholkua eskatu zien Klarari eta Silbestre kontenplari jakitunari, zein leku eman predikuari eta horretan nola egin behar zuen lan galdetuz⁸. Frantziskoren beraren eta Anaiarte osoaren ardatz gerta zitekeen hitzaren apostolutza ebanjeliotarraren arazoa, San Bonabenturak honela deskribatu zuen:

[...Frantziskori] zalantza handiko arazo bat sortu zitzaion, oso larritua zeukana; eta egun askotan, otoitzetik itzultzean, bere lagun hurbilenei azaltzen zien irtenbide bat aurkitzeko. “Anaia maiteok —esan ohi zien—,

zer aholkatzen didazue? Zer iruditzen zaizue onena, ni otoitzera emana bizitzea ala hortik zehar predikatzen ibiltzea? Nik, hain txiki, sinple eta hitz motela izanik, otoitzerako grazia handiagoa hartu dut hitz egiteko baino. Iruditzen zait, gainera, otoitzean Jainkoaren dohainak lortzen eta ugaltzen direla, predikazioan zerutik jasotako dohainak banatu egiten diren bitartean. Otoitzean, gure barne afektuak garbitu egiten ditugu, eta arima On bakar, On egiazko eta Gorengoarekin bat egiten da eta bertutean bizkortzen; predikazioan, berriz, espirituaren oinak hautsez betetzen dira, atentzioa hainbat gauzatan barreiatzen da eta diziplina laxatzen. [...]. Egun askotan zehar hausnartu zituen era honetako arrazoibideak anaiekin; baina ez zuen garbi ikusten zein bide, Kristorentzat egiaz atseginago zitekeena, aukeratu behar zuen. [...].

Horrela, bada, bi anaiari deitu, eta anai Silvestregana, [...] orduan otoitzari etengabe emana Asis inguruko mendi batean zegoenagana, bidali zituen mandatu honekin: ahalegin zedila Jaunarengandik esku artean zuen arazoari buruz erantzuna lortzen, eta jakinaraz ziezaiola. Mandatu bera bidali zion Klara birjina santuari ere: gai berari buruz Jaunaren nahia jakiten saia zedila, nahiz bere kargura zituen birjina garbien eta xumeenetako baten bidez, nahiz berak bere ahizpekin otoitz eginez. Eta hara, bai apaiz agurgarria, bai Jainkoari sagaraturiko birjina, Espiritu Santuaren errebelazioz, biak bat etorri ziren harrigarri, Jainkoak nahi zuena Kristoren mezulari gisa predikatzerara ateratzea zela esatean. (LeLu 12, 1-2).

Kontsulta hark ez zuen bilatzen, nonbait, arazo pertsonal baterako erantzuna soilik, Anaiarte osoarentzat ere balio behar zuen. Horregatik, Erregelan jasota geratu zen geroago predikua zeregina nola eta nolako jarrera espiritualez bete behar zen esaten zuen oharra (1221):

⁶ Felder 1948: 24-28.

⁷ Felder 1948: 304-361.

⁸ Kezkati agertu zen arazoaz Frantzisko, behin eta berrero: 1 Zel 35; 2 Zel 172. Felder 1948: 324-327.

Inongo anaiak ez beza predika Eliza santuaren molde eta legeen kontra, eta bere ministroak baimena emanda izan ezik. Eta gorde bedi ministroa inori baimena bereizkuntzarik gabe ematetik. Baina anaia guztiek predika bezate obraz. [...]. Beraz, Jainkoa bera den maitasunagatik erregutzen diet neure anaia guztiei, predikatzaile, otoizlari eta langile, kleriko nahiz laiko, saia daitezela gauza guztietan apal izaten; ez daitezela harro, ez norberarekin poztu, eta ez dezatela barnean beren burua goratu Jainkoak beraiegen edo beraien bidez inoiz egiten edo esaten edo obratzen dituen hitz edo egintza onengatik, ez inolako onarengatik. (1 Er 17, 1-6, 11-12: "Predikariak").

Azkenik gogora dezagun Kristauarte osoari zuzendutako eta bi idazketa ezberdinetan emandako gutuna utzi zigula Frantziskok bere idazkietan: "Fededun guztiei gutuna", penitentzia-bizitza daramatenei eskainia:

Kristau guztiei: erlijioso, kleriko eta laiko, gizon eta emakume; mundu osoan bizi diren guztiei, anai Frantzisko, berorien morroi eta menpekoak: nire adeitasun eta begirunea, zeruko egiazko bakea eta zinezko maitasuna Jaunarengan.

Guztien morroi naizenez gero, behartua nago guztiak zerbitzatzeri eta nire Jaunaren usain gozoko hitzak ematera. Beraz, neure artean jabetuz, gorputzeko gaixotasun eta ahuleziagatik ezin zaituztedala bakoitza pertsonalki bisitatu, erabaki dut honako gutun honen eta mezularien bidez zuei adieraztea Aitaren Hitza den Jesu Kristo gure Jaunaren hitzak eta Espiritu Santuaren hitzak, espiritu eta bizi direnak (2 FeG 1-3).

Bazterketa edo pitzadurarik gabeko uniberteltasun-adierazpena da Frantziskoren hau, Europako XIII. mendeko kristau fededun batek sinestunei zuzendua, lehenik; baina baita gizateria osoa ere gogoan duena: "mundu guztian bizi direnei" aldarrikatua.

4.2. Frantzisko eta lehen anaien geografia

Frantziskoren eta lehen frantziskotarren sorterrria Italia izan zen; baina Italia, Europako mendebaldeko periferian lekutua egon arren, ez zegoen inondik ere urruntasun isolatu batean, ugari zituen bideak penintsulan bertan eta bertatik inguruetarakoak. Eta garai hartan gizarte-berritze aurreratu baten gertalekua suertatzen ari zen, gainera, Asis eta Unbria bezala beste zenbait eskualde. Guztietara iritsi nahiko zuen, bada, Frantzisko Asisko semeak, inguruetako premia erlijiosoei aurre egin ahal izateko.

4.2.1. Bide neketsuak

Antzinateko Erromatar Inperioko galtzaden sarea ondo hondatua zegoen Erdi Aroan; baina XI-XII. mendeetan bide-sareak gora egin zuen, bide nagusienetan, pelegrinazio, merkataritza eta gerrako beharizanei erantzun ahal izateko.

Hala ere, Erdi Aroko bideak eraikuntza eta egitura oso pobreak ziren, ez zuten harrizko zoru berdindurik, bide bihurri eta aldapatsuak ziren, estuak, itogarri eta irregularrak, zabalean 2,5 edo 3,5 metrokoak; pareta eta zubirik gabeak gehienetan. Guztiaren zainketa parrokia eta beraren barrutiko elizen bizkar joaten zen, XIII. mendera arte. Eta mendiko bidezidorretan ibiltzea ez zen samurra askotan:

Beste behin, Jainkoaren gizona, predikazioaren kausaz, fraide lagun batekin Lonbardiatic Trevisoko Markara zihoala, gaueko ilun trinkoak harrapatu zituen Po ibaiaren ondoan. Ibilbidea arriskuz josia baitzegoen, iluntasun, ibai eta padurengatik, lagunak esan zion santuari: "Otoitz egizu, aita, arrisku hauetatik libra gaitezen". Jainkoaren gizonak konfiantza handiz erantzun zion: "Ahaltsua da Jainkoa, bere bihotz gozok gogoko badu, iluntasun beltz hau uxatu eta guri argiaren dohaina luzatzeko" (LeLu 5, 12).

XIII. mendean zerbait hobera egiten hasi zen egoera, tokiko agintariek, hau da, *comunetako* Udalek eta *pieve* edo parrokiek bide anitz beren ardurapean hartuz joan zirelako, garapen ekonomiak ere horretan lagundu zuelako.



Hirugarren Ordena (1221, 1289). Herritar laiko anitz bildu zen Frantziskoren ingurura, eta Lagunarte laiko gisa eratu ziren gero. Aita Gillestegi markinarrak liburu oso hau idatzi zuen Hirugarren Ordenari buruz.

Anaia Txikien ibiliak, bide nagusietan baino sarriago gerta zitezkeen mendiko estrata eta bidezidorretan: oinez joaten ziren, arrazoi berezirik ez bazen, behintzat (gaixotasuna, ezina). Sekula ez zaldiz, eta behar izanez gero, astoan. Baina biderik onenak ere

ez ziren erosoak, ezta peleginaziorik elizkoienak zirenetan ere.

Erdi Aroan Apostoluen erlikiak batez ere Erroman zeuden, (Pedro, Paulo eta lehen martirienak), eta Kristandadeak Hiri Santu hartan zuen Aita Santua, Erroma Hiriko ez ezik Eliz Estatuetak Buru zena (horren barruan, Perugia nahiz neurri apalagoan Asis bera ez zeuden hain urrun guztien gobernantzarako).

Aspaldidanik, nazioarteko ohiko bideak zeuden Erromara iristeko: *Via Francigena* deituak Ingalaterra, Frantzia, Alemania eta Suitzatik Erromara eta Jerusalemaino eramanezakeen, eta halako bide luzean ezker-eskuinetatik zetozen besteak (*Via Domitia*, *Via Aurelia*, etab.). Eta, zer esanik ez, guztiek bi norabide zituzten, joanekoa eta etortzekoa. Bazekiten hori ondo erromesek, arma-gizonek, merkatariek, gurutzatuek, predikariek eta diplomazialariek.

Bide handi eta txikiek balio zieten Anaia Txikiei predikuan ibiltzeko. Frantziskok, bere konbertsio aurretik, bazuen zaldian ibiltzeko ohiturarik, gerrarako ere zaldun gisara atera zen; baina "Anaia txikia" zela ez zuen zaldirik nahi izan, eta Anaiei debekatu egin zien zaldian ibiltzea. Hortaz, arrunki fraideek eta predikariek oinez egin behar izan zituzten beren bidaldiak. Anaia ibiltariak zama hori zuen ia beti, oinez ibili beharrarena.

Italiako penintsulak, ipar-hegoetako bere luzean, bizkarrezur bat du Po-ren Haranetik Calabrianaino, Apeninoetako mendi-katea, eta hauen ezker-eskuin bi kostalde, eta mendi artean zenbait haran txiki edo handiago, Toskana, Unbria eta Lazion. Apeninoetan dago Asis, eta teoriarik ez luke izango erraztasunik Adriatik alderantz ibiltzeko; hala ere, egia da mendialdeetan betidaniko bide eta bidexkarik franko izan ohi dela nonahi ere, eta hemen ere bai.



Asiseko Le Carceri. Eremita edo *carcerati* deiturikoengandik hartu zuen bere izena mendi-baso honek. Frantziskok eta Anaiek bertara biltzeko ohitura ere izan zuten (1211...), otoitzerako. Eraikinena geroztik osatuz joan zen



4.2.2. Lurralde ezagun maitea

Asisko konderria⁹ edo Spoleto-ko dukerria¹⁰ izan ziren Frantziskoren sorterri, eta horiek dira, hasiera batean, anaiaena ere. Bizi, otoitz egin, lanean jardun eta limosna eskean ibili eskualde horretan egin zuten, lehenik.

Gertu, Rieti-ko harana oso Frantziskorena izan zen (oraingo bideetan barrena ia 100 km.-ra dago Rieti-ko herria); haran horretan ditugu *Greccio*, *La Foresta*, *Poggio Bustone* eta *Fonte Colombo*, Frantziskoren txoko maiteak. Urrunago geratzen zitzaion Erroma (183 km.), behin eta berriz bisitatu zuena.

Eta iparralderantz zer bait urrumago hain gogokoa zuen La Verna Toskanan zegoen (191 km.). Ekialdeko kostalderantz, Ancona 126 km.-ra zegoen, eta handik joan zen Egiptora. Emandako kilometrokopuru horiek gaurkoak dira; gainera, Frantziskoren ibilbideak bestelakoak ziren, beren lasterbideekin, eta, mendiak tarteko, batez ere malda gorabeheratsuz osatuak.

Italiatik kanpo, badakigu Lur Santuetarako aterako zela 1212an, eta Eslavoniaraino iritsi (Dalmazia), nahiz eta bertatik Ancona-ra itzuli behar izan zuen (1 Zel 55). Urte berean edo, Konpostelarako atera zela, nahiz eta ez dakigun non gaixotu eta nondik itzuli behar izan zuen¹¹:

Baina Jainko ona [...], Espainiaraino heldu zenean, aurrez aurre jarri zitzaion; hain zuzen, gaixotasuna bidali zion aurrera jarrai ez zezan, eta hasitako bideari uko egin behar izan zion (1 Zel 56).

Osasunak lagundu zion bitartean, misio eta prediku-asmoarekin erbestera-ko zuen grina hau bizirik izan zuen Frantziskok. Zerbait geroago (1217)

Frantziarako irten zen, baina Firenze-n Hugolino kardinalak konbentzitu zuen atzera egin zezan (1 Zel 74; PerLe 108; HLaLe 61). Aurrerago ikusiko dugunez, arrakasta hobe izan zuen Frantziskok Egipto eta Lur Santuetarako bigarren ahaleginean (1219).

Laburtuz: 400en bat kilometroko diametroa izan zuen Frantzisko sarrienik bizi izandako herrialde eta sorterriak: Unbria, Toskana, Markak, Lazio... Frantzisko eta Anaiaen biziera ebanjeliotarrak, prediku ibiltariak eta gizarteko eta herrietako harremanek lurralde-barruti horretan erein, landatu eta ongi errotuta utzi zuten lehen orduko frantziskotar-tasuna, artean Frantzisko bizi zela.

4.2.3. Herri eta hiriak

Biografieta jasotako aipuetatik posible da Frantzisko non egon edo bizi izan zen jakitea (ez ahaztu zinez ibiltaria zela): herrialdea, eskualdea, herria, auzoa... Baina, bistan da, albiste geografiko horiek oso noizbehinkakoak dira; ez zen egon biografoen artean albisteak egutegi jarraitu batean bildu zituenik. Zaila da, beraz, bizileku eta bidaiak guztien albistegi kronologiko osoa ematea; hala ere posible da, eskueran ditugun iturriei begiratuta, herri aipatuak izendegia biltzea.

60tik gora herri aipatzen dira iturrietan, San Frantziskok bizi zela bisitatu edo beraietan bizitakoak. Batzuetan herri historiko ezagun eta handiak dira, bestetan bakarleku edo eremitorio apalak, baina Frantziskoren bizitzako une jakingarriak gogorarazten dizkigutenak.

Ondoko berriak ematen hasi aurretik beharrezkoa da ohar praktikoa bat bederen egitea: Frantziskoren ibilbideen artean, haren bizialdikoak dira, noski, lehen-dabizi gogoratu behar ditugunak; baina badago, bai orduko eta bai hil ondorengo presentziarik ere, "mirariei" dagokiena hain zuzen.

Ezaguna da, mirarien hori nahitaezkoa izaten zela kanonizazioetan (baita Frantzisko eta Klararenetan

⁹ Ik. Fortini, A. 1959, *Nova vita di San Francesco*. Assisi: Edizioni Assisi. III, 67-75.

¹⁰ Spoleto-ko dukerria 1155eko aldakuntzen ondoren: https://it.wikipedia.org/wiki/Ducato_di_Spoleto.

¹¹ Ik. Frantz. Itz. Taldea 2002: 799. or., 247. oh.

ere), eta albiste geo-historiko anitz eskuratu ahal izan da horretarako bildutako lekukotasunetatik. Mirarien albisteak Frantziskorekiko harremana, mirespena eta jendeen esker ona sustatzen zituen herriz herri, Santuaren eta santutegi frantziskotarren ospea hedatzen zuela, eta aldi berean frantziskotartasunaren tokian tokikotasuna azkartzen.

Maiz, lehen une hartan ezer gutxi izandakoak gero komentu ongi zainduak bilakatu dira (Asis bertako Le Carceri-ren kasua), eta sarritan aipatuko ditugun guztietan komentu frantzistotarrak eraiki eta irekita daude geroztik (ikus Interneten argazki eta guzti: "herri-izena + San Francesco").

Frantziskoren herrien artean garrantzirik handiena izandako Asisetik hasita, aipa ditzagun Erroma, Bologna, Foligno, Rieti, Siena, Spoleto, Gubbio, Arezzo, Terni, Narni, Bovara, Sarteano, Bagnara, Ancona, Ascoli Piceno, edo herrixka eta auzoen artean, Orte, Poggio Bustone, La Foresta, Greccio nahiz Assisin bertan Le Carceri eta Rivo Torto, eta urrunago, Toscana-n, La Verna, eta abar.

Geroko garaietara gatzela eta gaurko gure memoria historikoari lagunduz, munduan dozenaka herri daude "San Frantzisko" direnak, ia beti Asisko Frantzisko gogoratu nahi digutenak: San Francisco hiria (Kalifornian, *City and County of San Francisco*), San Francisco (Córdoba, Argentina, 1886-88)¹², San Francisco de Campeche (Mexiko 1540), etnia shipibaren San Francisco (Peru, Pucallpa)¹³, San Frantzisko auzoak (Quibdó, Kolonbia), San Francisco de los Andes parkea (Txile), nahiz herrietako auzo apalak: Teide-koa (Kanaria Handian), etab. Ia beti kolonizazioek eta Misioek sortutako geografia da hori.

Italiara itzulita, bakoitzaren historia orokorra jakiteko gaur egun esku-eskura du irakurleak Inter-

net; hala egokitzen bada, topa daiteke kasu bakoitzean Asis-tik beste herrietara joateko Frantziskok egindako bidearen antzekorik¹⁴.

Frantziskoren bizitzako herrietan, gertakari-multzo anitza aurki daiteke, noski: ekaitza baretu zuenekoa (Ancona inguruetan), hainbat tokitan predikua (Ascoli Piceno, Marche, Narni, Puglia), fraideen etxearena (Bologna), Dama pobrearena (Rocca di Campiglia), zaldunaren historia (Celano), soingainekoa pobreari eman zionekoa (Celle de Cortona), anaien lehen esperientziak (Firenze), Erregela idazten (Fonte Colombo), garizumako baraualdia (Trasimeno), Eguberria ospatzen (Greccio), otsoarena (Gubbio), lapurrak bide oneratuak (Monte Cassale), gazteluko jaietan (Montefeltro), gerrako eskarmentua eta preso (Perugia), hainbat gertaera (Rieti), etab.

Gorago esan bezala, bizitzako eta hilondokoetan mirari-gertakariak leku nagusia dute Frantziskoren historian. Zelanok, bere bi biografien ondoren, hirugarren liburu bat idatzi zuen, *Mirarien liburua* (1250-1254), eta bertan ageri dira San Frantziskori egotzitako mirarien lekuak: Chiusi-ko La Verna-n zauriena, Puglia-ko Potenza-n kalonjearen sendaketa, margolan baten osaketa Erroman, Lleida-n edo Gaztelan armaz zauritutakoaren osaketa, Gagliano-n mirarizko iturria, San Urbino-n ura ardo bihurtzea, Rieti-ko ganadu-izurritea etetea, Greccio-ko belar mirarigilea, Alviano-n enarak isilaraztea, Rietiko aintzirako txori prediku-entzuleena, Sienatik Spoleto-ra artaldeak egin zion festa, etab. Garaiko mentalitateak entzun eta gozatzeko abagune aproposa da mirarien hau.

Atalburu ezberdinetan banatu eta elkartu zituen Zelano-k mirariak. Hildako berpiztuak hainbat herri-ritan aurkitzen ditugu, bakoitza bere gerta-lekuan: Celano, Erroma, Nocera, Capua, Sesa Aurunca (Cam-

¹² <http://www.sanfranciscodigital.com.ar/contenidos/historia-de-san-francisco-1>.

¹³ https://www.youtube.com/watch?v=QOBYISkE_Kg.

¹⁴ <http://www.umbriafrancescosways.eu/>. Zerrenda orokorrageoetan ere bila daiteke Frantziskoren aztarna, adibidez: <http://web.rite.toscana.it/Fede/ricerca.jsp?lingua=italiano>

pania), Pomarico (Basilicata, Matera), Sizilia eta Alemanian ere. Heriotza-arriskuetatik ateratakoak badaude, hidropiko eta elbarriak, uretan hondoratetik libratuak, espetxetik askatuak, erditze arriskuetatik onik ateratako andreak, hernia sendatuak, itsu, gor eta mutu oneratuak, legendun eta odoljarioz joak, eta abar luze bat. Erdi Aroko hagiografia ideologiko ongi landuaren herrietako azalpena dira mirari-kontakizun horiek.

Frantziskoren bizialdiko geografia aski zabal horretako erdigunea Portziunkulan egon zen, haren bizileku maiteen eta frantziskotartasunaren bilgune unibertsalean; legendunen gertuko ospitaleak han inguruan zeuden, han-hemen zaharberritutako ermita eta elizgune hondatuak ere bai, berdin eremitorio gordeak, eta, oro har, lanean eta eskean bizi izandako paisaia unbrriarrak eta beste.

Modu honetan osatu zen, beraz, Frantziskoren eta beronen memoriaren geografia, herriz herri, eskualdez eskualde, betiere gizarteko harremanek osatzen zutela. Eta lurralde-barruti horietan baita gizartearekiko burubide pertsonalak ere.

4.3. Frantziskoren inguru soziala

Edozein herritarren antzera, nahitaezko harremanak zaindu, indartu edo eten nahiz aldatu behar izan zituen Frantziskok, familian eta sorterrian, gizarteko klase sozialekin (aberats eta pobre), arduradun eliztarrekin, agintari zibilekin, ondora inguratu zitzaizkion lagunekin, eskolatu eta ezjakinekin, emakumezko eta gizonezkoekin, jarraian inguratu zitzaizkionekin, etab. "Iraultza" zen hura, baina oso beraren gisakoa¹⁵.

¹⁵ Classen, S., 1974, "Francisco de Asís y la cuestión social", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 9, 1974, 263-275. <http://www.franciscanos.org/historia/Clasen-SFcoYLaCuestionSocial.htm>. Roggen, H., 1974, "Hizo Francisco una opción de clase?", in: *Selecciones de franciscanismo*. 9, 1974, 287-295. <http://www.franciscanos.org/historia/RoggenH-HizoFcoOpcionDeClase.htm>. Pompei, A., 1974, "La influencia religioso-social de s. Francisco y de su primitiva fraternidad en el siglo XIII", in: *Selecciones*

4.3.1. Sendiarekin

Hautzaroko eta gaztetako ezagunak ditugu aita eta ama, eta ikusi dugu zein jarrera izan zuten seme zaharren honekin. Tamalez, familiako egunerokotasunaz biografietan zertzelada handirik gabeko urteak izan ziren 1182-1198koak, eta ordutik 1206ra arte agertokian azaltzeke, gurasoak Frantziskoren ondoan daude, ama etxeko bizimodua eramanez eta aita merkatal lana, biltegia eta dendakoak bideratu eta gidatzen dituela.



Frantzisko pobreari jantzia ematen

de Franciscanismo. 9, 1974, 328-335. <http://www.franciscanos.org/historia/PompeiA-InfluenciaReligiosoSocialDeSFo.htm>. Matura, T., 1972, "Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 1, 1972, 15-25. <http://www.franciscanos.org/selfran01/matura.html>. Gogoan hartze-koa da, gainera: Flood 1996: *passim*.

Aitak ondoan du bere seme zaharrena, baina bien arteko harremana azaltzean, hagiografo interese-satuek eta hauen artean berezikiago hagiografo ofizialek aurreiritzi ideologikoz jantzitako kontakizunak eskaintzen dizkigute. Honela, Bonabenturaren *Legenda luzeak* zera dio (LeLu 1, 1): "Gaztarroan, gizaseme hutsalen artean gauza hutsaletan hazi zen, eta gero, ikasketa laburren ondoren, irabazi oneko merkatari-negozioetara eman".

Ziurki, Frantziako azoketarako aitaren joan-etorriek aukera eman zioten gazteari etxeko lantegiaren ardura hartzeko¹⁶. Perugian preso egon zenean (1202-1203), aitak ahaleginak egin zituen nonbait, eskatzen zioten erreskate-ordaina emanda, semea etxera etor zedin; hala ere, ondoko gaixoaldiak ez zion berehala utzi etxeko negozioan jarraitzen (1204).

Ondoren, harritu ere egiten da bat, aitak nola utzi zion Pugglia-rako prestaketetan diruak xahutzen (zaldia, armak eta abar erosten), eta galde daiteke San Damian-go konbertsioaren aurretik ere (2005-eko uda-udazkenetan), aitak nola ikusi zuen ezer-tarako balio izan ez zuen balentria hura.

Oro har, sinesgarria da semea Udal agintarietara eta Gotzainaren era eman zuenerako, aski "eskarmentaturik" zegoela aita bere Frantziskorekin. Aita-semeen arteko Gotzainaren aurreko azken etena ikusita daukagu (1206ko urtarril-otsailen).

Ondokoan, gurasoen albisterik gabe geratzen gara, ez aitarenik, ez amarenik. Noiz arte bizi izan ote ziren gurasoak Frantziskoren bizialdi berriko gora-beherak ezagutzeko? Bereziki amak nola eraman ote zituen semearekiko harremanak? Frantzisko *Santuaren* hagiografoek erabat isildu zuten familiar-teko historia hori.

Eta nondik norako bizitza izan ote zuen Angelo Frantziskoren anaia gazteak? Heldu zaigun haren

albiste bakarra, eta hain zuzen Frantziskorekiko gertakariarena da:

Neguko goiz batean, [anaiak] otoitzean ikusi zuen Frantzisko, jantzi zarpailez estalia eta hotzez dardarka, eta isekaz eta gaiztakeriaz auzo-lagun bati esan zion: «Esaioke Frantziskori, sal diezadala jornal baten izerdia». Entzun zuen Jainkoaren gizonak eta, biziki pozik, irribarretsu erantzun zion: «Egon ziur arras garesti salduko diodala nire Jaunari» (2 Zel 12).

Hortik aurrerako albisterik gabe geratzen gara: dirudienez, lehenengo batean sendiak ez zuen konprenitu Frantziskoren egitasmo erlijiosoa, eta gerokoak ez dakigu deus.

4.3.2. Pobreen arteko txiroenekin

Familiatik irten eta bere gisara ibili zen Frantzisko, bakarrik, lehen lagunak berarekin elkartu ziren arte (1206ko otsailetik 1208ko apirilera); bi urte pasatxo, beraz. Gotzainak babestu eta libratu egin zuen, aitaren eskumenetik Elizakora ekarriz; baina ondoko biziera soziala Frantziskok berak asmatu eta eratu behar izan zuen.

Hasteko, Asistik Gubbio-rako bidea hartu zuen, eta hara baino lehen, bizi behar eta, San Verekundo Abadian aurkitu zuen aldi baterako morroi-lana, harik eta Gubbion bertan legendunen ospitaleren batean laguntzen jarri zen arte. Gubbiokoa ez zen izan luzea, uste baita 1206ko uztailean berriro Asisen zela.

Legendunekiko harremanak balio ezberdinak izan zituen: lehen-lehenik, aparteko lagunarte barkartua zen hura, gainerako gizartearekin harreman normalik gabea, guztiz arautu eta mesprextatua, agintariak lagundu bai baina urrun nahi zutena. Gaurko esamoldean, giza eskubideen kontra-sistema eraikita zuena, gaixoa biziarteko egoera berezian uzten zuena. Biharamuneko itxaropen berririk gabeko mundua.

¹⁶ Eta beharbada inoiz edo beste hara joan-etorriren bat egiteko.

Lazareto edo Madalena haiek, legendunen ospitaleek, bazituzten berariazko kontraesanak ere: Elizak errukiz begiratzeko zituen, eta gizartetik apartatu eta sasi-gizarte hartara bidaltzean erritu jakin batez agurtzen zituen. Bestalde, guztien garbitasun eta osasun-segurtasunagatik, herrietako agintariak saiatzeko gutxieneko laguntzak ematen; baina haiek betiere urrun egon behar zuten, herritar guztien onerako.

Ikusi dugu zein ugariak ziren legendun-ospitaleak Erdi Aro hartan, hain zuzen baita bestelako dermatosi ezberdinak diagnosietan oso nahasturik ageri zirelako eta ospitaleetan izaera ezberdineko gaixoak pilatzen zirelako. Alde horretatik ere, "klase" sozial kontrajarriak zeuden han. Legendunak, eta legendar-dunak, lehendabizi, eta azaleko beste hainbat gaixotasun zituztenak.

Frantziskoren biografia guztiek azpimarratu dute nola legendun batekin izandako topaketa konbertsio-une hunkigarria gertatu zitzaion Frantziskori (Manselli 1997a: 46-47). Gorputz eta gogo, ospitale haietan azken muturreko balio kristauak erein eta maitatzen ahalegindu zen Frantzisko, hasteko bazterketa sozialaren kontra behintzat:

Gero, apaltasun ororen maitale santua, legendunengana joan eta beraiekin bizi izan zen [...], Jainkoarengatik guztiei bere zerbitzu arduratsua eskainiz: haragi ustelak garbitzen zizkien eta zauri zornetsuak sendatzen. [...]. "Jaunak berak eraman ninduen haien artera, eta errukiz tratatu nituen" [bere Testamentuan esan zuen bezala] (1 Zel 17).

Gizatasunaren mugak bertatik bertara ezagutu zituen legendunen artean eta gaixo bakoitzaren historia pertsonalean: osasuna / eritasuna, poza / atsekabea, atsedena / sufrikarioa, erosotasuna / miseria, bizia / heriotza... Legena eta legendunak izan ziren Frantziskorentzat pobreziaren azalpenik gordinena, eta pobretasun guztien irudi paradigmaticoa.

Pobreetan eta pobreengan, txirotasunaren historian eta gizartean Frantziskok aurkitu zituen balioak azpimarratu eta argituz doaz idazkietan bezala biografietan: Jauna behartsu egin zen esango digu, eta Jesus Nazaretekoari jarraitu behar zaio horretan, Ebanjelio bizitzaren ezaugarria baita; gogo pobreak munduko ondasunetatik eta dirutik libre egiten gaitu, eta gehienen gizakera apal anaikorrera eramaten.

Biziera berriaren asmoan dagoen iraultza espiritual (propositum vitae hartan, 1209) amodio ebanjeliotarrez bizitako pobretasun sozialak segurtatuko du gizartean eta anaien bizitzan. Pobreekiko eta pobreen arteko "politika" honela definitzen zuen bere burubidean:

Pobreen aitak, Frantzisko pobreak, gauza guztietan pobreen kideko eginak, ezin zuen jasan norbait bera baino pobreago ikustea, ez ospe hutsalaren gosez, bihotzeko gupidaz baizik. Tunika zarpail eta latz batekin pozik zen arren, hau ere askotan behartsuren batekin banatu nahi zuen. Pobre guztiz aberats honek, gupidazko sentimenduak eraginda, hotzaldi gogorretan mantua edo larruzko jantziak eskatzen zizkien mailegutan munduko aberatsei, behartsuei lagundu ahal izateko. Eta haiek debozioagatik aita dohatsuak eskatu baino gogotsuago ematen zizkiotenean, esaten zien: "Baldintza batekin onartuko dizkizuet: berriro jasotzeko itxaropenari uko egiten badiozue". Ondoren, alai eta pozik, bidean aurkitzen zuen lehenengo behartsua jantzten zuen hartutako jantziarekin.

Jasanezina egiten zitzaion behartsuren bat iraintzen ikustea edo Jainkoaren sorkariren bat madarikatzen entzutea. Behin anaia batek limosna eskatzen ari zen behartsu bat samindu zuen esanez: "Begira, ez zaitezela behartsu itxuran aberats izan". Entzun zuen hori pobreen aita Frantzisko santuak eta, oso mindurik, gogor zentzatu zuen ateraldia izan zuen anaia, eta

behartsuaren aurrean biluzik jarri eta, haren oinei muin emanez, barkamena eskatzeko agindu zion.

Hala esaten zuen: "Behartsua madarikatzen duenak, mundu honetan gugatik behartsu egin zen Kristo iraintzen du, pobrea haren nobleziaren irudi baita." Horregatik, sarritan egurra edo bestelako zamak zeramaten behartsuekin topo egitean, bere sorbalda aski ahula eskaintzen zien laguntzeko (1 Zel 76).

Pobreen gizartea zen Frantziskok beretzat hautatu zuena, eta, ahal izan zuenean, beronen mesedetan eraman zituen gizarteko gainerako klaseekin izandako harremanak eta berauei egindako eskeak.

4.3.3. Botere-inguruko arriskueta

Botereak dituen arriskuetaetik gorde nahi izan zituen Frantziskok bere anaia¹⁷, eta xede horrekin lehenengo Erregelari idatzita utzi zuen guztientzat ondoko aholkua:

Bestalde, anaiak ez bezate izan botererik eta aginterik, eta are gutxiago beren artean. Izan ere, honela dio Jaunak Ebanjelioan: "Herrietako buruzagiek menpean hartzen dituzte herriak, eta handi-mandiek beren agintea ezartzen diete." Ez du horrela izan behar anaien artean. Hauen "artean handien izan nahi duena izan bedi guztion zerbitzari" eta morroi; eta beraien artean "nagusiena egin bedi txikiaren pareko" (1 Er 5, 9-12).

Herri- eta Eliz-agintariekin bezala aberatsekin sortutako harremanak kontuz zaindu zituen Frantziskok, eta ezjakina edo eskolatu gabea izanik

("idiota", alegia)¹⁸ jakitunak errespetuz begiratu zituen, betiere hautaturik zituen balio etiko eta sozialak ezkutatu gabe.

Asisen bertan gerratean edo gerra-giroan iragan zen hamarkada pasatxo bat, eta Frantzisko bera ere izan zen horretan protagonista eta biktima (1298-1210). Gerra galduak preso utzi zuen Perugian, eta gerraondoko behin-behineko bakeak ez zuen Asisen bake on iraunkorrik ekarri, harik eta 1210eko azaroaren 9an *comune* hartako gizarteari irtenbide konstituzional egonkorra eman zitzaion arte (Felder 1948: 295):

Hau da [1210] Asisko maiores eta minores deituen arteko betirako ordenamendu eta hitzarmena. Batzuen eta besteen arteko baimenik gabe ezingo da sinatu inolako aliantzarik, ez Aita Santuarekin nahiz haren nuntzio edo legatuekin, ezta Enperadorearekin nahiz haren errege, nuntzio edo legatuekin, ezta hiri edo gazteluren batekin edota nonahiko jaun handirekin, baizik eta batzuek eta besteek elkarrekin adostu beharko dute Asisko hiriaren ohorerako, ongi-izaterako eta aurrerapenerako beharrezkoa dena.

Frantziskoren bizialdian bertan gertatu zen mendeetan indarrean egon zen hitzarmen hau, botere-banaketa zuzenago batekin, XII. mendeko azken laurdenaz geroztik onartutako erreforma sozialak legeztatuz. Ez dakigu Frantziskoren mezu erlijiosoak zein indar izan zuen Akordio horren bidez sorterriko egoera politikoa aldatzen; baina ez dago zalantzarik lau urte aurretik hasita entzuten ari zirela han Frantziskoren bake-predikuak: "Jaunak agertu zidan, agur gisa hau esateko: *Bakea dizula Jaunak*"

Boteredunekiko zurikeriarik ez zuen nahi izan, eta, Zelanoren laudoriozko lekukotasunari sinetsi nahi badiogu (badu testuak halako usain apologetikoren bat), behar zenean salatzaile irmoa ere izaten jakin zuen:

¹⁷ Dijk, W. C. Van, 1972, "El franciscanismo contestatario permanente en la Iglesia", in: *Selecciones de franciscanismo*. 2, 1972, 31-45. <http://www.franciscanos.org/historia/VanDijkWC-ElFranciscanismo-Contestacion.htm>. Matura, Th, 1972, "Francisco de Asís, una réplica en nombre del Evangelio", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 1, 1972, 15-25. <http://www.franciscanos.org/selfran01/matura.html>.

¹⁸ Ik. <http://www.mercaba.org/K/medieval/idiota.htm>.



Aita santuak bere apostolu-aginpidez bidali zuelako, konfidantzaz eta ausardiaz jokatzeko zuen gauza guztietan, inolako zurikeria eta lausengutan ibili gabe. Ez zen bigun zenbaitzuren hutsegiteekin, zorrotz baizik; ez zuen bekatuzko bizitza babesten, gogor salatzen baizik, bere burua egiteen bidez behartzen baitzuen besteak hitzen bidez konbentzitzen saiatu baino lehen. Inoren salaketaren beldurrik ez zuenez, halako tinkotasunez aldarrikatzen zuen egia, non eskola handiko gizasemeak ere, izen eta karguz ospetsuak, harriturik gelditzen baitziren haren predikuekin, eta beldur salbagarriak hartzen zituen haren aurrean (1 Zel 36).

4.3.4. Asisen agintedunak adiskidetzen

Asisko agintariekikoan, bi une behintzat gogora daitezke: bata, aita udal agintarien aurrera jo eta hauek Frantzisko auzitara deitu zutenekoa; bestea, hiriko *Podestà* (Alkatea) eta Gotzaina haserretuak adiskidetzera deitu zituenekoa. Hiru Lagunek honela jaso zuten lehen gertakaria:

Ondoren, [aita, Asisko] herri-agintarien jauregiara joan zen, bere semea auzia jartzera eta etxetik ostu zuen dirua itzularaz ziezaioela eskatzera. Herri-agintariek, berriz, aita hain aztoratuta ikusita, deia bidali zioten Frantziskori mezulari baten bidez, beraien aurrera ager zedin. Baina Frantziskok erantzun zion mezulariari Jainkoari esker librea zela eta ez zegoela herri-agintarien eskumenean, gorengo Jainko bakarraren zerbitzari zela eta. Herri-agintariek ez zuten behartu nahi izan, eta erantzun hau eman zioten aitari: «Jainkoaren zerbitzura jarri denetik, ez dago gure eskumenean» (HLaLe 19).

La Verna, hantxe mendi-basoetan galduta, Santutegi ez ezik museo ere badela esan daiteke La Verna. Harrigarria zinez Della Robbia-tarrek bertarako *terracotta* deitu teknikaz egindako lana

Erantzun hori lehen urratsa zen harrezkero Eliza-ren eskumenean zegoela adierazteko, eta ez herri agintarien menpe. Dakigun bezala, 1206ko gertakaria da hori; hogei urte geroagokoa da Asisko Gotzain eta *Podestà*-ren auzi politikoarena, eskumiku eta guzti. Bien arteko harremanak ez zeuden unerik onenean, eta Frantziskok bakeak egitera eraman zituen; gertakariaren istorioa xeheki kontatu zuen *Perfekzioaren ispiluak*. Frantziskok egokiera hartan abestutako bertso-atala *Anai Eguzkiaren Kantika*-ri gehitu zion:

Frantzisko dohatsuak sorkariei buruz aipatu berri ditugun eta "Anaia Eguzkiaren Kantika" izenez deitu zituen Gorespenak eratu ondoren, liskar handia sortu zen Asisko Alkatearen eta Gotzainaren artean; eta honela, Gotzainak Alkatea eskomikatu zuen, eta honek, pregoi baten bidez, inork Gotzainarekin salerosketarik edo inolako traturik egitea debekatu zuen.

Frantzisko dohatsua gaixo zegoen eta, arazoaren berri jakinik, biziki gupidatu zen haietaz, batik bat ez zelako inor haien artean bakeak egiten saiatzen. Eta honela esan zien lagunei: «Lotsa handia da guretzat, Jainkoaren zerbitzariontzat, Gotzainak eta Alkateak elkar gorrotatzea, eta ez du inork ezer egiten haiek baketzeko».

Eta berehala, egoera hura zela eta, beste bertso bat erantsi zien goian aipaturiko Gorespenei [10-11. pasarteak]:

***Goretsia zu, ene Jauna,
zure amodioagatik barkatzen dutenak
eta gaixotasuna eta larrialdia eramaten:
zorionekoak
hori guztia bakean sufritzen dutenak,
zuk, Goi-goiko horrek,
koroatuko dituzu eta.***

Deitu zion gero lagunetako bati eta esan zion: «Zoaz Alkateagana eta esaiozu nire izenean, joan dadila Gotzaindegira hiriko handikiekin eta ekarri ahal dituen hiritar guztiekin».

Laguna atera zenean, beste bi laguni esan zien: «Zoazte eta kanta ezazue "Anaia Eguzkiaren Kantika" Gotzainaren, Alkatearen eta haiekin dauden gainerakoen aurrean, badut-eta konfiantza Jaunak haien bihotzak apalaraziko dituela eta lehengo maitasun eta adiskidetasunera itzuliko direla».

Guztiak gotzaindegiko klaustroan bildurik zeudela, zutitu ziren bi anaiak, eta batek esan zuen: «Anai Frantziskok bere gaixoaldian "Jaunaren Gorespenak" asmatu ditu haren sorkariak direla eta, Jainkoa bera gorestekoa eta lagun hurkoa eraikitzeke. Frantziskok berak eskatzen dizue debozio handiz entzun ditzazuela». Eta kantika esaten eta abesten hasi ziren.

Alkatea zutik jarri zen berehala eta, esku-besoak gurutzatuta, Jaunaren Ebanjelioa balira bezala adi-adi entzun zituen bertsoak deboziorik handienaz eta malko ugari isuriz, konfiantza eta debozio handia baitzion Frantzisko dohatsuari.

Jaunaren Gorespenak bukatu zituztenean, honela hitz egin zuen Alkateak guztien aurrean: «Egiaz diotsuet barkatzen diodala nire jauntzat eduki nahi eta eduki behar dudan Gotzain jaunari, eta ez berari bakarrik: norbaitek anaia edo semea hil balit ere, barkatuko nioke». Eta hori esanik, Gotzainaren oinetan ahuspeztu eta esan zuen: «Jesu Kristo gure Jaunaren eta honen zerbitzari Frantzisko dohatsuaren maitasunagatik, prest nago guztiaren ordaina emateko, zeuk deritzozun eran».

Gotzainak, bere aldetik, hura eskutik hartu eta altxatu egin zuen, esanez: «Nire karguagatik apala izatea dagokit, baina haserrekorra naiz neurez; barka iezadazu, bada». Eta honela, onginahia eta maitasun handiz besarkatu eta laztandu zuten elkar (Perlsp 101).



Bermeoko Komentuko kalostra. Bizkaiko lehenengo fraide komentua izan zen hau (1357). Jaurerriko Jaunak eraikia, eta XVI. mendean hain eder jaso. (2002ko argazkia: I. Inzurrungaza)

Hor azpian agertzen zaizkigun irizpideak finkatuz, Frantziskok Agintari guztiei zuzendutako gutuna idatzi zuen, "Herri-agintariei gutuna" deritzana (c. 1220). Bakearen mezua gogoan izateko Frantziskoren deiak guztiengana iritsi nahi izan zuen: "Mundu osoko gobernari eta kontsul, epaile eta agintari guztiei eta gutun hau iritsiko zaien beste guztiei, anai Frantziskok, Jainko Jaunarengan zeuen morroi txiki eta mespretxagarriak: osasuna eta bakea opa dizkizuet guztioi".

4.3.5. Eliz agintariekin zuhurtziaz

Eliz agintariekin esanekotasun osoa ageri du Frantziskok, eta, akatsak eta hutsegiteak ikusten badizkie ere, guztiengan funtsezkoak diren Elizaren "sakramentu-balioa" eta Kristoren ordezkaritza eliztarra ezagutzen dizkie eliz agintariei; segur aski, beti erraza gertatu ez zitzaion aitorpena.

Eliza eta beronen Sakramentuak dira, graziaren indarrez egin behar diren obrantzak tarteko direla (konbertsio eta "penitentzia"), salbaziorako

bermea; testuinguru horretan Eukaristiak leku bereziki zaindua du Frantziskoren espiritualitatean, idazkietan azpimarratzen zuenaren arabera¹⁹.

Lehen orduko “forma vitae” haren onarpen eliztarra Erroman eta Aita Santuari eskatzea (1209) Asis barrutiko Gotzainagandik harago joatea zen (beronen eskumena ukatu gabe izan arren). Horrek erakutsi zituen erakunde-jarrera eta jurisdikzio-irizpidea Erregela idatzietako lehen lerroetan berretsita ageri zaizkigu (1221, 1223).

Hau da Jesu Kristoren Ebanjelioko bizimodua, anai Frantziskok Aita santu jaunari onartu eta baiesteko eskatu ziona. Hark onartu eta baietsi egin zion, bai berarentzat eta bai oraingo eta geroko bere anaientzat. Anai Frantziskok eta Elkarre honetako buru izango den orok obedientzia eta begirunea hitzeman biezazkio Inozentzio Aita santu jaunari eta bere ondorengoei (1 Er Hitzaurrea, 1-3).

Anaia txikien Erregela eta bizimodua hau da: Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelio santua betetzea, obedientzian, berenik gabe eta kastitatean biziz. Anai Frantziskok obedientzia eta begirunea hitzematzen dizkie Honorio Aita santu jaunari eta kanonikoki hautaturiko haren ondorengoei eta Erromako Elizari (2 Er 1, 1-2).

Azpian zeuden arrazoi teologikoengatik eta Frantziskok egindako hautapenengatik eliz Erakundearekiko burubide hau eliz arduradun guztien gainean zabaldu zuen Frantziskok, hainbat testutan ageri denaren arabera.

Hiru Aita Santurekin izan zuen zerikusirik Frantziskok: hitzez Erregela onartu zion Inozentzio III.aren (1198-1216)²⁰, zenbait erabakitan eskua izandako Honorio III.aren (1216-1227) eta Aita Santu izan aurretik (1217...) berarekin harreman

estuak izan zituen Gregorio IX.aren (1227-1241). Frantzisko hil eta gero ere esku indartsua izan zuen azken honek haren oinordekotza begiratu eta interpretatzen (*Quo elongati*, 1230). (Iriarte 1979: 72).

Kardinalak zeuden eliz Hierarkian Aita Santuen ondoan, eta hauek nahitaezko bide-laguntzat izan zituen Frantziskok, printzipioz eta pragmatismoz, Erromara Erregela-gaiaren onarpen eske joan zenetik bertatik; nahitaezko bitartekari gertatu ziren hierarkiadun hauek.

Kardinalak, hain zuen, XII. mendean irabazi zuten beren gobernu-nortasun berria, lehenengoz 1130-an hartu zuten esku hiru ordenetako kardinalak Aita Santua hautatzean eta orduan eratuta geratu zen Kardinalen Kolegio Sakratua. Garai berean, Aita Santuen Liturgiako laguntzaile izatetik Kurian bertan epaile bilakatu eta, aldi berean, Erromatik kanpoko zereginetarako izendapenak hartzen hasi ziren²¹. Horregatik, Frantzisko Erromara heltzean Erakunde-egoera horrekin aurkitu zen aurrez aurre, Aita Santuaren borondatez Kardinalak baitziren Italiako beste Diozesietako arazo larriagoetan eskumena izan zezaketenak.

Biografiak gogoratzen digutenez, oro har Frantziskok bere aldeko Kuria topatu zuen Erroman²², partez bederen, eta abagune ona izan zuen hango lehen harremanetan, Joan San Paoloko kardinala adeitasunez hartu ez ezik Kuriako korridoreetan laguntzeko guztiz prest agertu baitzen (1 Zel 32). Badirudi Hiru Lagunek utzi zigutela orduko ibileren albiste argiagoa; xehetasun guztietan gauzak hain xaloki joan ez baziren ere, harremanetan izandako nondik norakoak ezagutzeko balio digu ondoko pasarteak, esandakoaz gain, Hiru Lagunena bilduz:

²¹ P. Jugie, s. v. “Cardinaux”, in: Gauvard et al. 2002: 202.

²² Kuriaren historiak eta orduko egoerak: Paravicini, A. (1993), “La centralisation, domaine et l’unification de la chrétienté”, in: Mayeur, J. M. et al., 1993, *Histoire du Christianisme*. Paris: Desclée. V, 519-615. Hain zuzen, Paravicini dugu garaiko Kuriaren historia eskaini diguna: Paravicini, A., 1972, *Cardinali di Curia e familiae cardinalizie dal 1127 al 1254*. Padova: Antenore.

¹⁹ Ahol 1, 9-13, 18-21; OrG 34-37; KleG 2-7; 1 KusG 2-5, 7; 2 FedG 22-25, eta abar.

²⁰ http://www.treccani.it/enciclopedia/innocenzo-iii_%28Enciclopedia_dei_Papi%29/.

Asisko gotzaina Santa Sabinako gotzain zen kardinal baten ezaguna zen; San Pauloko Joan zeritzan kardinal hau [...]. Asisko gotzaina mintzatua zen kardinalarekin Frantzisko dohatsuaren eta honen anaien bizieraz; horregatik, Jainkoaren gizona eta honen anaietako batzuk ezagutzeko gogo bizia zeukan. Erroman aurkitzen zirela jakitean, haiek deitzeko agindu eta begirune handiz eta maitekiro hartu zituen.

Harekin bizi izan ziren egun gutxietan, hitz eta egite santuz eraikita utzi zuten. Kardinalak, haiei buruz entzuna benetan egia zela ikusirik, apalki eta debozioz haien otoitzei gomendatu zitzaizen; eta eskatu zien, mesede berezi bezala, ordutik aurrera beren anaiatzat eduki zezatela. Gero, zergatik etorri ziren galdetu zion Frantziskori, eta, honek bere gogoia eta asmoa agertu zionean, Kurian bere bitarteko izatea eskaini zion. Itzuli zen kardinal hau Kuriara eta esan zion Aita santu Inozentzio III.ari: «Ebanjelio santuko bizimoldearen arabera bizi, eta denetan Ebanjelioaren perfekzioa gorde nahi duen gizon guztiz on bat aurkitu dut. Sinetsirik nago Jaunak Eliza santuaren fedea beronen bitartez eraberritu nahi duela mundu osoan». Hitz hauek entzutean, guztiz harrituta gelditu zen Aita santua, eta kardinalari agindu zion Frantzisko dohatsua beregana ekartzeko (HLaLe 47).

Ondoko urteetan, Anaiartea handituz zihoala, kardinalen artean beste batek hartu zuen erreleboa, Hugolino Ostiako kardinalak; dagoeneko ezagutzen dugu berau, eta gogoan hartzekoak dira Hugolinoren prestutasuna, gaitasun juridikoa eta gobernu-eskarmetua. Frantziskok aholkulari ona aurkitu zuen Hugolino-engan; baina ez derrigor hark zituen lehentasunak eta antolaera premiak berdin ikusten zituela (Iriarte 1979: 58-61). Dena den, Frantziskok berak eskatuta, Hugolino Anaiartearen “Kardinal Babesle” izendatu zuen Honorio III.ak (1220) (2 Zel 25).

Hugolino Babesle zuela, Kardinal Babesleekikoa borondate pertsonalaz gain segurtaturik utzi nahi

izan zuen gaia Frantziskok Anaiartearen Erakunde-egituran, eta Erregelara eraman zuen ondoko arau hau (1223):

Gainera, ministroak obedientziaz behartzen ditut Aita santu jaunari Erromako Eliza santuko kardinal bat eskatzera, Anaiarte honen gobernari, babesle eta zuzentzaile izan dadin, horrela, Eliza santu beraren oinetan beti menpeko eta azpiko, fede katolikoan irmo, Jesu Kristo gure Jaunaren pobretasuna eta apaltasuna eta tinko hitzeman dugun Ebanjelio santua bete ditzagun (2 Er 12, 3-4).

Sarriago eta bestelako maiztasunez, gotzain eta kleriko-mota guztiekin izango zituzten gero harremanak anaiek, izan ere diozesi eta parroketako barruti anitzetara heldu eta beraietan jarri baitziren bizitzen, eta are gehiago penitentziagile ibiltariak zirelako.

Lehenengo eta behin, Asis bertako gotzain Guido II.a zegoen, sorterrian Frantziskok ezagutu zuen bertako Gotzain bakarra. Honekiko harremanak ugariak izan ziren, eta Frantziskoren gidari gisa jokatu zuen Asisen eta Erroman, hasi berritan eta gero ere (1 Zel 14, 32; 2 Zel 12, 100, etab.). Frantziskok konfiantza zuen gotzainagan, eta honek ez zion ukatzen, nonbait, bide berria urratzeko aholkurik: “Ez zion inori azaltzen [bide berriaren] bere sekretua, eta ez zuen arazo honetan inoren aholkurik hartzen, bere bitzta gidatzen hasia zen Jainkoarena edota inoiz Asisko gotzainarena izan ezik” (HLaLe 10).

Frantziskoren azken egunetan, Elias Bikario Jeneralaren aginduz, gaixoa segurtasunez sorterrian gordetzeko asmoarekin, Guido Gotzainaren jauregian zaindu nahi izan zuen hark, azkenik gaixoak erreguka eskatuta Portziunkulara eraman behar izan zuten arte (1 Zel 108).

Biografietan ez da falta gotzainen hainbat oroitzen, eta bereziki haiekiko harremanetan zaindu beharreko jendetasuna azpimatzen zuen Frantziskok; ez zuen nahi, inondik ere, predikutan haien



Asis: Le Carceri bakar-lekuko jangela

borondatearen aurka elizbarrutietan ibiltzerik: “Anaiek ez bezate gotzain baten elizbarrutian predika, hark debekatua dienean”, utzi zuen idatzita Erregela buldatuan (2 Er 9, 1).

Orokorrean, klerikoekiko jokabidean irizpide garbiak izan zituen, eta ezaguturik ere haien burubidea ez zela batzutan jatorra eta zuzena ez zuen bere gain hartu nahi izan haiekiko epaile-eginkizuna, hau da, haien hutsegiteak gogoan zituela, baina erasoka ibili gabe.

Zorionekoa, Erromako Elizako moldearen arabera zintzo bizi diren klerikoengan fedea

dutenak! Eta zoritxarrekoak mespretxatzen dituztenak! Ezta bekatariak badira ere, inork ez ditu juzgatu behar, Jaunak beretzat bakarrik gorde baitu haiek juzgatzeko eskubidea. Zeren eta, zenbat eta handiagoa den haien ministerioa, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputz eta odol guztiz santuekiko dutena (beraiek hartzen eta beraiek bakarrik banatzen baitizkiete besteei), are eta handiagoa da haien kontra egiten den bekatua, mundu honetako beste inoren kontra egiten dena baino handiagoa (Ahol 25, 1-4).



Asis: Le Carceri-ko kapera.

Testinguru horretako agiria da “Klerikoei gutuna” deritzan Frantziskoren idazkia, 1220an izkribatua, Euskaristiaz zuen sinesmenetik gogoeta eginez aurkeztua eta kopiak egin eta zabaltzeko asmoarekin emandakoa.

Hierarkia gorenaren eta kleriko apalagoen hau horrela begiratzen zuen bitartean, bistan da Frantziskoren lehen buruhaustea Anaiarteko agintaria izan zela.

4.3.6. Ordenako agintaritzaz

“Ministro” deitzen zien Frantziskok bere Anaiarte eta Ordenako Nagusiei, hau da, *nagusi* izan gabe anaia berdin eta *zerbitzari*, edo gehienez *zaintzaile* edo *goardiano* izan behar zutenei. Anaiartearen ugaltzeak bidea egin ahala, terminologia osatu eta finduz joan zen Frantziskoren bizialdian, geroko agiri eta Konstituzioetan osorik finkatu zen arte.

Ministro frantziskotarraren soslaia Erregeletan artoski eta zuhurki eman zigun berak, “Ministro eta beste anaien arteko harremanak” deritzan atalburuan: “Beste anaien ministro eta morroi jarriak

daude" halakoak, "eta ez bedi inor *priore* deitu, baizik eta den-denak anaia txiki dei bitez":

Ministroek har bitzate [anaiak] karitatez eta gozoro, eta halako etxekotasunez trata bitzate, non nagusiek morroiekin bezala hitz egin eta joka ahal dezaten anaia haiek ministroekin; halaxe behar baitu: ministroak anaia guztien morroi izatea. (2 Er 10, 5-6).

Agintetik suerta zitezkeen demasiak eta zuhurtziarik gabeko kontzientzia bortxaketak ez zituen maite: "Uste zuen gutxitan agindu behar dela obedientziaren pean, ez baita egokia azken arma dena lehenengoan erabiltzea²³. «Ez da presarik eduki behar, esan ohi zuen, eskua ezpatara botatzeko. [...]. Zer da, izan ere, aginpidea zuhurtasunik gabeko nagusiagan, zoroaren eskuetan ezpata baino?" (2 Zel 153).

Bide beretik, honela dio Ordena osoari zuzenduriko gutunean, burubide jatorra aditzera eman eta azken muturreko kasuetarako Kapitulu Jenerala epaile izan daitekeela gehitzen duela:

Eta baldin ministro batek anaiaren bati gure bizimoduaren nahiz haren kontzientziaren kontrako zerbaite aginduko balio, anaia ez dago obeditzera behartua, hoben edo bekatu den zerbaiteetan ez baitago obeditu beharrik. Hala ere, ministro eta morroien menpean dauden anaia guztiek azter bezate zentzuz eta maitekiro ministro eta morroion jokabidea; eta baldin ikusten badute haietakoren bat giza grinen arabera dabilela eta ez Espirituaren arabera, gure bizimodua zuzen eramateko, hiru aldiz ohartarazi ondoren zentzutzen ez bada, sala biezaiote Mendekosteko Kapituluan Anaiarte

osoko ministro eta morroiari, eragozpen guztien gainetik (1 Er 5, 2-4. Ik. Ahol 3, 5-9).

Hau dena lotuta dago Frantziskok Anaiarteko harremanetan biziari nahi zituen jokabide eta bertuteekin, Aholkuetan bezala Ministro bati eta Kustodioei zuzendutako gutunetan. Salbuespen horiek, ordea, ez zuten ukatzen inondik ere anaiengan Ministroarekiko esanekotasunaren balioa, eta ongi azpimarratuta dago hori Erregeletan (1 Er i, 1; 2 Er 1, 2), obedientzia mota ezberdinak deskribatzean, eta Frantziskok beretzat Testamentuan ondokoa dioenean:

Tinko obeditu nahi diot Anaiarte honetako Ministro jeneralari eta hark izendatu nahiko didan goardianoari. Eta haren eskuetan hain gatibu egon nahi dut, non haren baimenik eta borondaterik gabe ez dezadan inora joaterik ez ezer egiterik izan, nire jauna baita (Test 27-28).

Frantziskoren idazkietako aholkuetan elkarren jarraian datozen oharrek dira ondoko hauek: Ez bedi inor nagusi-karguaz jabetu, ez bedi inor harro izan, inbidiazko bekatutik ihes egin bedi, norbere burua hezi egin behar dugu, inoren hutsegiteengatik ez da asaldatu behar, pazientzia behar da, zorionekoak bakegileak eta munduko gauzetatik bihotz garbi dabilzanak, lagun hurkoarekin gupidatsu izan behar da, eta ororen gainetik denen arteko maitasunak izan behar du nagusi. Anaiartearen eraikuntzarako zutabeak dira horiek.

Anaiarte gero eta zabalagoa zenez (1218-1221 ingurukoa da ondoko pasartea), denak bertatik bertara zaintzea zaila zen; horregatik ere desbideraturik ibil zitezkeen anaiekin zein burubide hartu ikusi beharra zegoen. Frantziskok ministro bati idatziriko gutunean, lehenengo norberak jokabide horien aitzinean zaindu behar zuen jarrera azaltzen digu:

Honako honetan ezagutu nahi dut Jauna maite duzula eta baita ni ere, haren eta zure morroi hau, honela jokatzeko baduzu, alegia: ez

²³ "Obedientziaren pean": zer esan nahi du horrek? Erlijosoen zinitzen artean dago obedientziarena, eta bere historia, teologia eta zuzenbideetik ulertu behar da berorren esanahia. Ik. Varii, 1992, "Votos religiosos"; in: Aparicio Rodríguez, A., Canals Casas, J. M., 1992, *Diccionario teológico de la vida consagrada*. Madrid: Publicaciones Claretianas. 1887-1936.



Arnotegi (Nafarroako Obanos-en): XX. mendeko bakarleku frantziskotarra (1969-1977)

dadila izan munduan anaiarik, daitekeen bekatu gehien egin balu ere, zure begiak ikusi ondoren, inoiz zure errukirik gabe alde egingo duenik, errukia eskatuko balu. Eta errukia eskatuko ez balu, galdetu zeuk errukirik nahi duen. Eta beste mila aldiz zeure begi aurrean bekatu egingo balu ere, maita ezazu ni neu baino gehiago, horrela Jaunarengana erakar dezazun; eta izan erruki beti horrelakoak. Eta, ahal duzunean, jakinaraz iezaiezu goardianoei horrela jokatzeko erabaki sendoa duzula (MiG 9-12).

Testu hori irakurrita, erruki, pazientzia eta barkamenaren poema dela esango luke batek, nor bakoitzaren kontzientzia sakonenetik hezi nahi duen kantua. Baina gutun bera arazo orokorragoaz ere arduraturik dator: Zer egin behar da Anaiartean halako anaiarik aurkitzen denean, beharbada biziera pertsonala okertuz, eta aldi berean Anaiarteko harmonia ona hausten duela? Frantziskok zentzatzeprozadura bat iradokitzen du, Anaiartearen kalterik gabe, erruduna bide-hoberatzeko asmotan:

Gainerakoan, bekatu larriei buruz mintzo diren Erregelako atal guztiekin Mendekosteko

Kapituluan, Jauna lagun eta anaien kontseiluz, atal bat bakarra egingo dugu, gisa honetara: Anaiaren batek, etsaiak zirikatutik, bekatu larria egiten badu, obedienciaz behartua bego goardianoagana jotzera [talde edo etxeko nagusiagana, alegia]. Eta haren bekatuaren berri dakiten anaiek ez bezate lotsaraz, ez hartaz gaizki esan, baizik eta erruki handia izan biezaiote eta beren anaiaren bekatua isil-isilean gorde bezate, zeren ez baitute osasundunek behar sendagilea, gaixoez baizik.

Era berean, anaiok obedienciaz behartuak bitez hura bere kustodioagana [eskualdeko Nagusiagana] bidaltzera lagun batekin. Eta kustodioak trata beza errukiz, horrelako egoera batean berak tratatua izatea nahiko lukeen bezala (MiG 13-16)

4.3.7. Aberats ongileekin

Frantzisko ez zen izan han goiko utopia ebanjelio-tarrean galduta ibili zen norbait; alderantziz, arazo mundutarrak gertutik ezagutu eta nozitu ondoren (gera, presondegia, gaixotasuna, handikeriak...), hemen beheko gorabehera eta aldarten artean, bere hautapen pertsonalagoak egin zituen baizik.

Amodioaren eta txirotasunaren izenean, pobreak maite izan zituen, eta aberatsak ez zituen arbuiatu; era berean, jakitunak ere estimuz begiratu zituen. Hala ere, ikusita zeukan aberatsek bezala jakitunek beren arriskuak, zailtasunak eta ezinak zituztela Ebanjelioetako aholkuak jarraitzeko.

Ahal izan zuenean saiatu zen, maite zuen mezua pasarazteko suertatzen ziren aukerak ez galtzen, beti aberats eta jakitunak, neurri batean edo bestean, nola edo hala, Ebanjelioaren arrastoan sartzen joan zitezen.

Batzuek eta besteek oso berezkoak zituzten barne-loturak: amodio propioa, harrokeria, segurtasun mundutarra, gizarteko norgehiagoka lehitia eta abar. Autokritika ebanjeliotarra, gorreria interesa-

tuak isilaraz zezakeen, nahiz eta abisua ezaguna izan: "Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena, beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu" (Mt 23, 11-13), edo beste hura: "Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari aditzera eman" (Mt 11, 25).

Ezagutzen ditu Frantziskoren laguntzaile eta adiskide ere izandako gutxi batzuk: bik eremitorio-tarako egonlekuak utzi zizkieten (La Verna eta Greccio), eta hirugarrenak ahal zituen laguntzak eman Erroman. Ondasunak eskueran izate honetan, garbiki erabakita izan zuen, anaia berriek ez ziotela emango Anaiarteari beren ondasunetatik deus, eta uztekoak zituztenak pobreei banatuko zizkietela.

La Vernako "lekua" Chiusi-ko Orlandok utzi zion Frantziskori (1213), mendi-mendian otoizleku gisara erabil zezan. Badakigu behin eta berriz itzuli zela bertara, eta biziki maite zuela han zuen eremitorio hura. Azkeneko aldiz, 1224ko abuztu-irailen egon zen han, San Migelen garizuma deitua otoitz eta barauz bizitzen, eta han jaso zituen "zauriak".

Rietiko bailara inguratzen zuten mendietan kokaturik dago Greccio, herri honetatik bertatik askoz gorago jarri zen bizitzen Frantzisko goiko tontor batean. Giovanni Velitak eskaini zion mendi eta baso-alde hura, eta beronek eskatu ere herrira hurbilago etor zedila. Bigarren eremitorio honetan ospatu zuen Frantziskok ikusiko dugun 1223ko Gabon-jaia. Zelanoren oharrak balio digu hemen santuak Greccio nola maite zuen jakiteko:

Pozik bizi zen Frantzisko dohatsua anaiek zuten bizilekuan, bai pobretasunean aberats aurkitzen zuelako, bai haitzaren irtengune batean aparte moldatua zuen gelatxo batean lasaiago Jainkoaren gauzei emana bizitzeko aukera ematen ziolako (2 Zel 35).

Aipatu behar dudan hirugarren ongile aberatsa emakumezkoa dugu, eta ez Unbriako alaba, errom-



Le Carceri: bakardadean bidea egiten

atarra baizik. Jakoba Settesoli-koa izan zen, Klararen ondoren, aurpegiz ezagutzen omen zuen bakarra (2 Zel 112). Zelanok eta *Perugiako legendak* atalburu bana eskaini zioten Frantziskoren azken orduetan beronek deiturik santu adiskideari Jakobak egin omen zion bisitaldiaren albistea (3 Zel 37; PerLe 8). Idazki hauen euskal editoreen oharrak honela aurkeztu du Jakobaren nortasuna:

Normandiar jatorriko andre honen senarra Settesoliko Grazian zen; gaztetan alargun gelditurik [1217], Erroman bizi izan zen. Settesolitarrak Frangipanitarren adar bat ziren. Beren lursailak Palatino eta Circo Maximoren artean

zituzten. 1212an ezagutu zuen Frantzisko eta haren adiskide egin zen. Frantzisko hil ondoren, Asisen jarri zen bizitzen, eta bertan dago ehortzia, beheko basilikan. (Frantz. Itz. Taldea 2002: 434).

Jakina denez, aberatsak aberats, jakitunak ere izan daitezke boteretsu, eta Frantziskok jakitunen portaerarekiko erreparorik izan zuela esan behar da. Maite zituen Jainkoaren Hitza ulertzen lagun zezaketanak, eta bazekien haiei entzun ez ezik haiekin mintzatzen, bere fedeko bizipenetatik hitz egiten zuela (2 Zel 103-104; LeLu 11, 7).

Egunerokoan, Frantziskok bere anaia eskolatuez baliatu behar izan zuen (Anai Leon izan zuen aitor-



Le Carceri-n gurutzearen sinadura: Frantziskok sinatzeko erabili ohi zuen Tau (T), bere sinadura ikur gisara

entzule eta idazkaria). Gainera, lehen anaien artean ez ziren falta izan gutxi-asko aberatsak, maila sozial onekoak edo *miles* zirenak (Bernardo, Rufino, Tankredo Rietikoa, Maseo) eta lagun ikasiak (Silbestre, Pietro Cattani, Elias).

Frantziskok, jatorriz “idiota” omen zenak, irakurri eta idazten bazekien (ikusi dugu arestian), kleriko diakono izatera iritsi zen (1 Zel 86), eta otoitzean “ikasitakoa” ahaztu gabe, Jainko Aitaren berarekiko asmoa jakitea kezkatu bilatzen zuen jakintsuen artean ere:

*Hauxe [Jainkoaren borondatea ezagutzea]
izan zen beti bere filosofia gorena, hauxe haren*

irrikarik sutsuena, bizi izan zen bitartean; eta guztiei galdetzen zien –sinple nahiz jakintsu, santutasun handiko nahiz erdipurdikoei– nola iritsi zitekeen egiaren bidea ezagutzera eta bere perfekzio-asmoan geroz eta gorago igotzera. (1 Zel 92).

Bestalde, aberats edo jakitunak ere konbertsiora deiturik zeudela baieztatu ohi zuen, eta guztiekiko harremana ezin duela eten haien ona nahi duenak, azken judizioa ez baitagokigu guri, Jainko Jaunari baizik, eta bizitzan beti dago denborarik onbideratzeko. Hiru Lagunen lekutasunak edo Perugiako Anonimoak azpimarratu dute ideia hau:



Perugia: gaurko San Frantzisko komentua. Frantziskoren garaian, elkarren aurkako bi arerio politikoren hiriak ziren Perugia eta Asis. Perugia *güelfi* deitzen hiria zen, eta Aita Santuen gobernua onartzen zuen. Asisen, ordea, Enperadoreen alderdi politikoak gidatzen zuen bertako gobernua (*gibellini*). Badakigu, gainera, preso ere egon zela Frantzisko Perugian. Gero denek ere beren bidea egin zuten eskualdean, Frantzisko denen Santu Aita Santuen eragin-barrutikoa zen (*güelfi*), eta Asisko gorabehera politikoez beren oihartzuna izan zuten Perugian. Gazte zela, gerra labur baten ondorioz, Frantziskok Perugian preso egon behar izan zuen (1202-1203).

Inor ez epaitzeko eta leunki bizi eta dotore eta bikain janzten zirenak ez gutxiesteko ere eskatzen zien anaiei, Jainkoa haien eta gure Jauna delako eta ahaltsu delako haiek beregana deitzeko eta deituok zuzentzat onartzeko. Eta gaineratzen zuen anaiek horrelakoei, anaiei eta nagusiei zor zaien begirunea erakustea nahi zuela; izan ere, Kreatzaile bakarrak sortu dituzenez, anaiak dira, eta, gorputzarentzat beharrezko dena emanaz zintzoei penitentzia egiten laguntzen dietenez, nagusiak dira. (HLeLe 58).

Ohartarazten zien, ez zezatela inor epaitu edo gutxietsi, ezta oparo jan eta edan eta leunki janzten zirenak ere, Erregelari esaten den bezala. «Gure Jauna horien Jauna ere bada, eta guri dei egin digunak horiei ere egin diezaieke dei, eta gu zuzentzat hartu nahi izan gintuenak horiek ere har ditzake zuzentzat».

Hau zioen: «Horrelakoak neure anaia eta nagusi bezala errespetatu nahi ditut: nire anaiak dira, guztiok Kreatzaile bakarrak sortuak baikara; eta nire nagusiak, gorputzarentzat beharrezko dena emanaz [limosna edo lana emanda], penitentzia egiten laguntzen baitigute». (PerAn 38).

Aberatsekiko jarrerari irizpide hauek hain bereak zituen, ze Erregelari ere eraman baitzituen anaia guztien bizi-arau izan zitezen: «Eta guztiei ohartarazten eta aholkatzen diet, ez ditzatela mespretxa eta juzga arropa leun eta kolorezko jantzirik nahiz jan-edari finak hartzen ikusten dituztenak; baizik eta nork bere burua juzga eta mespretxa beza». (2 Er 2, 17).

Frantziskok anaiei ezarritako burubide hau bere indar guztian ulertzeko, nahitaezkoa da pobretasuna eta pobreak nola hautatu zituen gogoratzea: hitzez eta jokabidez, hamaika aldiz adierazitakoak errepikatzen ibili beharrik ez dago, Frantziskoren bizitza osoan «Dama Pobretasunarekin» esposaturik bizi izan baitzen, oso berea zuen esamolde horrekin esateko:

Hala esaten zuen: «Behartsua madarikatzen duenak, mundu honetan gugatik behartsu egin

zen Kristo iraintzen du, pobrea haren nobleziaren irudi baita». Horregatik, sarritan egurra edo bestelako zamak zeramatzen behartsuekin topo egitean, bere sorbalda aski ahula eskaintzen zien laguntzeko. (1 Zel 76).

Ugariak dira norabide berean doazen Frantziskoren irakaspen eta gertakariak. Dena den, arrazoi aszetiko edo soziologiko guztien gainetik, arrazoi kristologikoek balio izan zioten Frantziskori, maitasunarekin batera, pobretasuna anaiei funtsezko lege egiten²⁴.

Ondasun materialen ondoan, nornahik ere bere ofizioko trebeziak izan zitzaizkeen, eta Frantziskok espresuki esan zien halakorik zuten anaiei balia zitezela zituzten gaitasun haietaz, eta horretarako lanabesak ere izan zitzaizketela; baina harritzeko moduko araua ezarri zien, lan-munduan aurki zitzaizketen aginte-aukerak ez zitzaizketela berengana:

Eta lanean dakiten anaiek lan egin bezate eta jardun ezagutzen duten ofizioan, baldin arimaren salbamenaren kontrakoa ez eta oneski egiteko modukoa bada. Profetak baitio: Zeure lanaren fruituaz biziko zara eta zoriontsu izango, dena ongi zaizu joango. Eta Apostoluak: Lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan; eta baita: Jarrai beza bakoitzak, Jainkoak deitzerakoan zuen ofizio eta lanbidean. Eta lanaren ordain, beharrezko duten guztia har dezakete, dirua izan ezik. Eta premia dutenean, bihoaz limosna eske gainerako behartsuak bezala. Eta zilegi bekie beren ofizioak eskatzen dituen lanabes eta tresnak edukitzea (1 Er 7, 1-2).

Anaiak, edozein lekutan daudela ere, besterenean zerbitzuan edo lanean ari direlarik, ez bitez izan etxezain, ez eskribau, ez zerbitzatzen duten etxeko buru; eta ez bezate besterentzat eskandalubide eta norbere arimarentzat kaltegarri izango den lanbiderik har. Baizik eta txikiak izan bitez eta etxean diren guztien menpeko (1 Er 7, 3-9).

²⁴ Ik, adibidez: 2 Zel 55, 70, 82, 85, 200; PerLe 114; LeLu 3, 10; LeLa 3, 5.



Asis: San Frantzisko Basilikako bi elizak eta Komentu Santua, kanpotik.

Horrek guztiak anaia laikoei eta berauen eskulari begiratzeko ziren, noski; hala ere, hasieratik bertatik egon zen anaia klerikoen *jakiteen arazoa*, jakite berezirik zutenek Anaiartera iritziak, irizpideak, teologia eta politika berriak ekar zitzaketelako, beharbada harmonia ona baino desorekak sortuz. Lehen orduetan eta ondoko lehen urteetan (1208-1221) gora egin zuen Anaiarteran jakitunaren presentziak eta hauen pisu erlatiboak. Begira dezagun, bada, jakintza eta jakitunekiko hau.

4.3.8. Jakitunak eta anaia langileak

Anaiartera sortzean, ikusi dugunaren arabera, denetarik zegoen etorritakoen artean, jakitunak eta ezjakinak. Norberak zekartzan ezaugarriekin sortu zen lagunarte hura. Eta ezaugarri pertsonal haiek elkartzunean nola txertatu eta kudeatuko ziren izan zen arazoetako bat: ezjakinak alde batetik, eta jakitunak bestetik?

Liburuak eskuratzea bera, adibidez, buruhaustea izan zitekeen, anaia bakoitzarentzat eta lagunarteko. Biblia irakurri, Liturgia ospatu edo egune-



rokoan klerikoek Ofizioa errezatu ez ziren erraz egiten libururik gabe; baina liburuak garestiak ziren Erdi Aroan, oso garestiak ere. XIII. mendean larruz egin behar ziren liburuak, banan-banan, eta kopiak lanaldi luzea eskatzen zuen (200 orrialdeko liburuak burutzeak bi hilabete eta erdiko jarduna)²⁵.

Erdi Aro osoan liburuak ez zen izan usadio arrunteko zerbitzu. Eta liburu-jabea, beste gabe, liburu-

tegitxo bat izatean goragoko gizarte-klase batean kokatzen zen; Anaiartean ere gerta zitekeen horrelakorik, eta Frantzisko ohartuta zegoen horretaz, Brebiarioa eskatu zion nobizio gazteari aditzera eman zionaren arabera (PerLe 103).

Jakinduria erlijioso intuitibo-praktikoa (mistikoa ere) eta zientzietako *jakiteak* edo *jakintza* lagunarte berean nola elkartu galdetu beharra zegoen. Erantzun aurretik, Jakinduria jatorra guztiena izan zitekeen; baina zientzien jakiteetarako nahitaezkoa zen eskolatua izatea, mailarik apalenean alfabetatua

²⁵ Cassagnes-Brouquet, 2003, S., *La passion du livre au Moyen Age*. Rennes: Éditions Ouest-France. 25-27, 31, 33, 60, 65-66.

tuak ere oso gutxi ziren garaietan. Pobrea eta berdintasun osokoa izan nahi zuen Anaiarte hartan, funtsezkoa zen berdintasunaren aldeko irizpideak garbi edukitzea. Horregatik, “Bertuteei agurra” deritzan idazkian Frantziskok lehenengoa hauxe du: “Agur, erregina jakinduria, Jaunak gorde zaitzala zeure ahizpa xalotasun garbi santuarekin”.

Bibliako Itun Zaharrean jakinduri-liburuak dauz-kagu (gizakia, jakitera baino, *zentzat* deitzen dutenak), jakite hutsetik goragoko hausnarketara deitzen dutenak. Itun Berrian, Jesusek ere munduko jakitea eta jakinduria espirituala bereizi zituen:

Behin batean, Jesus honela mintzatu zen: “Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogokoa (Mt 11, 25).

Frantziskoren idazkietan pentsamendu hau oso bizi eta errepikatua ageri zaigu, jeneralean otoitz eta kontenplazio-bizipenei lotua; Jainko-jakinduariaren bilaketa Frantziskoren funtsezko desioa izan zen, bakar-lekuetara sakatzen zuena. Gose eta premia hori lehen biografoak honela azaldu zituen:

Denboraldi bat han [La Verna-n] eman ondoren, etengabeko otoitz eta kontenplazio sarriaren bidez Jainkoarekin intimitatezko harreman esanezinekoa lortu zuen. [...]. Arreta handiz aztertzen zuen eta debozio biziz desiratzen jakitea, nola, zein bidetatik eta zer jarreraz lortuko zuen Jainko Jaunari osokiago itsastea, beraren asmo eta nahiaren arabera. Hauxe izan zen beti bere filosofia gorena, hauxe haren irrikarik sutsuena, bizi izan zen bitartean; eta guztiei galdetzen zien —simple nahiz jakintsu, santutasun handiko nahiz erdipurdikoei— nola irits zitekeen egiaren bidea ezagutzera eta bere perfekzio-asmoan geroz eta gorago igotzera (1 Zel 91. lk. LeLu 2).

Jakinduriaren alde pobre eta xumeak maite zituen, xalo eta simple ageri zitzaiona, funtsezko fede-

balioz hornitua: “Agur, erregina jakinduria, Jaunak gorde zaitzala zure ahizpa xalotasun garbi santuarekin” (BerAg 1). “Xalotasun edo sinpletasun santua (graziaren alaba, jakinduriaren ahizpa eta justiziaren ama) arreta bereziz bilatzen zuen beretzat eta maite zuen besteengan Frantzisko santuak” (2 Zel 189).

Anaien artean ere erreparatutako jakite hutsaren hutsalkeria maiz salatu zuen: “Asko dira gau eta egun beren ahalegin eta arreta osoa jakintza lortzen jartzen duten anaiak, beren bokazio santua eta otoitz-debozioa bazterrera utzita” (PerLe 103). Beldur zen, Anaiartean eta Elizan, jakitea ez ote zen izango gorabide sozialerako aitzakia, eta bertute hobeena aurkakoa:

Jesu Kristo Jaunarengan ohartarazten eta aholkatzen dut, gorde daitezela anaiak inolako harrokeria, handiuste, inbidia, diru-gose, mundu honetako ardura eta axolatik, eta gaizki esate eta marmarrean aritzetik. Eta eskolagabeak ez bitez eskola ikasten ardura; baizik eta har bezate kontuan, gauza guztien gainetik zera behar dutela desiratu: Jaunaren Espiritua edukitzea eta haren eraginez obratzea (2 Er 9, 7-8).

Beren buruak ezjakin eta eskola-jakintzaz jantzi gabe ikusi arren, Frantziskok berariazadore ematen zien anaiei predikari-lanari eutsi diezaioten. “Ez izan beldur [...], baizik eta jarri Jaunarengan zeuen konfiantza. Eta ez esan zeuen artean: ezjakinak gara eta eskolagabeak, nola ausartuko gara predikatzeraz?” (PerAn 18. lk. HLaLe 36).

Hori dena anaia laikoentzat esana zen, noski; baina Frantziskok gogoan hartu zituen, era berean Anaiartera zetozen jakitunak, klerikoak. Esandako irizpide horiek (apaltasuna, xalotasuna, pobrezia...) era berean balio zuten jakitunentzat, eta aipatu bertuteak landu beharra zeukaten hauek ere. Teologiaz eta Hitzaren jakitunez oniritzirik jasoena zuen (Esser 1981: 178-182), estimatzen zituen predikariak baino areago maite zituen Jaunaren gozamenaren emanik berori zaintzen zutenak; hala ere, ohoratzekoak ziren Hitzaren zerbitzari eskolatuak:

Begirunea zor zitziola predikazioaren ofizioari esaten zuen, eta guztiek beneratu behar zituztela hura betetzen zutenak. «Hauek, zioen, Elizaren bizia dira, deabruen arerioak eta munduarentzat argi».

Teologia santuan doktoreei are ohore handiagoa zor zitziela uste zuen. Hau idatzarazi zuen behin arau orokor bezala: «Teologo guztiak eta Jainkoaren hitz txit santuak ematen dizkigutenak ere ohoratu eta beneratu behar ditugu, espiritua eta bizia banatzen digutenak bezala» (2 Zel 163).

Ordenako gobernua utzita, artean gidaritza espiritualaren ardura berezikiago bere gain zuela, Frantziskok oso aipatua izan den agiri batean hone-larantzun zion Antonio Padovakoaren irakaskuntzari buruzko kuntsultari (p. 1223)²⁶:

Anai Antonio nire gotzainari [hau da, 'teologoari'], anai Frantziskok: osasuna. Atsegin dut zuk anaiei teologia sakratua irakastea, baldin eta ikasketa horregatik otoitz- eta debozio-espiritua itzaltzen ez baduzu, Erregelan esandakoaren arabera (AntGu 1-2).

Ofizio edo gaitasun berezien premiaz eta onuraz ohartuta zegoen Frantzisko; baina "handiak txikiekin elkartu nahi zituen, jakintsuak sinpleekin anai maitasunez batuak, urrunekoak elkarrekin maitekiro loturik" (2 Zel 191). Jakintsu eta sinpleen arteko elkarlan osagarria sustatzea izan zen Frantziskoren helburua (2 Zel 191-192), nahiz eta asmo hori ez zen gertatu samurra gero (c. 1220-1223).

²⁶ San Antonioren berriak: Beltrán, J., "Cronología de la vida de san Antonio", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 83, 1999, 283-296. <http://www.selfran.org/20any/1999.php>. Iriarte, L., 1995, "El otro San Antonio de Padua", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 70, 1995, 71-85. <http://www.franciscanos.org/selfran70/sanantonio.html>. Ministros Generales, 1995, "Carta con ocasión del octavo centenario del nacimiento de san Antonio (1195-1995)", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 69, 1994, 330-350. <http://www.franciscanos.org/selfran69/sanantonio2.html>.

San Antoniori emandako erantzunetik hasita, gure egunak arte iragan luzea izan dute frantziskotartasunean Ikaskuntzari buruzko pentsamendu eta proiektuek. XX. mendean, H. Felder-gandik hasita (1904; 1948: 362-394) L. Iriarte eta J. A. Guerraganaino²⁷, bere garaian arduratu zen gaiaz historiografia. Vatikanoko II.aren ondoren Ordenako iturrietara itzultzean (1965...), dena birpentsatu da arlo honetan, *Ratio Studiorum* berrietaraino (2001)²⁸.

Jakite hutsalaren eta kleriko jakitunekiko larde-riaren ondoan, Anaiarteko laikoei izan zien estimuarekin batera, herritar laikoak izan ziren gehienik Frantziskok entzule izandakoak (dirudienez, bertatik bertarako milaka kristau). Horren ondorioz, talde eta elkarte herritar laikoak sortu ziren haren inguruan.

4. 4. Etorkizuneko "Hirugarren Ordena"

Fraideen Anaiartearen sorrera eta klaratarren Ahizpartearen lehen pausoak ezagutu ondoren, ezinbestekoa gertatzen da herritar laikoen Hirugarren Ordenaren lehen urteei buruz albisteak jasotzea (c. 1212-1221), Frantziskoren bizialdian eta ondoren herritarren mugimendu horrek izandako garapena ezin baita ahaztu, nahiz eta hamarkada batzuk behar izan ziren laiko frantziskozaleak elkarte juridikotzat ezagutuak izateko (1289)²⁹.

²⁷ Guerra, J. A., 2001, "El saber y la ciencia en la primitiva fraternidad franciscana", in: *Selecciones de franciscanismo*. 89, 2001, 203-248. Bougerol, J. G., 1982, "Orígenes y finalidad del estudio en la Orden franciscana", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 31, 1982, 107-116. Berrikitan frantziskotarrek^{fm} ikaskuntzaren arazoari eman dioten arau-erantzuna: Hezkuntza eta Ikasketen Idazkaritza, 2001. "Ratio Studiorum OFM", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 90, 2001, 323-365. Rodríguez Carballo, J., 2001, "La Ratio Studiorum OFM. «Progresando en el conocimiento de la verdad» (LM 11, 1)", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 90, 2001, 366-389. Blowey, D., 2015, "Los franciscanos y la Universidad en la Edad Media", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 132, 2015, 357-420.

²⁸ <http://www.franciscanos.org/formacion/jrcarballo.htm>. Arregi, J. M., 1999, "Perfil del formador franciscano", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 82, 1999, 50-78.

²⁹ Ciurana, J. V., 1979, "La Orden de Penitencia de san Francisco de Asís.



Asis: Herriko Plaza, Minerva-ren Tenplua eta *Podestà*-ren herriko etxearekin

Frantziskok bere biziera ebanjeliotarra hartu eta predikura eman zenetik, beraren entzuleak batez ere herritar arruntak izan ziren, gizarteko edozein ogibide izan zezaketenak (nekazariak, artisauak; pobreak eta gaixoak...) eta nolanahiko bizi-egoera zutenak (ezkongabeak, ezkonduak, alargunak). Guztien aurrean zabaltzen zuen berak mezua, eta entzuleentzako erronka zen hori, gogoan hartu edo jo eta pasa egiteko.

Notas sobre sus orígenes y desarrollo en el s. XIII, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 22, 1979, 19-54. <http://www.franciscanos.org/historia/Ciurana.htm>. Manselli, R., 1985 [1982], "Francisco de Asís y los laicos que vivían en el siglo, ¿inicio de la Tercera Orden?", in: *Selecciones de Franciscanismo*. XIV, 40, 1985, 133-140. <http://www.franciscanos.org/historia/Manselli-FcoDeAsisYLosLaicos.htm>.

Frantziskoren idazkien artean *Fededun guztiei gutun* bi daude, laburra bata, zabalagoa bigarrena. Lehenengoak "penitentzia bizitza daramatenak" eta "penitentzia bizitza ez daramatenak" hartzen ditu kontuan; bigarrenak, oster, egitasmo espiritual oso baten nondik norakoak azaldu nahi ditu, laikoentzako ere balio dutenak: Jainkoa eta errebelazioa, sakramentuak, kristau-karitatea, kristauen elizartasuna, kristau bizitzaren edertasuna, bekatarien gatibutza gogorarazi nahi ditu (Frantz. Itz. Taldea 2005:96-104). Mansellik patxada onean eta zorrotz aurkeztu dizkigu bi gutun hauek (Manselli 1997a: 292-298).

Biografia ezberdinetatik ditugun notizien arabera, ez dirudi Frantziskok esan eta egindakoek jendea hotz uzten zutenik; edo badakigu, behintzat, jada

hura bizi zelarik, bizitzarako erabaki pertsonal larriak hartutako milaka jarraitzaile izan zituela; bai, milaka fraidetan, eta hamaikatzko gehiago herritar laikoen artean.

Lehenengo arbuio eta gaizki-ulertzeak pasata gero, Frantziskori eta Anaiei arretaz entzuten zitzairen, eta batzuetan jendetza bildu zen Frantzisko sermolariari entzutera, kale eta plazatan ez ezik katedral eta elizetan ere. Edozelako bizi-egoeratakoak ziren bihotz-berritzera zetozenak, hala diote biografoek:

Herriko jende asko, noble nahiz xume, kleriko nahiz laiko, Jainkoak barrutik ukituak, Frantziskogana hurbiltzen hasi zen, bizitza osoan haren gidaritza eta maisutzaren pean zerbitzuan jarduteko gogoz. [...] Guztiei ematen zien bizi-araua, eta bakoitzari bere bizi-egoeraren arabera erakusten zion salbazio-bidea (1 Zel 37).

Sorterriko herritarrek izan zituen bizi-aldakuntzaren lehenengo testiguak, zerbait ezohikoa ari zitzaizola gertatzen ikusten zutela: “Jende asko txunditurik gertatu zen hura hain harrigarriro aldatua ikustean” (HLaLe 22); baina iritzi kontrajarriak agertu ziren jendeen artean: “batzuek ergeltzat edo mozkortzat zeuzkaten [anaiak]; beste batzuek, berriz, halako hitzak ezin zitezkeela zorakerietatik sortu baieztatzen zuten” (HLaLe 34).

Frantziskok berak iragarri zien anaiei gizartean zer gertatuko zitzairen, denetik izango zutela, alegia aldekoak nahiz susmoz edo irainez hartuko zituztenak:

Jende leiala, otzana eta bihotz onekoa aurkituko duzue, bai zuek eta bai zuen esanak pozez hartuko dituenak; eta beste asko fedegabea, harroa eta biraolaria ere bai, zuei eta zuen esanei irainez aurre egingo diena. Har ezazue, beraz, zeuen bihotzetan hau dena pazientziaz eta apaltasunez eramateko asmoa» (HLaLe 37).

Ez zen falta, ordea, laguntza eskaintzeko prest zegoenik, pobre baina gogo garbi ikusten zituztelako. Modurik erosoenean, limosna bidez giten

zuten hori, norberak etxean eskueran zuena anaia penitentziagile haiei emanez. Frantziskoren santutasun-ospeak gora egin ahala, sendaketa eta mirarien itxaropen interesatuak lagundu zuen horretan:

Jendeak ogiak ekartzen zizkion bedeinka zitzaiz; gero, luzaroan gordetzen zituzten eta haietatik janez gaixotasun ezberdinetatik sendatzen ziren. Beste askotan, beren fede handiak bultzaturik, tunikaren puskak kentzen zizkieten, inoiz ia biluzik uzteraino. Eta are miresgarriagoa dena: aita txit santuak bere eskuz ukituriko gauzen bitartez, hainbat jendek osasuna berreskuratzen zuen (1 Zel 63).

Bazeuden, bestalde, berezikiago laguntzeko prest zeudenak, eta anaiek gero eta samurragoa izan zuten herrietan ostaturik aurkitzea, zenbait herritarrek aukera eman baitzien beren etxebizitzetan ostatu hartu eta sendikoekin adiskide-harremanak lotuz joateko. Horrek guztiak bere emaitzak eman zituen predikuan ez ezik limosna-eskean eta herriz herri ehunduko zen ongile-etxeen sarean:

Baina ostatua apaizen etxeetan hartu ezin zutenean, pertsona espiritualenak eta Jainkoari begirune ziotenak bilatzen zituzten, haien etxeetan oneskiago ostatu hartzeko. Horrela egiten zuten, harik eta anaiek bisitatu asmo zituzten hiri eta herrixketan Jainkoak begirune zion zenbait jenderi anaiei ostatua prestatzera eragin zien arte; horiez baliatzen ziren hiri eta herrixketan beraientzat bizilekuak eraiki baino lehen (HLaLe 60).

Azken buruan, ondasun trukaketa baino areago iritsiko zen harremana zen hura, fedezko kristau bizitzaren oinarrietara helduko zena. Laster eta ugari azaldu ziren, gainera, zeuden tokian zeudela, Frantziskoren biziera ebanjeliotarra beren bizitzarako eredutzat ikusi zutenak. Bestelako mirariak baino miragarriagoa zen hau, ikusirik zenbat eta nolakoak ziren xede horrekin zetozenak:

[...] Eta ez ziren gizonezkoak bakarrik Ordena bihurtzen; baita birjina eta andre alargun asko ere, anaien predikazioak barne damura eraginda, haien aholkuei jarraituz, hiri eta herrixketan sortutako monasterioetan sartzen ziren penitentzia egiteko. Anaietako bat izendatu zuten haien bisitatzaille eta zuzentzaile. Era berean gizon-emakume ezkonduak ere, ezkontza-legeak banatzen uzten ez zenez gero, anaien aholku osasungarriari jarraituz, penitentzia bizitza estuagoa egiten zuten beren etxeetan. Horrela, Hirutasun Santuaren gurtzaile bikain zen Frantzisko dohatsuaren bitartez, hiru Ordena hauetan berriztatzen da Jainkoaren Eliza, lehen berriztatu zituen hiru elizek irudikatzen zuten bezala. Hiru Ordena hauetako bakoitza Aita santuak ontzat eman zuen bere garaian (HLaLe 60).

Deigarria eta esanahitsua da pasarte honetan ikus dezakeguna. Ez dira, segur aski, xehetasun guztietan hemen aipatu nahi ditudan urteetako kontuak (1212-1220), baina ongi ispilatzen du geroagoko urteetan Hirugarren Ordenak ezagutu zuen izaera.

Goiago fraideen Anaiarteaz esan dugu zerbait (eta berehala ikusiko dugu XIII. mendeko bigarren hamarkadan berorrek bizi izan zuen goraldia); aipatu dugu baita San Damian eta klaratarren sortzea. Orain beste elkartasun bat agertzen zaigu, laster "Hirugarren Ordena" deituko dena.

Pasartean Hiru Lagunek esaten digutenez (1246ko testua da hau), batzuek "hiri eta herrixketan sortutako monasterioetan sartzen ziren penitentzia egiteko", esan nahi baita, gizarteko mundutik aparte elkarte bateko bizilekuetan jartzen zirela bizitzen (horrela, Hirugarren Ordena Erregulari bide emanaz), eta besteek, ezkonduak izanik halakorik ezin edo nahi ez zutelako, "penitentzia bizitza estuagoa egiten zuten beren etxeetan" (gisa honetan, Hirugarren Ordena Sekularra asmatzen zela).

Hau dena, lehen oinarriak jartzea alegia, 1212-1220. urteetan gertatu zen, ala zerbait geroago, ez du hemen munta berezirik: dakiguna da, orduan edo laster, bide horietatik joan zirela Hirugarren Ordenaren sortzea eta garapena.

Azpimarratu behar da, bestalde, "hirugarrender" haiek Frantziskoren eta anaia frantziskotarren aholku-lankidetzari irabazi zutela: aparteko bizileku haientzako "anaietako bat izendatu zuten haien bisitatzaille eta zuzentzaile", eta era berean, etxeetan geratu zirenak "anaien aholku osasungarriari jarraituz" bizi ziren. Honela, bada, mugimendu herritar laiko honek (Frantzisko eta beronen anaien inguruan zebilenak) zerikusi eta harreman zuzena izan zituen Anaia Txikien fraideartekin. Leon, Rufino eta Aingeru "Hiru Lagunen" azalpen hau historikoki zuzena da, nahiz eta kronologia zehatzagoa falta zaigun, eta osatu beharreko kontaketa den.

Etorriko zen Hirugarren Ordena posible baten sorreraren historian XIII. mendeko bi data esanahitsu ditugu gogoan hartzekoak, beren bi agiri ezagunekin: 1221eko *Memoriale propositi* deitua, eta Nikolas IV.aren 1289ko *Supra montem*. Lehenengoak arautegi batek dakarkigun esanahi soziala du (mugimendu herritar erlijioso horren lekukoa gertatzen da), eta bigarrenak esanahi bikoitza du: batetik, mugimendu zabalago baten barruan Frantziskok eta frantziskotarrek gidaturiko herritar laikoei Ordena baten kodea eman zien (nortasun juridiko eta Erregelarekin), eta bestetik Familia frantziskotarrean txertatu zituen lehendik edo ondoren Familia frantziskotarrean zebiltzan Penitentiako elkarteak.

Hirugarren Ordena Erregularrak bizitza zabala izan du, bere Ordena edo Kongregazio ugarirekin, eta ez da inondik ere ahaztekoa³⁰; baina hori

³⁰ Ik. Varii, 1994, *Regla y vida. Comentario de la regla y vida de los hermanos y hermanas de la Tercera Orden Regular de San Francisco*. Oñati: EFA. Ordena Frantziskotar Sekularren 1978ko Erregela, in:



Asís: San Frantzisko Basilikako bi elizak

berezikiago 1289tik aurrerako historia izan da; orain hemen gure herrietan ere indarrean egon den bestea hartzen dut batez ere kontuan: Hirugarren Ordena Sekularra (Iriarte 1979: 511-539)³¹.

1978az geroztik ofizialki “Ordena Frantziskotar Sekularra” deitzen da (Paulo VI.aren *Seraphicus Patriarcha* gutunak onartu zuen izen hau, eta azken Erregela berritua). Erakunde honen historian hiru Erregela ezagutu dira: Nikolas IV.arena (lehenengoa, 1289), Leon XIII.arena (1884: *Misericors Dei Filius*) eta azkenik Paulo VI.aren hori. Euskal Herriko zenbait albiste ere begira daiteke³²,

<http://www.franciscanos.org/docoficial/rfs.htm>.

³¹ Ordena Sekularraz, XX. mendeko agiriak: <http://www.selfran.org/20any/1979.php>. Gaur eguneko nazioarteko kontseilua: <http://www.ciofs.org/>.

³² Euskal Herriko historiarako begira: Guillestegui, G., 1643, *Apología en defensa de la Orden de Penitencia de San Francisco*. Bilbao. Uribe, A., 1996, *La Provincia franciscana de Cantabria*. II. *Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: EFA. 323-325. Gutiérrez, E., 1934, “La Tercera Orden”,

baina Erakunde honen euskal monografia historiko onik ez daukagu.

Hirugarren Ordena deituko zenaren sorrera sozialak XII-XIII. mendeetako penitentziagileen eta Frantzisko beraren penitentziarako dei orokorrean dauka bere sorburua. Bonabenturak *Legenda luzean* ongi azpimarratu zuen Frantziskoren inguruan zebiltzan penitentziagileen joan-etorri soziala:

Askok eta askok, santuaren predikazioaz suturik, penitentziaren arau berriak beren gain hartzen zituzten, Jainkoaren gizonak ezarritako moldearen arabera: biziera hau “Penitentziako Anaien Ordena” deitzea erabaki zuen Kristoren zerbitzariak. Beren bizitza zerurantz zuzendu nahi duten guztientzat penitentzia beste biderik ez dagoenez, Ordena berri honek era guztietako

in: Varii, 1934, *Homenaje*. Aránzazu. 235-253.

*jendea hartzen zuen, kleriko nahiz laiko, ezkon-
gabe nahiz ezkondu, bai gizonezko eta bai
emakumezko (LeLu 4, 6).*

San Bonabenturak, beranduko atzera begiratu batetik (1263), kristau elkarte horiei izen jakin bat ematen die ("Penitentziako Anaiei Ordena", Frantziskoren beraren erabakiz horrelaxe izendatutakoa, dioenez). Bestalde, nahiko agerian dago, "Ordena" izanik, nortasun juridikoz jantziak ikusten zituela Bonabenturak adierazi nahi dituen penitentziagile horiek, eta ziurki Anaia Txikien gidaritzapean.

Egungo historialariak kontuzago dabilta penitentziako anaia frantziskotarren hori 1220.eko hamarkadan nolakoa izan zen definitu eta berori XIII. mende osoko historian begiratzen (Ciurana 1979; Meersseman 1982: 5-8); horregatik, oharren bat edo beste behar da hemen.

Ezaguna da jada Hugolino kardinal eta berehalako Gregorio IX.a Aita Santu horren *rol* politiko eliztarrek urte haietan Italian izan zuen garrantzia: haren ardurapean egon zen mugimendu erreformazale susmagarriekin adi ibiltzea, Frantziskoren Anaiartea zaindu eta bideratuz joatea, era berean San Damian eta klaratarren moldaketa juridikoa, eta sorrera eta adar ezberdinetako penitentziagileen mugimendua eskutik eramatea. Azken honen lekukoak dira 1221eko *Memoriale propositum* aipatua eta Aita Santu zela 1228an onartu zien arautegia³³.

Frantziskotartasuna baino lehenagotik zetorren eta izaera zabalagoa zuen itzulinguruan ziharduen Hugolinok bere errefoma-ahaleginean. Gogoan hartzekoa da. Zer ziren, bada, penitentziagileak? Haien tradizioak ezaugarri jakinak zituen: apostoluen bizierari heldu nahi zioten, pobretasuna aldarrikatzen zuten, penitentziazko jarduerak egin ohi

zituzten eta karitatezko obrak, pobre eta gaixoeekin. Beraz, ez zen mugimendu aszetiko hutsa. Guztiz zabaldua zen hau dena XIII. mende hasierako erreformazaleen artean.

XII. mende-hasieratik, Aita Santuen eginbeharra izan zen talde haien ortodoxia zaindu, eta komeni zenean halakoak bere babesean hartzea. 1170az geroztik, abiatu zen Ipar Italian *Humiliati* deitzen penitentzia-mugimendua, biziera apal eta latza eramanez Ebanjelioa predikatu nahi zuena; baina Erromak ezarritako predikaren debekua ezin izan zuten onartu, eta azkenik, Veronako kontzilioak eskumikatu egin zituen baldotarrekin batera (1184). Ez zen, ordea, hori hor bukatu, J. Vitry-koak oso bizirik aurkitu zituen, artean, Milanon, 1216an. Zer gertatu zen, bada?

Eliz gorabehera haien ondoren, Inozentzio III.ak 1201ean eman zien estatus juridiko aitortua *humiliati*-ei, hain zuzen hiru adarretan antolatuta: "lehenengo Ordenakoak" elizaren baten ondoan bilduta zeregin pastoralak zituztenak ziren (*ordo canonicus* batean bilduta); "bigarren Ordenan" laiko ezkongabeak zeuden, monje izan gabe Erregelarekin bizirik taldeko elkarbizitza zutenak, eta, azkenik, "hirugarren Ordenan" Erregelarik gabe "propositum" batekin laiko penitentziagileen elkarte libreak zeuden. Irtenbide juridiko malgua izan zen, beraz, *humiliati*ena³⁴. Hortaz, Frantzisko Erromara iritsi zenean (1209), bizkortzen ari zen politika moldakor hori, eta 1208an Pobre Katolikoei eta 1210ean Lonbardiako Pobreei ere aitorten juridiko eliztarra eman zitzaion.

Lorpen hauek denak, XIII. mendeko Zuzenbide Kanonikoaren garapen aberatsaren barnean begiratu behar dira, Ordena erlijiosoei dagokienean bezala Hirugarrendar Ordena laikoenean ere; Zuzenbide Kanonikoan lege-gizonek garaiko

³³ <https://reglasdevida.wordpress.com/2010/01/26/memoriale-propositum/>.

³⁴ *Humiliati* hauen lehenengo eta bigarren Ordenak elkartu egin ziren XIII. mendeko bigarren erdialdian eta bizirik iraun zuen batasunak 1571 arte.

premien zerbitzuan lan gaitza egin zuten (Wolter, in: Jedin 1973: IV, 380-395), eta era bertsuan eliz Erakundearen interesen mesedetan gidatu zituen penitentziagileen elkarte laikoak.

Sorleku eta sorburu ezberdinetatik hainbat talde gutxi-asko antolatu ageri zaigu XIII.enean zehar Mendebalde erromatar-katolikoan. Penitentziagile-taldeen loraldia ezagutu zen orduan, laikoen ekin-bideak ugari agertzen zirela³⁵, batzuek Frantziskoren aurretik, besteak haren garaian edo haren arrastoan (Wolter, in: Jedin, IV, 198-208). Frantzisko bera eta anaiak testuinguru zabaldu horretan ibili ziren, eta gaurko historialariak saiatu dira egoera orokor hura nabarmentzen.

Frantziskok bere “Asisko penitantziagile” deitutako hauen bidez hasitakoa izan zen, zalantzarik gabe, mende hartan heldutasun umotuena eta garapen handiena erdietsitako laiko-taldea; baina horrek ez du esan nahi jaiotzez lehenengoa zenik edo mende hartan bakarra, edota zehazki nortasun juridiko eta Anaia Txikiekiko atxikimena 1289a baino lehen izan zuenik (Casagrande 1999, in: Alberzoni et al. 1999:266-285).

Zalantzarik gabe, Frantziskok pozik, oso pozik, ikusi zuen herritar arruntak nola ari ziren bere ingurura biltzen, tokian tokiko anaiarteak sortu eta kristau laikotasuna biziera ebanjeliotarrez zeramatera, eta ez zen gutxiago poztuko Ordena Frantziskotar Sekularraren garapen historiko anitza eta harrigarria ikusterik izan balu (Iriarte 1979: 541-576).

Frantziskok penitentziagileei bereziki eskaini zien idazkia ere gogoan hartuta (ik. 1 FedG), Paulo VI.ak bezala (1978) Ordena Frantziskotar Sekularrak dihardutenek behin eta berriz irakurrarazi diguten Erregelako testuarekin amaituko ditut laiko frantziskotarrei buruzko ohar hauek, testu hautatu honetan hain baita osoa aipatzen duen soziologia kristauarekin batera Kristandadetik harago ere besarkatu nahi duen gizateriaren uni-bertsaltasuna:

*Eta Jainko Jauna Eliza santu katoliko eta apostolikoaren baitan zerbitzatu nahi duten guztiei, maila guztietakoei: apaiz, diakono, subdiakono, akolito, exortzista, irakurle, atezain eta kleriko guztiei, erlijioso eta erlijiosa guztiei, haur, mutil eta neska guztiei, behartsu eta txiro, errege eta printze, langile eta nekazari, morroi eta jaun, emakume ezkongabe eta kastitatean bizi direnei eta ezkondu guztiei, laiko gizonezko eta emakume, haur, nerabe, gazte eta zahar guztiei, osasuntsu eta gaixo, txiki eta handi guztiei, eta **herri, nazio, arraza eta hizkuntza guztietakoei, herrialde guztiei eta munduan barrena diren eta izango diren gizaki guztiei**, apalki eta arren eskatzen eta erregutzen diegu guk guztiok, anaia txiki, morroi ezerezok, iraun dezagula guztiok egiazko fedean eta penitentzi bizitzan, inork ez baitu bestela salbatzerik. (1 Er 23, 7).*

Honela eta garaiko irizpideen arabera, Frantziskoren egitasmoa nornahirentzat irekita ageri zaigu bere abiaburuan, eta arrazoi handiagoz begiratu beharko da gizartean eta Anaiartean ere nola bideratu ahal izango den.

³⁵ M. Parisse eta A. Vauchez, in: Mayeur et al., 1993: *Histoire du Christianisme*. Paris: Desclée. 5, 418-420 eta 859-860.



Arantzazu: Basilika barrua, L. Muñoz-en erretaularekin. Espiritualtasun frantziskotarrean ohikoa izan da Andre Mariarekiko jaiera, Portziunkulatik bertatik hasita. Batez ere Arantzazu izan da Euskal Herrian Andre Mariaren jaiera zabaltzen eragin handia izan duena

5. Frantzisko bere Anaiartearekin (1209-1220)

Sortu eta hurrengo hamarkadako ahaleginak (1209-1220) funtsezko zenbait eginbideren inguruan bildu ziren, eta berehala agãertuko zaizkigu kontakizun dugun albistegi biografiko honetan: lehendabizi, *propositum vitae* hura eta berorren arau osaketa, berehala lehen anaia gutxi haien portaera fidela, laster Anaiartearen hazkuntza estatistikoa, eta berorren baitako arautegia, horrekin batera gobernu-egituraketa, hurrengo urratsean hedapen geografikoa, edo fraidegai etorri berrien Anaiarteratze zaindua (nobizioak, jakitunak), Eliz hierarkiarekiko harremanen egokitzapena eta azkenik ez-kristauekiko Misioa (Islam-a).

Zoritxarrez, guztiaren albiste kronologiko osoa eta jarraitua ematen digun iturri biografiko bateraturik ez dugu, eta haietan aipatzen zaizkigun gertaera-albisteek sarritan ez dute fida-garritasun objektibo berdina, eta iturrietan kontraesanik ez da falta. Horretatik sortu da historialariek “arazo frantziskotarra” deitu dutena, hau da, testuen interpretazio-auzia.

Muga horiek guztiak tartean izan arren, Erdi Aroko Santuen artean San Frantzisko da orduan hurbileko historiografiarik aberatsena izan zuena, eta gaur egun bibliografia frantziskotarrak biblioteka oso bat osatzen du; batez ere azken 50 urteetan Kongresu eta argitalpenetan eskaini zaigun ikerlana handia eta hagitz berritzailea da. Hemen ezingo da dena besarkatu.

5.1. Egokiera eragingarriak (1216...)

Ikusi dugu 1209an Erromatik itzultzean, “Orte hiritik gertu dagoen toki batera iritsi zirela, eta hamabost bat egun egin zutela han” Frantziskok bere lagunekin. Hurrengo egonlekua Asisko Rivo Torto-n aurkitu zuten, azkenik bere “leku” egonkorragoa Portziunkulan topatzen zutela. Ikusita daukagu zer-nolako bizimodua eraman ohi zuten anaia haiek. 1212-1216.ean bilduko ditugu gogoan hartzeko gertaera esanahitsu batzuk.



Asis: Aingeruen Santa Maria (Portziunkula), mendeak zehar handitu eta edertua



5.1.1. Gertatu eta esandakoak (c. 1216)

Xehetasun gehiago gabe, esan daiteke segur aski urte haietan Asis-aldean eta Apeninoetako mendialdean ibiltzen zirela prediku herritarra eskainiz eta penitentzia lasgarritan biziz; ibiltariak ziren, eta pobreak.

Klaratarrak. Berritasun nabaria ekarri zuen lehenengo gertaera 1212koa dugu, emakume batek, Klara Favarone-k, beretzat ere anaien bizi-molde bera hartu zuenean. Ikusi ditugu orduko gora-beherak nola joan ziren. Geroztik badakigu Klararen erabaki hark ez zituela izan ondorio pertsonalak bakarrik, baizik eta haren ingurura ahizpa lagun berriak etorri zirela, eta esan dugu Hugolino kardinalak ere elkarte berriari bere gisako irtenbide juridikoa eman nahi izan ziola (*Forma vivendi*, 1219). (Omaechevarría 1991:209-232).

Ez da erraza jakiten Frantziskok, 1219ko ekainean Ekialdera joana zelarik, *Forma vivendi* horren idazketan zein eragin izan zuen; baina, San Damiango geroiko historiaren arabera segurutzat eman daiteke, Klarak, ahal izan zuen neurrian, fermutasunez eutsi ziola Frantzisko eta bien arteko proiektuari.

La Verna. 1213an dugu Frantziskoren “bizileku” maiteenetako baten lehen albiste, La Verna-rena. Urte hartan oparitu zion mendi-basoalde hura Orlando di Chiusi-k Frantziskori. Unbrian ez, baizik Toscanan zegoen La Verna:

Bazkal ostean [...], Orlando jaunak esan zion San Frantziskori: “Nik badut Toscanan mendi bat otoitzerako oso aproposa, La Verna deritzana. Oso bakarra da, basoz jantzia eta guztiz egokia jendeagandik urruti penitentzia egin edo bakardadeko bizitza eraman nahi duenarentzat” (Lo, I. Gogoeta).

Frantziskok gogoan hartu zuen esaten ziona, eta bertara joatea erabaki zuten. Bide luzea eginda, azkenean deboziorako egokia eta kontenplaziorako oso aproposa zen mendiaren alderdi batera iritsi ziren

Frantzisko eta anaiak; ordeka gune bat zegoen han, eta leku huraxe aukeratu zuten bizilekutzat berentzat eta San Frantziskorentzat (*Loretxoak*, 1. gogoeta).



Asis: San Damiango elizatzoa. Orain gutxi egindako lanen aurretik. Portziunkula fraideena bezala, San Damian izan zen klaratarren ama etxea

1214-1224. urteetan, hainbat egonaldi egin zituen bertan santuak, baraualdiak egin eta garizumetan penitentzia eginez. Portziunkularen esanahi instituzionalaren ondoan La Verna-k balio mistiko pribatuagoa izan zuen Frantziskorentzat; eremitorio honetan jaso zituen bere zauri edo estigmak bertara lehenengoz etorri eta hamaika urte geroago. Loretxoetako “Gogoetak” deritzen atalburuetan geratu zen gertakari haien frantziskotarren oroitzapena¹.

¹ Ik. 1 Zel 94-95; 2 Zel 217; HLaLe 68-70.

Hunkigarri eta maitabera izan zen, 1224ko irailaren 30ean, Frantziskok mendialdeari eta bertako lagunei (Aingeru, Silbestre, Maseo eta Iluminatori) egin zien azken agurra. Orduan Frantziskori entzundakoak Anai Maseok eman zituen gutun batean idatzita (Desbonnets 2014: 149)²: “Agur, agur, agur anaiok! Gorputzez uzten zaituztet, baina hemen uzten dizuet ene bihotza. Agur, mendiok! Agur, gauez adeitsu zaindu nauzun zapelatzat! Agur, harkaitz tente hori, ez naiz berriro etorriko zu bisitatzerat! Agur, zure errailetan gorde nauzun haitzuloa! Ez dugu inoiz gehiago elkar ikusiko!”

Orrialde hauetan izango dugu berehala La Vernara itzuli eta orduko albisteak osatzeko aukerarik. Geroztik, gaur erronesak La Vernan aurki dezake, oraindik ere, Frantziskok han bizi izandako izadiaren hurbiltasun abegikorra eta egun ere bakardade isilean topa daitekeen esperientzia espirituala, izadiak, eraikinek, bertako fraideek eta Andrea della Robbia-ren (1435-1525) arte zeramiko maisuak lagunduta³.

Kontzilioan Sto. Domingorekin? 1215-1216.an Laterango IV. Kontzilioa ospatu zen Erroman, agian Erdi Aroko Kontzilioetatik emankorrena gertatu zena. Ez dakigu ziurtasunez Frantzisko biltzar hartan egon zenik.

Bestalde, frogarri gabe, esan izan da Frantziskok Predikarien fundatzaile Sto. Domingo batzar hartan ezagutu zuela. Seguruagoa da, aitzitik, Sto. Domingo frantziskotarren 1218ko Portziunkulako Kapitulu Jeneralean egon zela dioen beranduko albistea (1261), bi santuek elkar han ezagutu zutela baieztatzen duena alegia (ik. gainera: *Loretxoak*, 18. kap.). Informazio horren osagarritzat aipatu izan da Hugolinoren etxean Frantziskok eta Domingok, biek, izan omen zuten

topaketa⁴. Geroko mendeetan Anaia Predikariek eta Anaia Txikiek familiarte berekotzat eduki izan dute elkar, denak ere antzeko pobretasunarekin eta herritarren artean predikari zirela⁵.

1216ko urtea, urtea zinez deigarria gertatzen zaigu hamabi hilabete labur haietan, esan, erabaki eta gertatutakoek Frantzisko eta frantziskotarrek izan zuten zerikusiatatik.

Laterango IV. Kontzilioa 1215eko udazkenean bildu zen, eta darabilgun eremuko bi arazo handiri bederen aurre egin behar izan zien Biltzarrak: lehenik, mugimendu erreformazale ugariren asmo eta errealtateari so egin eta guztien baliagarritasun kanoniko-pastorala aztertu eta bideratu behar izan zituen, eta, bigarren, Elizak jada onartuta edo onartzeko zituen Erlijioso-Erakundeetan ordenamendu juridiko gobernagarriagoa antolatu nahi izan zuen. Bigarren egiteko hau da orain hemen zuzenean interesatzen zaiguna.

Kontzilioak debeku orokor batekin eman zion hasiera Ordena erlijiosoekiko politika-berrikuntzari, eta Kontzilioko Dekretuetako XIII. kanonak zera agindu zuen:

Ordenetako propositum edo biziera ugariegik Elizan nahasmendu larriak sor ez ditzan, nor-nahiri ere fermuki debekatzen diogu aurrerantzean Erregela berririk egitea. Bizitza erlijiosora etorri nahi duenak har dezala beretzat lehendik onartuta dagoen Erregeletako bat.

Kanon honek⁶ domingotarren historian izan zuen munta aipatu izan da, San Agustin-en Erregela hartu baitzuten, berori berariazko Konstituzioekin osatu eta moldatuta (Vicaire 2003: 599, 633, 758),

⁴ Vicaire 2003: 599, 633, 758.

⁵ Manselli bi Ordenen kidetasun eta aldeak erakusten begi zoliz saiatu da: Manselli 1997: 133-142.

⁶ XIII. kanon honen balioespen orokor bat: Alvarez Gómez, J., 19982, *Historia de la vida religiosa. II. Desde los Canónigos Regulares hasta las reformas del siglo XV*. Madrid: Publicaciones Claretianas. 274-278.

² Laburtu eta moldatuta ematen ditut hemen.

³ Bargellini, P.; Brun, P., 1998, *Le Riobbiane della Verna*. La Verna: Edizioni La Verna.

eta frantziskotarrei eta Frantziskori kosta egin zitzairen beren jatorrizko bidetik aurrera egiten. Ikusiko dugu hori.

Maila apalago batean eta kasu honetan fundatzaile eta monasterio aukeratu bati eskainitako berezitasun jakin bat tarteko dela dago Santa Klarari eta beronen ahizpei eman omen zitzairen **privilegium paupertatis** delakoa (1216), jada daki-gunez hamabi urteren buruan Gregorio IX.ak berretsiko ziona (1228). (Omaechevarría 1991: 234-236; Alberzoni et al. 1995: 260).

Historia luzeagoa izan du, eta kristau-herri osoan presentzia orokorra izandako beste zerbaite dugu 1216an: **“Portziunkulako Induljentzia”** deitu zena. Frantziskok eskatuta, Honorio III.ak urte horretan Asisko Aingeruen Andre Maria elizatxoari, Portziunkulari, Perugian emandako induljentzia izango litzateke hau, elizatxo hura bisitaturik bekatu guztien hilondoko zigor-barkamena eskaintzen zuena⁷. Oinarri eskasak ditu Induljentzia honen sortze-historiak; agiri ofizialik osoena berandukoa da, Asisko Teobaldo Gotzainarena (1310). Ez du, beraz, agiritzatutako oinarri historiko hurbilik (Fz. Pinedo 2010: 232).

Bere teologia edo deboziozkotasunaren gainetik, handia izan zen Induljentzia oso eta orokor honen gorentasuna, berarekin zuen baliagarritasun eroso eta unibertsalagatik. Frantziskok lortu omen zuelako merezi du ondoko ohar laburra.

Jakina da mendez mende induljentziek kristauen salbazio-larritasuna arindu, herriak mugiarazi, Santutegiak eraiki, Erroma edo Santiagorako Bideak urratu eta herri handi eta txikitako parrokiak jasotzeko nahiz Gurutzadak bultzatzeko balio zutela. Induljentziek beren teologia espirituala izan dute; baina, era berean, baita soziologia eta ekonomia ere. Hirugarren Ordenarekin batera, Portziunkulako

Induljentziak erakarmen zabala eta azkarra izan du kristauak senitarte frantziskotarrera biltzeko⁸. Informazio osagarria merezi du honek⁹.

Azkenik, 1216ko honetan, **Jakobo Vitry**-koarekin topo egiten dugu, hain zuzen urte horretako urriaren hasieran idatzi baitzuen mugimendu frantziskotarrak ari zen bere lehenengo gutuna. Lehen garai hartako Anaiarte eta Ahizparteaz jakiteko zinez baliozkoak dira Vitry-koak geroago utzi zizkigun testuak ere: lehenengo horren ondoren beste bigarren gutun bat (Damietta, 1220ko otsailekoa edo), *Historia orientalis* deitu liburua (XXXII. kapitulua), beronen baitako *Historia occidentalis* deritzan bigarren partearekin (1219-1221) eta Frantzisko kanonizatu berriari buruzko utzi zizkigun bi sermoiekin (1228).

Jakobo Vitry-koa ez zen izan nornahi (c. 1165-1240), eta ezagututako Erlijioso-Erakunde eta taldeen berri arretarik onenarekin eman zuen, eta oro har, orduko Elizaren azalpen kritikoa egiten saiatu zen, Eliza horretan zituen karguetatik errealtatea behatu eta balioesten zuela.

Jakobo kalonje augustindarra zen, baina inongo kongregaziotatik askea; predikari onaren sona izan zuen (1211...). Oignies-ko San Nikolas Prioregora etorri zen 1207an, eta bertatik ezagutu zuen Maria Oignies-koa, mistikaria (1177-1213), eta berau hil ondoren biografia bat eskaini zion Vitryk. Handik

⁷ Ik. <https://www.facebook.com/guardianesdejesus/posts/635624919795868>.

⁸ Komeni da induljentzien historia ezagutzea, teologiaren aldetik bezala, beroriek Elizaren eta gizarte kristauaren kudeaketan izan duten lekuagatik (adibidez, ongi etorriko litzateke Le Goff-en *La naissance du Purgatoire* eta Delumeau-ren *Un histoire du Paradis* liburuei begiraturen bat ematea). XII. mendeko Purgatorioaren aurkikundearekin, induljentziek ere gora egin zuten, eta XIII. mendeko berrien artean Portziunkulako hau izan zen eredu zabalduek iraunkorrena. Luter eta Protestantismoaren kritiken ondoren (95 tesiak edo *Disputatio pro declaratione virtutis indulgentiarum*), gaurko teologia katolikoa ere gogoan hartu behar da. Ik. Vorgrimler, H., 1992. “Las indulgencias y el purgatorio”, in: Varii, 1992², *Mysterium salutis*. V. *El cristianismo en el tiempo y la consumación escatológica*. Madrid: Ediciones Cristiandad. 425-433. Rahner, K., 1973, s. v. “Indulgencias”, in: *Sacramentum mundi*. Barcelona: Herder. III, 872-886.

⁹ Sarasola 1929: C-CIV.



Asis: Portziunkula ez zen izan bakarrik Anaien otoizleku edo komentu, eta izadiko landare eta txoriez gozatzeko ere balio izan zuen

aurrera eliz Hierarkia eta karguetan eman zuen bere biziadirik gehiena.

Inozentzio III.a Perugian hil eta biharamunean hiri horretan aurkitu zen Jakobo (1216ko uztailaren 17an), eta hamabost egunen buruan aldatu zen Jakoboren egoera pertsonala, zeren eta Honorio III.ak Akreko San Joango gotzain izendatu eta sagaratu baitzuen. Frantziskoren notiziak Unbrian ez ezik Ekialdeko gurutzatuen lurraldeetan eta Egipton ere (Damieta, 1219-1221) biltzeko aukera izan zuen, hortaz, Jakobo Vitry-koak.

Bidaia eta egonaldiren bat Mendebaldean eginda (1222-1228), 1229an Gregorio IX.ak kardinal izendatu zuen, eta 1239an arte bederen Erromako

Kurian izan zituen bere zereginak. Esandako *curriculum* honegatik ere, entzutekoa da Jakobo Vitry-koaren testigantza¹⁰.

Frantziskori eta beronen Anaiarte-Ahizparteei buruzko Vitry-ren albistegia esandako idatzietan bildu behar da, eta aparteko interesa dute mugimendu frantziskotarretik kanpoko pertsonalitate ezagun eta baliozko batenak direlako ere. Testu horiek bildu eta euskaraz emanda daude (Frantz. Itzul. Taldea 2002: 1148-1154).

¹⁰ Vitry-ren biografia eta obra: Longère, J., 1997, "Jaques de Vitry. La vie et les oeuvres", in: Jacques de Vitry, 1997, "Histoire occidentale" *Historia occidentalis*. Paris: Les Éditions du Cerf. 7-49.



Asis: Aingeruen Santa Maria (Portziunkala). Asisko Santutegiak Ordena frantziskotar ezberdinen ardurapean daude. Adibidez, 1) San Frantziskoren Basilika deitua komentutarren^{ofm-conv} eskuetan dago, Frantziskoren gorpua bertan gordetzen dela. 2) Lautadako Aingeruen Santa Mariaren ardura frantziskotar^{ofm} fraideek dute (Arantzazukoek berek), Frantziskoren bizitzako hainbat oroigarriekin

Jakobok “Anaia Txikiak” eta “Ahizpa Txikiak” aldi berean aipatzen ditu, eta zer-nolako biziera duten ere bai: Anaiek urteroko Kapitulua egiten dute; Aita Santuak onartuta du haien Erregela; jada 1216an Lonbardia, Toscana, Puglia eta Sizilian daude fraideak. 1221ko idazkian harrituta dio:

“denbora gutxian hainbesteraino ugaltu dira, non ez baitago kristau-herrian probintziarik anaia hauetakoren batzuk ez dituenik”.

Berezikiago azpimarratzekoa da Frantziskoren Egiptoko bidaiaren albiste zehatza (ikusiko dugu hau aurrerago), hainbat noble eta elizgizon eskola-

turen Anaiarteratzea, eta Vitry-ri deigarria gertatu zitzaion emakumezkoak hain berehala eta nola etorri ziren Ordena berrira ikustea (1216):

Emakumezkoak hirietatik gertuko zenbait hospiziotan bizi dira batera, eta ez dute ezer hartzen, baizik eta beren eskulanaz ateratzen dute mantenua. Eta biziki nahigabetzen eta asaldatzen dira, klerikoek eta laikoek, beraiek nahi luketen baino gehiago ohoratzen dituztelako (Vitry: lehen gutuna).

Horrela, bada, 1216 inguruko hauek gogoan hartuta, eta orduan bertatik datozen gertakarien harian esan daiteke bere ibilerako bihurtune baten aurrean dugula Anaiarte: hazkunde bizkorra abiatu da, hedapen geografikoa posible, anaia berrien hezkuntza beharrezko eta Anaiartearen eraketa juridiko zehatzagoa ezinbestekoa.

5.1.2. Hugolino, adiskide babeslea

Hugolino dei Conti di Segni (c. 1170-1241) da hona dakargun kardinala (1198...), geroago Aita Santu suertatu zena (Gregorio IX.a). Gizon giltzarria da hau Frantziskoren bizitzan eta Anaiartearen lehen bi hamarkadetako garapenean.

Frantziskok hiru Aita Santurekin izan zuen harremanik: Inozentzio III.arekin (1198-1216)¹¹ eta Honorio III.arekin (1216-1227)¹², eta gero Gregorio IX.a izan zenarekin (1227-1241)¹³, artean berau kardinal zela adiskide izandako Hugolino-rekin alegia (1217-1226). Hamarren bat urteko harreman pertsonala izan zuten Frantziskok eta Hugolinok.

Historialariak ez datoz bat gaur egun Inozentzio III.aren nortasuna marraztean, ezta beraren xedeak zeintzuk izan ziren deskribatzean, eta are gutxiago haren politika definitzean. Hala ere, guztiek aitortzen dute Inozentzio III.a Erdi Aroko Aita Santu handienen artekotzat: Egoitza Santuaren boterea punturik garaienera jaso zuen, teorian eta praxi politikoan, basailu egin zuen hainbat Erreinu kristau (Sizilia, Aragoi, Portugal, Hungaria, Ingalaterra, etab.), Ekialdeko IV. Gurutzada eta Okzitaniako Gurutzada antialbitarra antolatuta zuten, etab. Frantziskotarren Ordena onartzea ikusten dute historialariek Mendebaldeko Kristandadearen garapen erlijiosorako Erdi Aroko erabaki eragingarrien artean¹⁴.

Inozentzio III.ak onartu zion hitzez 1209ko *propositum vitae* delakoa, eta Honorio III.ak onetsi Erregela buldatua (1223), kasu honetan Hugolino tartean zela; baina, batez ere, Frantziskoren adiskide mina izan zen kardinal hau Anaiarteak bere goraldia bizkortu, Italiatik kanpoko hedapenari ekin (1217, 1219), lehen krisia ezagutu (1219-1220) eta antolaera juridiko eginagoari heldu behar izan zionean (1221-1223).

XIII-XIV. mendeetako iturri frantziskotarretan Hugolino-rekiko kontuak sarritan azaltzen dira aipatuta, Zelano-gandik hasi (1220) eta Loretxoetaraino (1328-1341); baina ez dira denak balio historiko berdinekoak. Hasteko, Zelano-ren lehen biografia Hugolino Aita Santu aukeratu berriak aginduta idatzitako "Bizitza" da, kanonizaziorako bidea urratzeko; esan nahi da laudoriozko *hagiografia* dela, eta ikusten da bertan Gregorio IX.a-ri protagonismo nabarmena eman nahi izan diola biografoak. Jarrera hori neurrituago ageri da historialari beraren bigarren "Bizitzan", Gregorio IX.a hil eta gero (1247). Hiru Lagunen Legendak (1241/46) askoz ere leku apalagoa eman zion Hugolinori

¹¹ Biografia egokia: Hanne, O., 1212, *Innocent III. La stupeur du monde*. Paris: Belin. 153-164. Eskurago: http://www.treccani.it/enciclopedia/innocenzo-iii_%28Enciclopedia_dei_Papi%29/. Wolter 1973, in: Jedin 1973: IV, 237-320.

¹² Honorio III.a: http://www.treccani.it/enciclopedia/papa-onorio-iii_%28Dizionario_Biografico%29/.

¹³ Gregorio IX.a: http://www.treccani.it/enciclopedia/gregorio-ix_%28Dizionario-Biografico%29/.

¹⁴ Hanne 2012: 8, XIV-XV (mapak).

mugimendu frantziskotarraren barruan (Manselli 1997a: 190).

Gregorio IX.aren nortasun historikoa honela laburtu dute berrikitan historialari erdi-arozaleek:

Gregorio IX.ak Inozentzio III.a izan zuen bere eredutzat, eta bere aurreko Honorio III.a bezala, gorabide-karrera distiratsu batez igo zituen Kuriako mailak, Aita Santu izan aurretik. Elizari bilduma kanoniko berria eman zion eta asmatu zuen frantziskotarren bi adarrei behin betiko Erregela ematen (Paravicini).

Bere aurreko Honorio III.a hain atseginaren alderantziz, aginte zalea zen Gregorio IX.a, malgutasunik gabea, kemen itzelekoa, baina baita erlijiotasun sakonekoa ere. [...]

Eta garaiko mugimendu espiritualekin harremanetan ibili izan zen (Kelly).

Ahal izan zuenean, Gregorio IX.ak ongi eskutik eramanez izan zuen heretikoaren arazoa, Hexagonoan eta Italian bezala Kristandade osoan. Aita Santu zela, Inperio Erromatar-germaniarrekin (Federiko II.a) etengabeko liskarrean bizi izan zen, eta Gurutzada indarrean mantentzen saiatu zen; Kristandadea Ekialderantz hedatzeko asmoa oso bizirik egon zen Gregorio-ren aita-santualdian ere.

Aita Santuaren legatu gisa, Alemanian, eta batez ere Italiako Erdialdean (Lonbardia eta Toscanan) eliz indarrak bildu eta batzen egin zuen lan, jada mende hartako lehen hamarkadatik hasita, eta are fermukiago bigarrenean. Eman zitzaion legatu-zereginaren eremuan egon zitekeen Anaia Txikiena ezagutu, aztertu eta gidatzea ere. Zelanok esan zigun Frantziskok eta Hugolinok nola egin zuten topo Florentzia-n, 1217ko maiatzean:

Aulki apostolikoak, beste askotan bezala, Hugolino jauna Toscanara bidali zuen legatu bezala [1217]. Bere eginkizuna betetzen ari zela, Frantzisko dohatsua heldu zen Florentziara, gotzainak bere egoitza jarria zuen hirira. Fran-

tziskok anaia gutxi zuen eta Frantziara joan nahirik zebilen. Artean ez zuten aparteko adiskidetasunik [...].

Bestela ere Frantzisko dohatsuak, edozein hiri edo lurraldera iristean, bertako gotzain edo apaizengana jotzeko ohitura zuen. Beraz, prelatu hain handia Florentzian zela jakitean, begiramen handiz haren aurrera aurkeztu zen. Gotzain jaunak, ikustean, debozio apalez onartu zuen [...]. Hugolinok bere alde otoitz egiteko eskatu zion debozioz, eta gauza guztietan bere babesa eskaini zion gogo onez (1 Zel 74-75).

Jainkoaren gizonak kardinal honen izen ospetsua ezagutu zuenean (ospe handikoa baitzen beste kardinalen artean), harengana joan zen bere anaiekin. Kardinalak pozez hartu zituen eta esan zien: «Zuen esanetara naukazue, nire laguntza, aholkua eta babesa emateko prest, zeuok nahi duzuen erara; eta, Jainkoagatik, ni zuen otoitzetan gogoan izatea nahi dut» (HLaLe 61).

Hugolinok eskainitako laguntza hau ez zen izan alferrikakoa, eta arlo ezberdinetara heldu zen, une egokietan: Erromako Kuriara, Honorio III Aita Santuaren aurrean, Ordenako gobernu-aholku emaile gisa, Erregela berria landu eta proposamena defendatzean.

Hiru Lagunek aditzera emango digutenez, bazeuden Kurian Anaia Txikien asmoei eragozpenak jarri eta enbarazu egin zitzaketanak, eta hori gogoan hartuta ibili behar zen Anaiartea gobernatu eta gidatzen, Florentziako lehen topaketa hartan Hugolinok Frantziskori esan zionez:

Frantzisko dohatsuari Frantziara joan nahi zuela entzun zionean, debekatu egin zion, esanez: «Anaia, ez dut nahi zu mendiez bestaldera joaterik, prelatu eta bestelako asko baita Erromako kurian zure Ordenaren ona eragotzi nahiko lukeena. Nik eta zure Ordena maite duten beste kardinalak hobeto zaindu eta lagunduko



Asis: Portiunkulako jatorrizko kaperatxoa. Ondoko mendeetan aterpe izan duen eliza barruan

diogu, zu probintzia honen inguruetan gelditzen bazara» (PerLe 108).

Adiskidetasun bat sortu zen topaketa hartatik, eta biografoek jaso dute Frantziskok eta Hugolinok bien arteko gutunetan elkar nola tratatzen zuten, betiere ohiko formuletatik kanpo, beren artean zuten hurbiltasunak eskatzen zien gisa hobean:

[Frantziskok] *Gotzainari idatzi nahi zionean [...], ez zuen nahi izaten bere gutunetan hari Ostiako edo Veletriko gotzain deitu, jendeak ohiko agurretan egiten zuen bezala. Aitzitik, honela idazten zuen: "Aita agurgarriari (edo*

Hugolino jaunari), mundu osoko gotzainari". Sarritan sekula entzungabeko bedeinkapenez ere agurtzen zuen.

Hugolino jaunak, bere aldetik, maitasun sutua zion gizon santuari, eta horregatik atsegin zitzaion hark esan eta egiten zuen guztia; hura ikuste hutsarekin barruraino hunkitzen zen sarritan (1 Zel 100-101).

Hori horrela, Fedean eta Elizarekiko atxikimean bat zetozen, noski, Frantzisko eta Hugolino; baina, tenperamenduz eta jakitez alde handiak zituzten; bestalde, Hugolino elizgizon politikoa zen, liskarrak konpontzen eta zeregin diplomatikoetan zebilena. Frantziskori Eliz Administrazioen ateak ireki nahi zizkion, betiere Frantziskoren karismaz ere baliatuta. Baina Kuriari eta Aita Santuari modu itxuroso batean mintzatzeko gai ote zen Frantzisko? Esan dugu jendarte irekian nola moldatzen zen bere predikuetan, baina besterik zen Kuriaren aurrean entzule haiek irabazteko gauza izango ote zen.

Zelanok, Frantziskoren hizlari dohainak nolakoak ziren esan zigunak berak ("hiztun bikaina, aurpegiz alaia, begitartez atsegina, zabarkeria eta lotsagabekeriarik gabea"), ondoko ohar argigarria eransten digu:

Ebanjelioaren predikari Frantziskok hizkera lau eta konkretua erabiltzen zuen kulturarik gabeko jendeari predikatzean [...]. Baina jende espiritual eta gaitasun handiagokoarekin hitzaldi bizigarri eta sakonak jaulkitzen zituen (2 Zel 107).

Hugolino kezkatu baina ongi erabakita ausartu zen adiskidea Aita Santuaren eta Kuriako kardinalen aitzinean aurkeztera, hitzaldiko estualdiren batean ere irtenbiderik aurkitzen zuela jakinda. Honela joan ziren, bada, harreman haiek:

Frantzisko, Elkarteko arazoak zirela eta, Erromara heldu zen batean, Honorio Aita santuari eta jaun kardinali mintzatzeko irrika biziz

zegoen. Jakin zuen hau Jainkoaren santua amodio bereziz beneratzen zuen Hugolino kardinalak, Ostiako gotzain ospetsuak, eta beldurrez eta pozez bete zen era berean: gizon santuaren bihotz gartsua miresten baitzuen, baina ezagutzen zuen haren xalotasun tolesgabea ere. [...]. Bien bitartean, Ostiako gotzain beneragarria beldurrez airean zegoen, eta bihotz-bihotzetik Jaunari otoitz egiten zion, gizon dohatsuaren xalotasuna mespretxa ez zezaten; izan ere, Frantziskori buruzko ospea ala laidoa berari ere bazegokion, haren familia erlijiosoaren aita aukeratua izan zenez (1 Zel 73; ik. 1 Zel 100; 2 Zel 25).

Elizaren Administrazioetik ez ezik Hugolinok Anaiarteko Kapitulu Jeneraletan ere parte hartzeko aukera izan zuen urte haietan (1217...), modu iraunkorrean gainera. Parte-hartze horrek bi aldeak elkar-tu ez ezik engaiatu ere egiten zituen: Kardinalak Anaiartearen laguntzarako emandako hitzaren baieztapena da izendapen hori, eta Anaiartearentzat Erromarekiko harremanen birrespen ofizial iraunkorra zen kardinalaren presentzia. Alde biek ongi ulertuta zeukaten ezohikoa eta garrantzizkoa zela halako Kapituluetan Aita Santuak izendatutako kardinala egotea.

Anaiartea haziz zihoanez, fraidearte handiak iritsi ziren biltzera Kapituluetan; "Estaien Kapitulu" deitu izan zitzaizen (haietako bati edo hainbati)¹⁵. Denak ere, milaka izanda, nahikoa lan izango zuten jan-edana eta lotarakoa nahiz solas eta otoitzerakoak nola antola asmatzen; hala ere, aukera aparta zen hura eliz Hierarkiarentzat Anaiarteko mugimendua bertatik bertara ezagutzeko.

Anaien arteko estimua gehitzeko ere balio izaten zuten Kapitulu Jeneral haiek, eliz gizon gorenak mugimendu ebanjeliotar berrietako baten bizimol-deak agerian jarrita:

Portziunkulako Andre Marian kapitulua egiten zen batean, Ostiako gotzain jauna, zaldun eta klerikoz inguraturik, anaiak bisitatzen etorri zen. Anaiak lurrean lo egiten zutela ikusirik eta haien etzalekuean erreparatuz (piztien ohatzeak ziruditen), negarrari eman zion saminkari eta denen aurrean esan zuen: «Hara non egiten duten lo anaiak hauek» (2 Zel 63).

Erritual osoa sortu zen Kapitulu Jeneraletara zetozen Hugolino kardinalari eta haren segizioari harrera egin eta ongietorria emateko:

[Hugolino] Kapitulura zetorrenean, bertan bilduta zeuden anaiak guztiak bidera irteten zitzaizkion prozesioan. Baina hura, anaiak iristean, zalditik jaitsi eta haiekin batera oinez joaten zen elizaraino, anaiak zien debozioagatik. Gero hitzaldia egiten zien eta meza ospatzen; eta Frantzisko dohatsuak mezako ebanjelioa kantatzen zuen. (PerAn 43; ik. HLaLe 61).

Anaiak ikusten zuten Frantziskok zenbat eta nola estimatzen zuen Hugolino, eta honek Anaiartearen ibileran izan zezakeen eragina; baina egon zen talderen bat kardinala alderdi-laguntzailatzat hartu nahi izan zuena Anaiartearen etorkizuna baldintzatuzko (PerLe 18). Anaien barne-politikako Frantziskoren irizpideak gorde eta irtenbideak bilatzen saiatu izan zen Hugolino, eta ez derrigor berak nahiago izan zitzakeenak ezartzen.

Halatsu gertatu zen Frantzisko Bologna-ra iritsi zen batean: Bologna-n "anaien etxea" zegoela entzun zuenean, anaiak delako etxetik bertan behera irteteko agindu baitzuen Frantziskok, gaixoak eta guzti: "ez zuten izan hara itzultzeko baimenik, harik eta Hugolino jaunak [...], jendaurrean sermoi batean etxe hura berea zela aldarrikatu zuen arte" (2 Zel 58). Jabetasun juridikoaren arazoa

¹⁵ Latinez "Kapitulum Storearum" eta itzulkpenetan "Estaien Kapitulu", "Chapitre des Nappes" eta "Capítulo de las Esteras" deitua da. Hala-koen deskribapena iturri ezberdinetan ageri da (LeLu 4, 10; PerLe 18; Perlsp 7), baina historialariak horrela zeritzan urte jakin batekoaz ari omen direla ez dira ados etorri zein urte izan zen hori zehaztean: 1219, 1221 ala 1223. Ik. Di Fonzo, L., "El famoso capítulo de las esteras", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 99, 2004, 446-468.



Santa Klara: Frantziskoren egitasmoaren aldezkari Dama Pobre adoretsua (1226-1253)

konpondu beharra zegoen, bada; baina Testamentutik dakigu anaiak bizitzeko etxeraikinak eskueran izatea onartzen zuela Frantziskok, betiere pobretasunaren baldintzak ongi zainduta:

Gorde bitez anaiak eliza, etxetxo pobre nahiz beraientzat eraikitakorik ezer inolaz ere hartzetik, baldin eta Erregelari hitzeman genuen pobretasun santuari dagozkion bezalakoak ez badira, eta beti ere arrotz eta erromes bezala haietan ostatuz biziz (Test 24).

Bere aldetik, bistan da, Hugolinoren ardura ez zen bereziki hango edo hemengo etxe batena, Ordena

osoarena baizik, beronen gobernuaren eta egokitu beharko zitzaion etorkizunarena. Gogoan dugu nola Frantziskok behin eta berriz heldu zion Italiatik kanporako bidaiei asmoari: Lur Santuetarakoan 1211an Dalmaziaraino heldu zen, 1212n Hispaniarako bidea hartu zuen, 1217an Frantziarako ere irten zen eta 1219an Egiptora joan.

Anaiarte handitu hala, gero eta nabariago bere gobernu-egoitzaren egonkortasuna eskatzen zuen, bere jatorriz ibiltari-tradizioak errazten ez zuen zerbait. Ondoko ibilerari begiratzen badiogu, Frantzisko eta Hugolino lehentxeago edo geroago ondorio horretara iritsi ziren.

1219-1220.ko Lur Santuetarako Frantziskoren bi-daia bitartean Italian anaien artean jazotakoek nabarmen erakutsi zuten zein hauskorra zen Anaiartearen antolaera: Erregelari arau berriak gehitu nahi izan zizkieten Frantziskok arduradun gisa utzitako Bikarioek eta beste zenbaitek. Bestalde, San Damiango klaratarren artean ere baze goen zertaz kezka, Felipe Longo kapilaua prest baitzegoen ("Frantzisko doatsuaren borondatearen kontra", Kuriaren baimenarekin), haien defentsan Frantziskok batere maite ez zuen eskumikua erabiltzeko.

Gertakari hauen kontatzailerik fidagarrienak, Giordano da Giano-k (1262), esaten digunez, anaia laiko bat Lur Santuetara Frantziskoren bila joan eta "esan zion Ordena nahasia zebilela Italia osoan, bai Bikarioengatik, baita gauza berriak nahi zituzten beste hainbat anaiarengatik ere"¹⁶.

Abagune orokor kezagarria zen, bada, Italiakoa. Venezian lehorreratu eta berehala heldu zion egitekoari Frantziskok. Sendabide erabakia eskatzen zuen egoerak, eta Frantziskok ez zuen izan zalantza handirik: Honorio Aita Santuarengana joko zuen zuzenean laguntza eske; zaintzailatzat kardinalen

¹⁶ G. da Giano-ren *Kronika* euskaratuta (11-14, zenb.): Frantz. Itzul. Taldea 2002: 1116-1143.

bat edo emateko eskatu zion, Frantziskorekin edo beronen Bikario Jeneral batekin Aulki Santuaren eskutik ibiltzeko.

Aita santuak esan zion: "Nor ematea nahi duzu, seme?" Frantziskok erantzun zion: "Ostiako jauna." Aita santuak eman egin zion. Frantzisko dohatsuak kezkatzen zuten arrazoiak Ostiako jaunari, bere "aita santuari," jakinarazi zizkion. [...]. Eta honela, Jainkoaren laguntzaz, nahasleak berehala sosegatu ziren, eta Frantzisko dohatsuak bere arauen erara birmoldatu zuen Ordena (J. Giano: Kronika, 14-15).

Ordura arte adiskide eta laguntzaile izandako Hugolino babesle eta aholku-emaile ofizial bihurtu zen, hau da, "Kardinal Babesle" (1220), Aita Santuaren aginduz Anaiarteari segimendua egin eta Frantzisko eta Anaiarteko agintari eta lagunekin lan egingo zuen Kuriako elizgizon eta Aita Santuaren legatu gisara.

Frantziskoren idazkietan bezala biografietan, Hugolino aipatzean batez ere Anaiartearen "Babeslea" gogoratu izan zen¹⁷, Frantziskoren jatorrizko karisma ebanjeliotarra zaindu, Anaiartea hasierako "intuiziotik" "instituzio" juridiko izatera eraman (1217...), Kuriako korridoreetako eragozpenak alboratu, anaien arteko gatazka-uneak baretu (1220...) eta behin-betiko azken Erregela idatzia bideratzen lagunduko zuena (1221-1223).

Irakurtzekoa da Babeslearen izaera eta nortasuna nola azpimarratu zituen Frantziskok Erregela buldatuan, Anaiartearen oinarritzko agirian bertan alegia (1223):

Ministroak obedientziaz behartzen ditut Aita Santu jaunari Erromako Eliza santuko kardinal bat eskatzera, Anaiarte honen gobernari, babesle eta zuzentzaile izan dadin; horrela, Eliza santu beraren oinetan beti menpeko eta azpiko, fede

katolikoan irmo, Jesu Kristo gure Jaunaren pobretasuna eta apaltasuna eta tinko hitzeman dugun Ebanjelio santua bete ditzagun (2 Er 12, 3-4).

Kardinal Babeslearen hau XX. mendeko historio-grafiak nola ikusi duen jakiteak badu interesik: batzuentzat, mugimendu frantziskotarra hezi eta kontrolatzeko tresna izan zen, besteentzat mugimendu berari ziurtasun eta segurtasun juridikoak emateko nahitaezko lanabesa. Egia esan, segur aski zeregin bikoitz hori izan zuen, jada 1220tik aurrera, unean uneko premia eta interesen arabera.

Harreman pertsonalagora gatozela, azpimarratzekoa da kardinala nola arduratu zen Frantzisko adiskidearen osasunaz, sendarazteko erabakiak hartu, osasun kontuetan zentzu hobeko burubidea izan zezala eskatu eta Rietiko sendagile iaio baten laguntza bilatu zion: "idatzi zion esanez Rietira etor zedila berarengana, han begietako mediku oso onak zeudela eta" (Loretxoak 18-19 kap.).

Ikusten zuen Ostiako gotzainak, gero Aita Santu izango zenak, zein gogor jokatu eta jokutzen zuen Frantziskok bere gorputzarekin, eta batez ere begietako argia galtzen hasia zela sendabiderik hartu nahi ez zuelako, eta erruki eta gupida handiz ohartarazi zuen, esanez: «Anaia, ez duzu ongi egiten begietako gaitza sendatzen ez utziz, zure osasuna eta bizitza guztiz baliotsua baita zuretzat eta besteentzat. Zeure anaia gaixoez gupidatzen bazara eta haiekin beti eta orain ere bai errukiorra bazara, ez duzu zeure buruarekin krudela izan behar premia eta gaixotasun hain larri eta nabarian. Beraz, laguntzen eta sendatzen uzteko agintzen dizut» (PerLe 83).

Nabaria da, beraz, Hugolinok ez zituela Kuriaren goi-interesak bakarrik begiratu, edo politika orokorrak eska zitzakeenak, baizik eta jakin zuela adiskidetasun-balioak zaintzen. Baina, urrats bat gehiago emanda, beti geratzen zaigu azken galdera:

¹⁷ Ik. 1 Zel 71-75, 99-101; 2 Zel 25; PerAn 43, 45; HLaLe 61, 63.



Anaiak binaka herriz herri predikatzerat joan zirenekoa. P. Uranga-ren margolana (Arantzazu, 1918)

Frantziskoren karisma ebanjeliotarra eta Elizaren erakunde-ardurak zein oreka eta harmonian elkartu zituen Hugolinok, artean hura bizirik zela?

Sabatier-ek esan zigun moduan (1893), Hugolino Kuriaren eskumakila izan ote zen beste gabe, Frantzisko soka motzean lotuta eramateko, ala aukera ona Frantziskorentzat handituz zihoan Anaiartean eta Elizan, sorrerako karismari antolaera iraunkorra eman eta hedapen-bideak segurtatzeko? Edota sorrerako karisma ebanjeliotarrari bere leku mugatua zaindu nahi zion eta, aldi berean eta orokorrean, Ordena jada "klasikoagoa" bilaka-

tuko zen Anaiarte garatuagoa Elizaren garaiko premien mesedetan lanabes bihurtu?

1220ko inguru hartan, etorkizunari aurre egiteko, premiazkoa gertatu zen Anaiartearen hazkuntzan hiru indar nagusi bederen gogoan hartzea:

1) Frantziskoren beraren hautapena (karisma ebanjeliotarra), eta hautapen soila ez ezik orduan eta azkenerraino zalantzarik gabe egin zuen haren defentsa.

2) Hugolinok Anaiarteari ematen zion babes, eta horren truke defendatu eta gidatu zuen Anaiarte-

Erakundearen (*religio*) moldaketa juridikorako asmoa.

3) Anaiartea handituz zihoala, Europara zabaltzen (1217...) eta gero eta kleriko eskolatu gehiago biltzen ari zela, hazkuntzak berak zekartzan energia eta gogo berrien premia praktikoak.



Frantzisko Egiptoko Sultanarekin, jakitun islamiarren ondoan

Iturriek erakusten digutenez, trapukeriarik gabe eta elkarrekiko estimu eta errespetu handiz, jokatu zuten biek ere, Frantziskok eta Hugolinok. Beharrezko, salbagarri eta bideragarri zenari eutsi, eta bataren eta bestearen *rolak* ulertu eta betegarri egin. Ikusiko dugu hori.

Kontaketa biografiko honetan, aurrerago baino lehen gure protagonistaren bizialdiko ezusteko bi-

daia baten berri jakin behar dugu orain: Frantzisko 1219an Ekialdeko musulmanen artera joan zenekoa.

5.1.3. Egipton: bi munduren artean

Frantziskok hiru aldiz behintzat erabaki zuen Lurralde Islamiarretara joatea, Jesusen berri ona aurkezteko. Europa kristautik bestelako mundua zen musulmanen hura, *Dar el-Islam* deitua, 'Islamaren Lurraldea', hura eta hau elkarren ezagutza onik gabea, bi aldeek elkarrengana hurbiltzeko aukerarik bazuten arren¹⁸.

Ekialde Hurbilean Islamaren erregimen bereziko gizartean aspaldiko kristaurik franko zegoen¹⁹: konkista musulmanaren aurreko eta ondoko komunitate kristau arabiarak ezin dira ahaztu²⁰, ezta Siria eta Palestinako melkitak²¹, Irak-eko asiriarkaldearrak²², Anatolia, Zilizia eta Palestinako armeniarak²³, edo Egiptoko koptoak (hain zuzen, hemen gogoan dugun V. Gurutzadakoan al-Kamil Sultanaren alde agertu zirenak)²⁴.

Presentzia erlijioso horien ondoan eta noizbehinkako gerrak gorabehera, harreman diplomatikoak zeuden, merkataritzak bere bideak zituen, kultura eta pentsamenduak ere bai (gogora Tole-doko Eskola, 1085...), eta, nola ez, hori guztia gutxi asko beti joan ohi zen geopolitikak eta gertakariak

¹⁸ Frantziskoren biografo batek badu arazo honetaz argitalpen on bat: Cardini, F., 2000, *Europe et Islam. Histoire d'un malentendu*. Paris: Éditions du Seuil. (Frantzisko eta frantziskotartasunari buruz: 144-149).

¹⁹ Kristau haien historia eta kultura ezagutzeko: Albert, M. et al., 1993, *Christianismes orientaux*. Paris: Le Éditions du Cerf.

²⁰ Piccirillo, M., 2002, *L'Arabie chrétienne*. Paris: Mengès.

²¹ Dick, I., 1994, *Les Melkites. Grecs-Orthodoxes et Grecs-Catholiques des Patriacats d'Antioche, d'Alexandrie et de Jérusalem*. Turnhout/Paris: Brepols. Sélis, C., 1988, *Le Syriens orthodoxes et catholiques*. Turnhout/Paris: Brepols.

²² Teule, H., 2008, *Les Assyrio-Chaldéens*. Turnhout/Paris: Brepols.

²³ Beledian, K., 1994, *Les Arméniens*. Turnhout/Paris: Brepols.

²⁴ Paris eta Cap d'Agde-ko Erakusketetako katalogoa: *L'art Copte en Égypte. 2000 ans de Christianisme*. Paris: Gallimard /Inst. du Monde Arabe.

agintzen zuten bideetatik²⁵. Bazegoen, bada, bi mundu haien artean elkarren ezagumenduren bat, batzuetan gerrarako balio izan zuena nahiz herritarren bizikidetzarako balio zezakeena.

Hala ere, Mededebalde/Ekialdeetako Eliza kristauen arteko etenak (1054) eta ondoriozko urruntasunak ezer gutxi lagundu zuten Ekialdeko Ortodoxia kristauak ikusi eta ikasita zuten Islam-arekiko jakitetik probetxu onik ateratzen. Bestalde, kristauetan, ez zitezkeen berdinak izan jarrera intelektual eta politikoak Bizantzio kristauan ala Damas-ko Kalifatu omeiarrean (661-750).

Bi Erlijioen arteko lehen topaketaren biharamunean bertan bata bestea ezagutu nahi izan zuen, elkarlan politikoa, apologetika nahiz eztabaidak tarteko zirelako. San Joan Damastarra (c.675-a. 754) adibide ona da Islam-aren lurraldean kristau jarraituz politika, kultura eta teologia nola egin zitezkeen ikusteko²⁶.

Erlijioak eta Estatuak bat egiten zuten Dar el-Islam lurraldean, eta *xaria* islamiarra zeritzana zen haietako oinarritzko legea; baina horrek ez du esanahi Dar el-Islam hark herrialde bakoitzean erabateko pentsamendu eta zuzenbide-batasuna zuenik, zeren eta hainbat Eskola juridikotan banatuta baitzeuden musulmanak²⁷. Hala ere, aginteboterearen eraketak aldarerik franko izan zuen mendeak zehar. Bide batez, zehatz dezadan al-Andalus iberiarrean malikismo medinatarra izan zela Eskola nagusia.

Dar il-Islam-ean agintari gorena *Kalifa* izan ohi zen, bi aginteak, erlijiosoa eta politikoa, bere esku-etan zituela, nahiz eta historian zehar ez zen falta izan batasun horren zilegitasunari buruzko eztabaidarik, teoriarik eta praktikan. Bigarren maila batean, Kalifaren eskualde bateko ordezkari beregaina edo izan ohi zen *Sultana* nahiz *Emira*. Frantzisko Damietara heldu zenean, al-Malik al-Kamil Egiptoko Sultana-rekin (1218-1238) egoteko aukera izan zuen (al-Kamil Saladinoren biloba zen)²⁸.

Testuinguru horretan, herritar musulmanek eskubide erlijioso eta politiko osoak zituzten, eta Liburuaren beste erlijioetakoek (judu eta kristauak bereziki: *dhimmi*-ek) bestelako Zuzenbidea zuten, zerga bereziak ezartzen zitzaizkiela, eta sinatutako bake-hitzarmenen araberrako eskubide zibil eta erlijiosoekin bizi zirela.

Dar-el-Islam haren ondoan, Mendebaldeko *Kristandade* gisa antolatuta zegoen, lege kristauen arabera, Elizarekin eta Erreinu kristauarekin. Bi botereen arteko aginte-banaketa praktikoa ez zen izaten liskarrik gabekoa (Bizantzio/Akisgran; Inperio Erromatar-germaniarra/Aita Santuen Erroma), baina denak ere ados zeuden legeria eta bizitza arau kristauen arabera moldatzeko. Hortik aurrera, Elizaren ala Inperioaren arteko aginte-lehentasuna nori aitortu zen auzirik gordinena, behin baino gehiagotan tirabirak armaz edo eskumikuz konpondu nahi izateraino. Horretan, Italia izan zen batez ere, XIII. mendeko lehen erdi-aldian, guda-eremurik ohikoena.

Frantziskoren bizialdikoa da Erdi Aroan teokraziaren aldeko Aita Santurik suharrena (Inozentzio III); baina betiere, lehenagoko Gregorio VII.a (1073-1085) edo geroko Bonifazio VIII.a (1294-1303)

²⁵ 1095tik XIII. mende-hondarrerainoko botere-banaketa geografikoa, in: Chaliand, G.; Rageau, J.-P., 1995, *Atlas historique du monde méditerranéen. Chrétiens, juifs et musulmans de l'Antiquité à nos jours*. Paris: Payot. 42-45. Harremanen azalpen orokorra: Jansen, Ph.; Nef, A.; Picard, Ch., 2000, *La Méditerranée entre Pays d'Islam et monde latin (milieu X^e-milieu XIII^e siècle*. Paris: Sedes. *Passim*. Durand, R., 2000, *Musulmans et Chrétiens en Méditerranée occidentale. X^e-XIII^e siècles. Contacts et échanges*. Rennes: PUR.

²⁶ Le Coz, R., 2011, *Jean Damascène. Écrits sur l'Islam*. Paris: Les Éditions du Cerf. 41-65 (Bizitza eta idazkiak), 209-251 (testuak).

²⁷ Gardet, L., 2002, *L'Islam. Religion et communauté*. Paris: Desclée de Brouwer. 151-270.

²⁸ Al-Kamil-en biografia eta garaiko historia militar eta diplomatiko nahasiaren lehen albisteak ezagutzeko, albiste eskuragarria: <https://fr.wikipedia.org/wiki/Al-K%C3%A2mil>. Garaiko Egiptoko politikaz: Maalouf, A., 2016, *Les croisades vues par les Arabes. La barbarie franque en Terre sainte*. Paris: Éditions J'ai lu. 255-258.

ahaztu gabe. Inozentzio III.aren politika juridiko eta armatuari eutsi zioten ondoren Honorio III.ak eta Hugolino/Gregorio IX.ak. Frantzisko, ez *sí* eta ez *no*, testuinguru horren aurrean aurkitu zen, bada.

Erroma hiritik kanpo ere bizi behar izan zuten Aita Santuek, eta besteak beste Perugia izan zen, hala egokitu zenean, erbestealdi haietarako bizileku. Italian, eskualde eta udalerrietako biztanleek (klase-borrokak ere tarteko zirela), tokian tokiko gurari eta interesen arabera, edota gainera zetozkien botere indartsuagoen esanetara moldatu behar izaten zuten; *guelfi* deituak Egoitza Santuaren politikara lerratuak, eta *gibelinoak* Inperioaren aldekoak.

Europako Kristandadean Gurutzadek sortutako areriotasun eta hurbiltasun politiko armatuen ondoan, aspaldidanik egon zen gertukotasun sozialik ere (moriskoak kristauen artean eta mozarabiarrak musulmanekin bizitzen), edo Palermo (831-1072) eta Toledoko (1085...) elkarlan kulturalak. Hurbiltasun horien artean gogoratzekoa da Euskal Herrian egin zela, Pedro Beneragarriaren enkarguz, Koranaren lehenengo itzulpen latinoa (Iruñea, 1143), Erdi Aro osoan eta geroago Mendebaldean ezagutu eta erabili zen itzulpena²⁹.

Veneziako historiak kapitulu handia du Ekialdera begira, merkataritzaren bidez eta lanabes politiko-armatuak erabilia; zehazkiago esateko, 1204tik aurrera bere Inperioa ere eratu ahal izan zuen Ekialdean, batez ere Bizantzioren kontura³⁰. Veneziaren lehiakide zela, Genoa ere saiatu zen aukerarik ez galtzen.

Penintsula Iberiarrean, Asturias-en hasita, orain beste gisa batera definitzen den *Reconquista* kristaua bidea egiten ari zen, ez beti abiada berean, Ebro ibaiaren iparraldean hasita, Nafarroa, Aragoi

eta Kataluniatik³¹. 1210ean, artean betidaniko al-Andalus musulmana bertan zegoen, eta Dar el-Islam-en muga Baleareak eta Tortosatik Valentzia, Kordoba, Badajoz eta Lisboaraino heltzen zen³².

Hala eta guztiz ere, guretzat data esanahitsua izan daiteke 1212koa: Las Navas de Tolosa-ko gudua (Jaén), almohadeak menderatu zituen kristauen garaipena (Antso VII.a nafarra eta R. Xinmez Rada-koa garestarra tartean zirela). Sona handia izan zuen hark Europa osoan. Garaipenak garaipen, Erdi Aroan ohitura zenez, musulmanak Errege kristauen mendeko gisa jarraitzen zuten, botere politikoa galduz zihozten lurraldeetan ere.

Bake-moduren bat bazegoen, baina baita Gurutzadarik ere, hau da, eliz-bizitzatik ere definitu ohi ziren ekinbide politiko armatuak: ez zen erraza banatzen espiritualtasun kristaua eta borroka armatu erlijiosoaren arteko muga; agian berdintsu izan zitekeen kristaua erromes eta gurutzatu, Lur Santuak askatzeko, bekatutik libratzeko, borrokatuz indultjentziak irabazteko, penitentzia egiteko, norberaren konbertsio eta abarretarako³³.

1095eko lehen deiairen ondoren, aldian-aldian Gurutzada berriak antolatu ziren, esaten zenez Lur Santuak eta Jerusalem eskuratzeko. Frantziskoren bizialdiko biak gogoratu behar ditugu hemen: IV. Gurutzada (1202-1204: Konstantinopla hiriburuaren harpilaketa, 2004)³⁴ eta V. Gurutzada (1217-1221).

²⁹ De la Cruz Palma, O., 2010, "La trascendencia de la primera traducción latina del Corán (Robert de Ketton, 1142-1143)", in: <http://hottopos.com/collat7/transcoran.pdf>.

³⁰ Diehl, Ch., 1985, *La République de Venise*. Paris: Flammarion. 59-87.

³¹ Lacarra, J. M., 1975, *Historia del Reino de Navarra en la Edad Media*. Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra. 53-73, 282-285. Sénac, Ph., 2000, *La frontière et les hommes (VIII^e-XII^e siècle). Le peuplement musulman au nord de l'Ebre et les débuts de la reconquête aragonaise*. Paris: Maisonneuve et Larose. Passim. Salrach, J. M., 1980, *Història dels Països Catalans. I. Dels orígens a 1714*. Barcelona: EDHASA. 149-392. Ikus daiteke, gainera: Intxausti, J., 2008, "Islama eta euskal herritarrak", in: *Hemen*. 19. zenb., 2008, 57-82.

³² Mestre Campí, J.; Sabaté, F., 1998, *Atlas de la "Reconquista". La frontera peninsular entre los siglos VIII y XV*. Barcelona: Ediciones Península. 35.

³³ Richard, J., 2000, *L'Esprit de la Croisade. Textes médiévaux*. Paris: Les Éditions du Cerf.

³⁴ Heers, J., 2005, *Chute et mort de Constantinople (1204-1453)*. Paris: Perrin. Runciman, S., 1973, *Historia de las Cruzadas*. Madrid: Alianza Editorial. II, 123-130. Frantziskori buruzko kontakizuna eta bibliografia: 155, 87-118.



Asis: Erdi Arotik datozen karrikak

Azken honetaz baliatu zen Frantzisko, gogo eta pentsamendu bakezalea sustatu eta bere bake-mezu kristaua musulmanen artean aditzera emateko, hain zuzen Pelagio Galvani-koa Aita Santuaren legatu gerrazaleak bestelako lanik egiten zuen bitartean³⁵.

Laterango IV. Kontzilioaren *Ad liberandum* konstituzioak aurreikusi zuen Gurutzadarako deia eta horretarako Elizak nahi zituen irizpide eta buru-

bidea (1215eko abenduan), eta 1216ko ekainaren batean bildu ziren indar armatuak Brindisi, Mesina eta inguruetan³⁶.

Testuak Elizaren lanabes ofizialtzat hartzen du Gurutzada, berori ongi definituta. Armada kristauak Aita Santuaren legatua izango du; prediku, otoitz eta aitortzaren bidez zainduko da gurutzatuen graziazko bizitza. Gurutzadarako zina betebeharrekoa da. Agindutako abantaila espiritual eta denboralak sekula baino zabalagoak izango dira. Gurutzadako ekonomia eta finantzak segurtatzeko klerikoek beren dohaintzak egingo dituzte eta laikoek limosnak; kristauak musulmanekin ezingo dute izan inolako elkarlanik. Gurutzada-induljentzia ekinbide hori lagunduko duten guztientzat izango da.

Gurutzaden ekimen armatuaren ondoan bizirik zegoen orduko galdera bat ez da ahaztu behar: Zer egin zitekeen Kristandadetik musulmanak irabazteko? Ez ote zen hobe bakez, predikuz eta errespetuz joatea³⁷. Jakina da V. Gurutzada hartako armadan bertan kristauen artean oso elkarren kontrako politikak ere ageri zaizkigula, "uso" eta "zapaletzena" alegia³⁸. Azken hauetakoa zen Aita Santuaren Legatua, Pelagio Galvani hispaniar edo portugesa³⁹.

Garaiko pentsamolde kristauan arrazoi ezberdinak zeuden musulmanen artera joateko: martirioa irabaztea, Ebanjelioa zabaltzea, erromesaldia, hango kristauak babestea, Lur Santuekiko arrazoi politiko edo erlijiosoak, gurutzatuak laguntzea,

³⁵ Pelagio kardinalaz: https://it.wikipedia.org/wiki/Pelagio_Galvani.

³⁶ Mansi, *Sacrorum Conciliorum nova et amplissima collectio*. XXII, 1058-1967. https://en.wikipedia.org/wiki/Giovanni_Domenico_Mansi. Ik. Richard 2000: 89-96.

³⁷ Runciman, S., 1973, *Historia de las Cruzadas*. Madrid: Alianza Editorial. III, 151, 155. Demurger, A., 2006, "Que faire des infidèles? Croisade et mission", in: Demurger, A., 2006, *Croisades et croisés au Moyen Âge*. Paris: Flammarion. 247-259.

³⁸ http://www.templiers.net/croisades/michaud/index.php?page=royaume-de-jerusalem-1200-1221_grousset.

³⁹ https://es.wikipedia.org/wiki/Pelagio_Galvani#cite_note-11.



Asis: murru sendo itxietan ate ireki gotorra, gerra-bakeetarako

Kristandadearen eta Lurralde Islamiarraren arteko bake-egitasmoak bultzatzea⁴⁰, etab.

Frantzisko 1219ko udazkenean heldu zen Damietara, gurutzatuak jada Damietta setiatzen ari zirela. Frantziskoren ibileraren berri iturri molde ezberdinetatik iritsi zaigu; iturri kristauak dira albisteak biltzen dizkigutenak, gehienbat Frantziskoren biografiak ditugu, Zelanorekin hasi eta San Bonabenturanaino; horiekin batera badaude, gainera, Ordenatik kanpokoak ere (Vitry, Ernoul). Apenas dagoen lekukotasunik iturri islamiarretan, baina Gabrielli berezilariak bat behintzat gogorazti digu: Fakhr al-Din al-Farisi, teologo islamiar eta al-Kamil Sultanaren aholku-emailearena.

Azken urteetako historiografia jakin-min biziz begiratzen ari da Erdi Aro urrun hartan Gurutzaden egunetan eta bi armaden arteko pasata, Frantziskok Sultanari egin zion bisitaldi haren esanahi historikoa, ordukoa eta geroko esanahia⁴¹. Esan gabe doa egungo frantziskotarrek ere (gutxienez XIV. mendetik Lur Santuetako zaintzaile katolikoak direnek) oso gogoan dutela gertaera historiko haren oroitzapena⁴².

Anaiartea aski hazia zela, 1219ko udan edo, Lur Santuetarako bidaiarako irten aurretik Frantziskok bi Bikario izendatuta utzi nahi izan zituen Italian, bertako fraideen gobernuaren eraman zezaten: Mateo Narni-koa Portziunkulan jarriko zen bizitzen, anaia guztien eta fraidegaiei ardura zuela, eta Gregorio Napolikoa, Italiako anaia bisitatuz "leku" guztietara

iritsiko zena. Ikusita daukagu zein emaitza eskasa eman zuen horrek.

Jordan Gianokoak (1262) azaltzen digu zergatik eta nola egin zuen bidaiaren hura Frantziskok:

Bere kemen handiagatik eta Kristoren jarraipenean inor baino gutxiago izan nahi ez zuelako, baizik eta beste guztiak baino gehiago, eta, bere semeak ustezko arriskueta eta fededunen lurraldeetara bidali zituenez, berak, Kristoren nekaldiaren maitasunean suturik, beste anaiak bidali zituen urte berean, hau da, bere konbertsioko hamahirugarrenean, itsasoko ezinbesteko arriskuei aurre egin zien eta, sinesgabeengana igaroz, Sultanaren aurrean aurkeztu zen. Baina Sultanarengana iritsi aurretik, irain eta laido asko jasan behar izan zuen, eta, hizkuntza ez zekienez, "Soldan, Soldan" egiten zuen oihu, zigortzen zuten bitartean.

Azkenik, Sultanarengana eraman zuten, eta honek ohorezko harrera egin zion eta bere gaixotasunean gizabidez zaindu. Eta, ezin zuela haien artean fruiturik lortu eta, itzultzea erabaki zuenean, Sultanak talde armatu bat jarri zion, une hartan Damietta setiatzen ari zen kristauen gudarostearaino lagun ziezaien (GiJor 10. lk. 1 Zel 57; LeLu 9, 7-8).

Topaketa hura nola gertatu zen jakiteko, historiatik eskas baina irudimenez aberats ari den kontaketa dute Loretxoek (Lo 24). Bere aldetik, San Bonabentura, neurritsu eta zertzelada jakingarriak emanez ageri zaigu bere testuan, eta batez ere Sultanak eta Frantziskok izan omen zuten elkarriketa nola joan zen azaltzen digu, erabilitako argudio teologiko-misiotarrak asmatzen dituela:

Anaia bat hartu zuen lagun, Iluminato zeritzana (benetan, argiz eta bertutez betea), eta bidean jarri zen. [...]. Azkenik, Jainkoaren probidentziak hala nahita, [jagole islamiarrek] mila modutara oinazetu eta zigortu ondoren, Sultanaren aurrera eraman zituzten, Jainkoaren gizonak desio zuen bezala.

⁴⁰ Kontu egin behar da, hain zuzen Egiptoko dinastia ayyubidak, Saladinoren ondoren, diplomazia bidezko bakea sustatu nahi izan zuela (1193-1250). Ik. Balard, M.; Demurger, A.; Guichard, P., 2000, *Pays d'Islam et monde latin. X^e-XIII^e siècle*. Paris: Hachette. 116-135.

⁴¹ Gabrieli, F., 1976, "San Francesco e l'Oriente islamico", in: *Espansione del francescanesimo tra Occidente e Oriente nel secolo XIII*. Assisi. 105-122. Ik. Manselli 1997: 221. Tolan, J., 2007, *Le saint chez le sultan. La rencontre de François d'Assise et de l'Islam. Huit siècles d'interprétation*. Paris: Éditions du Seuil. Sella, P., 1213, "Francisco y el Sultán: el encuentro", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 125, 2013, 267-271.

⁴² Jeusset, G., 1996, *Rencontre sur l'autre rive. François d'Assise et les Mulsulmans*. Paris: Les Éditions Franciscaines.

Printze hark galdeketa egin zien ea nork, zertara eta zein aginpidez bidaliak ziren eta nola heldu ziren haraino. Frantzisko Jainkoaren zerbitzariak bihotz kementsuz erantzun zion ez zirela inongo gizakik bidaliak, goi-goiko Jainkoak baizik, Sultanari eta beronen herriari salbamen bidea erakustera eta egiaren Ebanjelioa hots egitera.[...].

Sultanak, Jainkoaren gizonaren bihotz gartsuaz eta bertuteaz harriturik, gustura entzun zion eta behin eta berriz berarekin gelditzeko eskatu.

Hango jendea federa ekartzen ez zuela ezer aurreratzen eta bere helburua ezin zuela bete ikusiz, Jainkoak ohartuta, kristau lurraldeetara itzuli zen (LeLu 8-9).

Oso "etxeakoak" gertatzen ziren testigantza horien ondoan, esanahi ziurragoa izan dezakete Ordenatik kanpoko lekukoek. Bata goiztiarra dugu (Vitry, 1221). bestea zerbait geroagokoa beharbada (Ernoul, a. 1230).

Vitry-k ohi zuen bezala, itxuraz eta txukun idatzitako informazioa utzi zigun. Ematen digun albiste honetan, al-Malik al-Kamilek Frantziskorekin izan zuen adeitasuna ingurukoentzat susmagarri gerta zitekeela dioen hori ez dago, segur aski, lekuz kanpo, hain zuzen Sultanaren politika bakezaleaz asaldaturik baitzebiltzan orduan Egipton. Gogoratzekoa da, Frantziskoren jokaeraz ez ezik Anaia Txikien sarrazenoen arteko misioa ere aipatzen digu Vitry-k.

Geuk ikusi genuen Ordena honen lehen fundatzaile eta maisua, beste guztiek beren priore nagusi bezala obeditzen dutena, gizon xume eta eskolagabea, Jainkoak eta gizon-emakumeek maitatua; anai Frantzisko zuen izena. [...]. Egipton Damieta aurrean zegoen kristauen gudarostera etorri eta Egiptoko Sultanaren kanpamentura jo zuen ausardiaz beterik eta fedearen ezkutuz babestuta. Sarrazenoek bidean atxilotu zutenean,

«Ni kristaua naiz, esan zien, eraman nazazue zeuen jaunarengana».

Eraman zuten haren aurrera eta, Jainkoaren gizonaren itxura ikusi zuenean, pizti bihozgogorra otzandu egin zen, eta arretaz entzun zion zenbait egunez, berari eta beretarrei Kristoren fedea predikatzen zien bitartean. Azkenean, ordea, beldur izan zen bere gudarosteko batzuk, haren hitzaren eraginez Jaunarengana bihurturik, kristauen gudarostera igaroko ote ziren, eta agindu zuen, begirune eta segurantzia osoz guretarren kanpamentura eraman zezatela. Agurtzean, honela esan zion: «Egizu otoitz nire alde, Jainkoak gogokoen zaion legea eta fedea ezagutarazi diezadan».

Sarrazenoek atseginez entzuten diete aipatutako Anaia Txiki guztiei Kristoren fedea eta Ebanjelioko doktrina hots egiten dietenean, harik eta beren hitzez Mahoma argi eta garbi gezurti eta maltzurtzat salatzen duten arte. Orduan gogor zigortzen dituzte eta beren hirietatik botatzen; eta hil ere egingo lituzkete, Jainkoak miragarriro babestuko ez balitu (Frantz. Itz. Taldea 2002: 1153).

Testu hauetan ikusten dugunez, argiak dira musulmanen arteko Misiorako dauden arrazoi teologiko batzuk (Jesus Nazaretekoaren baieztapena, kristautasunaren bidezko salbamena predikatzea) eta burubide pastoralak (kristau aitorpenaren eta etsenplu onaren balioa). Vitry-k, gainera, bi une ezberdin bereizten dizkigu: Jesusen aldeko predikurera eta batzuetan anaien Mahoma Profetari buruzko erasoarena (fedezko egia eskaini, eta martirioaren bila ote?).

Lehen kasuan, musulmanak entzule arretatsuak dira, izan ere ez da ahaztu behar Jesusek (Isà-k) bere lekua duela Koranean⁴³; bigarrenean, ordea, hala-
korik izanez gero, Proferaren aurkako erasoei go-

⁴³ Ik. Korana: 3, 4, 5, 19, 21, 23, 43, 61. surak.



Asis: hirigune segurutik lautada emankorrera begira

gorki erantzun ere egin diezaiekete musulmanek. Egon ere ez zegoen orduan misio-lanerako prozedura landu jakinik; intuizioa eta norberaren ikusmoldea zen lege, mundu arabiar-islamiarrekiko bide berriak urratu gabe baitzeuden, artean (hizkuntzen ezagutza, misio-metodologia, etab.)⁴⁴. (Iriarte 1979: 173-187).

XIII. mendeko kristau batek arrazoi ezberdin eta ugari topa zitzakeen musulmanen artera joateko, eta Frantziskok ere bat baino gehiago aipatu zuen

asmoa aitzina eramateko: Jesus Nazaretokoaren berria zabaltzea, Ebanjelioa eta kristautasuna eza-gutzeroa ematea, Jerusalemeko erromesei laguntzea, gurutzatuen jatortasun erlijiosoa zaintzea, penitentzia egitea, eta, zergatik ez, martirioa irabaztea eta abar. Edo denetatik zerbait. Anaiei artean, martirioaren gogoia ez zen izan arrotza, eta Frantziskok berak, Egiptotik itzultzean miretsita eta saminez jakin ahal izan zuen, hilabete gutxi lehenago hil zituztela Marokon hara bidalitako anaiak (1220ko urtarrilean, Marrakesh)⁴⁵.

⁴⁴ XIII. mendearen hondarretan aitzindari gertatuko ziren musulmanen arteko Misioaz teoria lantzen Famila frantziskotarreko bi izen handi, baina ez derrigorrez Frantziskoren irizpide ber-berekin. Hackett, J., 2013, "Roger Bacon [1214/20-1292]", in: *Stanford Encyclopedia of Philosophy*. <http://plato.stanford.edu/entries/roger-bacon/>. Ferrater Mora, J., 2009, "Llull, Ramón", in: ID. 2009², *Diccionario de filosofía*. Barcelona: Ariel. III, 2161-2164. (Bibliografia zabala du).

⁴⁵ Martiri hauen azalpen guztiz hagiografikoa: <http://www.franciscanos.org/santoral/berardo.htm>.

Argi dago musulmanen kristautzea zela xederik argiena, eta horretarako aukeratu beharko zituen hitz eta burubide egokiak, edozein ez-kristauekin bezala: Anaia Txikien misioa zen Jainkoa beste ahalguztidunik ez dagoela hitzez eta egitez hots egitea (OrG 9), baita kristau-herritik urrun zebiltzala ere (2 Er 12, 1).

Herri arrotz haiek meriturik handienekoak ziren heriotza eta martiriora eraman zezaketen misiolaria, baina Frantziskok Jainkoaren babesa espero du haietara joango direnentzat. Kezka guztien gainetik, betiere lehenetasun osoa ez-kristauen konbertsioak du Frantziskoren asmoetan, eta betiere bortxakeriarik gabe. "Lehen begiratu orokorrean, Santuaren portaerak eta jarrera pertsonalak hori da erakusten duena, ez baitzaio ikusten aurrean duenarekiko erronka eta desafio keinurik" (Manselli 1997a: 317).

Ideia eskatologikoak ere tartean zeuden, izan ere uste baitzen munduaren azkena laster etor zitekeela, baina horretarako bazekiten herri guztien konbertsioa sustatu behar zela; egia esan, konbertsioarenak berdin balio zuen ez-kristauentzat eta kristauentzat. Honek guztiak ere indartu baizik ez zituen egiten eredu ebanjeliotarra fededun eta fedegabeei aurkezteko Frantziskoren egitasmo eta presa.

Damieta aurrean azken gudua edo jotzera zihoazela zirudienean, atsekabez eta kupidaz, gurutzatuei bere oharra eta galdea egin zien, halakorik egin ez zezaten. Zelanok esaten diguna osorik sinesteko ez badiogu ere, balio du gerra harekiko Frantziskoren borondatea ezagutzeko: ez zuen gerrarik nahi ez orduan eta ez gero, Jainkoaren deiari jarraitu baizik, betiko bere ahaleginaren arrastoan (Manselli 1997: 278-281):

Frantzisko eta Anaiarteko haren lagunak (Pedro Cattani, Iluminato, Elias eta Spirako Zesareo), gurutzuak gudua jotzera zihoazela ikusita, triste eta aurreikuspen mingarriekin ageri zaizkigu (1219ko abuztuaren 29an):

Gudu-egunean, gure soldaduak borrokarako prestatzen ari zirela entzunik, samin handia hartu zuen santuak eta lagunari esan zion: «Jaunak adierazi dit, borroka gaur gertatzen bada, ez zaiela kristauei ongi joango. Baina hau esango banu, zorotzat hartuko nindukete; eta isiltzen banaiz, berriz, kontzientziak ez nau bakean utziko. Zer uste duzu zuk?» Lagunak erantzun zion: «Anaia, ez batere jaramonik egin gizakien iritzia, ez baita lehenengo aldia izango zorotzat hartzen zaituztena. Arindu zeure kontzientzia, eta izan beldur Jainkoari gizakiei baino areago».

Joan zen, bada, santua eta kristauei beren onerako ohartarazten die, eraso eragotzi nahi du, porrota iragartzen die. Baina egia hutsa zena ipuintzat hartu zuten, bihotz-gogortu egin ziren eta ez zioten kasurik egin nahi izan. Joan ziren, jarri ziren aurrez aurre, ekin zioten borrokari, eta gureak etsaien erasopean aurkitu ziren. Bien bitartean santuak, bihotza estututa, lagunari esan zion jaiki eta begiratzeko; baina hark behin eta birritan ez zuen ezer ikusi. Hirugarrenez agindu zion Frantziskok, eta orduan, kristau gudaroste osoa ihesi zihoan: borrokaren azkena ez zen garaipena izan, porrot lotsagarria baizik. Sarraski hartan gure gudarosteak galera handiak izan zituen: sei mila lagun hildakoen eta preso eroritakoen artean. Santua galtzaileen-ganako gupidaz akitua zegoen, eta ez zen txikiagoa haien damua egin zutenagatik. Eta batez ere Espainiakoengatik egiten zuen dolu, borrokan erakutsi zuten ausardiagatik, gutxi batzuk bakarrik atera baitziren onik.

Kontuan har bezate hau munduko errege guztiek eta jakin bezate nazioek ez dela erraza Jaunaren aurka gerran aritzea, hau da, haren nahiaren aurka. Azken txarra ekarri ohi du handiusteak, bere indarrez fidatzen baita eta ez baitu zeruko laguntzarik izaten. Garaipena goitik itxaron behar baldin bada, borrokari ekin baino lehen Jainkoaren Espirituari egin behar zaio kasu (1 Zel 30).

Frantzisko Ekialdetik itzuli zenean, kristau ez ziren Erljio jakin batekiko eta guztiekiko jarrera heldua-goarekin etorri zen Europara eta bere Anaiarteak gidatzera. Eta Mendebaldeko Ordenetako Erregelatan sekula ezagutu gabeko arau misio bakezalerako deia idatzita utzi zuen bere fraideentzat, bai 1221ko Erregelaren testu aski luzean eta baita Erregela buldatuan laburrago ere (1223).

Beren berritasunagatik eta Anaiartearen ondoko historian izan zuen eraginagatik hona ekartzekoak dira bi Erregela horietako pasarte hauek:

Jaunak dio: Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo. Beraz, musulmanen eta beste fedegabeen artera joan nahi duen edozein anaia, joan bedi bere ministro eta morroiaren baimenarekin. Eta ministroak eman biezaie baimena, eta ez ukatu, baldin bidaltzeko gai ikusten baditu; izan ere, Jaunari kontu eman beharko dio, honetan edo bestetan bereizkuntzarik gabe jokatzeko badu.

Eta doazen anaiek bi eratara joka dezakete espiritualki haien artean. Lehenengo era: ez dezatela sesiorik eta hizka-mizkarik izan, baizik eta Jainkoarengatik gizaki guztien menpeko izan daitezela eta kristauak direla aitortu. Bigarren era: Jaunari atsegin zaiola ikusten dutenean, iragar dezatela Jainkoaren hitza, sinets dezaten Jainko ahalguztidun, Aita eta Seme eta Espiritu Santua, gauza guztien egileagan, eta Seme berrosle eta salbatzaileagan, eta bataia daitezen eta kristau egin, zeren ezin da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik berriro jaiotzen dena baizik.

Honelako gauzak eta Jaunari atsegin zaizkion bestelakoak esan diezazkiekete haiei eta besteei, Jaunak baitio Ebanjelioan: Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut nik ere Aita zerukoaren aurrean (1 Er 16, 1-8).

Jainkoak inspiraturik, musulmanen eta beste fedegabeen artera joan nahi duten anaiek, eska biezaiete horretarako baimena beren Ministro probintzialei. Baina ministroek ez biezaiete baimenik eman bidaltzeko gai direla ikusten dituztenei baizik (2 Er 1-2).

Egiptoko esperientziaren ondoren, 1220ko lehen hilabeteetan Frantzisko Lur Santuetara eta Akrera joan omen zen⁴⁶, azkenik Europara itzuli, Venezian lehorreratzeko zela, *Loretxoak*-etik hasita tradizio frantziskotarrak dioenaren arabera. Lur Santuetako hori egia izan ala ez, Egiptokoaz irakurri dugunaren argitan esan dezakegu Frantziskok ez zuela ahaztuko sekula al-Malik al-Kamil-ekin izandako elkarrizketa. Hurbiltasunaren indarrez, “fedegabeen” mundu osoa zabaldu zitzaion, Islamarena bereziki. Zoritxarrez, itsutasunera eramango zuen trakoma ere bidaia hartatik ekarri zuen Frantziskok.

5.2. Anaiarteko eta inguruko ardurak

Ekialdetik Italiara itzultzean, hain nahasita ikusitako Anaiarteak zer pentsa eta zer egin deliberatzera eramane zuen Frantzisko. 1209ko Anaiarte txikia ondoko urteetan hazi egin zen, nola gainera! Anaia bakoitzarekiko Frantziskoren harremana zailtzen ari zen, gehiago zirelako, eta sakabanatuak, eskualde eta herrialde ezberdinetan. Ezinbestean, hezitzaile karismatikoari gero eta urrunago gertatzen ari zitzaion anaietako asko.

⁴⁶ Baieztape horren aldeko eta aurkako argudioen azalpen on baina interesatua liburu honetan aurki daiteke: Vitores González, A., 2012, *Francisco de Asís y Tierra Santa*. Madrid: ppc. 58-63. Historialari biografo batek, F. Cardini-k, bere azken iritzia honela eman du bidaia posible honetaz: “Laburtuz, ondoriozta daiteke Frantziskok ez zuela ikusi Jerusalem, eta pentsa daiteke nolako atsekabez, gainera” Cardini, F., 1994, *Francesco d’Assisi*. Torino: Mondadori. 201.



Frantziskotar santuak (San Bonaventura, San Bernardino, San Luis, Antonio Paduakoa), eta Frantsikoren lehen anaiak



5.2.1. Hazkuntza bizkorra

Goranzko joerak bere horretan jarraituko zuen berehalako urteetan. Gogoratu besterik ez dago jada ezaguna dugun Vitry-ren hura: "Denbora gutxian hainbesteraino ugalduta, non ez baitago kristau-herrian probintziarik anaia hauetakoren batzuk ez dituenik" (Vitry, 1220).

Anaiarte barruko eta kanpoko iturriek aho batez esaten digute azkar joan zela lagunartean hazkuntza, eta bakoitzak bere arrazoiak ematen ditu: Jainkoak hala nahi izan zuen, anaien prediku-lanak kristau anitz irabazi zuen, Elizan erlijioso-bizitzaren erreforma premia gorria zegoen, Frantziskoren proposamenaren berritasunak gazte ugari erakarri zuen, sistema feudaletik at guztientzat berdintasuna eskaintzen zuen Anaiarteak, Aita Santuen babesak lagundu zuten Hugolino tartean zela. Arrazoi ugari eta erabakigarriak zueden, beraz (Esser 1976: 72-78).

Hazkuntza hori bertatik bertara ikusi zuten garai-koek maiz azpimarratu zituzten, arrazoi horiekin batera, Frantziskoren nortasuna eta gidaritzat. Denbora gutxian irabazi zuen ospe handia Frantziskok, izan ere ongi deskribatu zuen anaien karisma ebajeliotarra, ongi bizi izan zuen berori, konbentzimendu leialez ikus arazi zien kristauei egitasmo ebajeliotarra, eta garaiko erlijiotasun herritarrean bezala eskolatuan haren santutasun sona nonahi barreiatu zen. Publizitate ona izan zuen proiektuak.

Frantziskok itxaropenez eta beldurrez ere begiratu zuen gertatzen ari zena. "Frantziskok biziki irrikatzen zuen Ordenaren hazkundea, baina aldi berean beldur zion kopuru handiari, honek zituen arrisku-engatik", gogoratzen du Zelanok (1 Zel 28; 2 Zel 23; 70; 158).

Hurbileko lagun minek ere galdetzen zioten beren buruari zer eta zergatik ari zen jazotzen halakorik. Loretxoetan ohi den erara, Anai Maseok Frantziskori berari geldetu zion behin:

Bidera atera zitzaien [Maseo] eta txantxetan bezala esan zion [Frantziskori]: -Zergatik zuri? Zergatik zuri? Zergatik zuri?

San Frantziskok erantzun zion: -Zer esan nahi duzu horrekin?

Eta anai Maseok: -Galdetzen dut ea zergatik dabilen mundu guztia zure ondoren eta zergatik daukaten denek, dirudienez, zu ikusteko, zuri entzun eta obeditzeko gogo? Zu ez zara gorputz ederrekoa, ez duzu jakite handirik, ez zara handikia. Nondik datorkizu orduan mundu guztia zure ondoren ibiltze hori? (Loretxoak 10).

Maseok miresten zuen, nonbait, baina ez gehiegi ulertzen Frantziskoren inguruan gertatzen ari zena, eta istorioak balio du Loretxoak-etan Frantziskoren ospe ona nola ari zen zabaltzen erakusteko. Frantziskok ez zion eman Maseori erantzun soziologikorik, eta nahikoa izan zuen bere azalpen teologikoarekin⁴⁷; baina pasadizuak balio digu herritarren jarrerak nola zihoazen aldatzen jakiteko.

Portziunkulan, urteroko Kapitulu edo Biltzar Jeneraletan ikus dezakete Frantziskok eta anaiek zenbaterainoko abiadan doan taldearen hazkuntza. Herrialde eta hizkuntza ezberdinetakoak datoz, eta ez da erraza, hainbeste izanik, Portziunkulako egun gutxi batzutan denek elkar ezagutzea. Eta okerrago izan daitekeena: luzaro gabe, Biltzarrak ezingo dira izan guztien baterakoak, aldi eta toki berean bilduak. Arrakastak berak eragozten ditu halako bilerak.

Kasik sinestezinak dira iturriek aurkezten dizkiguten estatistikak:

Jaunaren 1221. urteko maiatzaren 23an, [...] Mendekoste egun santuan egin zuen Frantzisko dohatsuak Kapitulu Jenerala Portziunkulako

⁴⁷ "Zergatik niri jakin nahi duzu? [...]. Jainko gorenaren begietatik datorkit hori; haiek zintzoei eta gaiztoei begira daude toki guztietan. Eta begi txit santu haiek ez dute bekatarien artean inor ikusi ni baino ziztrinagorik, kaxkarragorik eta bekatariagorik" (Loretxoak 10)..

*Andre Marian. Kapitulu honetara, Ordenaren orduko usadioaren arabera, anaia profesoak ez ezik nobizioak ere bildu ziren, eta **hiru bat mila** anaia elkartu omen zen* (Gianoko Jordan: Kronika, 16).

*Portziunkulako Santa Marian eginiko Kapitulu jeneralean izan zen, Lastairen kapitulu deituan [1222], han anaiek bizi ziren etxolak lastoz egindakoak baitziren. **Bost mila** anaia bildu ziren eta bertan zen Frantzisko dohatsua ere* (Perlsp 68).

Bost mila anaia horietako asko eskolatu, jakintsu eta ikasiak ziren (PerLe 18, 24. lk. LeLu 4, 10), ziurki lehen orduetatik Anaiarteak aurpegi kultural berri bat erakusten zuela.

Milakako kopuru horiek borobilduak dira, noski, eta ez dute zehaztasun handirik bilatzen; dena den, segurutzat eman behar da eunka lagun batzuk bederen bildu zirela Kapitulu haietara, profeso eta nobizioak, hainbat jakintsu eta ikasi. Hortaz, lagunarte berria ari zen sortzen, handiagoa eta eskolatuagoa; sakabanatuagoa, European eta Ekialdean.

1217az geroztik Anaiarte Italiatik kanporako egitasmo berrietan sartuta ageri zaigu; urrunago gabe, Europa zabala da eta bertako kristauak ere behar zuten Ebanjelioaren albiste ona. Indarrean zetorren Alpeetatik haragoko gogo hori Anaiarteak ezin zuen albora utzi; baina anaiei prestakuntza eskasak, gizarteko heretikoen beldurrak eta artean toki askotan ezezagunak ziren "Asisko anaia txikiak" eliz izaera juridiko ez hain argiak ez zuten arriskuetatik gordetzen. Egon ziren eskarmentu txarreko esperientziak ere.

Prediku-mundua zabala izan zitekeen, baina aterpeak gutxi, onenean ere pobreak eta ez gutxitan egunean egunekoak. Frantziskoren gidaritzak bizirik zegoen, noski, baina urruntasun fisikoak lauso zezakeen haren distira. Kapituluetan aurreikusi gabeko hainbat inguruabarretan ezinegonak agertu ziren, eta batzuetan arazo pertsonal larriak.

5.2.2. Ezinegonak eta irtenbideak

Frantziskok hautatu zuen biziera ebanjeliotarra berehala gerta zitekeen utopia ezin eramana, norberaren ezinagatik nahiz eskueran zeuden baldintza praktikoek ingurutik aski erantzunik eskaintzen ez zutelako. Filosofian, Erlijioetan eta Kristautasunean molde ezberdinetako proiektu utopikoak sortu izan dira, eta monakatua da horietako bat, eta ondoko Eskeko Ordenetan nahikoa edukin eta ezaugarri utopikorik daukagu, bereziki frantziskotartasunean⁴⁸.

Jainko Aitaren probidentziak, Seme Salbatzailearen inkarnazioak eta Espirituaren graziak segurtatzen dituzte, Frantziskoren arabera, kristau utopiaren oinarriak, eta Anaiarteari dagokio gizon-emakumeen arteko konbertsio eta penitentzian balio ebanjeliotarrak egikaritzea. Baina Zuzenbideak bezala Soziologiak ere badu hor zer esanik

Azken aldiko historialariak ahalegindu dira azaltzen 1210-1220.eko Anaiarteko bilakaeran nola joan ziren agertzen taldeko jatorriaren pitzadura sozialak (Esser 1976: 186-208; Merlo 2005: 68-82). Esser-ek lau kapitulutan banatu ditu orduko bizierak ekarritako egonezinen kausanteak: 1) Komentu bizitzarik eza ("leku" aldakorretan bizi zirela esan dugu arestian), 2) Odedientziatik at, ibiltaribizitza librea, 3) Beste zenbait arazo txikiago eta 4) Heretikoen arriskua.

Bizilekuei buruz gorago zerbait esan da, baita berehalako fraideen "bizilekuei" buruz ere: halako haiek ez ziren finkeak, ez ziren anaiei jaketakoak; inor denbora baterako eskatuak ziren, edo han-hemengo leku galduetan aurkituak, adibidez inguruko nekazariaren batek edo beretzat har zitzakeenak, Rivo

⁴⁸ Bibliografia handietara pasatu gabe, utopiei buruz zenbait albiste labur izateko, begira adibidez: http://www.mercaba.org/FICHAS/gratisdate/ev_utopia_1_no_cristianas.htm eta http://www.mercaba.org/FICHAS/gratisdate/ev_utopia_2_cristianas.htm. Utopien azalpena: <http://arbor.revistas.csic.es/index.php/arbor/article/view-File/990/997>.



Donostia: San Frantzisko, J. Aranoa-ren arabera (1931). Frantziskotarren komentuko erretaulan. (Argazkia: I. Unzurrunzaga, 2002)

Torton gertatu zitzaien bezala. Gaurko hizkeraz, bizileku denak posta-helbiderik gabeak zirela esan beharko genuke. Jakin ere, ez zen erraza jakiten non zegoen bakoitza edo fraide-bikote predikari ibiltaria. Frantziskok esanda zeukan ez zuela nahi “anaien etxerik” edo “Frantziskoren gelarik”.

Ezjabetasunaren hori oso argi zuen Frantziskok, Bolognako “anaien etxearen” kariatara bere hase-rearekin erakutsi zuen bezala; hala ere, badirudi irizpide hori halako keinu bortitzik gabe ñabardura malguagoz eramaten ikasi zuela geroago.

Eta behin-behinean bizi ziren herri eta herrixketan anaiek ez zuten beren eliztarrik, ez baitziren Bikario edo Parroko, ermita eta elizatxo hondatuetako igertsero konpontzaile baizik, bertara ototzera biltzen zirenak. Lanak ere bazuen zer ikusirik bizitza nomada horrekin.

Lehenengo anaiak jaiotzez asistarrak ziren, hiritarrak; baina, biziera berrira egokitzeke, nahiago zituzten hiritik kanpoko auzoak, artisau-tailerrik gabe, denda eta etxebizitza jakinik gabe zebiltzala. Unean unean beren kontura aukeratutako lekua izan ohi zuten bideko eta behin-behineko bizileku.

Aita Santuari Erregela aurkeztu eta Erromatik Asisakoan (1209), ibilaldia nola egin zuten ikusi besterik ez dago, taldeko gogoeta egin, jatena bildu eta lotarako lekua moldatzen zutela, dena batera. Gorago jaso dugun pasarte adierazgarrian irakurri dugun bezala: “Orte hiritik gertu dagoen toki batera iritsi ziren, eta hamabosten bat egun egin zuten han. [...]. Toki bazterra eta bakartia zen hura, eta ez zen inor edo ia inor igarotzen handik” (1 Zel 34).

Horrek guztiak zerikusi gutxi zeukan monasterioetako monjeen bizimoduarekin; baina balioko ote zuen horrek inork aurreikusteke etortzen hasitako gazte- eta helduen samaldarentzat. Galdera hori bera egin zuen Jakobo Vitry-koak 1220ko udaberrian:

*[Aitortu beharrean nago: nire iritzian, Ordena hau oso arriskutsua da, munduan zehar ez baititu erlijioso ondo heziak bakarrik binaka bidaltzen, baizik gazteak eta gutxi hezitakoak ere bai, epe batez probatuak izan eta komentuko diziplinapean egon behar luketenak]*⁴⁹ (Vitry: Bigarren gutuna).

⁴⁹ Kortxete arteko pasarte hau ez dator eskuizkribu batean eta horregatik Golubovich eta Lemmensek interpolaziotzat jo zuten; Böhmer eta Huygensek, ordea, jatorrizkotzat daukate. Hauen iritzian, kopia-tzaile frantziskotarren batek kendu zuen eskuizkribu horretatik, Ordenari mesederik egiten ez ziolakoan.

Baina perfekzio Ordena hau eta mundua bezain zabala den klaustroa ez dira, dirudienez, egokiak gaixo eta imperfektuentzat; izan ere, gerta liteke, honelakoak ontzietan sartu itsasoan eta ur handietan ogibidea izanez gero, ekaitzak olatupean harrapatzea, aurretik hirian, Jainkoak bere indarrez jantzi arte prestatu ez badira behintzat (Vitry: Ekialdeko historia).

Ikusitakoaren eta eskarmentu gaitzen ondorioz, Vitry-ren iritzi horiekin bat etorri ziren anaien eta eliz agintarien hainbat uste eta erabaki, Italian eta beste lurraldetan (Alemanian, 1217; Frantzian, 1219; Ingalaterran, 1224). Frantziskok egoera ezagutu ez ezik erremedioa ere jarri nahi izan zion egoerari, urak uholde bihurtu aurretik, ongi ohartuta baitzegoen gertatzen ari zenaz:

“Beraz, Erromara joango naiz eta Erromatar Eliza santuaren ardurapean jarriko ditut [anaiak]. [...] Hauxe izan zen santuaren asmo bakarra, Elizari babes-eskabidea egitean; horretan nabaritzen da Jainkoaren gizonak argi aurreikusi zuela beharrezkoa zela etorkizunerako Ordena Elizaren babespean jartzea (2 Zel 24).

1220 ingurutik aitzina Egoitza Santuak arreta zuzenekoagoa jarri zuen Anaia Txikien arazoak birbideratzen, eta Honorio III.ak fraidegai gazteen gutxieneko hezkuntza segurtatu nahi izan zuen, profesa egin aurretik urtebeteko nobizio-aldia ezarrita eta profesa ondoren Anaiartearen uzteko debekuarekin (*Cum secundum consilium*, 1220)⁵⁰. Hala ere, lehenengo batean fraidegai gazteak ez zituzten jarri bizitzen etxe berezietan, eta, adibidez, Ingalaterrarako lehenengo taldean nobizioak ere ageri zaizkigu (1224).

Agiri horren arabera, profesak zin-egileari erantzukizun moralak eta juridikoak ezartzen zizkion,

⁵⁰ Faksimila eta itzulpenak: <http://80.17.46.29/sanfrancescoassisi/SFrancisTWI/FFTWI3Doc2.htm>. Ik. Merlo 2005: 46.

obedientziaren esanetara bete behar zirenak. Erregela buldatuak lehen lerroetatik hasita klarki esanda utziko zuen hori, ikusita daukagunaren arabera: "Anaia txikien Erregela eta bizimodua hau xe da: Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelio santua betetzea, obedientzia, berenik gabe eta kastitatean biziz" (2 Er 1). Handik aurrera "leku" edo etxe bakoitzak izango zuen Nagusiaren aginduetara egongo zen esanekotasuna; baina derrigor ibiltaritasuna moztu gabe.

Hain zuzen, obedientziatik kanpo izandako ibilera libreak dira bigarren ezingona sortu zutenak. Horrelakoak beste gabe norberaren kabuz egin zitezkeen beharbada, anaiekin kontatu gabe eta anaietako inork deus jakin gabe nahiz "ministroari" berri eman gabe, noraez herratuan, zeregin eta bizimodu zabarrean, agian baita pobreen "mundu-tartasun" hutsean ere.

Txirotasunaren arloan gero eta agerianago zeuden arriskuak, eta berauei aurre egiteko kontuz zaindu zen ondasunak zein izaera edo egoera juridikotan onartzen ziren esanda uztea. Badaude horren adibide politak, batzuek Frantziskoren bizialdikoak eta besteak gerokoak, baina aurreko usadioak ispilatzen dituztenak:

La Verna: "Azkenean Orlando [Chiusi-ko] jaunak esan zion San Frantziskori: «Nik badut Toscanan mendi bat otoitzerako oso aproposa, La Verna mendia deritzana. Oso bakartia da [...]. Gogoko bazenu, gustura emango nizueke [...]»" (*Loretxoak*, 1. Gogoeta)⁵¹.

Portziunkula: "Nahiz eta abadeak eta monjeek dohainik utzi zieten eliza Frantzisko eta anaiei, inolako ordainsaririk edo errentarik gabe [...], urtero saskitxoak bete alixa izeneko arrain txikia bidaltzen

zien monjeei, apaltasun eta pobretasunaren seinaleztat, honela anaiek berena zen tokirik izan ez zezaten" (PerLe 56).

Oxford: 1228an, ongile batek "hiriko udalari uzten dio etxea eta bertan dituenak, eta dena anaia txikientzat betirako *ostatu* izan dadin".

Lincoln-en zera esaten da: "izan bedi anaientzat bertako eraikina bertan bizitzeko gogoia duten bitartean".

Saint Denis-ekoa eskuratzean are argiago ziotsan anaia probintzialak etxetxo utzi zion Abadeari: "Jainkoari eskerrak ostatzuz hartu gaituzue zuen artean, eta ez dugu inolako eskubiderik eskatzen; aitzitik, nahiko duzuen moduan eta unean irtengo gara bertatik, aurre egin gabe".

Arles-en (Okzitania) baldintza jakina izan zuten lekua hartzeko: "anaiek Erregela gordetzen ez baidute, batez ere bestelako ondasun eta jabetzakoak hartzean" bertan bizitzeko eskubidea galduko dute.

Esan dezagun ondasunen eskuratze-modu ezberdin horiek (Frantziskok ere bere garaian onartu zituenak) bi xede garbi zituztela: alde batetik, anaiei bizileku egonkorak eman eta obedientziaren esanetara ibiltaritasunari mugak ezartzea, eta bestetik, erabateko pobretasun juridikoa bere hartan mantentzea, premiazko era juridiko-praktikoak asmatzen zirela (Esser 1976: 223).

Lanbideak berak ere sustatzen zuen taldearen bilakaera: predikuak nahiz bestelako lanek sakabarnatzen zituztetenak otoitzak biltzen zituen, elkarrekin senidetasunean bizi eta kontenplazio isilean egoteko. Ikusita dauzkagu jada horrelako bizileku gero eta egonkorragoak, hala denek ere baldintza jakin batekin, jabetasun-segurtasunik gabeak izan behar zuten:

Edonon daudela ere, eremitorioetan nahiz beste bizilekuetan, gorde bitez anaiak inongo lekuri berentzat hartzetik edo lekuok inorengandik defendatetik. Eta beraiegana datorren

⁵¹ Esser-en arabera, La Vernako hau aparteko kasu berezia da: "El documento expresa la libre donación con los términos que más hacen al caso. Nada de arrendamientos o de prestaciones de otro género. Se trata de un verdadero traspaso de propiedad" (Esser 1976: 221).



Sorkarien Kantikatik: "Goretsia zu, ene Jauna, arreba urarengatik: txit ongarri da, apal, bitxi eta garbi"

oro, adiskide nahiz etsai, lapur nahiz gaizkile, gozoro har bezate. Eta anaiak edonon eta edozein bizilekutan elkarrekin aurkitzen direlarik, berriro elkar ikustean, espiritualki eta maitekiro har bezate elkar, eta marmarrik gabe ohoratu (1 Zel 7, 13-15).

Alemaniaiko albisteak batez ere Jordan Giano-koari zor dizkiogu (1217...)⁵², eta Ingalaterrakoak Th. Eccleston-en kronikari esker heldu zaizkigu (1224...)⁵³, biak ere balio historiko handikoak dira.

Berorietan irakur dezakegunez, batzuetan tokiko Elizbarrutiak edo Abadiaren batek laga zezakeen ermita edo elizaren bat; bestetan, udalak ziren lursaila eta eraikina eskaintzen zituztenak, edo ongile pribatuak eta anaiei miresleak.

Langai pobrez egindako eraikinak nahi ziren, eta inoiz onegiak zirelako eraitsi ere egin zituzten, ondoren lastoz berreraikitzeke. Gauzek aurrera egin zutenean, gertatu zen, gainera, kokaguneak tokiko premia eta eskeei erantzuteke, logelak, eliza, zimitoria eta lan-bulegoekin eratzea.

Dena den, 1222-1224. urteetan ofizialki onartzen

⁵² Gianoko Jordan, 1262, *Kronika*. Arantzazu: EFA. (Frantz- Itz. Taldea 2005: 1115-1143. Gaztelaniazko itzulpena: *Selecciones de Franciscanismo*. 25-26, 1980, 230-268.

⁵³ Thomas de Eccleston, *De adventu fratrum minorum in Angliam*. Gaztelaniazko itzulpena, in: Eccleston, Th., 1981, *Cronistas franciscanos primitivos y otros documentos franciscanos del siglo XIII*. Santiago de

Chile: CEFEPAL. 73-68. Kronika honen balioaz: <http://cdsa.aacademica.org/000-008/986.pdf>.



Fontekolonboko kalostra

zaie frantziskotarrei “izan ditzakezuen elizetan” interdikturik denean ere elizkizunak egitea (1222) eta zerbait geroago aipatuta daude Fraide Txikien herritarrentzako “leku eta otoizlekuak” (1224). Ziurki, San Frantzisko ere egoera finkatuago honetara moldatu egin zen, Erregelan ikus dezakegunez (Esser 1976: 234).

Aurpegi berria du, hortaz, bizierak eta ibiltaritasunak, anaiantzat eta herritarrentzat, aurrera egin ahala jendearekiko harreman eta zerbitzuak bizileku finkoetatik eramango baitira, fraideak modu egonkorrean herritarrekin direla.

Aipatutako ezinegon eta konponbideekin batera,

egon zen bizitzaren gordintasunak argitan jarritako bestelako behaztopa eta ondoriorik; anaien bertuterik onenak ere batzuetan ez zuen ekarri atarramendu onik.

Anaiartearen barruan, adibidez, erabateko pobretasunak ondorio praktiko jasangaitzak izan zituen; lanaren eta limosna-eskearen arteko osagarritasun desorekatuak alferkeriara eraman zituen anaia batzuk; lehen orduko arau eta legeen garapen eskasak noraezean laga zituen zenbait; Frantziskoren gehiegizko gidari-erdigunetasunak anaiarteko gidaritzahuldu egin zuen; fraidearte handiagoak harreman hotzagoak ekarri zituen. Eta alderantziz, Anaiarteari kanpotik zetozkion ezinak ez ziren ahaztekoak: fraide arloteen aurrean herritarrengan sortutako susmo txarrak, eliz hierarkiaren erreparoa, elizgizonen eta aurkarien kritika eta ezinikusiak.

Esateko, txirotasun frantziskotarrak, lanik edo limosnarik ezean, zorraz egitera eraman zezakeen anaia, eta hau gertatu zen Ingalaterrako lehen urteetan, Ministro Probintziala gogaitu eta haserretzeraino eta sermoiren bat anaiek zituzten zorren aurka egiteraino⁵⁴. Limosna-eskea bera ere arazo bihurtu ohi zen, batzutan herritarrentzat zama ezin eramana gertatzen zelako.

Herrialde arrotzetan hain pobre ibiltzeak estuasunak areagotu ohi zituen, hizkuntza ezagutzen ez zelako eta anaiak bere nortasun-agiri garbirik ez zuelako, jazkeraz arlote eta “zalduntasunik” gabe. Kapitulu Jeneraletara etorritako anaien txirotasun-apaltasunek ere batzuetan ez zuten errazten elkarren ezagutza.

Gogoratzekoa da, 1217an atzerrian jasandako eskarmentuaren ondoren, Hugolinok nola babestu behar izan zituen anaia txikiak, 1219ko Kapituluak misiolari Frantziara bidali nahi izan zituenean.

⁵⁴ Eccleston, T., 1858, *De Adventu Fratrum Minorum in Angliam*. Beste zenbait iturriekin, in: <https://archive.org/stream/monumentafrancisc01thom#page/8/mode/2up,8.or>.

Honorio III.aren aurkezpen- eta babes-agiria lortu zuen hark, bide-babesgarri ez ezik fraideen ortodoxiaren ziurtagiri gertatu zena (Honorio III.aren, *Cum dilecti filii*. Rieti, 1919ko ekainaren 11an). Hain zuzen, haxe da Aita Santuek Frantzisko eta lagunak izendaera propioz aipatzen dituen lehenengo agiri ofiziala: “frater Franciscus et socii de vita et religione minorum fratrum”. Aita Santuaren agiria bide-salbagarri izan zen, bada. Are gogorragoa zena: errezelo, susmo eta ezagupide faltak ez ziren anaientzat bidelagun onak, ez gizartean, ezta fraideartean bertan ere.

Antonio Lisboakoak (San Antoniok: 1191-1231), Portugaletik Italiara etorrita, ez zuen aise lortu Anaiartean hartuko zuen tokiko Ministrorik: Antonio anaia ez zuen ezagutzen inork, Probintzian harrezaketen Ministroek ez zuten nobizio berriaren balioen notiziarik; halako batean, inoraezean zebilera, Ministroetako bati galdetu eta erreguka galdetu behar izan zion bere Anaiartean lekurik egin ziezaiokeen⁵⁵.

Baina, hori dena gorabehera, Anaiartea bere osoan gorputz sendoa eta azkarra ari zen gertatzen, Eliza erromatarrek eta herrialdeetako gotzain anitzek babesa ematen ziotela, herritarren bihotzak irabazi eta kristautasun jatorrago baten itxaropena zekarrela, anaiak beren bizimoduan eredugarri gertatzen ari zirela.

Hobetu beharrekorik ez zen falta: horren kontzientzia eta ardura ernea zuen Frantziskok; argi zegoen hamarkada batean ezarrita geratu zirela Ordena berri eta bulartsu baten zimentarri sozialak (1209-1220), ondoko garapen juridikoetarako prest. Anaia Txikien lagunartea ez zebilen bidegalduta, XIII, mendeko mundu hartan.

⁵⁵ San Antonioren lehen biografia klasikoa *Legenda assidua* deiturikoa da (c. 1232), eta portugesez itzulita dago: “Fontes Antonianas”. Ik. <http://www.franciscanos.org/sanantonio/sanz.htm>.

5.2.3. Heretiko eta anaia desbideratuak

Bizilekuak finkatuta erantzun zitzaion ibiltaritasun arazoari; aldi berean, lana eta biziera anaia ministroen esanetara jarrita segurtatu zen bizimoduaren jatortasuna; baina hirugarren arazo bat zegoen Frantziskoren garaiko kristau gizartean, nola-halako dotrina ez hain katolikoena. Halakorik zuten batzuek lortu zuten Gotzain eta Aita Santuen onespina (ikusitu dugu gorago); baina bestelakorik ere egon zen Italian eta Mendebaldean, zinez heretikoena (edo historikoki horrela deitu izan zaienena).

Frantzisko oso ohartuta zegoen zein arriskutan zebilen Anaiarte jaio berria, doktrina-jatortasunaren eztabaida Mendebaldeko lurraldeetan orduantxe bizi zelako larrienik. Eta arazo hori ez zen bakarrik “dotrina” edo pulpituetakoa, baizik eta orokorrean beren egunerokoan kristautasun jatorragoaren bila zebiltzan bataiatuena ere bazen.

Giro horrek aurrera egin ahala, norberak bere bakarrean bizi zuen eliz artegatasuna sarritan taldetan eratzen zen. Sinesgaiek eta sinestunek aurpegi sozial eta politikoa irabazten zuten, Eliz Institutioari berari bazuen ala ez zuen zilegitasunaz galdegiten ziotela⁵⁶.

Frantziskok beharbada hori oso goizik ikusita zuen, inguruetako albisteek iradoki dezaketenaren arabera, izan ere Asisek jada kataro bat aukeratuta zuen *Podestà* gisa 1203an eta bertantxe zegoen kataroen diozesia, “Ecclesia de Valle Spolemana”⁵⁷.

⁵⁶ Iserloh, E., 1980, “Carisma e institucionalidad en la vida de la Iglesia. Ejemplificados en san Francisco de Asís y el movimiento de pobreza de su tiempo”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 25-26, 1980, 20-34. <http://www.franciscanos.org/historia/IserlohE-CarismaElInstitucionalidad.htm>. Powell, J.M., “El Papado y los primeros franciscanos”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 23, 1979, 265-276. <http://www.franciscanos.org/iglesia/powell.html>. Unanue, J., 1980, “San Francisco de Asís y la Orden franciscana en sus relaciones con la Iglesia”, in: *Selecciones de franciscanismo*. 25-26, 1980m 173-182. <http://www.franciscanos.org/iglesia/unanue.html>.

⁵⁷ Esser, K., 1976 [1958], “Francisco de Asís y los cátaros de su tiempo”,

Bestalde, anaien “biziera ebanjeliotarrak” heretiko askoren antza ere bazuelako, lehen anaiak inguratu zitzaizkion bezain pronto Erromara joatea erabaki zuen, Aita Santuaren aitzinean bere “propositum vitae” idatzi berria eta anaia taldetxoa aurkeztu eta harekin bertatik bertara mintzatzeko asmoarekin:

Frantzisko dohatsuak ikusten zuen Jauna anaien kopurua eta merezimenduak gehitzen ari zela (hamabi lagun baitziren, guztiz onak eta asmo berbera zutenak). Orduan berak, hamaigarrenak, taldearen gidari eta aita zenak, honela esan zien beste hamaiki: «Anaiok, Jaunak bere onginahian gure elkarte hau gehitu egin nahi duela ikusten dut. Goazen, beraz, Erromako gure eliza ama santuarengana eta jakinaraz diezaiozun Aita santuari Jauna gure alde egiten hasi dena, haren borondatez eta aginduz aurrera eraman dezagun hasi duguna» (HLaLe 46).

San Frantziskoren biografiaz jardun duten ikerlariak (protestante eta katolikoek) behin eta berriz argitu nahi izan dute Frantziskoren eta Egoitza Santuaren arteko harremanak nolakoak eta nondik norakoak izan ziren. Aztergaia bizirik egon zen luzaroan 1893tik P. Sabatier-ek Frantziskoren proiektua Protestantismoaren aurrekari ebanjeliotar bezala azaldu zuenetik. Ez naiz sartuko hemen eztabaida horren historia egiten.

Gerora, heretikoen arazo hau maiz agertu izan da idatzi diren biografia orokorretan bezala berezi-kiago eztabaidagai honi heldu diotenetan, eta Erdi Aro hartako mugimendu heretikoen historia egitean frantziskotarrena ere begiratu behar izan denean, Frantzisko baita orduko pobretasun ebanjeliotarretan heretiko askoren ondoan bizieraz eta erakundez eredu katoliko indartsuena.

Iturri eta biografietan ez da ageri Frantziskok heresiaren aurka hartutako inolako ekinbideren lekukotasunik⁵⁸. Frantzisko kristau burubide ebajeliotarraren predikaria zen, eta heretiko edo desbideratuen aurrean, etsenpluaren adierazgarritasuna erabili nahi izan zuen, baina ez dirudi heretikoekin sinesgaien zuzeneko eztabaidara heldu zenik.

Frantziskoren idazkietan ez dira agertzen sekula *haereticus* edo *haeresis* hitzak, eta inoiz edo beste *non catholicus* erabiltzen du⁵⁹, fraide anaia burubidez desbideraturen bat aipatu behar duenean: “barau egin behar dugu, eta bizio eta bekatuak eta gehiegizko jan-edanak utzi, eta *katolikoak* izan” (2 FedG 32). Ikusten da terminoa aski lausoa dela, eta Anaiartearen baitara begira erabilia:

*Eta nik ere hitz ematen dut [Erregelako eta otoitz-ofizioko] gauza hauek tinko beteko ditudala, Jainkoak horretarako grazia emanik; eta nirekin diren anaiak ere mandatua emango diet, ofizioari eta Erregelako beste xedapenei dagozkien hauek bete ditzaten. Gauza hauek bete nahi ez lituzketen anaiak, berriz, ez ditut hartzen **katolikotzat**, ez ene anaiatzat; ez ditut ikusi ere egin nahi, ezta hitzik egin ere, jarrera aldatzen ez duten bitartean (OrG 43-44).*

Ez da ari hor fedezko sinesgaiekiko fideltasun-arazoaz, Anaiartean gorde behar den biziera arautuaz baizik. Egitasmo ebanjeliotarra Anaiarteak eta anaia bakoitzak segurtatu behar dute asmoaren jatoritasuna, eta senidetasun horretan zaindu behar da hori. Anaiarteko “katolikotasun” horren alde ari da Frantzisko.

in: *Selecciones de Franciscanismo*. 13-14, 1976, 145-172: <http://www.franciscanos.org/historia/EsseK-FcoDeAsisYLosCataros.htm>. Kataroen «Ecclesia de Valle Spoletana» eraturik zegoen Asisko eskualdean ere.

⁵⁸ Lehmann, L., 1997, “Francisco, hombre ecuménico”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 78, 1997, 409-421. <http://www.franciscanos.org/historia/Lehman-FcpHombreEcumenico.htm>.

⁵⁹ Manselli 1997: 250: “En todo caso se impone una constatación: la ausencia de referencias específicas y directas a cualquier tipo de herejes, a creencias y hechos heréticos, en los escritos de Francisco de Asís”.



Asis betikoa: eraikinak bai, baina izadi biziaren altzoan, bere eliz dorre, jauregi eta etxebizitzekin

Anaia Txikien arauetatik urrundutako halakoei ezar zekizkiekeen zentza-bideak berak nola erabilliko zituzkeen esanda utzi zigun Frantziskok:

Eta [Anaiarteko nagusitza utzita, 1220an] esan zuen: «Nire ofizioa, anaien gaineko kargua alegia, espirituari dagokio, hau da, bizioak menderatzeari eta zuzentzeari. Baina ezin badut eginkizun hori predikuz eta etsenpluz bete, ez dut haiek jotzeko eta zigortzeko borrero bihurtu nahi, mundu honetako agintarien modura. [...].

«Hala eta guztiz ere, nire heriotzako eguna arte ez dut etsiko, etsenpluaren eta egite onen bidez, anaiei Jaunak erakutsi zidan bidetik ibiltzen irakasten; nik erakutsi eta irakatsi diet bide hori, Jaunaren aurrean aitzakiarik izan ez

dezaten, eta nik ere Jainkoaren aurrean haien eta neure buruaren kontu eman beharrik izan ez dezadan» (PerLe 106).

Hortaz, eliz agintearen eskumenean ikusten zituen zigor-legea eta berorren betearazpena, eta ez zuen uste anaiei edo fraide Anaiarteari zigorrak ezartzea zegokienik. Testamentuko 10. pasartean deskribatu zuen zentzatze-prozedurak eta behar izanik ondoko gaztiguak ere nolakoak izan behar zuten (Esser 1981:218-225).

Erljioen mugetatik haragoko bakezko senidetasuna da Frantziskogan nagusi: maite ditu fraide bekatariak eta kristau desbideratuak, heretikoak eta musulmanak; guztiei duen onena eskaintzen die, bakea eta etsenplua.

5.3. Anaiak gizartera itzuli zirenekoa

Esandako hamarkadan, Anaiarte hazi ez ezik zabaldu ere egin zen, Italian noski, baina laster baita Europan eta Ekialdean ere. Bizileku eta komentuak eskualde-barrutietan lekutuko dira, barruti politikoak gogoan izanda (Erreinuak, dukerriak eta abar), eta hala komeni zenean etnia eta hizkuntzak ere aintzakotzat hartuta. Lehenengo ordu haietan, Italia, Frantzia, Alemania eta Ingalaterrako bilakaera geografikoa da hobekien ezagutzen duguna, aipatuta ditugun Thomas Eccleston (a. †1258) eta Jordano Gianoren (1262) luma onei esker.

Fraide-taldeak gora egin, herrialde ezberdinetara joan eta bertan jaiotakoei Anaiartean leku ematean, ezinbestekoa izan zen Ordenako barrutiak eratuz joatea, tokian tokiko geografia instituzionala eraikitzen zela. Italia da, noski, lehenengo hedapen-lurraldea, Unbriako Asistik hasi eta Lonbardia, Toscana, Puglia eta Siziliaraino (1210...).

Baina laster erbesteek ere beren erakarmena dute, ez bakarrik halako edo bestelako anaiaren batentzat, baizik eta Anaiarte osoarentzat, Ebanjelioa nonahirako baitzen eta nonahi aldarrikatu beharrekoa. Kasu honetan, egitekoa Santiago edo Jerusalemeko erromes joatetik haragoko arazoa da. Horregatik, anaiek egindako Kapitulu edo Biltzar Jeneralek hartu zituzten Erbeste-Misioetarako erabakiak, 1217 eta 1219ko Biltzarretan.

Jada 1217an Probintzia erlijiosoen barrutiak izendatu ziren, sei Italian eta lau gainerako Europan. Euskal Herriarekin gerora zerikusirik

izango zuten Penintsula Iberiarreko "Hispania" eta Hexagonoko ipar "Frantzia" eta "Probentza" gogorazi behar dira hemen⁶⁰.

1219ko Kapitulutik aurrera Frantziskoren bizialdian egonkortu zen egoera hori, baina 1230ean "Hispania" hirutan banatu zen (Santiago/Portugal, Gaztela eta Aragoi), Hego Euskal Herria horien artean erdibitzen zela (Hiru Probintziak Gaztelako Probintzian, eta Nafarroa Aragoirekin). Erdi Aro osoan balio izan zuen "gure" bitasun honek, Aro Modernoko birbanaketak etorri ziren arte (1567, 1602).

Hurrengo urratsean, aurreko "Probentza" hura (1217) hainbat Probintzian banatu zen, barruti berri horietako bat dugu "Akitania"; berau da Euskal Iparraldea parte on batez bere barrutian besarkatu zuena, modu batean edo bestean luzaroan, gainera⁶¹. Bien bitartean, 1512ko konkista gaztelaua arte, Erdi Aroko Nafarroa Behereak bestelako historia ere izan zuen, Nafarroa Garaitik eraman nahi izan baitzen Eskeko Ordenen Portuz Haraindiko politika, eta ez Akitaniatik.

Ikusi besterik ez dago, Tibalt II.a Errege nafarrak Donibane Garaziko komentu-asmoa nola lagundu nahi izan zuen Erret Ogasunetik, diru-laguntzaz, baina baita baldintza politiko batzuk jarrita ere

⁶⁰ Garaiko Europako banaketa geopolitikoa ezagutzeko, herrialdez herrialde: Duby, G. (ed.), 1988, *Atlas historique. L'Histoire du Monde*. Paris: Larousse. 110 (Penintsula Iberiarra), 116 (Hexagonoa), 141 (Ingalaterra eta Hexagonoa), 146-147 (Italia). Hexagonoko eliz Probintziak: Varii, 1985, *Atlas historique de la France*. Paris: Plon. 80. Penintsula Iberiarreko "Reconquista" delakoaz: Mestre Campí, J.; Sabaté, F., *Atlas de la "Reconquista"*. Barcelona: Ediciones Península. 41-42. Euskal Herriarekin zerikusia duen Ingalaterra/Hexagonoen artekoaz: Falkuz, M.: Gillingham (ed.), J., 1987, *Historical Atlas of Britain*. London: Kingfisher Books. 66-69 eta 78-79. Inozentzio III.a eta Italia: Hanne, O., 2012, *Innocent III. La stupeur du monde*. Paris: Belin. XV. mapa.

⁶¹ Ik. Iriarte 1979: 119-123. Holzapfel 1909: 142. Akitania frantziskotararen historia idatzita dago (1900-1910), nahiz eta premiazkoa den data horietatik hona sortutako emaitza historiografikoak bilduta, dena berritzea: Othon de Pavie, 1900-1910, *L'Aquitaine Séraphique*. Auch: Imprim. et Litho-typogr. Foix. ID., 1910, *Cinquantenaire de la Province St-Louis d'Anjousm en Aquitaine (1860-1910)*. Bourges: Typ. V^{ve} Tardy-Pigelet & Fils.

(Testamentua, 1270): “por edificar una casa de lur Orden [frantziskotarrena, alegia] en San Johan del Pie del Puerto quince mil sueldos, si por licencia de la Orden fuere de la Provincia de Navarra, è de Aragón”. Baina ez zen horretara mugatu; aitzitik, komentu frantziskotarren “nafartasuna” indartuz joateko, Erreinu-mugetatik haragoko eskualdeetan zeuden hautatu batzuk aipatzen dizkigu ondoren hilburuko horretan: Gasteiz, Guardia, Logroño, Aragoiko moja damiandarrak.

Pirinioetako mugaldea gorabehera, Ipar eta Hego Euskal Herri frantziskotarrak (fraideenarekin ari naiz) ez dira izan inoiz barruti berekoak, nahiz eta zalantzazko egoeraren bat aparte, Ipar-Hegoen arteko harreman estuak ere egon diren. Baina itzul gaitezen Anaiarteko barrutien historia orokorrera.

1217an Italiatik Erbesterako misiolariak ustekabeko eragozpenak aurkitu zituzten beren ibileran, ezagozpen larriak ere bai, eta lehen ekinaldi hartan ez zuten izan modurik anaientzat erbesteko barruti-egiturak finkatzen. Eskarmentu eta autokritikak argituta, 1219ko Kapitulu Jenerala gertatu zen zeregin honetan lehen arrakasta izan zuena. Hala ere, Frantziskoren bizialdian edo berehalako batean ez ziren bete 1220. hamarkadan askoren burutan zebiltzan hedapen-ametsak; bere denbora eskatu zuen horrek. 1226an 12 Probintzia zituen Anaiarteak, eta 1274an 34 izango zituen⁶².

Barrutietan hiri bakoitzeko lekuak edo komen-tuak izan zuen bere gorabeherarik, eta ekar daitez-ke hona historia ezagunagoa duten batzuen izenak, adibide gisara: *Alemanian* (1217...): Eisenach, Erfurt, Nordhausen, Magdeburg, Mülhausen. *Frantzian* (1217...): St. Denis, Paris, Valenciennes, Auxerre, Lille. *Ingalaterran* (1224...): Oxford, Londres, Cambridge, Canterbury, Southampton edo Shrewsbury.

⁶² Holzapfel 1909: 142; Esser 1976: 233-244; Iriarte 1979: 121-122; Merlo 2005: 83-97.

Penintsula Iberiarrean: albisteak bildu eta berorien baliagarritasun historikoa egitean gutxienez bi eskola egon dira XX. mendean: maximalista bata, beranduko Kronika erdi-arotarrez eta Aro Moderno-ko ez sobera baliatu dena (A. López, 1915)⁶³, eta guk hemen dugunerako XIII. mendeko artxibo-paperak hartu eta kritika historiko zorrotzez hipotesiak eta baieztapenak ongi bereizten saiatu dena bestea (J. García Oro)⁶⁴.

Horien ondoan A. Uribe-ren lana irakurtzekoa da, euskal Hegoaldeko Hiru Probintzietakoa jasotzen baitu⁶⁵; Omaetxebarria, bere aldetik, saiatu da Penintsulako eta Euskal Herriko Frantziskoren presen-tziaz egon diren aldeko frogak biltzen⁶⁶.

Esan dezadan, oro har Penintsulakoaz ari diren bertako historialariek Frantziskoren bidaia hartako ibilera eta zertzeladen zinezkotasuna baieztatzen dutela, eta bien bitartean, atzerriko egungo historialarietan ia beti gaiak jo eta pasa egiten dela, iruzkin berezirik gabe eta kronologia arruntetan jaso gabe.

Beranduko Kroniken historiak balio biografikoa baino bestelako balioak ditu: Ordenan landutako noiznahiko memoria tradizionala erakusten digute, eta berorren bidez ibilera geografikoa izan omen zena deskribatzen espresukiago⁶⁷. Horren azalpen

⁶³ López, A., 1915, *La Provincia de España de los Frailes Menores*. Santiago: Tip. de El Eco Franciscano. Komentuen historiak banan-banan emanda daude, baina kontuz onartu behar dira; komeni da, gainera, historialariak berak sarrerakoan idatzitakoa arretaz irakurtzea (bere zalantzak ditu aginduz egin eta argitara eman omen duen lanaz; baina kroniketan egindako bilaketatik hainbat albiste sakabanatu metatu du, eta historiografia horren aurpegia ezagutzeko balio du).

⁶⁴ García Oro, J., 1987, “El franciscanismo hispano en el Edad Media”, in: *Verdad y Vida*. 45, 1987, 207-249.

⁶⁵ Uribe, A., 1988, “Tradiciones franciscanas en Cantabria”, in: Uribe, A., 1988, *La Provincia Franciscana de Cantabria*. I. *El franciscanismo vasco-cántabro*. Aránzazu: EFA. 45-67.

⁶⁶ Omaetxebarria, I., 2002, *Los franciscanos en Euskal Herria. Retazos de historia. Jatorrikoak - Etxeak - Bidegileak*. Oñati-Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak. (Argitaratzailea: Paulo Agirrebaltzategi). 35-146.

⁶⁷ Bestalde, Kroniken hori ere Historia da, baina apenas Frantziskoren zinezko biografiarako balio diguna, baizik eta beranduko Erdi Aroko



Asís: San Frantzisko Basilika, bi eliza elkarren osagarrirekin

atsegina, gaur egunekoa baina ekarpen berririk gabea, Gálvez-ena da⁶⁸.

Santiago Bidean gaudenez, Euskal Herriko Frantziskoren nondik norakoa izan omen zena esanda geratu zitzaigun Kroniketan, adibidez: Hebreraren Aragoiko *Chronica serafica*-an (Zaragoza, 1705) edo Garay-ren *Compendio chronologico*-n (Iruñea, 1742).

Datu ongi finkatueta itzuliz, esan dezagun zerbait Frantziskoren heriotza ondoren, XIII. mendean, Frantziskoren Anaiarte/Ordenak zenbateko indarra hartu zuen gogorarazteko, Frantziskorengandik zetorren sorrera-olatuaren gainean heldu baitzen hazkundera.

Esan berri dugunari ondoko datuak gehi diezazkiogun hemen: 1282ko datu ezagunek diotenez, Anaia Txikien Ordena ongi zabaldua zegoen munduan, bere 34 Probintzian eta Misioetako 10 Bikario-barrutitan banatuta, 175 Kustodiarekin eta 1.271 komentu zituela (Iriarte 1979: 121-122). Hori dena, asko izanik, gutxi da Familia frantziskotarrak Eliza Katoliko erromatarrean mendeetan zehar izango zuen tamaina antzemateko.

Euskal Herriari dagokionez, eta hemen aintzakotzat hartzen ditudan urteez dihardugula, Frantzisko bizi zela alegia, pentsa daiteke 1220 ingurutik egon zela Nafarroan "leku" frantziskotarren bat (Zangoza ondoko Rocaforte edo/eta Iruñean); badakigu 1219ko Kapituluak Joan Parenti⁶⁹ Penintsulara bidali zuela talde baten Ministro gisa⁷⁰, eta bestalde Iruñean zeudela klaratarrak, beranduenik 1228an.

(Loretxoak eta abar) edo Aro Modernoan iraganari begiratzeko frantziskotar interesatuen artean indarrean egondako mentalitateak ezagutzeko balio lezakeena.

⁶⁸ Gálvez Campos, T., 2009, *Francisco de Asís, paso a paso. Itinerario cronológico, geográfico y espiritual*. Madrid: San Pablo. 240-258.

⁶⁹ Parenti: http://www.treccani.it/enciclopedia/giovanni-parenti_%28Dizionario_Biografico%29/.

⁷⁰ 1370ko *Hogeita lau Jeneralen Kronika*-ko albistea, geroko Kroniketara pasatu zena. N. Muscat-en itzulpen ingelesa: http://i-tau.com/fran-studies/texts/chronica_final.pdf.

Ondoko zenbait hamarkada behar izan ziren Frantziskoren Ordenak Euskal Herrian bere bizilekuak ez ezik komentuak izateko: 1282an datuek diotenez, zazpi ziren fraideen komentuak (Iruñea, c. 1220; Gasteiz, a. 1236; Baiona, 1242; Erriberri, a. 1243; Zangoza, 1250; Lizarra, 1265; Tuter, 1266), eta lau klaratarrenak (Iruñea, 1228; Gasteiz, a. 1247; Tuter, 1261; Lizarra, 1262)⁷¹.

Leku edo komentu horiek herritarren laguntza izan zuten (batez ere lehen uneko "lekuak" zirenean), eta aberats eta agintedunena eraikuntza handietara pasatu nahi izan zenean. Berenguela López de Haro izan zen bere lehen sortzean Gasteizko San Frantzisko geroko komentu monumentalak jasotzen lagundu zuena (1296)⁷²; orobat, Bermeoko komentua (Bizkaian gizonezkoen lehenengoa, 1357) On Tello eta Andere Joana Bizkaiko Jaurerriko Jaun-Andereei zor zaie, Ordena frantziskotarrari omen zioten estimua aditzera ematen dutela⁷³. Sta. Klara bizi zela Gasteizen eraikitako damiandarren monasterioari (klaratarrak, 1247) Alfontso X.ak limosna-eskerako babesa eman zion (1270) eta Gaztelako Enrike II.ak urtero 1.500 marai eta 20 gari-karga emateko agindua (1372). Ondoko mendeetan komentu berriak sortzean, honelako ongileak behin eta berriz agertuko zaizkigu, eta usadio eta legeetan oinarrituko zen herritar arrunten betiko limosna.

⁷¹ Intxausti, J., 2003, "Frantziskotarren Euskal Herriko historia (c. 1220-2000)", in: Intxausti, J. (ed.), 2003, *Euskal Herriko Erlijiosoen Historia*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak. II, 352. Nafarroari buruzko L. Arizetaren lanek zer begira asko dute, nahiz eta zenbaitetan adi ibili behar den. Ik. Arizeta, L., 1982-1993, *Navarra franciscana-observante. Monografías conventuales navarras*. (Neure artxiboan, *Cantabria Franciscana*-tik hautatu eta jasoak).

⁷² Uribe 1988: I, 86-90. Berenguela, Lope Díaz de Haro Bizkaiko Jaunaren alaba zen eta Diego López de Haro III.a Bizkaiko Jaunaren arreba.

⁷³ Testamentuko pasarte batek honela dio: "E por cuanto los señores de Vizcaya hobieron siempre su devoción en la Orden de San Francisco, más apretadamente que en otra Orden [...], con acuerdo e voluntad de los nuestros vasallos de Vizcaya, de la nuestra villa de Bermeo facemos e mandamos facer el dicho monasterio de la dicha Orden de Frailes Menores de San Francisco en la dicha nuestra villa de Bermeo". Uribe 1988: I, 128.

Muduan barrena, Anaiartearen hazkuntza geratu gabe joan zen gora, eta esan izan da XIII. mendearen amaieran 40.000ren bat zirela denak. XVIII. mendeko unerik altuenean edo ditugun fraidekopuruak hauek izango lirateke hiru taldetan banatuta; c. 77.000 obserbante (1768), c. 25.000 komentutar (1773) eta 28.598 kaputxino (1782). Data ezberdin hauetako denak batuko bagenitu, 130.598 fraide frantziskotar izango genituzke (Hirugarren Ordena Erregularra kontuan hartu gabe).

Zailago da moja frantziskotarren albiste estatistikoak beren osoan eskuratzeari; esan dezadan Sta. Klara hiltzean (1253), 80ren bat monasterio damiandarra zeudela (Omaechevarria 1972: 46), eta oro har Bigarren eta Hirugarren Ordenetako moja kontentplariak (klaratar, sorkundetar eta elisabetarrek) historia luze zabala izan dutela, emakumezko beste ehunka Kongregazio frantziskotarrekin batera.

Horren parean, denboran zehar Euskal Herriko frantziskotarrak zenbatu nahi baditugu, zifraren batzuk behintzat eman daitezke: 1585ean, 463 fraide zeuden Euskal Herrian, 20 komentutan, eta XVIII. mendearen azkenetan 944 fraide eta 608 moja genituen gurean⁷⁴.

Frantziskok ez zuen ezagutu munduko tamaina honetako ezer, baina beraren intuizio ebanjelio-tarrari bidea urratuz eta enbarazu egin gabe, begitandu ahal izan zuen etorkizuna, inoiz kontatu ahal izan zuen ikuskari hartan agertu omen zitzaion bezala:

Egun batez, hainbeste mesede egin zion Jaunaren errukia miresten ari zela, bere eta beraren anaien bizibideak izango zuen bilakaera ezagutu nahi izan zuen Jaunagandik, eta otoitz-leku batera joan zen, maiz egiten zuen bezala. [...]. Anaiengana itzuli eta pozez gainezka esan zien: "Izan bihotz, maite-maiteok, eta poztu Jaunarengan; ez egon ilun, gutxi zaretelako, ezta ikaratu ere nire eta zuen sinpletasunagatik, zeren, Jaunak egiaz erakutsi didanez, izugarri ugarituko baikaitu eta lurreko azken muge-taraino zabalduko (1 Zel 26-27).

Hala ere, egia esan, orduan ezer gutxi aurreikus zitekeen gerora etorriko zen hazkuntza, baina itxaropenak edo uste honek akuilaturik itzuli ziren gizartera kontentplari eta ibiltari ageri zaizkigun lehenengo eta bigarren belaunaldiko anaia txikiak, nahiz eta ez zuten lehenengo hartan Anaiartearen etorkizunerako erabat egokituta.

⁷⁴ Iparaldeko datuak 1791koak dira, eta Hegoaldekoak 1797koak, Ik. Intxausti 2003: I, 354.

6. Anaiartetik Ordenara (1209-1223)

Frantziskoren eta Anaiartearen intuizio libretik taldearen erakundeztapen instituzionalera doan ibilbidea da hau, eta gorago aipatu ditugun indarren artean jokatzeko da urte hauetan etorkizuna: lehen orduko Frantziskoren intuizio ebanjelistarraren, haziz doan Anaiarteko lehen anaiei, etorri badatozen anaia berrien eta Hugolino/Kuriaren arteko elkarriketa, tirabira eta erabakien bitartez.

Horrek guztiak zuzeneko zerikusia du Anaiartearen gobernabidearekin, Erregel(ar)en garapenarekin, anaiei artean sortuz doazen harreman-modu berriei. Ikusita dauzkagun gatazkek eta borondate onek beren lekua duten aldakuntzen prozesuan goaz, beraz.

1220ra arte Frantzisko zen, aldi berean, Anaiarteko gidaria eta "nagusia", baina anaiekin elkarrituta irekian gidatu zituen bere "senide" eta lagunak. Urte hartatik 1226a arte, Frantzisko ez da "Nagusi" izango, eta Bikarioek gobernatuko dute Anaiartea, Anai Pietro Cattani-k (1220-1221) eta Anai Elias-ek (1221-1227); baina Frantziskoren eta Bikarioen arteko bitasun horrek nahasmenik ere ekarri zuen Ordenako gobernantzan.

6.1. Anaiartea/Ordena gobernatzen: agintariak

Lehen Anaiartea ez zen bildu botere-sistema bat eraikitzeko; aitzitik, horizontaltasun berdinduenean elkarrekin bizitzeko baizik. Hala ere, Anaiartea hazi eta hedatuz joan zen heinean, guztien berdintasunak ere salbatzeko premiazkoa agertu zen arauak landu eta sortutako senidetasunaren izaera eta aurpegiari eutsiko zion gobernabidea segurtatzea. Laster ikusi zen hori, ez soilik Anaiartea bere baitatik begiratuta, baita berori gizarte eta Elizatik onartua izan zedin ere.

1209an, artean Ordena ez zenean (*religio* juridiko izan gabe, beraz), anaiei arteko botere-piramiderik ez zegoen, eta taldearen kohesio-indarra aukeratu eta onartutako Ebanjelioetako pasarteek eta Frantziskori aitortzen zitzaizkion lehentasun eta maitasunak bermatzen zuten.

Alabaina, denboraren harian, 1210eko hamarkadan zehar, ordea, Frantziskorekiko leialtasun pertsonala beste gisa batean biziko da, fraide bakoitza eta Frantzisko ez baitaude, gehienetan, fisikoki elkarren ondoan, eta anaiek ezinbestean mundu zabalean erabaki beharko baitituzte



Asis: Aingeruen Santa Maria. Ataurreko margo-lanak



tokian tokiko eta unean uneko jokabide zehatzagoak. Dena den, Frantziskok berehalaxe ikusi ahal izan zuen elkar ezagutu eta elkarrekin denek batera hitz egin beharra. Aldikotasun aldagarriekin (urtean bitan, urtero...), baina toki jakin batean, Portziunkulan, bilerak egiten hasi ziren, Frantzisko buru zutela. Zailagoa izan zen hori, “denak” milaka izan zirenean, eta hainbat herrialdetan sakabanatu eta lekutuak, gainera.

Anaiartearen izaera berri hark tokian *tokikotasun unibertsala* eskatu zuen, hau da, norberaren eskualdera moldatua bai, eta, aldi berean, guztien sendetasun finkatua ispilatu ez ezik berori bizitzen lagunduko zuena. Anaiarte haziagoak eta geografia hedatuak beharrezkoak izan zituzten guztientzako “zerbitzariak”, agintez hornituak, eta agintebarrutiak. Txitean-pitean, arrazoi juridikoengatik ere bai, agintezko gobernu-sistema sortzen joan zen Frantziskoren jarraitzaile aske zirenentzat¹.

Lehen unean (1209), Erromako Aita Santuarenean bizi izandako gertaerak Frantziskoren lagunek berek deskribatu zituzten berrogei urte geroago, ongi jakinik geroko oinarriak jartzeko balio izan zuela ordukoak:

[Aita Santuagandik] *baimen hauek lortu ondoren, Frantzisko dohatsuak eskerrak eman zizkion Jainkoari eta, belaunikaturik, apal eta debozioz obedientzia eta begirunea hitzeman zion Aita santuari. Beste anaiek, berriz, Aita santuak agindu bezala, Frantzisko dohatsuari hitzeman zioten obedientzia eta begirunea. Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren, Apostoluen hilobiak bisitatu zituzten, eta, aipaturiko kardinalaren bitartekotzari esker, tontsura egin zieten Frantzisko dohatsuari eta beste hamaika anaiei, hamabiak kleriko izatea nahi baitzuen (HLaLe 52).*

1209ko Erregela edo “propositum vitae” hark, geroago ikusiko dugun bezala, bere osaketa-bidea izan zuen 1221a arte, eta urte honetako eta 1223ko Erregelek Frantziskoren eskumenean utziko zuten anaiek berorri zor omen zioten obedientzia: hitzez hitz, “Anaia guztiak behartuak beude anai Frantziskori eta honen ondorengoei obeditzera”.

Hau guztia bere bidetik zihoala, paradoxa handia da nola hiru urte lehenago (1220) Frantziskok Anaiartearen gobernuari uko egin zion. Izango dugu horretaz zerbait esateko aukerarik orrialde hauetan, eta gatozen orain Anaiarteko agintemailaketa nola egin zen begiratzera.

1223ko Erregela buldatuari itxaron gabe, Frantziskoren Anaiartean agintaritza eta obedientzia, biak, joan ziren moldatzen 1210-1223.etan zehar: laburra izanik ere, tradizio leial eta beroa izan zen hura. Azken buruan, horri esker eta Anaiarteko eta Kuriako ahaleginen ildotik agintearen ardatza finkaturik geratu zen:

Anaia txikien Erregela eta bizimodua hauxe da: Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelio santua betetzea, obedientzian, berenik gabe eta kastitatean biziz. Anai Frantziskok obedientzia eta begirunea hitzematzen dizkie Honorio Aita santu jaunari eta kanonikoki hautaturiko haren ondorengoei eta Erromako Elizari. Eta gainerako anaiek behartuak beude anai Frantziskori eta haren ondorengoei obeditzera (2 Er 1, 1-2. Ik. 1 Er 2-4).

Eta nola antolatu zen Frantziskoren esanetara egongo ziren agintarien piramidea? Agintearen ulerpenera bera dago ispilatuta anaiek nahiago izan zuten aginte-espíritu frantziskotarrean.

Fraideen gain agintea edo boterea izango dutenak terminologia frantziskotarrean “Ministro” (*minister*) izango dira: *zerbitzari*. Gogora lehenagotik zetozen Ordenetan “Abadeak” eta “Prioreak” zeudela, eta garai haietan sortutako domingotarren Ordenako Nagusi gorena “Maisu Jeneral” deituko zela. Frantziskotarren Nagusi gorena, oster, “Mi-

¹ Mailleux, B., 2007, “De Francisco de Asís a la Orden franciscana: ¿fidelidad o traición?”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 107, 2007, 251-268.

nistro Jenerala” izango da: “Anaia guztiak behartuak beude, Elkartea honetako anaiaren bat Anaiarte osoaren *Ministro Jeneral eta morroitzat* beti edukitzera, eta tinko behartuak beude berari obeditzera” (2 Er 8, 1). Eta, orokorrean, garbia da araua: “Ez bedi inor priore deitu, baizik eta den-denak anaia txiki dei bitez” (1 Er 6,3).

Anaiartearen hazkuntzak eta fraideen sakabana- ketak Frantzisko “Probintziak” edo barruti geogra- fikoak sortzera eraman zuen (1217), eta beraz “Ministro Probintzialak” izendatzera. Lehen Probint- zia haiek hain zabalak zirenez, hurrengo urratsean bertako eskualdeak Kustodia bilakatu ziren, eta berauen arduraduna “Kustodio” (*custos*: ‘zaintzaile’). Jada, mailarik apalenean, “Guardianoak” dauzkagu, hau da, anaia-talde jakin baten nahiz leku edo etxe bateko buruak.

Kargudun hauen botereak ere mugatuz joan ziren: anaia berriak Elkartean hartzeko eskumena “Ministroarena” zen; horrela, gehiago zehaztu gabe agintariarena: fraidegaitarako datorrena anaiek “eraman bezate lehenbaitlehen ministroarengana. Eta ministroak har beza gozoro, eta adoretu eta gure bizimoduaren berri eman biezaio arretaz” (1 Er 2-3). Era berean, Ministroak ematen zuen misioe- tara joan nahiz predikatze baimena: “Beraz, musulmanen eta beste fedegabeen artera joan nahi duen edozein anaia, joan bedi bere ministro eta morroiaren baimenarekin. Eta ministroak eman biezaie baimena, eta ez ukatu, baldin bidaltzeko gai ikusten baditu”.

Inozentzio III.ak Anaia Txikiei emana zien predika- tzeko baimena; baina eskubide preziatu horren kudeaketa Ministroen eskuetan zegoen: “Inongo anaia ez beza predika Eliza santuaren molde eta legeen kontra, eta bere ministroak baimena eman- da izan ezik. Eta gorde bedi ministroa inori baimena bereizkuntzarik gabe ematetik” (1 Er 17, 1-2).

Badago, bestalde, Ministroen zerbitzu-eskubideen artean anaiek berezikiago bila dezaketen garran-

tzizko laguntza jakin bat ere: “Baldin anaiek, edozein lekutan daudela ere, gure bizimodua ezin badute bete, jo bezate lehenbaitlehen beren ministroaren- gana, jakinaraztera. Eta ministroa saia bedi haiei laguntzen, antzerako egoeran berari laguntzea nahiko lukeen bezala (1 Er 6, 1-2).

Orokorrean ministroentzat esandako hauek (1221), Erregela buldatuak (1223) Ministro Jenerala- ren nahiz Probintzialen eskumenera pasatu zituen, hala nola, “ez bedi inolaz ere anaiarik herriari predi- katzera ausartu, baldin eta Anaiarte honetako Ministro Jeneralak aztertu eta onartu ez badu, eta predikatze ofizioa eman ez badio” (2 Er 9, 2). Anaia berriak onartzearena bigarren Erregela honetan Ministro Probintzialaren eskuetan geratzen da: “Bizi- modu hau hartu nahirik gure anaiengana datoze- nak, bidal bitzate beren Ministro probintzialengana; eta hauei bakarrik eman bekia, ez beste inori, anaiaik onartzeko baimena” (2 Er 2, 1).

Maila apalagoan ditugu Kustodioen eskumenak. Terminoa zehaztasun handiegirik gabe errepika- tzen da Frantziskoren idazkietan, garai ezberdi- netako testuak direlako edota arazo-une desberdinari erantzuten ari delako. Hala ere, Kustodio terminoak beti du berarekin “zaintzaren” ideia, anaiekiko ardura maitakorrena alegia, nahiz eta sarritan “ministro” eta “goardiano” terminoekin nahas daitekeen. Hori gora behera, gogora dezagun Frantzisko bere idazki apurren artean bi horiek dituela Kustodioei eskainiak (agian aldi berean goardianoak ere gogoan hartzen zituela). 1220 inguruan idatzitako hauetan gai nagusia Eukaristiari dagokiona da eta beronen inguruko gurtza arretaz zaintzearena (KusG 1 eta 2).

Goi-agintari horien azpian Guardianoak daude, hots, anaia bizi diren tokietan eta bertatik bertara anaia bakoitzaren ardura izan behar dutenak, otoitz bizitzan, lan-jardunean, limosna-eske dabilzala edo predikatze ateratzen direnean taldetxo mugatu bakoitzaren zaintza beren gain hartu behar dutenak.

Badirudi, oro har eta berezikiago Goardianoen artean, Frantziskok ikusita zuela nola Nagusiek karguak pertsonalki beretzeko joera erakutsita zuten; botereaz jabetzeko tentazio horretatik aldentzeko eskatzen du, beraz:

Besteren nagusi jarriak direnak, anaiei oinak garbitzeko ofizioa balute bezalaxe harro bitez beren nagusitzaz, [ez gehiago] (Ahol 4).

Eta inongo ministro nahiz predikatzailerik ez beza beretzat har anaiei ministro izatea nahiz predikatzeko ofizioa; baizik eta agintzen zaion orduko utz beza bere kargua, batere eragozpenik jarri gabe (1 Er 17, 4).

Deigarriak gertatzen dira Frantziskok bere Goardiano pertsonala izateko erakutsi zuen axola eta egin zuen ahalegina. Anaiarteko Nagusitza orokorrari uko egin zion unean bertan eskatu zuen hori eta Zelano biografoak jasota utzi zuen Anaiarteak berarekin izan zuen burubidea. Ez da ahaztu behar, artean hain ibiltaria zen garai haietan honelako goardiano pertsonalak beharrezkoak eta nahitanahiezkua ere izan zitezkeela. Ondoko bigarren testuan ikus daiteke, gainera, hilburukoan ere nola gogoratzen zuen hau:

Merkatari guztiz argi honek, bere bizitzako denbora guztia merezimenduak lortzeko mila modutara aprobetxatzearen, obedientziaren gidaritzapean eta besteen gobernura makurtua bizi nahi izan zuen. Eta honela, Ministro jeneral karguari uko egiteaz gain, obedientzia bikainagoaren mesedetan, goardiano partikularra eskatu zuen, hura bere nagusi berezi bezala ohoratzeko. Honela esan zion, bada, aurrez obedientzia santua hitzemana zion [ondoko ordezkotzat utzi zuen] Pedro Cattani anaiari: «Jainkoagatik, izenda ezazu, arren, nire lagunetako bat zure ordezkotza izan dadin niretzat, zuri bezalako debozioz obedi diezaioadan. Ezagutzen dut obedientziaren fruitua, eta besteren uztarpean lepoa jartzen duenak ez duela une

bakar bat ere irabazirik gabe pasatzen». [...]. Eskabidea onartu zitzaion, eta heriotzara arte menpeko mantendu zen edonon, beti bere goardianoari begirunez obedituz (2 Zel 151).

Tinko obeditu nahi diot Anaiarte honetako Ministro jeneralari eta hark izendatu nahiko didan goardianoari. Eta haren eskuetan hain gatibu egon nahi dut, non haren baimenik eta borondaterik gabe ez dezadan inora joaterik ez ezer egiterik izan, nire jauna baita (Test 27-28).

Aginte-eraketaren eta anaiei obedientziaren arteko harremanak beti kezkatu zuen Frantzisko: goikoei bereak esan zizkien (aurrerago, Erregelaz hitz egitean argiago geratuko da kezka hori), eta fraideek izan zitzaketen esanekotasun-mailak argitzen saiatu zen. Hiru balio-mailatan eman zituen obedientziaren mota ezberdinak (2 Zel 152. lk. 1 Er 16 eta 2 Er 12):

- Hilotzarena bata, hildako gorpuak ez baitu egiten eragiten diotena baizik, osorik inoren esanetara dagoela.
- Bigarren obedientzia mota azaldu nahirik, menpeko anaiei «eskabide baten ondorioz emandako obedientziak, zehazki, baimen edo lizentzia zirela esan zuen [ez gehiago]; [anaiei] eskatu gabe ezarritakoei deitu zien obedientzia santu. Biak omen ziren onak, baina bigarrena seguruagoa».
- Azkenik, hirugarren obedientzia mota guztiz bestelakoa zen: «obedientzia gorena, non giza izaera eta irizpideek ez duten lekurik, hau uste zuen zela «Jainkoak inspiraturik, fedegabeen artea» joatea, bai lagun hurkoen salbazioagatik, bai martiritzaren desiragatik. Obedientzia hori eskatzea Jainkoari oso atsegingarri zitzaiola kontsideratzen zuen».

Botere-eraketa hierarkiatu eta berorren obedientzia parekidea Aita Santuarekiko dependentzian (2 Er 2), Kardinal Babesleari ezagutzen zaion egitekoan (2 Er 22, 2; Test 33) eta deskribatu dugun Ordenako



Fontekolonbo. "Tau" (T) ikur frantziskotarra. Frantziskok bere sinadura modura eman ohi zuen berori.

agintaritzako mailaketan jarrita daude. Hori da Anaiarteak/Ordenak duen antolaera moral eta juridikoa.

Baina Frantziskoren Anaiarteak beti joan nahi izan zuen legeetatik harago bere ahalegin espiritualean. Horregatik, Frantziskoren proiektuan eta Erregelatan badago horizontaltasunean bizi behar den obedientziarik, lehenengo Erregelen deskribatzen den hura, hain zuzen (1221): "Eta anaia batek ez biezaio beste bati gaizki egin edo esan; baizik eta, espirituzko karitateaz, elkar zerbitza eta elkarri obedi biezaiote borondatez. Horixe da, izan ere, Jesu Kristo gure Jaunaren obedientzia egiazko eta santua (1 Er 5, 13-15).

Irizpide ebanjeliotarrak onartu ondoren, Anaiartean agintaritzak muga eta gida ezagunak ditu: bata Eliza eta Egoitza Santuarena bere Kardinal Babeslearekin, eta bestea etxe barruko bi: Frantzisko Anaia Nagusiari eta Kapituluko Jeneralari dagozkienak.

6. 2. Kapituluko Jeneral eta Probintzialak

Tokiz eta taldez, Anaiartea lehenengo eta Ordena gero barreiatu ageri zaizkigu, bizigune anitzetan: anitz dira anaiak, "leku", etxe eta komentutan sakabanatuak; hala ere, Buru bakarra dute hasieratik bertatik, Frantzisko asistarra, eta lurralde guztien arteko batasuna Kapituluko Jeneralean azaltzen da garbiki: Biltzar-toki hau nonahiko fraideentzako topalekua da hasieran, harik eta beraren orokortasuna nonahikoentzat izanik ere kapitulukide izendatueta mugatuz joan zen arte.

Kapituluko Jeneralek beren lehen Kodea Erregelan dute (1209, 1223), eta berorren gain eta inguruan joango dira arau osagarriak sortzen, hain zuzen Kapituluan bildutakoen ekarpenak jasoz. Kapituluek xede ezberdinetarako balio dute: fraideek elkar ezagut dezaten, izandako bizipen erlijiosoak partekatzeko, bildutakoek beren esperientzia eta iritzien berri eman dezaten, herrialde eta kultura ezberdinetako egokitzapenak egiteko, berorietako proposamenak aurkez ditzaten, Erregelaren adostasunean arau osagarriak sortzeko, etab.

Kapituluko Jeneralak aukera ematen zuen Frantziskok anaia guztien aurrean karisma ebanjeliotarrak bere azalpenak berrizta zitza, legetasun hutsaren gainetik espiritu askez elkarrekin biziera eta Ebanjelioa birpentsatzeko ere bai; Anaiarteko agintaritzak egokituz joateko, etab.

Zoritarrez, Kapituluko Jeneralen historia kronologikoak zalantza ugari du, eta barruko albisteak emango zizkiguten aktak edo berriemateak, egon baldin baziren, gudanaino ez dira iritsi, eta jakin dezakeguna gehiago da gain-xehetasunetara begira esana (non, noiz, zenbat lagun bildu ote ziren, adibidez), Biltzar barruko hausnarketa, eztabaida edo erabakiez diharduena baino.

Frantziskoren idazkietan bezala biografietan Kapituluko Jeneralen aipamenak eurrez ageri dira, errepikatuz alegia; baina ezinezkoa da Biltzar guztietako gaien zerrenda ongi finkaturik ematea. Hala ere,



Le Carceri. Bakarlekurako bidezidorra

lehen orduko egokiera batean (Erromatik Asisera-koan, 1209), elkartu eta berehala ageri zaigu anaiek, taldearen nondik norakoak ongi begiratzeko elkarriketarako zuten joera, geroko Kapituluetan ere agertuko zena.

Zelano-k bildu zituen taldearen orduko kezka ondoko galderetan: Aita Santuak zergatik izan zuen halako harrera ona, nola bete zitzaketen haren oharpen eta mandatuak, Erregelako aginduak nola jarrai zitzaketen, biziera eta portaeraz nola aurkez Ebanjelioaren etsenplu ona gizon-emakumeen artean, etab. Denetarik zegoen hor: Hierarkia eta le-geekiko arazoa, Erregela ebanjeliotarraren praxi-egokitasuna, anaien arteko irizpideen bateratzea, etab. "Kristoren ikasle berri haiek luze

eztabaidatu zuten gai haiei buruz apaltasunaren eskolan" (1 Zel 34).

Kapituluen maiztasuna aldatuz joan zen 1210eko hamarkadan bertan. Aita Santuak Erregela onartu ondoren (1209), urtean bitan egiten zen Biltzar hura: "Frantzisko dohatsuak kapitulua urtean bi bider egiteko agindu zuen: Mentekoste egunean eta Mikel santuaren jaian, irailean" (PerAn 36).

Kapituluen tradizioan lehen albisteetakoa dugu F. Vitry-koak utzi zigun ondoko pasarte hau (1216ko urria). Azpimarratzekoa da jada Kapituluetan bazeudela "boni viri" aholku-emaileak (agian, anaia jakitunagoak nahiz Kuriako adituak), hain zuzen Erregelaren ondoko arauak lantzen lagundu zutenak:



La Verna-ko gailurra: mundutik gora, ortzitik hurbil.

*Ordena honetako gizonak, urtean behin, leku jakin batean biltzen dira, eta probetxu handiz bildu ere, denak batera Jaunagan poztu eta elkarrekin jatera, eta **gizon santu batzuen aholkuz zenbait arau ezartzen eta promulgatzen dituzte**, Aita santu jaunaren onespenarekin. Horren ondoren, urte osorako zabaltzen dira Lombardia eta Toscanan, Puglia eta Sizilian (Vitry, 1. Gutuna, 1216).*

Horrela, jatorrizko Erregelak (1209) ez zuen ito anaiei sormena; fraide bakoitzaren ekimenak aukera libre izan zuen ekinbide egokienak sustatzeko; bide eman zuen beraren argitan eguneroko bizitza hobeki ulertzeko, ez noski, Frantziskoren ustez, interpretazioetako desbidera-

zioen arriskurik gabe (Merlo 2005: 35-36)². Horren ondorioz, lehen Erregela harekiko leialtasunaren eta bertatik aurrerako arautegi osagarriaren hamarkada da ondoren datorrena.

Ondoko Anaiartearen “Ordenarako” ibileran, Frantzisko, lehen anaiak eta gero eta ugariago eta jakitunago diren anaia berriak izango ditugu Anaiarteko protagonistak, eta horien ondoan kanpoagotik Hugolino eta Erromako Kuria.

Denen arteko elkarlan horretan gatazkarik ez da faltako; baina Kapituluek osatu eta aldatuz era-

² Merlo-k honela laburtu du prozesu hori: “El texto [de la Regla no bulada, 1221] es el resultado de la acumulación de decisiones normativas tomadas en el curso del segundo decenio del siglo XIII”.

mango dute aitzina Anaiartea. Uste daiteke Vatikanoko II.aren argitan egindako frantziskotarren egungo Kontituzioek (2010) ongi berreskuratu dituztela Kapitulu haien oinarritzko xede orokorrak. Hona zer dioten³:

Ordena osoaren barruko senidetasunaren benetako zeinu izan behar du Kapitulu Jeneralak. Beroi dagozkio Ordenako bizitza eta ondarea balioetsi eta gordetzea, bide eta baliabide berriak bereiztea, eta Ordenaren hazkuntzarako berriztapen egokia sustatzea, lege berriak ematea, Ordenako Gobernu gorena hautatzea, hau da, Ministro, Bikario eta Definidore Jeneralak aukeratzea, eta garrantzi handiko beste hainbat arazo maneiatzea.

Garai haietan ez zegoen, noski, Gobernu gorenaren halako egitura osorik; baina Kapitulu Jeneralaren bestelako betekizunak, modu berean ez esan arren, indarrean zeuden orduan ere. Laburtuz: Kapitulu Jeneralaren eskumenean zegoen botere legegilea ez ezik partez izendapenena ere.

Egindako bideak erakutsita, azken buruan Erregela buldatuaren arabera (1223), hildako Ministro Jeneralaren ondoko berriaren hautapenerako eskumena Kapitulu Jeneralaren eskuetan utzi zen, horretarako Biltzarren prozedura zehazten zela:

Hura hiltzean, Ministro probintzialek eta kustodioek egin bezate ondorengoaren hautaketa Mendekosteko Kapituluaren, eta Ministro probintzialak behartuak beude Kapitulu horretarako beti elkarrekin biltzera, Ministro jeneralak erabakitako edozein lekutan. Eta hori hiru urtetik behin, edo sarriago nahiz bakanago, aipaturiko ministroak agindu bezala (2 Er 8, 2-3).

Hori horrela, Probintziez osatuta dagoen Ordenan, berorietarako "Mendekosteko Kapituluaren

ondoren, ministro eta kustodio bakoitzak nahi balu eta komenigarri irudituko balitzaio, urte berean dei ditzake behin bere kustodiako anaiak Kapitulura" (2 Er 8, 5). Kasu honetan, Kapitulu Probintzialak Ordenako Kapituluako erabakien komenentziazko helarazle libreak gertatzen dira.

Besterik da, gobernu onerako gauza ez diren Ministro Jeneralen kargugabetzean, Kapitulu Jeneralak izan beharko duen jokabidea, erantzukizuna bere gain hartzera beharturik baitago hau: "Eta inoiz Ministro probintzial eta kustodioen gehiengoari argi irudituko balitzaio, delako Ministroa [Jenerala] ez dela gauza anaien zerbitzurako eta guztien onerako, hautaketa dagokien anaia horiek behartuak beude, kustodiotzat [=Min. Jeneraltzat] beste bat hautatzera Jaunaren izenean" (2 Er 8, 4).

Frantziskok fermuki eutsi zion Erregelaren edukia anaia guztiei Kapituluetan aldarrikatzeari, eta Testamentuan ere berretsi zuen gogo hori: "idazki hau [Ministro Jeneral, gainerako Ministro eta Kustodioek] beti berekin eduki bezate, Erregelarekin batera. Eta egiten dituzten Kapitulu guztietan, Erregela irakurtzen dutenean, irakur bitzate hitz hauek ere" (Test 35-37).

Arauak zaintzeaz gain, Kapitulu Jeneralek beste motatako hainbat gai erabiltzen zituzten, beti ere Frantziskok gidatuta. Azpimarratzekoa da Biltzar haiek berdin balio zutela anaiek elkarrekin egun batzuetan bizitzeko eta horrekin batera jendarteko harremanak zaintzeko, Kapituluak berak zuen jende-erakarmenaz baliatuta, zeren Biltzar haiek jende-mota oso ezberdinak biltzeko ahalmena baitzuten. Horretaz, Frantziskoren Hiru Lagun ezagunek (Leon, Aingeru eta Rufinok) lekukotasun polita utzi ziguten idatzita (1246):

Erregela nola zintzoago bete aritzen ziren; anaiak probintzia ezberdinetara bidaltzen zituzten herriari predikatzerara eta beste anaia batzuk beren probintzietan bana zitzaten. Frantzisko santuak, berriz, aholkuak, zentzarazpenak

³ Curia General, 2010, *Regula. Constitutiones Generales et Statuta Generalia Ordinis Fratrum Minorum*. Roma. 178-179 (188. art.).

eta aginduak ematen zizkien, Jaunaren nahiaren arabera hobekien iruditzen zitzaion eran. Hitzez esaten zien guztia, egiteetan erakusten zien maitasun eta ardura handiz. Eliza santuaren prelatu eta apaizak benerazioz hartzen zituen, eta zaharrak, handikiak eta aberatsak ohoratzen; behartsuak ere bihotz-bihotzetik maite zituen eta barru-barrutik errukitzen zitzaion; eta guztien menpeko agertzen zen. Beste anaia guztiak baino gorago egon arren, berarekin bizi zirenetako anaia bat hautatzen zuen bere jaun eta goardianotzat, eta anaia honi apaltasunez eta debozioz obeditzen zion, harrokeria-bide oro uxatzeko (HLaLe 57. Ik. PerAn 37-39).

Kapituluetakoko Biltzarrak talde-bilerak ziren eta orokorrean Anaiartearen zerbitzurako deituak; esan beharra dago Frantziskoren gidaritzapean Anaiarteko taldea zela lehen protagonista; hala ere, Frantziskok lehentasun ona ematen zien harreman pertsonalei, bakoitzaren egoera ezagutu, argitu eta sustatzeari; hala diote behintzat anaia lagunek. Maite zuen hori berak, eta anaiek estimatzen zizkioten guztiei erakusten zizkien adeitasuna eta begiramena:

Bestalde, aita bihozberak beren buruekin gogoregiak ziren anaiak eta beila, barau eta gorputzeko penitentzia handiegiak egiten zituztenak zentzarazten zituen. [...]. Jainkoaren gizonak debekatu egiten zizkien gehiegikeria horiek [...].

Izan ere, Frantziskok, [anaia atsekabetuez] errukiturik, ez zien epaileak bezala hitz egiten, aita errukitsuak seme-alabei eta sendagile onak gaixoei bezala baizik. Bazekien gaixoei gaixotzen eta nahigabetuekin nahigabetzen. Hala ere, behar zen neurrian zentzarazten zituen oker egiten zuten guztiak, eta zor zitzaion zigorra ezartzen zien temoso eta bihurriei [...] (HLaLe 59).

Urteak aurrera egin ahala, Kapituluak bisitari leinargiak eta ofizialak ere izan zituzten, eliztarrak edo laikoak. Erromako Kuria eta Aita Santuen segi-

zioa behin baino gehiagotan Perugian ere egon ziren⁴, eta haientzat Anaia Txikien Portziunkulako Kapituluak ikusteko moduko jazoera zen. Arestian esan dugu Hugolino etortzen zenean nola egiten zuen bere bisitaldia eta nolako harrera egiten zioten anaiek (HLaLe 61).

Frantziskogan eta Kapituluak, arrakasta sozialen gainetik zegoen Ebajelioaren aldarrikapena eta Erregelarekiko leialtasuna; azken honen alde eta defentsan ahalegintzea suertatu zitzaion Frantziskori, alde batetik Kapituluak esan ditugun arau osagarriak landu behar zirelako, eta horrek nahitaez Erregelaren "interpretazioak" berarekin zekartzalako. Lan arriskutsua, inondik ere, egunetik egunera aldatuz zihoan Anaiartearentzat.

6. 3. Frantzisko: garai egon eta dimititu (1220)

Giltzarria da 1220ko urtea Frantziskoren bizitzan, Ekialdetik gaixotasun kroniko batekin itzuli zelako lehendabizi, Anaiarte bera asalaturik eta nahasita aurkitu zuelako gero, eta azkenik egoeraren ondorioz Anaiartean ordura arte ezagutu zitzaion aginteskumena uztea erabaki zuelako. Ikus dezagun hau nola gertatu zen.

Frantzisko "garai egon" zela idatzi dut, esamoldeak duen anbiguitate guztiarekin, anaiek aitortzen zioten gorentasuna aditzera emateko balio dezala esamoldeak; baina gorentasun horren nolakoa zehaztu gabe, zeren eta "agintaritza" hori Frantziskok berak esandakoen arabera ulertu behar baita, espiritualtasun jakin baten barruan, eta ez orduko nahiz geroko legegezonen nahiko zuketaren ildotik. Azpimarratuta daukagu berak ez zuela nahi Anaiartean "Priorerik" ('lehenengorik'), ministro zerbitzariak baizik. Eta Frantzisko ez zen izan sekula priore; baina bai guztiek hobetsitako Buru Gidari

⁴ Ik. Palavicini-Bagliani, A., 1994, "Résidences pontificales", in: Levillaine 1994: 1453.



La Verna: mendi hartako Frantziskoren bizipen mistikoa ("zauriak"). (Giottoren margolana)

garaia. Horrek, ordea, ez zuen ezeztatzen obedientzia erlijiosoaren balioa, eta "obedientzia" bezala "agintea" guztiei zegokien esanekotasunean behar zen bizi.

Anaiarteko Buru izateari uko egin zioneko une hura, 1220ko irailaren 29an, gogoangarria gertatu zen gertakariaren lekuko izan zirenentzat, eta me-rezi du hemen heldu zaigun albistea jasotzea:

Portziunkulako Santa Marian eginiko kapitulu batean, uko egin zion Ordenako buru izateari. Anaia guztien aurrean esan zuen: «Hemendik aurrera hilda nago zuentzat; baina horra hor Pedro Cattani anaia: beroni obedituko diogu zuek eta nik».[...]. Pedro anaiaren aurrean markutuz, obedientzia eta begirunea agindu zizkion. Eta ordutik bere heriotza arte menpeko izan zen, beste edozein anaia bezalaxe.

Eta Ministro jeneralaren menpeko ez ezik, probintzietako ministroen menpeko ere egon nahi izan zuen; edozein probintzian bizi edo predikatzaera joaten zelarik, bertako ministroari obeditzen zion. (PerLe 11).

Testu honetan badira bereziki adierazita ematen zaizkigun puntuak: Anaiarte osoaren Nagusitza utzi egiten du Frantziskok (ikusiko dugu zein adieratan ulertu behar den hori), eta nonahiko Probintzialaren eskuetan jartzen da.

Nagusitzari uko egiteak zer pentsa eta zer galdetu ere eman zuen Anaiartean, eta gertatutakoaz zeuden kezkak ispilatuta daude Zelano bigarrenaren testu honetan (1246):

Behin, anaia batek galdetu zion Frantziskori ea zergatik anaia guztien ardurari uko egin zion eta besteen eskuetan utzi zituen, haiekin inolako zerikusirik ez balu bezala. Hark erantzun zion: «Seme, ahal dudan bezala maite ditut anaiak. Baina nire urratsei jarraituko baliote, benetan maiteago izango nituzke eta ez nintzateke haientzat arrotz bihurtuko. Izan ere, prelatu

batzuek bestelako bideetatik daramatzate anaiak, antzinakoen bizi-ereduak [aurreko monakatukoak, alegia] haiei proposatuz, eta nire aholkuak gutxietsiz. Baina zer ari diren egiten azkenean ikusiko da».

Handik gutxira, gaixotasuna larriagotu zitzaion batean, ohean erdi altxatuz honela esan zuen haserre bizitan: «Nortzuk dira nire eta anaien Elkartea eskutik kendu didaten horiek? Kapitulu jeneralera joaten banaiz, orduan erakutsiko diet horiei zein den nire nahia».

Anaiak galdetu zion berriro: «Eta ez al dituzu aldatu behar hainbeste denboran beren askatasuna neurritz kanpo erabili duten Ministro probinzialak?» Eta aitak, hasperenka, hitz izugarri hauekin erantzun zuen: «Bizi bitez euren gogara, gutxi batzuk galtzea asko galtzea baino kalte txikiagoa baita».

Ez zuen hori guztiengatik esan, batzuengatik baizik, zeren hain luzaro zeuden hauek karguan, betiko ondare zutela baitzirudien. Frantziskok aholku hauek ematen zizkien batez ere Erregelaren arabera izendaturiko ministro guztiei: ohi-turarik ez aldatzeko, hoberako izan ezean; ez ibiltzeko mesedeen bila, eta ez hartzeko kargua botere bezala, betebeharrak bezala baizik (2 Zel 188. lk. 2 Zel 143).

Hau irakurrita (Zelanoren testua izanda, gainera) ez dago zalantza handirik: gatazkak egon ziren, eta ez txikiak, bi egitasmoren artean. Frantziskok defendatu nahi zuen eredu ebanjelistaren eta Anaiarte hazian nahiago izan zitekeenaren alde eta aurka. Frantziskok azken urteetan bizi behar izan zuen tragedia espiritualaren parte da hau dena.

Nagusitzari uko egin ondoren, Frantzisko anaia bat gehiago zen Anaiartean; baina ez nolanahikoa, izan ere anonimotasuna ez zegoen bakarrik Frantziskoren eskuetan; haren nortasuna predikuak, biziera santuak eta Anaiartean irabazita zuen onarpenak ere

osatzen zuten⁵. Hau da, Nagusitzari uko egiteak ez zizkion deuseztatuko karisma pertsonala, lehen proposamenean baieztatutako aldarrikapen ebanjeliotarra, fedezko bizipen mistikoetatik ziurtaturiko konbentzimendua, eguneroko etsenpluaren adorea edo adierazpen-askatasun pertsonala.

Arazoi sobera zeuden, beraz, lanean jarraitzeko; horretan ez zegoen dimisiorik, eta Frantziskok aginte juridikorik gabeko gidari espirituala izaten jarraitu zuen. Eta ez zen hori bakarrik, legeak berritu behar izan zirenean, Frantzisko lehen eta azken luma izan zen Erregela berrien testua finkatzeko. Hortaz, idealak maite izan zituen, eta aldi berean edo behar izan zenetan, tresna sozialak ere sortu zituen ideal haien mesedetan (Anaiarte bera, Erregelak, predikua eta etsenplua).

Horregatik, apala izan arren, lege-berritzean presente egon nahi izan zuen, iritzi eta hitza hartu eta eman ez, behar zena idatziz; ez zuen erabateko galtzaile modura jokatu, bere betiko helburuen eusle eta bultzatzaile gisara baizik. Oraintxe ikusiko dugun hori.

6.4. Intuiziotik legeetaraino: Erregelak (1221-1223)

1206an urratzen hasitako bideak eta 1220an Anaiarteko aginte-moldaketak hurrengo pauso bat eskatu zuten, Erregela eta legeak Anaiarte handi harentzat berridatzi eta egokitzea. Hauxe izango da 1221-1223. etako lan behinena. Elizaren historian ez zen egiten hori lehenengo aldiz, Erregelatan bazeuden eredu ederrak, eta erabaki egin behar zen zer hartu edo sortu. Urte batzuk lehenago Laterango Kontzilioak gogoan izan zuen Ordenetako Erregelen arazoa; aipatuta daukagu hori.

Frantziskoren hau konprenitzeko, ongi etorriko zaigu hemen, esate baterako, San Benitoren Erregelari begiratu xume bat ematea, izan ere hain hurbilak baitira funts-funtsezko balio kristauetan eta hain bestelakoak bizitzaren antolamenduan, balioen lehentasunak eratzean eta irtenbide praktikoetan.

San Benitoren Erregela irakurri duenak berehala ikusiko du monjeen biziera zein xehetasunez antolatu nahi zuen arau sorta honek: zinez, Benitok obra maisua idatzi zuen bere Erregela horretan⁶. Hirurogeita hamahiru atalburu ditu San Benitoren Erregelak, eta aurreikusita ditu puntu puntu gairik ezberdinenak, betiere monasterioan "mundutik" aparte biziko direnak. Ugari dira arautu nahi dituen gaiak, kasik monasterioko bizitzako dena arautzen duela.

Monasterioak izan behar du monjearen betiko bizilekua, eta bidaiek nahiz gutuneriak salbuespen izan behar dute. Abadea nola hautatuko den eta nolakoa izan behar duen esaten da; berdin, abadeorde eta etxenagusiaren jokabideaz arauak emanda daude; monasterioko lagunartea kontuz zaintzen du Erregelak: zein monje klase dauden, daudenen arteko lehentasun-hurrenkerak, monasterioko zereginak eta karguak aipatzen ditu; apaizak eta anaiak, monjegaiei harrera, arrotzen ostatua, oblato pobre eta nobleak gogoan hartuz antolatzen da monasterioko lagunartea; bertute ezberdinak goraipatzen dira (hiru botoak, obediencia, umiltasuna...), eta isiltasuna; otoitzarenak leku handia du: otoitz-ofizioa, gau-egunetako otoitzaldiak, igande-astegunetakoak, salmutegiaz nola baliatu; urtaroak aintzakotzat hartzen ditu (uda-neguetako ordutegi ezberdinak, garizuma, baraualdiak); egunerokotasunari arretaz begiratzen zaio: lanerako lanabesak, janzkera, jatorduak beren

⁵ Godet-Calogeras, J. F., 2008, "Amodo sum mortuus vobis. La cuestión de la dimisión del hermano Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 111, 2008, 375-400.

⁶ Euskaraz: Benito Santua. 1980, *Bizitza eta Erregela*. Lazkao: Beneditarrak. (Erregela Orixek itzulia; sarrera eta oharra: Estibaliz eta Lazkao beneditarrek). Latinez eta gaztelaniaz: Colombás, G. M.; Aranguren, I., 1993, *La Regla de San Benito*. Madrid: BAC.



San Damian: Gurutziltzatuaren aurreko hitzordua eta deia

janari eta edariekin, eskulanak, artisautza, logeletako antolaera, hutsegiteak nola zuzendu eta agian zigortu, eta abar. Monasterioko monje-bizitzaren alde praktikoa oso begiratua dago, guztiaren azpian oinarritzko balio erlijiosoak ondo zaintzen direla.

Frantziskorenera gatozela, esan dezagun Frantziskok ez zuela hartu nahi izan bere Anaientzat Monasterioetako eredua, nahiz eta behin baino gehiagotan adierazi zitzaizkion halako Erregela batek izan zitzakeen abantaila bikainak. Hain zuzen, Erregela asmatu berriaren onarpen bila Erromara joan zenean haxe izan zen lehenengo traba (1209). Gogora dezagun berriz zerbait iradokita daukaguna:

Sabinako gotzaina gizon zuhur eta zentzuduna zenez, gauza askori buruz galdetu zion

[Frantziskori], eta bizitza monastiko edo eremitikora bidera zedila aholkatu zion. Baina Frantzisko santuak, ordea, ahal zuen apaltasun handienaz uko egiten zien argudioei [...]. Gotzaina Frantziskoren bihotz gartsuaz harriturik zegoen, baina hain proiektu altutik eroriko ote zen beldurrez, bide errazagoak eskaintzen zizkion. Azkenik, santuaren irmotasunak garaituta, haren errequetara makurtu zen, eta Aita santuaren aurrean Frantziskoren auzia aurrera ateratzen saiatu zen (1 Zel 33. lk. HLaLe 48).

Frantziskok “mundutik” kanpo, baina gizartean bizi nahi zuen, otoitz-bakardadean bai, baina baita herritarren artean zebilela ere, etxe finkorik gabe, ahal bazen; Ebanjelioko irizpideak bere eginda, eta gogo ahalik libreenarekin, Espirituak eta bizitzak

erakusten ziotenari jarraikiz. Posible ote zen hori Anaiarte zabal eta handi batean? Horra urte haie-tako funtsezko arazo handienetako bat, Erregela landuago batena.

Orduan eta gero Erregela gertatu zen Frantzisko eta jarraitzaileentzat gida giltzarria, leialtasunak baieztatzeko, Erreformak abiarazteko, historia egi-teko⁷. Geroztik, frantziskotartasuna aztertzean, Erregelaren inguruan ahalegindu dira legegizon, teologo, erreformatzaile eta historialarien ikerla-nak, gogoetak, segidatasunak eta hausturak⁸, eta Kapitulu ezberdinetatik ateratako Konstituzioak, dena ulertu eta baliosten (Narbona, 1260; Bar-tzelona, 1451, etab.)⁹.

Ikusi dugunez, Kapitulu Jeneraletan eginkizun juridiko/espiritual nagusietakoa izan zen 1209ko

⁷ *Bibliographia Franciscana* (Erroma, Kaputxinoak) eta *Bibliografía Franciscana* (CEFEPAL, Txile), bietan bila daiteke gai honi dagokion pro-dukzio bibliografiko erraldoia, baina hemen eremua mugatzeko, ik. <http://www.franciscanos.org/biblio/menu.html>. Frantziskotartasu-nari buruzko sarrera orokorrean: Iriarte 1979: 30-31.

⁸ Azalpen teologikoak: Garrido, J., 1975, *La forma de vida franciscana. Introducción teológica a la Regla de san Francisco de Asís*. Arantzazu, EFA. Garrido, J., 1985, *La forma de vida franciscana, ayer y hoy*. Arantzazu: EFA. Matura, Th., 1996, "La visión teológica de Francisco de Asís y su relación con la teología ortodoxa", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 75. zenb., 1996, 367-375. Erregela nola joan zen Frantziskoren bizitzarekin kronologikoki harilduta erakusteko idatzia da hau: Hardick, L.; Terschlüssen, J.; Esser, K., 1961, *La Règle des Frères Mineurs*. Paris: Éditions Franciscaines. Erregela Frantziskoren egunetan, 22-63. Aita Santuen azalpenak eta Erregela, 64-106. Frantziskoren idazkien arabera Erregela-azalpena, 107-205. Erregelaren funtsezko gunean, 209-229. 1961eko argitalpen honen ondoko 50 urtetako ekarpenak: Uribe, F., "Comentar hoy la Regla franciscana. El 'nuevo curso' en la interpretación de la Regla bulada, cincuenta años después del Werkbuch", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 124, 2013, 25-72. Micó, J., "El carisma de Francisco de Asís. Comentario a la Regla bulada de 1223", in: *Selecciones de Franciscanismo*. Nº 75, 1996, 376-404; 77, 1997, 226-241; 78, 1997, 453-473; 79, 1998, 22-38; 80, 1998, 211-226; 81, 1998, 379-400; 82, 1999, 93-112]. Ik. <http://www.franciscanos.org/estudios/Mico-ComentarioReglaBulada1223.html>. Arantzazuko Probintzian, mende bete eta gehiagoan, fraidegaiei hezkuntza erabili den liburua "zurbanillo" izan da: Zurbano, P., *Cartilla Regular sobre los votos y preceptos de nuestra Santa Regla*. J. R. Zulaikak berritu eta osatua (Tafalla, 1921).

⁹ Kapitulu Jeneraletako testuen historiak bere edizio onak ditu Neu-kirchen (1942. 1952), Wagner (1954) eta Bihl-en (1942...) argitalpe-netan. Ik. DHGE XVIII, 846-847.



San Damiango txoko bat

Erregela ebanjeliotarrari leial eustea eta leialtasun horren barruan berorri arau apalago osagarriak prestatzea. Eta horrek guztiak (gertatzen edo egiten ari zenaz ohartuta edo ohartzeke) Erregela bera bigarrenez idazteko testuak prestatu zituen; jar-duera horrek 1220-1223ko tartean eman zituen behin-betirako emaitzak: 1221eko Erregela ez-buldatua eta 1223ko Erregela buldatua.

Hiru urteko tarte horretan hiru protagonista ditugu modu batera edo bestera Erregela-proposamen berria lantzen: 1) Frantzisko bera, 2) Anaiarteko bi alderdiak, 3) Erroman, Kuria, Hugolino Kardinal Babesle eta Frantziskoren adiskidearekin, eta, noski, Buldaren sinatzaile gertatuko zen Ho-norio III.a Aita Santuarekin.

1) Frantziskori buruz ari garela, gomuta dezagun urte horietan Frantziskok Anaiarteko agintari-tza/gidaritzetan zuen egoera. Agintaritzatza utzita zuen 1220az gerotik, eta elkarren jarraian bi

Bikario Jeneralek gobernatuko zuten Anaiartea, lehenengo Pietro Cattani-k (1220-1221) eta ondoren Elias Cortona-koak (1221-1227). Aginteari uko egin bazion ere, Frantzizkok ez zuen laga sekula idealen gidaritza, eta bere eskumenean eutsi zion Erregela-idazketaren zereginari, ez noski handik edo hemendik izan zitzakeen iradokizun eta presio gabe.

2) Bere aldetik, Anaiartea aldatua zen 1209tik 1220ra bitartean. Mende hartako bigarren hamarkadan jende eskolatu eta kleriko ongi ikasi dezente inguratu zen Anaia Txikiengana, esan dugu. Artean, ez zegoen geroago ezagutuko zen klerikalizaziorik¹⁰; baina jakite berriak zeuden, arazoei Teologiatik, Zuzenbidetik edo gizarteko goi-mailatako esperientzietatik hitz egin eta obratu ahal izateko; bi alderdi edo esango genuke: anaia laiko ezjakinena / anaia kleriko jakitunena. Lehenengo haiek oso bereak zituen Frantziskok; bigarrenak, estimatzen zituen eta poztu ere egiten zen halako anaia jakintsuek Ebanjelioa eta Anaiartea maite zutela ikustean. Hala ere, uste zuenez, ezinbestekoa zen jakiteak fedezko otoitza eta bizitza ez itotzea, horretan fedezko balioespenei eutsita.

3) Erregela lantzean, hirugarren protagonista Erroma dugu. Frantziskok harreman politiko eta lotura instituzional onak zituen Erromako Kuriarekin, edo hobeki esan, Hugolinorekin, hain zuzen Aita Santuari eskatu eta Honorio III.ak izendatutako "Kardinal Babeslea" zen adiskide horrekin. Erregela berria egitean, Kardinalak ezagutu eta balioeztatzen zituen Frantziskoren karisma eta pentsaera, eta aldi berean Kuriako

pentsamolde juridizista ere bai (izan ere, Hugolino bera berorren parte baitzen).

Honorio III.a Aita Santuaren zerbitzari kualifikatua zen Hugolino. Erroman, eta Aita Santu haren (1216-1227) jarrera goragotik begiratu behar da: Inozentzio III. arekin hasita (1198...), hurrengo bi Aita Santuek kasik mende-erdi beteko estrategia politiko iraunkorra abiarazi eta mantendu zuten, Kristandadeko mugimendu erlijioso berrietan heresiari bidea moztu eta ortodoxiari bide emateko.

Elizak garbiki heretikotzat jo zituenetako batzuek, kondenatuta ere, berean irauterik izan zuten talde gisara (baldotarrek, adibidez), baina ez errepresio gogorrik gabe¹¹. Kataroen kasua bestelakoa da, haien aurka erabili ziren baliabideetan eta azken emaitzan: Erroma eta Frantzia Iparraldean elkartuta antolatu zen Gurutzada luzea pairatu behar izan zuten, erabat desagertarazi zituzteraino¹². Borroka armatu haien kariatara sortu zuen Gregorio IX.ak (Hugolinok) Erdi Aroko Inkisizioa (1231-1233). Arestian ere eman dugu horren guztiaren berriren bat.

Iturri ezberdinetatik dakigunez eta testuak berak adierazten digunez, Erregelen azken idazlea Frantzisko bera izan zen, eta Santuak berak aditzera emanda utzi zuen autoretasun hori. 1209ko Erregelari buruz zera esan zigun Frantziskok bere 1226ko Testamentuan: "Eta Jaunak anaia eman zizkidanean, inork ez zidan erakutsi zer egin behar nuen, baizik eta Goi-goikoak berak agertu zidan Ebanjelio santuko

¹⁰ Anaia Txikien Ordenaren klerikalizazioak muga erabakigarria izan zuen 1239 eta 1240. urteetan, hau da, Elias Ministro Jeneral ez-apaiza kendu, Alberto Pisakoa lehenengo Jeneral apaiza hautatu eta hau berehala hil ondoren, Haymon of Faversham Jeneral berriak bere aldakuntza instituzionala abiarazi zuenetik (1240); San Bonabenturak ukitu gutxi batzuek osatu zuen izaera berria (Narbonako Konstituzioak, 1260). Anaiarteko kleriko eta laikoen arteko berdintasuna hor bukatu zen. Merlo 2005: 160-171, 193.

¹¹ Ik., gaurko Protestantismotik Frantziskori nola begiratzen zaion: Félix, B., 2002, *L'Hérésie des pauvres. Vie et rayonnement de Pierre Valdo*. Genève: Labor et Fides. 151-180 ("Valdo de Lyon et François d'Assise"). Audisio, G., 1998, *Les vaudois. Histoire d'une dissidence. XII^e-XV^e siècle*. Paris: Fayard. 36-39 (garaiko une historiko erlijiosoaz). Varri, 2000. *Les vaudois*, in: *Revue de l'Histoire des Religions*. 217, 2000-1, (osorik). Hurbilagotik: G. Merlo: "Frammenti di storiografia e storia delle origini valdesi", 21-37. Montanari, P., "Valdesi a Milano tra XII e XIII secolo", 59-74.

¹² Frantziskoren biografia modernoek azpimarratu izan dute kataroen-gandik zein urrun zegoen asistarra. Anaia Eguzkiaren kantikan agerian dagoen kataroen kritikaz: Manselli: 1997: 310-311. Berorien Italiako presentziak: Lambert, M., 2003, *La otra historia de los cátaros*. Madrid: Ed. Martínez Roca. 231-286 ("La batalla por las almas en Italia").



Asís: San Frantzisko Basilika: goiko elizaren aturrealdea



moldearen arabera bizi behar nuela. Eta nik hitz gutxitan eta sinpleki idatzarazi nuen, eta Aita santu jaunak baietsi egin zidan” (Test 14-15).

Era berean, lehenagotik, onartu gabe geratu zitzaion 1221eko Erregelan ere (Erregela ezbuldatuan, alegia), autore-presentzia pertsonal hura berriro ageri da lehen lerroetan: “Hau da Jesu Kristoren Ebanjelioko bizimodua, *anai Frantziskok Aita santu jaunari onartu eta baiesteko eskatu ziona*. Hark onartu eta baietsi egin zion, bai berarentzat eta bai oraingo eta geroko bere anaientzat (1 Er 2). Kasu honetan, testua ez ezik onarpenaren bila Erroman zaindu behar izan zituen eginbideak gogorarazten dizkigu, Erregela propio berari eman zitzaiola esatean, eta anaia guztientzat emanda, gainera.

1223an onartutako Erregelan guraso-presentzia beste gisa instituzionalago batean aitortu zitzaion Frantziskori, beroni Aita Santuarekiko obedientzian lehen protagonismoa ezagutzen zitzaiola, eta anaia guztiak Frantziskorekiko obedientziara deitzen zituela¹³. Obedientziaren eta agintearen tresna juridikoa zen Erregela, baina autore “sinatzailea” agerian zegoen Erregela bietan zehar, Frantziskoren presentzia “ni” eta “nire” izenorde eta izenlagunarekin baieztaturik geratu baitzen hori.

Horrek ez du esan nahi, ordea, laguntzaile batzuk izan ez zituenik. Alde batetik aurreko urteetako Kapituluen herentzia zegoen, eta 1221ean Fonte Colombo-n idazketara emana egon zenean, ondoan izandako Anai Leon eta anai Bonizio (dakigunez, kanonista). Ordukoa da, gainera, Zesareo Spira-koak, Eskritura Santuetan adituak, aipu bibliko egokiak biltzeko eman zion laguntza¹⁴.

Balio anitzagoa izan zuen, noski, Hugolino kardinalaren laguntzak, adiskide-aholkuen bidez, zuen ezagumendu juridikoarekin, Kurian onargarriago gerta zitekeena hobetsiz (1223).

Hugolinori buruz gogoratu behar da, era berean, *Quo elongati* (1230) buldan esan zuena ere: Frantziskorekin luzaroko harremana izan eta eskurik izan zuela Erregela moldatzen (bere hitzetan esanda, *in condendo predictam Regulam*)¹⁵. Xehetasun horiek gogoan hartuta, Frantziskoren autoretasunaren hau garbi onartuta dago gaurko historiografian¹⁶.

1223ko azken idazketaren aurretik ere, Erregelarekiko fideltasunaren defentsa suharra egin zuen Frantziskok 1221eko testuan, horretan ados etorriko zen Testamentuari aitzina hartuta: Erregela bizi egin behar da, noski, eta bertan esaten dena ikasi, irakatsi, gogoan hartu, hitzez hitz bere horretan zaindu eta obratu. Zaila da errege bihozkorragorik egitea:

Jaunaren izenean! Anaia guztiei arren eskatzen diet, bizimodu honetan gure arimaren salbamenerako idatziaren edukia eta esanahia ikas dezatela, eta sarritan gogora ekarri.

Eta Jainkoari erregutzen diot, berak, ahalguztidunak, hirukoitz eta bakarrak, bedeinka ditzala gauza hauek irakasten, ikasten, gogoan hartzen eta obratzen dituzten guztiak, gure arimaren salbamenerako hemen idatziak errepikatzen eta egiten dituzten bakoitzean bedeinkatu ere; eta arren eta arren eskatzen diet guztiei, oinetan muin emanez, maite-maite izan, gorde eta bete ditzatela.

¹³ Guerra, J. A., 2000, “La autoridad y la obediencia en las dos Reglas franciscanas”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 87, 2000, 406-445.

¹⁴ GiJor 15: “Frantziskok, anai Zesareo Liburu santuetan aditua zela ikusirik, berak hitz xumez idatziriko Erregela Ebanjelioko hitzez janzteko eginkizuna eman zion. Hala egin zuen hark”. Elkarlan honi buruz: Vollot, B., 1994-1995, “Cesáreo de Espira y la Regla de 1221”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 69. zenb., 1994, 419-442; 70. zenb.,

1995, 105-149.

¹⁵ Harnick 1961: 34, 64. oh; 41-42. Merlo 2005: 42, 53-57.

¹⁶ “Es lógico afirmar que corresponde a san Francisco el trabajo principal en la composición de la Regla y del Testamento, como correspondió un papel decisivo en las deliberaciones del Capítulo” (Esser 1981: 232).



Asis: gaur eguneko karrika-plazak

Eta Jainko ahalguztidunaren eta Aita santu jaunaren izenean eta obedientziaren izenean, nik, anai Frantziskok, tinko agintzen eta ezartzen diet, bizimodu honetan idatzietatik ez dezala inork ezer ken, ezta beste idazkirik erantsi ere, eta ez dezatela anaiek beste Erregularik izan (1 Er 24, 1-4).

Borondate hori gorabehera, Anaiartean bertan ez zen samurra izan guztiek aurrera ildo bakarrean egin eta Erregelaren idazketa bere xehetasunekin denak batera eramatea. Anaiak zain zeuden eta

batzuengana iristen ziren, nonbait, Erregela "berriko" arau edo pasarte kezkarrien albisteak. Kezkatuenen iradokizunak Frantziskori iritsi zitzaizkion, Fonte Colombo-ra, noren eta Bikario Jeneral eta Ministroen eskutik. Perugiako Legendak honela deskribatu zigun hitzordu hura:

Frantzisko dohatsua mendi batean [Fonte Colombo-n] zegoen, Asisko Leon eta Bolognako Bonizio anaiekin, beste Erregela bat eratzen [1223koa, alegia], galdua baitzen lehen Erregela, Frantziskok Kristoren esanera idatzarazi zuena.

Orduan ministro askok, Frantzisko doha-tsuaren bikario zen anaia Eliasengana bildurik, esan zioten: «Anai Frantzisko hori Erregela berri bat egiten ari dela entzun dugu, eta beldur gara ez ote duen zorrotzegia, guretzat gorde ezina, egingo. Zu berarengana joan eta hauxe esatea nahi dugu: ez dugula Erregela hori betetzera behartuak izan nahi. Egin dezala beretzat, ez guretzat».

Anai Eliasek ez zuela joan nahi erantzun zien, anai Frantziskoren zentzapenaren beldurrez. Baina haiek arrenka ari zitzaizkionez, esan zien ez zuela joan nahi beraiekin batera izan ezik. Beraz, denak elkarrekin joan ziren. Anai Eliasek, Frantzisko zegoen tokira hurbiltzean, dei egin zion. Erantzun zion Frantziskok eta, ministroak ikustean, galdetu zion: «Zer nahi dute anaia horiek?» Anai Eliasek erantzun: «Ministro hauek jakin dute Erregela berria egiten ari zarela, eta gogorregia egingo ote duzun beldur dira. Horregatik, protesta egiten dute eta esaten ez dutela Erregela hori betetzera behartuak izan nahi; egin dezazula zeuretzat, ez beraientzat».

Frantzisko dohatsuak, orduan, aurpegia zeru-rantz itzuli eta esan zion Kristori: «Jauna, ez al nizun ongi esan, ez zidatela sinetsiko?» Une har-tan guztiek Kristoren mintzoa entzun zuten goi-tik erantzuten: «Frantzisko, Erregelan ez da ezer zurerik; bertan dagoen guztia neurea da. Eta nire nahia da, Erregela honelaxe gordea izatea: hitzez hitz, hitzez hitz, hitzez hitz, eta oharrik gabe, oharrik gabe, oharrik gabe». Eta erantsi zuen: «Badakit zenbat dezakeen giza ahuleriak eta zenbat lagundu nahi diedan. Hura gorde nahi ez dutenak, atera bitez Ordenatik».

Orduan Frantzisko dohatsua anaia haiengana itzuli eta esan zien: «Entzun duzue. Entzun duzue. Ala berriro esanaraztea nahi duzue?» Eta minis-troek, lotsaturik eta beren errua aitortuz, alde egin zuten (PerLe 17).

Hiru Lagunek esaten digutenez, miraria tarteko zela ezagutu omen zuten, beraz, Jaunaren eta Frantziskoren borondatea. Hori dena ez zen gertatu, ordea, eragozpen erabat itogarria idazten ari zen Erregela-proposamenerako, eta anaia hurbilagoek eta beste hainbatek lagunduta Frantziskok Erre-gelaren behin betiko proposamena burutu ahal izan zuen.

Ondoren, 1209an bezala, Erromako Kuriara iritsi, eta agian ukituren bat tarteko zela, Honorio III.ak onartu ahal izan zuen aurkeztu zitzaiona. Horra, bada, 1223ko azaroaren 29ko *Solet annuere* buldak Aita Santuaren sinadura nola jaso zuen, Anaia Txikien Ordenako behin betiko Erregelaren lehen lerroetan. Adierazgarria gertatzen da, Frantziskoren eskuetatik irtendako testu berritu eta onartuaren ondoren Aita Santuak berak nola gehitu zuen ondoko pasarte hau:

Inori ere ez bekio zilegi gure baiespen-agiri hau baliorik gabe uztea nahiz ausarkeriaz beraren aurka joatea. Eta norbait horretara ausartuko balitz, jakin beza Jainko ahalguztidunaren eta haren Apostolu Pedro eta Paulo dohatsuen haserrea izango duela bere gain. Lateranon emana, [1223ko] azaroaren 29an, gure Aita-santutzako zortzigarren urtean (2 Er, amaiera).

Frantziskorentzat, iturri anitzetatik segurtatutako testua da Erregelakoa: Ebanjelioko hitzetatik, garaiko erlijiotasun herritarrak erakutsitako bideetatik, berak bizi izandako gogoeta eta bizipen mistikoetatik, Elizak eman dion onarpenetik, anaiengan ikusi dituen etsenpluetatik. Aski eta sobera finkatuta dago beraz bizi-arautegi hori; berme osoa dakarten frogak dira horiek Frantziskorentzat, eta Anaiartera dato-rrenak eutsi egin behar dio beretzat hartu duen horri: Erregela anaiek jatorrizko gardentasunean uler dezatela gura du, eta maita dezatela, zinez.

Ondoko laukian ikus ditzake irakurleak bi Erregela haien atalburuetako gaiak; elkarren ondoan eman ditugu, 1221eko egitasmokoa eta 1223ko Erregela



Asis: Aingeruen Sta. Maria: Anaiak, Larrosen kaperan

onartuaren edukia. Dagoeneko, San Frantziskoren idazkien euskal itzulpenetan daude biak, osorik¹⁷.

Erregela buldatuak gutxienez gure egunak arteko bizitza izan du, eta Kontzilio-ondoko frantziskotarren Konstituzio berriztatuetan nabarmen indar-berriturik ageri dira lehen orduko Frantziskoren etorriaz gain esamoldeak ere. Leialtasun horren eskea da, adibidez, 2010eko frantziskotarren^{ofm} Konstituzioetan irakur daitekeen hau:

Honorio III.a Aita Santuak berretsitako Anaia Txikien Erregela da Ordenako bizitza eta legeriaren oinarria, eta bertan dagoen oro bere bizi-testuinguruan ulertu eta gorde behar da, San Frantziskok batez ere bere idazkietan adierazitakoaren, Elizaren zentzuaren eta Ordenako tradizio zuzenen arabera (Kuria Jenerala, 2010, Anaia Txikien Konstituzioak^{ofm}, Erroma. 1. tit., 2. art., 1).

“Frantziskotar” bezala izendatu ohi direnen artean, gizonezko frantziskotar erlijiosoen Familiak Adar ezberdinak ditu XXI. mende honen hasieran (frantziskotarrak^{ofm}, komentutarrak, kaputxinoak, hirugarrendar erregulararrak), eta Vatikanoko II.aren ildoan joan dira hauek ere beren iturburuetatik edan eta legeria berritzen, beraien Konstituzio berrietan ikus daitekeenez, eta, esan behar da, aurreko belaunaldi askotan baino sorrerarekiko hurbiltasun historiko landuagoarekin, gainera. Irakurleak Internet-en topa dezake gaur egun ahalegin horien lege-emaizta¹⁸.

¹⁷ Villasante/Zurutuza 1977:81-121. Frantz. Itz. Taldea 2005: 131-160.

¹⁸ Frantziskotarrak^{ofm} (2010): <http://www.franciscanos.org/docoficial/constituciongo.htm>. Frantziskotar komentutarrak: http://www.ofmconv.net/index.php?option=com_content&view=article&id=147&Itemid=268&lang=es. Frantziskotar Kaputxinoak (1990): <http://eremitoriovocacional.galeon.com/ConstOFCap1990.pdf>. Hirugarrendar Erregularren Erregela (1982): <http://www.frate francesco.org/ord/67.reg.tor.htm>.

BI ERREGELÉN ARTEKO ALDERAKETA											
1221eko Erregela	1223ko Erregela										
1. Anaiak berenik gabe, kastitatean eta obedientzian bizi daitezela	1. Jaunaren izenean! Hemen hasten da Anaia txikien bizimodua										
2. Anaien harrera eta jantzia	2. Bizimodu hau hartu nahi dutenak eta nola haiek onartu										
3. Ofizio-otoitza eta baraua	3. Ofizio-otoitza eta baraua. Anaiek munduan barrena nola ibili behar duten										
4. Ministro eta beste anaien arteko harremanak	4. Anaiek ez bezate dirurik har										
5. Bekatu egin duten anaien zentzaketa	5. Nola lan egin										
6. Anaiek ministroengana nola jo, eta anaietako inor ez dadila priore deitu	6. Anaiak ez daitezela ezeren jabe izan. Limosna eskatzeaz eta anaia gaixoez										
7. Nola zerbitzatu eta lan egin	7. Bekatu egiten duten anaiei ezarri behar zaien penitentzia										
8. Anaiek ez dezatela dirurik har	8. Anaiarte honetako Ministro Jeneralaren hautaketaz eta Mendekosteko kapituluaz										
9. Limosna-eskea	9. Predikariak										
10. Anaia gaixoak	10. Anaiak nola aholkatu eta zentzatu										
11. Anaiek ez diezaiotela inori irain egin, ez gaizki esan, baizik elkar maita dezatela	11. Anaiak ez daitezela mojen monasterioetan sar										
12. Begirada txarrak eta emakumeekiko hartu-emanak	12. Musulmanen eta beste fedegabeen artera doazenak										
13. Sexu-harremanak saihestu	Ugari dira Erregela frantziskotarrei buruzko eta berauen harrera historikoaz diharduten ikaslanak; aipatu ditugu batzuk aurreko orrialdeetan. Era berean, 1221 eta 1223. etako Erregelen konparaketa-azterketa maiz egin da. Hemen baliozko lau historialarirenak bakarrik utziko ditut aipatuta: Esser 1976: 139-159; Manselli 1997a: 253-268; Merlo 2005: 32-49; Carlini 1994: 209-230. <table><tr><td></td><td>Anaiarte</td></tr><tr><td></td><td>Sakramentuak, otoitza</td></tr><tr><td></td><td>Predikua, misioa</td></tr><tr><td></td><td>Harremanak</td></tr><tr><td></td><td>Ekonomia</td></tr></table>		Anaiarte		Sakramentuak, otoitza		Predikua, misioa		Harremanak		Ekonomia
		Anaiarte									
		Sakramentuak, otoitza									
		Predikua, misioa									
		Harremanak									
		Ekonomia									
14. Anaiek munduan zehar nola ibili behar duten											
15. Anaiak ez daitezela zaldiz ibili											
16. Musulmanen eta beste fedegabeen artera doazenak											
17. Predikariak											
18. Ministroen bilerak											
19. Anaiak katolikoki bizi daitezela											
20. Penitentziako sakramentuaz eta Jesu Kristo gure Jaunaren gorputz-odolak hartzeaz											
21. Anaia guztiek egin dezaketen gorespena eta oharpena											
22. Anaiei oharpena											
23. Otoitza eta esker ona											
24. Amaiera											

7. Bizitzaren udazkenean (1223-1226)

Hiru urte bete-beteak ditugu azken hauek. Frantziskok 42/44 urte ditu. Ez da zaharra, baina ez du osasun onik; baina urte hauek biziki emankorrak ditu bere bizialdiko ibilian. Hogeiren bat urte eskas dira biziera berrira etorri zela (1206); hori ere ez, lehen lagunak inguratu zitzaizkiola. Eta oraintxe biziko ditu unerik zinezkoenak, sufrituenak, osoenak. Ez du deus ahazten: Jainkoa, izadia, anaiak, maite dutenak.

Anaiak ez dira bi, lau, hamabi edo berrogei, mila-ka dira. Frantziskoren egunak hasierako lagun-lagunen berora bilduta doaz. Hugolino edo Anai Eliasek ez dute uzten, behin eta berriz arduratuko dira Anaia Frantziskoz. Herritarrek badakite jada “San-tua” dela, eta amultsuki hartzen dute herrietan.


Frantziskok gehienbat gizartetik urrunago bizitzeko joera du, eta orokorrean baita Anaiarte zabaletik ere. Badaki anaiak maite dutela, oso maite ere, baina bereziki etsenplu izan nahi du, eta barru-barrutik jainkozko presentzia bere egin. Horretan, eremitorioetako bakardadeak lagunduko dio.

7. 1. Eremitorioetan

Arrazoi franko zuen berak, azken hilabete haie-tan bizimoduz ere aldatzeko, bereziki 1220a aurretik bizi izandako ibiltari-biziera bizkorra mantsotu eta barkarlekuetara biltzeko.

Hasieratik bertatik (1206) berezkoa zuen Frantziskok otoitzerako bakardadeen zaletasuna: konbertsio ondoko lehen joera, hain zuzen, horixe izan zen, lehendabizi zaharberritu zituen elizatxo eta kaperetan, Asisko Le Carceri eta Rivo Torto-n, eta zer esanik ez Portziunkulan.

Silbestre eta Klarari kontsulta egin ondoren, argitu zen prediku-lana ere eginbeharrekoa zela (1212); baina lehen uneko kontenplazio-gogoak berean jarraituko zuen Frantziskoren eta Anaia Txikien bizitzan (LeLu 12, 1-2). Kontenplazioa eta herrietako predikua txandakatuz harmonia onean eramango zituzten. Hala ere, norberaren izaera eta gaitasun pertsonalek ere aginduko zuten, noski, betiere obedientziaren esanetara.



Frantziskokhainbeste maite zuen La vernako beste txoko bat.

Frantziskoren bizitzan, ordea, bi datu berri agertzen zaizkigu 1220ko hamarkadan: aje eta gaixotasunek zama handia ezarri zioten, predikuetan ibiltari ibili ahal izateko; bestalde, hasierako anaia minak eman zitzaizkion elkarrekin eremitorioetan otoitzean bizitzeko. Jada Erregelarena bideraturik zuela, bere barren mistikoak eremitorioetara bultzatu zuen Frantzisko.

Bizileku batetik besterako joan-etorrietan predikuak ere izan zuen tokirik; baina bakarraldietan murgildua ageri zaigu Frantzisko, eta lagun onez inguratuta, Zelanok deskribatu zigunaren arabera:

la bi urtetan zehar pazientzia eta apaltasun osoz eraman zituen [begietako] oinaze hauek, beti Jainkoari eskerrak emanez. Baina bere arreta askatasun handiagor Jainkoarengana zuzendu ahal izateko, eta bere estasialdi sarrietan zeruko egoitzetan sartu eta ibili ahal izateko; [...] arrazoi osoz bereziki maite zituen hainbat anairen esku utzi zuen bere buruaren zainketa. Bertute handiko gizonak ziren, Jainkoari emanak, santuentzat gogokoak eta gizakientzat atseginak. [...]. Ez dut oraingoz haien izenik emango, haien lotsa (modestia) errespetatzeagatik¹ (1 Zel 102).

Bestelako gizarteko lanbideetarako ezindua aurkitu zenean, indar berria hartu zuen harengan kontenplazio-egarriak. Egokiera horretarako idatzita ere bazeukan lehendik (1217-1221) otoitz-bakarlekuetarako arautegi laburra: *Erremitorioetarako Erregela*, laburra baina esanahitsua².

Eremitorioan Frantziskok ez zituen nahi anakoretak, anaiarte txikiak baizik, hots, anaiak elkarren ondoan eta bata besteari lagunduz taldea osatuko zutenak. Arau xumeak izango dituzte: batek edo bik beste biekiko ardura materiala izango lukete, hauek erabat otoitzera emanak biziko lirake, bakardade eta isiltasun osoa segurtatzen zaiela: txandakatuz trukatu lukete elkarren artean bizimodua. Ebanjelioetako emakumezko bi irudi ezagunen bidez ematen du aditzera Erregela honek eremitorioetan nahiko litzatekeen bizi-samurtasuna: anaia "Martari" legokioke etxeko lanak egitea, anaia "Mariak" otoitzean biziko diren bitartean.

Erlijioso-bizitza eremitorioan eraman nahi duten anaiak izan bitez hiru, edo gehienez lau.

¹ Badakigu nortzuk ziren lagun haiek: Aingeru Trancedi, Rufino, Leon eta Bernardo (edo Joan Lodi-koa).

² Asseldonk, O. van, 1995, "La Regla para los eremitorios", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 72, 1995, 375-386. <http://www.franciscanos.org/estudios/Asseldonk-ReglaEremitorios.html>. Raymundo, A. 1996, "La Regla para los eremitorios de san Francisco de Asís en la vida franciscana hoy", in: *Selecciones de franciscanismo*. 74, 1996, 57-296.

Horietako bi izan bitez amak, eta eduki bitzate bi seme, edo gutxienez bat. Ama diren biek egin bezate Martaren bizimodua, eta seme biek Mariaren bizimodua. Barruti bat eduki bezate, eta bertan bakoitzak bere gelatxoa, otoitzerako eta lotarako (Frantz. Itz. Talde 2005: 161).

Frantziskok hilabete haietan bizi izandako eremitismoak inguruan zituen anaiak ere grinatu zituen, eta ez hori bakarrik: ondoko mendeetako erreformazaleen artean bakardadea eta kontenplazioa Frantziskoren antz-bideari hobeki jarraitzeko bizimodutzat hartu ziren behin eta berriz (Manselli 1997a: 269-274).

Eremitoria otoiitz-leku ez ezik babesleku ere suertatu zitzaion Frantziskori urte eta osasun-egoera haietan. Ez ziren gutxi izan noizbehinka eta egonaldi luzeagotan bere otoiitz-lekutzat aukeratutako eremitoriaak; baina batik bat bi geratu dira kristauen oroimen frantziskotarrean: Greccio (1223) eta La Verna (1224), eta beraietako gertaerak.

Greccio-k bezala La Verna-k Frantziskoren “kristologia” edo hobeki espiritualtasun kristotar herri-tarrarekin dute zerikusia, Nazareteko Jesus izan baitzen harentzat propio inkarnatutako Jainkoaren presentzia historikoa, eta salbatzailea. Kristautasunaren misterio hori bi era kontrajarritan ospatu zuen Frantziskok: Greccio-n Inkarnazioaren poza ospatzen zuela, eta La Vernan, berriz, Jaunaren dohaina, gorputzeko ondoeza eta azken heriotza balio salbagarritzat hartzen zituela.

7.1.1. Greccioko Gabon-gau hura

Ikusi dugu arestian nola sortu zen Greccioko eremitoria, Rietiko bailaran baina mendi-mendian; Frantziskok otoiitz-lekutarako nahikoa bider baliatu zuen berau, eta Santuaren lehen biografiek behin eta berriz gogorarazi zuten Frantziskoren hango 1223ko Gabon-jaia.

Ikusiko dugun ospakuntza honetan Frantziskoren “kristologia” herritarra topatzen dugu, lehen-dik ere ikonografia kristauan egon bazegoena, Mendebaldean bezala Ekialde kristauan ere. Frantziskok, bere fede-fedetik hausnartuta eta Testamentu Berriari jarraiki modu herritartu batean ospatu nahi izan zuen Gabon-gaua, Ebanjelioetan aurkitu zituen albisteak jasota.

Izan ere, lau Ebanjelioetako bakoitza arduratu zen Jesus Nazaretekoaren jaiotzaz nolabaiteko argibide “historikoak” ematen. Ebanjelariak Testamentu Zaharretik saiatu ziren etortzekoa zen Mesias-en genealogia eta ezaugarriak azalduta uzten, eta zenbait bestelako xehetasunez zehazten (Mt 1, 18-24; Lk 2, 1-21); San Joanen lana izan zen guztia Inkarnazioaren teologiatik hobeki janztea (Jn 1, 1-18)³.

Liturgiatik jasota, Frantziskok Lukas-en testu hau izan zuen batez ere gogoan, azken finean antzerti paraliturgiko bat osatzeko azalpenak aurkezten zizkiona:

Garai hartan mundu guztiko erroldaketa egiteko agindu zuen Augusto enperadoreak. Lehen erroldaketa hau Siriako gobernari Kirino zela egin zen. Beraz erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira, Jose ere, Dabiden familia eta jatorrikoa baitzen, Galileako Nazaret herritik Judeako Belen zeritzan Dabiden herrira igo zen bere emazte Mariarekin, erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Belenen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta lehensemea izan zuen; oihaletan bildu eta abere-aska batean jarri zuen, ez baitzen ostatuan haientzat tokirik.

³ Ebanjelioetako testuen exegesiak: Varii, 2001², *Les Évangiles. Textes et commentaires*. Paris: Bayard. 23-28 (Mt), 551-580 (Lk), 873-879 (Jn). Arregi, J., 2000, “Jesusen sustraia”, in: ID., 2000, *Nazareteko Jesus. Zer gizaki? Zer Jainko?*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 47-66. Erdi Aroko exegesian aipatu ohi ziren lau “zentzuei” buruz: De Lubac, H., 1959-1964, *Exégèse médiévale. Les quatre sens de l'Écriture*. Paris: Cerf. Lehen azalpen xumea: https://fr.wikipedia.org/wiki/Quatre_sens_de_l%27%C3%89criture (literalak, eta hiru espiritualak: alegorikoa, tropologikoa, analogikoa).



Greccio: Herria eta Santutegia. Gabonetako gaurko jaiotzek Greccioko ospakizun hura ere gogorazten digute.



Gaixotasuna: gaixoeekiko erruki eta arta zituen lege Frantziskok, eta beraren buruaz ari zenean egonarria eta fedezko ikuspena. Begietatik latz sufritu zuen Frantziskok, esaterako.

Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez kanpoan artaldea txandaka zaintzen. [...]. [Aingeruek haurraren jaiotza adierazita] artzainek ziotsaten elkarri: "Goazen Belenera Jaunak adierazi digun gertakari hori ikustera". Joan ziren lasterka eta han aurkitu zituzten Maria, Jose eta jaioberria askan (Lk 1, 1-8 eta 15-16).

Jesusen bizitzako pasadizoak gogoeta-gai maiteak zituen Frantziskok. "Etengabe meditatzen zituen Jaunaren hitzak eta haren egiteak sakon hausnartzen. Baina batez ere haren Gizakundeko apaltasuna eta Nekaldiko maitasuna hain zituen gogoan ezarriak, ezin baitzuen ia beste ezertan pentsatu" (1 Zel 84).

Liturgiatic at ere bakardade isilean bizi ohi zituen Frantziskok sinesgai haiek, baina kasu honetan jendartean ospatu nahi izan zuen Gabongaua, Jesusen jaiotza, antzeztuta, herritarrek hobeki goza eta uler zezaten. Asmo pedagogiko horren berri San Bonabenturaren *Legenda luzea*-k honela jaso zuen: "Hil baino hiru urte lehenago, Greccio herrixka ondoan, Jesus haurraren jaiotza, ahal zuen osperik handienaz ospatzea erabaki zuen, jendearen debozioa biziberritzeko" (LeLu 10, 7).

Ospakuntzarako beharko zen prestaketa ongi zaindu nahi izan zuen. Hasteko, Aita Santuari aldare mugikorra erabiltzeko baimena eskatu zion, ospakuntza Elizaren arauen barruan egiteko. Liturgiaren antzezpen osagarri bat egin nahi izan zuen, eta egoki izan zitezkeen herritar eta abereak "jaiotzako" protagonista egin zituen, fedezko gertaerari gorputz emanda, Greccio eta inguruko bizilagunek dena entzun eta ikus zezaten. Frantziskoren lehen biografoak honela kontatu zigun Gabon-jai hura nola antolatu eta ospatu zen:

Gogoangarria eta begirunez oroitzekoa da, hil baino hiru urte lehenago, Jesu Kristo gure Jaunaren Jaiotza egunean Greccio izeneko herrixkan egin zuena. Bazen lurralde hartan Joan izeneko gizon bat, izen ona eta biziera

hobea zuena. Frantzisko dohatsuak biziki maite zuen, zeren eta, noblea eta bere herrialdean txit agurgarria izanik, odoleko nobletasuna arbuia-tuz espiritukoa aukeratu baitzuen.

Deiarazi zuen, bada, Frantzisko dohatsuak, beste hainbatetan bezala, Jesusen jaiotza baino hamabost bat egun lehenago, eta esan zion: "Aurtengo Jaunaren festa Greccion elkarrekin ospatzea nahi baduzu, zoaz hara bizkor eta presta arretaz esango dizkizudanak. Belenen jaio zen haurraren oroigarria egin nahi dut, eta neure begiz nolabait ikusi haurrak jasan zituen gabezien ondoezak, nola izan zen askan etzana eta idiaren eta astoaren artean lasto gainean jarria." Gizon on eta leialak, hau entzun bezain laster, lasterka joan eta santuak esandako guztia prestatu zuen.

Hurbildu zen egun alaia, bozkariatzeko garaia heldu. Hainbat lekutako anaiei egin zitzaien dei, eta lurralde hartako gizon-emakumeek, bihotza pozturik, ahal zuten moduan, kandelak eta zuziak prestatu zituzten gau hura, bere izar distiratsuz egun eta urte guztiak argitu zituen gaua, argitzeko. Heldu zen, azkenik, Jainkoaren santua eta, dena prestatua aurkiturik, ikusi eta poztu egin zen.

Aska moldatzen dute, belar ondua ekartzen eta astoa eta idia sarrarazten. Han sinpletasuna ohoratzen da, pobretasuna goraipatzen, apaltasuna gomendatzen, eta Greccio Belen berri bilakatzen da. Gauak egunak bezala egiten du argi eta gozo bihurtzen da gizaki eta abereentzat. Iris-ten da herria eta misterio berriaren aurrean poz berriz alaitzen da. Basoa soinu betetzen da eta harkaitzek oihartzun egiten diete poz-kantuei. Anaiek Jaunaren gorespenak kantatzen dituzte eta gau osoa bozkarioz janzen da. Jainkoaren santua aska aurrean dago zutik, intzirika, gupidaz eta poz harrigarritz gainezka. Aska gainean ospatzen da meza nagusia, eta apaiza kontso-lazio paregabez gozatzen da

Jainkoaren santuak diakono-jantzia jartzen du, diakono baitzen, eta Ebanjelio santua kantatzen du ahots ozenez. Haren ahotsak, benetan indartsua, gozoa, argia eta ozena, zeruko sarietara gonbidatzen ditu denak. Ondoren, predikua egiten dio herriari, eta Errege pobreaken jaiotzaz eta Belen herri txikiar eztiari hitzez mintzatzen da. Behin eta berriz, Kristo "Jesus" aipatzean, maite sugarretan urtua, "Bethlehemgo haurra" esaten dio; eta "Bethlehem" ardiaren antzera beeka esatean, ahoa bete-bete egiten zaio doinuz, baina are gehiago maitasun samurrez. "Bethlehemgo haurra" edo "Jesus" aipatzean, ezpainak mihiaz miazkatzen ditu, izen horien gozoa dastatuz eta ahogozatuz.[...]. Gaubeila nagusi hura amaiturik, pozik itzuli zen bakoitza bere etxera (1 Zel 84-86).

Bibliatik eta Liturgiari bildutako iradokizunen gain mamitutako azalpen antzeztu hau erlijiotasun herritarretik ere bazetorren, baina bere xumetasunean gogo eta asmo luzekoa suertatu da gero, historiografia berri eta zolienak ikusi duen bezala.

Nabaria da, noski, ospakuntza eta antzeppen honetan irudikapen eleanitza dugula, bata intuitiboa (hau da, "honela gertatu ziren gauzak" esaten duena) eta bestea sinbolikoa (kontuz, "antzeppena osorik eta inkarnazioaren baitan ere ulertzen" duena), hura herriar xumearentzako tresna pedagogikoa da, eta bigarrena eskolatuari ere hel da kiokeena. Guztientzako baliozkoa den hizkera bikoitza darabil, beraz, Frantziskok: herri-herriak bertatik bertara bere fedean dasta dezakeena, eta teologoak bere zientzia teorikoan biziberrituta jaso eta eskaini behar duena (Manselli 1997b: 319). Hortaz, nornahirentzako asmakaria izan nahi zuen Greccioko antzeppen honek⁴.

⁴ San Ignaziok, hiru mende geroago, bere Gogojardunetan bigarren asterako iradoki zuen hark badu antzik hemen ikusten dugunarekin: "El primer preámbulo [de la segunda semana] es composición, viendo el lugar, será aquí ver con la vista imaginativa..."; kasu honetan,

Data honen ingurutik aurrerakoan, Frantziskok bere heldutasun betean balio sakonagoko keinuak izan zituen, mundu honetako errealitate eta balio ikusgarriak eta besteko ikustezinak keinu bakarretan biltzen zituela. Jaiotzaren hau da keinu horietako bat.

Pentsa daiteke Frantziskoren Greccioko "jaiotza" honek geroztik ezagutu duen zabalkundea sakontasun bikoitz horretan duela arrakastaren arrazoietako bat (Manselli 1997a: 331-335). Frantziskoren aurretik ikonografia kristauan ageri zena Greccion antzeppen bizia bilakatu zen, eta hari esker mundu osora eta gure artean zabaldu⁵.

1223ko Gabon hartatik hilabete batzuetara, Greccioko fededunen lagunarteko bizipenak beste eremitorio bateko bakardadean izan zuen bigarren une sakonena, La Vernan, isilpean eta elkarriketa gordean.

7.1.2. La Verna: mistikaren "zauriak"

Greccioko ospakuntzak Jesus haurraren giza izaera pozgarria azpimarratu nahi izan zuen, eta La Verna-koak, oster, Haren gizatasunaren altzoan Jainkoak eskainitako sufrikariozko salbamena azpimarratzen du, alde batetik, eta Frantziskok hori dena bere bizipen mistikoan nola beregatu zuen ikusarazten digu.

Frantzisko nahikoa bider heldu zen La Vernako eremitorio honetara, lehenengo aldiz 1213an eta

Frantziskok antzeztu egin zuen, zalantzarik gabe bere kontenplazioan bizi ohi zuen irudimen-teknika jarraitzen zuela.

⁵ Hedapen horren lekukoak eskueran daude gaur egun Interneten: Euskaraz (osatzeko): https://eu.wikipedia.org/wiki/Jaiotza_%28Natiibitatea%29.

Gipuzkoan: <http://www.asociacionbelenista.com/Actividades.html>. Iruñetik hasita, estekak: <http://www.belenistaspamplona.es/default.aspx?func=35>.

Gaztelaniaz: Belenismo: <http://foro.belenismo.net/category-view.asp>. Italicaraz: <https://it.wikipedia.org/wiki/Presepe>.

Frantsesez: https://fr.wikipedia.org/wiki/Cr%C3%A8che_de_No%C3%ABl.

Ingelese: https://en.wikipedia.org/wiki/Nativity_scene.



La Verna: eraikin xumeak handiagoen artean

azkenekoz 1224an; baina biografietan ez zaigu eman bertako egonaldi guztien albisterik. Frantziskok etxola batean izan zuen bere otoizleku bildua, eta berorren ondoan, Aingeruen Andre Mariaren izeneko kaperatxo bat eraiki zuen, Portziunkulakoa gogoratuz. Bakarleku honetan, inguruko basoak, otoizlekuak eta ondoan izan zituen lagun minek erraztu zizkioten bertako baraualdi eta otoitza.

Oraingoan, Frantziskok San Migel-en ohoretan egindako baraualdia da gogoratu behar duguna, 1224ko abuztuaren 15etik irailaren 30era luzatu zena. La Verna-ko egonaldi hark bete-betea itxuraldatu zuen Frantzisko, barne eta gorputz, eta bertako gertakariak haren hilondoko irudi historikoa zizelkatuta utziko zuten, gainera.

Zelanok bezala Bonabenturak kasik hitz berekin azaldu zuten Frantziskok sentitzen zuen bakardade-beharra, esan bezala lagun minenak berarekin zituela (Anai Leon idazlagun zuela, eta kasu honetan, Aingeru, Silbestre, Iluminatu eta Maseo-rekin):

Behin batean, Frantzisko aita dohatsu eta beneragarriak, debozio handiz entzutera eta ikustera egunero etortzen zitzaizkion jendetzak utzirik, bakarleku baketsu eta ezkutu bat bilatu zuen [La Verna]; han Jainkoari emana bizi nahi zuen eta gizakiekin ibiltzeagatik itsats zekiokeen hautsa garbitu. Ohitura zuen grazia irabazteko eman zitzaion denbora banatzeko: zati bat, komenigarri iruditzen zitzaionean, lagun hurkoen aldeko lanetan ematen zuen, eta beste zatia bakardadeko kontenplazio zoriantsuan.



La Verna: bizipen mistikoen mendi sagaratua.

Lagun banaka batzuk hartu zituen berekin, bere biziera santua besteak baino hobeto eza-gutzen zutenak, jendearen bisita eta enbarazutik babes zezaten eta bere lasaitasuna maitekiro zaindu (1 Zel 9. lk. LeLu 13, 1).

La Vernako egonaldi hura jo zuen Santuaren hagiografiak Frantziskoren bizipen mistikoetan unerik garaientzat, Kristoren "zauriak" orduan jaso omen zituelako⁶, eta horrela Gurutziltzatuaren irudi eta izaera bereko bilakatu zelako. Segur aski, San Frantzisko izan zen historiako lehen estigmatizatua,

gerora horrelako hainbat egon bada ere⁷.

Hori gogoan hartuta, ondoren eta luzaroan hagiografiak eta Ordenak berak ere Frantziskoren *imitatio Christi* eta *conformitas Christi* direlakoan esanahi espiritualak goraipatuko dituzte. Horrela, bada, garrantzizko balio espiritual eliztarra ez ezik sozio-ideologikoa ere izan zuen La Vernan gertatutako horrek, Frantziskoren estigmatizazioa Ordenaren bikaintasun-zihurtagiria bilakatu baitzen.

Hala ere, Frantziskoren idazkietan bertan ez da deus esaten estigmatizazioaz⁸, eta diotenez, bizirik

⁶ Frugoni 1997: 143-171. Gertakari hari buruzko historiarik kritikoena, agian: Frugoni, Ch., 1993, *Francesco e l'invenzione delle stimate. Una storia per parole e immagini fino a Bonaventura e Giotto*. Torino: Einaudi.

⁷ Dinzelbacher, P., 1993, "Stigmata", in: ID, 1993, *Dictionnaire de la Mystique*. Turnhout: Brepols.

⁸ Ik. Schmucki, O., 1963-1964, "De S. Francisci Assisiensis stigmatum susceptione", in: *Coll. Franc.*, 33, 1963, 210-266, 392-422; 34, 1964, 5-62,

zela, dena ezkututzen ahalegindu zen: "Ez zion inori, edo ia inori, agertzen bere sekretu handia. Beldur zen lagunek ez ote zuten zabalduko" (1 Zel 96). Bizirik zela, anai Elias eta anai Rufinok, behintzat, ezagutu omen zituzten zauriak.

Zaurien albiste ofiziala Frantzisko hil ondoren anai Elias Bikario Jeneralak eman zien anaiei gutun batean (1226?)⁹, Zelanok lehen biografian jaso zuen notizia (1229)¹⁰ eta Hiru Lagunek ere eman zuten gertatutakoaren berri (1246, HLaLe 69-70). Bona-benturak bere bizitza ofizialean ez zuen albora utzi zauriena (1263)¹¹, eta gero XIV.eko *Loretxoak*-etan

241-338. Schmucki, O., 1991, "La mística de San Francisco de Asís a la luz de sus escritos", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 60, 1991, 355-390. Ik. Fine, F., 2009, "Los estigmas", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 113, 2009, 211-224. Bessière, G.; Voulliez, H., 1998, *Frère François, le saint d'Assise*. Paris: Gallimard. 36, 86, 90-111 (ikonografia duela).

⁹ Gutun horren benetako jatorriaz zalantza handiak daude; baina, hala ere, garaiko beste hainbat testu biografikoren artean argitara eman izan da. Bertatik, ondoko pasarte hau ekar daiteke hona: "Eta horiek esan ondoren [Frantziskoren heriotzari buruzkoak, alegia], *poz handi baten berri ematen ditzuet*, mirari harrigarri baten berri. *Egundaino ez dugu entzun* horrelako ezaugarririk gertatu denik, Jainkoaren Semearengan, Kristo Jaunarengan izan ezik. Heriotza baino lehen-txeago, gurutziltzatua agertu zen gure anaia eta aita, bost zauriak, Kristoren benetako estigmak alegia, bere gorputzean inprimaturik zeramatzala. Haren eskuek eta oinek iltze-zuloak bezalakoak zeuzkaten alde bietatik, eta geratu zitzaizkion orbaiek iltzeen beltzura erakusten zuten. Haren saihetsa, berriz, lantzaz zulatua ageri zen, eta odola zerion sarri" (ElGut 15-19). Gogoan har: GJor 50 (gutun berean edo besteren batean, albistea Frantziara bakarrik ez, Ordena osora bidali zen).

¹⁰ "Esku-oinak erditik iltzeek zulatuak ikusten ziren: iltzeen buruak eskuen barrualdean eta oinen gainaldean; muturrak, berriz, kontrako aldean. Seinale haiek biribilak ziren esku barruan eta luzeak gainaldean; haragi koskorrak ikusten ziren, iltzeen punta bihurrituak eta errematxatuak balira bezala, gainerako haragitik kanpora irteten zirenak. Era berean, oinetan ere markatuak zeuden iltzeen seinaleak, gainerako haragitik jasoak. Eskuineko saihetsean, lantzaz zulatua izan balitz bezala, orbaina zuen, maiz odola isurtzen zuena, tunika eta barruko galtzak odol sakratuz bustita utziz" (1 Zel 95). Carlini-k testu honen adierazgarritasun-indarrak ohartarazi du: "È una prosa lucida, impersonale, fra il notariale e il medico-legale, la prosa delle ricognizioni alle relique, la prosa delle autopsie, analitica, fredda, crudamente descrittiva, che si sforza di lasciare il meno possibile all'immaginazione" (Cardini 2014: 245).

¹¹ Aingeru Serafina desagertuta, "Berehala hasi zitzaizkion esku-oinetan iltzeen markak agertzen, lehenxeago gurutziltzatuaren irudian ikusi zituenak bezalakoak. Esku-oinak erditik iltzeek zulatuak ikusten ziren: iltzeen buruak eskuen barrualdean eta oinen gainaldean; mu-

"San Frantziskoren zauri sakratuei buruzko gogoe-tak" daude, testu luzean eta oso hagiografikoan (Frantz. Itz. Taldea 2002: 1072-1111).

Margolan eta grabatueta, eskultura eta behe-erlibetan Frantziskorekiko ikonografiak maiz erakutsi du Aingeru Serafinaren eta Frantziskoren arteko topaketa eta zaurien ezartzea (Giotto eta Lorenzetti-rengandik hasi¹² eta gurean, Joan Aranoa bilbotarraren eskutik Donostiako frantziskotarren elizan aldare nagusian geratu den Frantzisko-*pankrotar* horretaraino)¹³.



La Verna: gaur egungo fraideak prozesioan, Frantziskoren ibilbidea gogoratzuz

turrak, berriz, kontrako aldean. Esku-oinetako iltze-buruak borobilak eta beltzak ziren; muturrak, berriz, aski luzeak, bihurrituak eta errematxatuak, eta haragitik nabarmen irteten ziren kanpora. Era berean, eskuineko saihetsean orbain gorri bat zabaltzen zen, lantzaz zulatua izan balitz bezala. Orbainak odol sakratua isurtzen zuen maiz, tunika eta barruko galtzak busti-busti eginda utziz" (LeLu 13, 3).

¹² Mariucci, G., 2004, *Assise où trouver. Les maîtres primitifs: Cimabue, Giotto, Simone Martini, Pietro Lorenzetti*. Florence: Scala Group. 67, 125.

¹³ Joan Aranoa (Bilbao, 1901-Los Olivos, 1973) San Frantziskoren bizitzako unerik esnahitsuenak (zortzi) aukeratu zituen Donostiako Atotxan emateko. Ik. Intxausti, J., 2005, *Un convento en la ciudad. Crónica del siglo XX. Historia de los franciscanos en San Sebastián y Egia-Atotxa*. Donostia: Kutxa Fundazioa. 122-136.



La Verna: izadiaren otoitz isilean

Eta gertaera hartaz zer diote historialariek gaur egun? Eskueran dagoen Frantziskori buruzko baso biografiko itzelean galdu gabe, biografia modernoetatik hiru aukeratuko ditut soilik, hirurak ere historialari erdi-arozale handiak, beren iritzia eman dezaten (Merlo, Manselli eta Cardini).

Merlo-k La Vernako esperientziaren ondoko emaitzak gogoratzen ditu batez ere: uste du, Anaiartearekin berrikitan bizi izandako krisia eta etenari (1221-1224) eta beroriek barnean sortu zioten sumina gainditzeko esperientzia izan zela La Vernako hori: "hogei urte lehenago konbertsioaren ondoren bezala, gizaberritua sentitu zen" Frantzisko, bere buruarekin eta inguruarekin adiskidetuta, alegia, aldarte txar guztien gainetik aurrera egiteko indarturik (Merlo 2005: 50).

Zauriei buruzko Manselli-ren iruzkinetan ondoko puntuak jaso daitezke: 1) Frantziskok La Vernako

pasadizo hori naturaz gaindiko gertaera bezala bizi izan zuen, ziurki. 2) Berarena izan zen ezaguna den lehen estigmatizazioa, eta beraz, ez zen izan inoren esperientziatik errepikatua. 3) Egon, zauriak egon ziren lekukoek baieztatu zuten. 4) Hortik aurrerako balizko interpretazioek, gisa baterako ala bestetarako, ez dute garaiko datu historikoetan frogarik (Manselli 1997a: 319-324)¹⁴.

Bere aldetik, Carlini-k, behin baino gehiagotan aipatu izan den gertakariaren ulerpen psikosomatikoa gogoan hartzen du, eta Frantziskoren bizitzan *sequela Christi* edo Kristoren segimenduak zuen garrantzia azpimarratzen, bestelako baieztapen-etara heldu gabe, eta bi puntu gogorarazi nahi ditu: 1) Urte hauetxetan nabari dagoela Frantzisko urratzen ari den ibilbide kristotarra (Grecciotik La Ver-

¹⁴ Begira nahi bada: Manselli 1997a: 324; 1997b: 321-334.

narakoa), eta 2) Estigmatizazioa mendi sakratu batean jazo zela, La Verna hura Sinai, Tabor edo Kalbario mendien pareko bihurtzen zela; beste gabe (Carlini 2014: 242-247).

Frantzisko 1224ko irailaren 30ean abiatu zen La Vernatik Asis aldera, mendi-parajeari, egun haietan lagun izandako zapelatzari eta hango anaia lagun bakoitzari azken agur hunkigarria egiten ziela, guztiak ere kupiturik negarrez, elkarri adio esatean.



La Verna: mendi hartako Aingeruen Andre Mariarekin

La Vernatik giza-berriturik atera zen Frantzisko, eta dena beharko zuen ondoko hilabete gogorre-

tan, gaixotasunek jota eta maite zuten zaintzaileak nekaturik edo umore txarrez erantzuten ziotenerako (2 Zel 51). Esan behar da, gainera, oinazetan bizi zen Frantziskoren bizi-irizpide hain hertsiek eta bizimodu latzak ez zutela egiten beti samurrago elkarbizitza. Bere aldetik, zegoen egoeran egonda, Frantziskok bazekien zama eta pisua zela ingurukoentzat, nahiz eta atsekabeen ere ostarate argirik ez zitzaion faltako.

La Vernako gertakarien oroipena bizirik dago gaur egun ere Ordenaren memorian, mendeurrenekoan Koser Ministro Jeneralak gogorarazi zuenaren arabera (1975)¹⁵.

7. 2. Gaixo, baina pozik

Gaixotasuna itzulinguru ezberdinetan aurkitzen dugu Frantziskoren bizitzan: pertsonalki berarengan, anaaien arteko eriangan nahiz herritar gaixoetan. Eritasunaren presentzia hauek oso barrutik bizi izan zituen santuak, eta gaitzaren horri erantzutean espiritualtasun kristauak giza jarrera berriagoa lantzerantz eraman zuen, izan ere gaizkia eta sufrikarioa fedez kudeatzekoak baitziren Frantziskorentzat¹⁶.

7.2.1. Frantzisko eta gaixoak

Gaixotasuna Frantziskoren lehen konbertsioan dago, biziera berrirako deihadar gisa: "Jaunak honela eman zidan niri, anai Frantziskori, bihotz-berritzen hastea. Bekatutan nengoela, oso samina gertatzen zitzaidan legendunak ikusteak. Baina Jaunak berak eraman ninduen haien artera, eta errukiz tratatu

¹⁵ Koser, C., 1975, "La lección del Monte Alverna", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 11, 1975, 141-153. <http://www.franciscanos.org/sel-fran11/koser.html>.

¹⁶ Lehmann, L., 2002, "Francisco y el sufrimiento", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 92, 2002, 258-264. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/Lehmann-FranciscodeAsisyelsufrimiento.htm>.

nituen. Eta bekatuetatik¹⁷ aldentzean, samin zitzaidana gozo bihurtu zitzaidan gorputz-arimentzat. Eta handik alditxo batera, munduko bizieratik atera nintzen” (Test 1-3). Frantziskoren biografian ez ezik Erdi Aroko legendunen historia orokorrean une esanahitsua da horrela gertatutako konbertsio-une hori (Bériac 1988: 122-134).

kristauaren bidean. Esan gabe doa, haiekiko jarrera honek oihartzun biblikoak dituela bere baitan, Itun Zaharretik bezala Berritik jasota. Konbertsioaz ni-harduela arestian esandakoek balio bezate hemen ere. Bestalde, espero zitekeen moduan, Frantziskori bizirik zela eta gero egotzitako “mirarien” artean egon omen ziren gaixoen sendaketa harrigarriak,



Estigmak (zauriak): hil aurretik oso gutxi izan zuen zaurion albisterik; hil ondoren ofizialki zabaldu zen beraien notizia

Frantziskorentzat, bera eta anaia txikiak legendunen artean jartzeak txikientasuna (minoritatea) erro-errotik segurtatzen zuen, espiritualtasun

eta horren berri emateko idatzi zuen Zelanok *Mirarien liburua*, jada euskaraz emana (Frantz. Itz. Taldea 2002: 424-460).

Gaixoeikiko errukia garaiko hagiografia guztian barrena ageri zaigu, zernahi motatako eriak osatzen zituela (elbarriak, hidropikoak, beso ihartuak, paralitikoak, itsu, gor eta mutuak, legendun eta odol-

¹⁷ Jatorrizko testuan, “ab ipsis”. Gramatikalki badirudi “haiengandik” ere itzul daitekeela, hots, “legendunengandik”.

jario zirenak, eta abar luze bat). Frantziskori buruz sendatzaile errukitsu eta boteretsuaren irudia zabaldu zen, beraz, herrietan, ezagutu zutenen artean berehala eta Ordenaren eskutik hagiografiaz baliatuta gerora.

Santuaren bizitzan ez da falta gaixoekin izan ohi zituen arreta eta fineziak erakusten dizkiguten gertaerak, hagiografoaren ustez mirariz ere hornituta:

Beste batean, Frantzisko dohatsua leku hartan bertan zela [Portziunkulan?], gizon espirituala eta Ordenan zaharrenetakoa zen anaia bat oso gaixo eta ahul zegoen. Egoera hartan ikusiz, Frantzisko harenganako gupidaz bete zen.

Baina garai hartan anaiek, osasuntsuek zein gaixoez, alaitasun handiz pobretasuna oparotasuna balitz bezala hartzen zuten eta beren gaixoardietan ez zuten sendagairik erabiltzen, ez eta eskatzen ere [...]. Horregatik, honela esan zuen Frantziskok berekiko: «Anaia honek goizean goiz mahats heldua jango balu, on egingo liokeela uste dut».

Pentsatu eta egin. Egun batez, goizean goiz jaiki, anaia hura isilean deitu eta bizilekuaren ondoan zegoen mahasti batera eraman zuen. Aukeratu zuen jateko mahats helduak zituen mahatsondo bat, eta honen ondoan anaiarekin eseriz, mahats-aleak jaten hasi zen, hura bakarrik jaten lotsa ez zedin. Jan zutenean, anaia hura gaixotasunetik libre gelditu zen, eta elkarrekin Jauna goratu zuten (Perlsp 28).

Gizartean aringarri gutxi zeuden garai haietako gaixoen atsekabe eta oinazeak sendabidean jartzeko, eta Frantziskok, berak jasandako gaitzen eskarmentuz, ongi eta sobera ulertuta zuen lazzeria horiek gizakeraren parte zirela, eta guztiok ere zoritxar horretatik edan beharko genuela. Hala ere, ez zen horren aurrean itsutu, eta funtsezko izan-argibidea Jesus Nazaretakoarengan aurkitu zuen: Harengan ikusitako pobrezia, sufrikarioa eta heriotza salbazio-emaile izan ziren bezala, norberaren-

tzat, Jainkoren maitasunean eramanez gero, salbaidide eta meritu izan zitezkeen. Irizpide eta sinesmen horien gain eraiki zuen Frantziskok bere espiritualtasuna. Espiritueltasun kristotatar hau oso berea izan zuen beti asistarrak.

Gaixotasuna santutasunerako aurrera-bide izan zitekeela da Frantziskoren uste nagusia; baina kristau biziera asebetetarako iristeko gaixotasunak nola mugatu zuen gogoratzen du inoiz: “Gauza askotan huts egin dut neure erru handiz [...], neure gaixotasunagatik edo ezjakin eta eskolagabea naizelako” (OrG 39). Bizitzako azken hilabeteetan, gaixoaren bere ezina aipatuta idazten die anaiei: “Ahuleziagatik eta gaitzaren oinazeagatik hitz egiteko gauza ez naizenez gero, hiru hitz hauetan agertzen diet laburki ene anaiei neure borondatea” (TestS 2).

Erreparatuta zegoen, noski, gaixoak maitagarri izanda ere, ez zirela denak burubide eta umore berekoak. Hain zuzen, oso gaixorik eta azkenetan edo zela, Klara eta ahizpei abestu zizkien bertsoetakoa da ondoko pasarte hau: “Gaixotasunaren zamapean zaudetenok, / eta beraiek zaintzen nekatzen zarenok, / bakean eramazue dena batzuek eta besteok” (KIAh 5). Garai bertsuko Frantziskoren idazkirik ederrenetako batean, *Anai Eguzki eta Sorkarien kantikan* (1226), itzuli zen berriro gaixotasunaren teologia iradokitzen: “Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dutenengatik barkatzen / eta gaixotasuna eta larrialdia eramaten: / zorionekoak bakean sufritzen dituztenak, / zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta” (AEgKt 10-11).

Ardura horren bidetik, Anaiarte/Ordenaren bizitzan oinarritzakoagoak diren agiri ofizialek iristen gara: Frantziskoren idazkietan, Erregeletan alegia, topatzen dugu gaixoarekiko ardura, arau bihurtuta. Ez da hau, ordea, nobedadea monakatu kristauan. Aitzitik, Pakomiok (c. 287-358), Benitok (Erregela, 530/560), nahiz monakatu bisigotikoan San Isidorok (Erregela, 615-619), San Fruktuosok (c. 646) edo Erregela Amankomunak (p. 656), adibidez, gogoan

izan zituzten gaixoak¹⁸, eta Monasterioetan eritegiak jarri ohi ziren, halakoak hobeki artatzeko.

Frantziskoren aholkuen artean daukagu anaiei orokorrean zuzendutako hau: "Zorionekoak. anaia gaixo dagoenean eta ezin ordaindu dionean, osasuntsu dagoenean eta ordaindu diezaiokeenean bezalaxe maite duen zerbitzaria!" (Ahol 24)¹⁹.

Bere bi Erregeletan izan zituen gogoan anaia gaixoak (1221, 1223), alde batetik gainerako anaiei elkartasunik minena eskatzen ziela: "Eta anairen bat gaixo eror baledi, gainerako anaiek zaindu behar dute beraiek zainduak izatea nahiko luketen bezalaxe" (2 Er 6, 9). Baina ez da bakarrik gaixoak ongi artatuak izatea nahi zuela, anaia erizainak jarrita, baizik eta guztientzat eritasuna espiritualtasun jatorrago baten eskola izatea nahi zuen Frantziskok, osasuntsuak bihozpera, eta era berean, gaixoak neurritsu eta eraman oneko izanik:

Anaiaren bat edonon ere gaixo eror baledi, beste anaiek ez bezate bertan behera utz; baizik eta izenda bedi anaia bat, edo gehiago, behar izanez gero, beraiek zainduak izatea nahiko luketen bezalaxe zain dezaten. Baina premia larrian balira, gaixoaldian hura zaintzeko ardura hartuko duen beste norbaiten esku utz dezakete.

Eta anaia gaixoari arren eskatzen diot, guztiagatik eskerrak eman diezazkiola Egileari,

eta Jaunak eduki nahi duen bezalaxe egotea nahi izan dezala, osasuntsu edo gaixo; zeren «Jainkoak zigor eta gaixotasunezko akuiluz eta damu-espirtuz hezten baititu» betiko bizitzarako hautatu dituen guztiak, Jaunak berak dioen bezala: "Maite ditudanak zentzatzen eta zigortzen ditut nik"

Eta norbait Jainkoaren edo anaien aurka asaldatzen edo haserretzen bada, edota axola biziz sendagaiak eskatzen baditu, aurki hiltzekoa den eta arimaren etsai den lurtar gizakiaren osasuna neurritz kanpo irrikatuz, hori gaiztoarengandik datorkio, eta giza erara ari da, eta ez dirudi anaietakoa, gorputza gehiago maite baitu arima baino (1 Er 10, 1-40).

Anaia gaixoak direla eta, diruarekiko debeku guztien gainetik, Frantziskorengandik erraz espero ezin zitekeen testu hau datorkigu 1. Erregelari, "Anaiek ez dezatela dirurik har" dioen atalburuan, hain zuzen gaixoen mesedetan salbuespen hau onartzen duela: "Beraz, anaietako inork, dagoen tokian dagoela eta doan tokira doala, ez beza sosik edo dirurik jaso, ez hartu eta ez harrarazi, ez jantzitarako, ez liburutarako, ez eta inolako lanen sarritzat ere; hau da, ezerगतik ere ez, *anaia gaixoen premia nabariagatik izan ezik*" (1 Er 8, 3. lk. 2 Er 4, 1-3). Gisa berean, joan-etorrietan anaia zaldian ibiltzea debekatu zuen arren, gaixoentzat espresuki esango du zaldiz ere ibil daitezkeela: "[Anaiei] ez bekie zilegi zaldiz ibiltzea, gaixotasunak edo premia larriren batek beharturik ez bada" (1 Er 15, 2).

7.2.2. Frantziskoren gaixotasunak

Anaia gaixoak horrela zaindu nahi izan zituenak, nahikoa lan izan zuen gaixo zegoelarik bere buruarekin: gaixoa, eta gaixo larri kronikoa ere izan zen bera. Osasun ahula eta galdua izan zuen Frantziskok, eta hain zuzen ez behar horren aurrean urtetan izan zuen burubidea ikustekoa da.

¹⁸ Alvarez Velasco, R. (ed.) (2004), *Pacomio, Regla monástica. Introducción, traducción y notas*. Silos: Abadía de Silos. 129-132 ("Sobre los enfermos"). Campos Ruiz, J.; Roca Meliá, I. (eds.), 1971, *San Leandro, San Isidoro, San Fructuoso*. Madrid: BAC. 122 (Isidororen Erregelari, "De los monjes enfermos"); 162 (Fruktusoren Erregelari, "De los ancianos"); Erregela Amankomuna 184-186 ("Cómo deben ser atendidos los enfermos en el monasterio" eta "Cómo deben ser gobernados los ancianos en el monasterio"). Ormaetxea Orixe, N. (itz.); Beneditarrak (ed.), 1980, *Benito santua. Bizitza eta Erregela*. Lazkao: Beneditarrak. (Erregelako 36-37, 39-40. atalburuak: "Gaixo dauden anaia", "Zaharrak eta haurrak", "Neurria janean", "Neurria edanean"). lk. Colombás, G. M.; Aranguren, I., 1993, *La Regla de San Benito*. Madrid: BAC. 132-133 eta 135-138 (testuak: gaixoak, eta jan-edanak), 429-440 (iruzkinak).

¹⁹ Esser, K., 1991, "Del amor verdadero (Adm 24 y 25)", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 60, 1991 420-426.

Biografoen lehen orrialdeetan deskribatzen zai-gu, nola biziera aldatu aurretik eta aldaketara bul-tzatuz, Jainkoak bidalitako gaixotasun batek jo zuen: "Gaixotasun luze batek abaildua (1202) [...] bere baitan ohi ez bezalako gauzak pentsatzen hasi zen" (1 Zel 2, 3). Hasiera horretan bezala bizitza osoan, eritasunak bizitzaren zentzu berri baten bila eta berau sakontzera eramango zuen (LeLu 1, 2). Oro har esan dezagun Frantziskorentzat gaixota-suna ez zela bakarrik gogo onez gainditu beharreko zorigaitza. Eritasunek Jesusen bizitza sufrituaren ildoan barrena joatera eraman zuten Frantzisko.

Gaixotasun arrunt eta larriek jota bizi behar izan zuen luzaron, batez ere 1220tik aitzina eta bizialdiko azken bi urteetakoa latza izan zen harentzat, aldi berean gaitz ezberdinak pilatu baitzitzaizkion, lehendik zituenak eta berriak; horietako batzuek kronikoak zituen, gainera. Giza ahuldade hauetaz askotxo zekien, bada, gure gizonak.

Badaude horretaz saiakera biografiko on batzuk, iturrietan aurkitu eta datuetan antzeman daitez-keen albisteez baliatuz landutakoak; batez ere Schmucki-renak izango ditut hemen gogoan²⁰. Zai-la da pairatutako gaixotasun guztien nondik nora-koa eta nolakoa teknikoki ongi zehazten, eta zaila era berean gaixoaldi guztien kronologia finkatzen; hala ere, ziurtasun azpimarragarri batzuk baditugu.

Gaztetatik osasun ahulekoa izan zen Frantzisko (Perugian gaixorik ikusten dugu: hogeitau urte bete

berritan, 1203an), eta urteak aitzina egin ahala, gaixobera izanik okerragora egin zuen haren osa-sunak, bereziki 1220tik aurrera. Egoera eta izaera ezaguna izan zen hori, Anaiartean eta ezagutu zutenen artean. Horregatik, behin eta berriz eta han-hemen babestu eta zaindu behar izan zuten anaiak eta ongileek.

Gaixotasun gutxi-asko eramangarrien ondoan, oinaze handiko eritasunak ere ez zitzaizkion falta izan. Alde horretatik, azken bi urte eta erdiko kalbarioa izan zen hura Frantziskorentzat, batez ere begietako oinaze eta minen artean; aldi berean, urdaila, gibelak eta bareak hondatuta zituen; malariak hartuta bizi zen (hiruzpalau egunetako erorikoak zituela: *tercianas*, *cuartanas*). Eta hau dena urtetako historia izan zen. 1224ko irailetik aurrera estigmen zauri mingarriak gehitu zitzaizkion.

Hori guztia areagotu zuena, Frantziskoren gor-puzkera argal eta makala izan zen: sasoi eskasaren gain lan gaitzak hartu zituen, eskulanean eta aldi batez, bederen, sosegu gabeko oinezko ibilal-dietan, hain zuzen Anaiarte berriaren ezaugarriak zainduena prediku ibiltaria izan zenean (1209-1220), nahiz eta azken urte honetatik aurrera, Frantziskoren bizitza bizilekutan egonkorragoa ageri den.

Eta ezin dugu aipatu gabe utzi Frantziskok eraman zuen biziera latza eta penitentziaz egina, autokritika eginez gomutatu zuena, eta halaxe gogorrazia. Neurri onik gabekoa izan zen hori, eta zinez bere gorputza ("anaia" eta "astoa") xahutu eta birrindu egin zuen errukirik gabe zigortuta²¹. Azken buruan, sendabideak ere ez zituen bilatu behar bezala, obediencia ezarri zizkionean baizik.

Perugiako gaixoaldian izandako eritasuna ma-laria izan zen segur aski, beharbada tuberkulosia.

²⁰ Schmucki-ren lanak, Interneten: Schmucki, O., 1987, "Enfermedades que sufrió san Francisco antes de su estigmatización", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 47, 1987, 287-323. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmucki01.htm>. ID., 1988, "Las enfermedades de Francisco durante los últimos años de su vida", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 48, 1987, 403-436. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmucki02.htm>. ID., 1988, "«Lodo seas, mi señor, por aquellos que... soportan enfermedad». Interpretación franciscana de la enfermedad", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 49, 1988, 25-36. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmucki04.htm>. ID., 1977 [1976], "Los dos últimos años de la vida de San Francisco y la renovación de nuestra vida", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 17, 1977, 136-154. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmucki03.htm>.

²¹ Esser, K., 1986, "Sujeción del cuerpo (Adm 19 de San Francisco)", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 43, 1986, 93-98. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/EsserK-Admoniciones-08-10.htm#c10>.

Biziera berria hartuta laster urdailetik gaizki zebilen (1210...), ibilaldietako nekearen eta ohi zituen jate txarren ondorioz.

Greccioko egonaldi batean gertatutakoak erakusten digu oinazeen ondoan ezinegon arrunta-goak ere sufritu behar izaten zituela Frantziskok, hainbat gaixotasunen ondorioz; begietakoaren ezinegonaz diharduela zera dio gaixoak:

Greccioko eremitorioan zegoela, begietako gaitza larriagotu egin zitzaiola eta, behartu egin zuten, bere gogoz kontra, burko txiki bat erabiltzera. Lehenengo gauean, ordea, goizaldera, lagunari dei egin eta esan zion: "Anaia, gau honetan ezin izan dut ez lorik hartu, ez otoitze-rako zutik egon ere. Biraka dut burua, dardarka belanuk eta ikaraz gorputz osoa, ogi pozoin-dua jan banu bezala" (2 Zel 64).

Segurutzat edo eman daiteke 1216-1217an Asisko Guido Gotzainak berean hartu zueneko gaixotasuna malaria izan zela; malaria honen berri gero ere jakingo dugu (1221). Gibealekoa ere larriagotu egin zitzaion Poggio Bustone-n (beharbada, 1222an), malariak aurrera egin ahala. Honek guztiak ahuleria izugarria ekarri zion, erabat indargetzeraino, eta asto gainean joan behar izan zuen La Verna-ra, 1224ko abuztuan.

Begietako gaitzak sufriarazi zion gehien (trakoma)²², iturrietan esandakoek aditzera ematen dute-nez. Zaintzen zuten anaia adiskideak, Elias Jeneralak eta estimatzen zuten guztiek (Hugolino kardinala horietako bat) saiatu ziren oinazeak arintzen eta sendagile onenak bilatzen. Nahiz eta kristauki onartutako sufrikarioaren balioaz oharturik zegoen, nekearen nekez ondoko otoitza egitera ausartu zen, bere buruaz errukituta:

²² Trakoma: Gaixotasun honen izaera eta nondik norakoez ikus Munduko Osasun Erakundearena (OMS) <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs382/es/>. Orobat: <http://www.aao.org/eye-health/tips-prevention/que-es-trakoma>.



San Damian: bertan ere idatzi zuen Eguzki Anaiaren kantika gogoratzen

Hil baino bi urte lehenago, Frantzisko San Damianen bizi zen lastoz eginiko gelatxo batean. Hainbeste sufriarazten zion begietako gaitzak, non berrogeita hamar egun baino gehiagotan ezin izan baitzuen eguzkiaren edo suaren argirik ikusi. [...]. Frantzisko dohatsuak, bere burua hainbeste ezbeharrez zigortua ikusirik, gau batez, bere buruarekiko errukiak eraginda, honela esan zuen

bere baitan: "Jauna, zatoz laster ni neure ahulerietan laguntzera, pazientziaz eraman ahal ditzadan!" (Perlsp 100).

Ingurukoak ere, zein egoeratan zegoen ikusita, Frantzisko nola-hala sendabidean jartzeko erabakiak hartzera iragan ziren, Hugolino eta Elias bereziki. Rieti-n bazegoen izen handiko begietako sendagile bat, eta beraren esku jartzea deliberatu zuten, besterik ez bazen obedientziaren izenean aginduta. Sendagileetara makurtzeko ez zen Frantzisko gaixo erraza, eta eskatzen zitzaion esanekotasunera egoteko eskatu zion Elias Jeneralak, horretarako testu-aipamen biblikoak ematen zizkiola:

Anaiek sarri ohartarazten zuten eta eten-gabeko erreguz esaten, bere gorputz gaixo eta arras ahuldua apur bat suspertzen utzi behar zuela sendagileen laguntzaz. Baina berak uko egiten zion erabat proposamenari, bere espiritu prestua zerurantz jarria baitzuen eta nahi zuen gauza bakarra hiltzea zen Kristorekin egoteko. Nahiz eta zauriak bere gorputzean eraman, artean ere Kristoren atsekabeen neurria ez baitzuen beregan bete, begietako gaitz larri batek jo zuen, Jainkoak bere erruki oparoa isurtzen zion bitartean. Gaixotasuna egunetik egunera larriagotzen zihoakion eta, antza denez, zainketa faltagatik areagotu zitzaion. Beraz, anai Eliasek –Frantziskok beretzat amatzat eta beste anaientzat aitatatzat hautatua zuenak– sendabidea mespretxatu ez, baizik Jainkoaren Semearen izenean onartzera behartu zuen, sendagaiak Jaunak eginak zirela eta, idatzia dagoenez: Jaunak sortarazten ditu sendagaiak naturan, zuhur denak ez ditu mespretxatzen. Aita dohatsuak, orduan, adeitsu eman zuen baietza, aholkua apalki onartuz (1 Zel 98).

Azken buruan, gaizkiaren, gaitzaren eta aszetikaren balioespen eta norabideak zeuden hor tartean: Erlijiotasun herritarretik nola ulertzen zen aszezi kristaua? Gizakiagan ikusten zen gorputz/arimen arteko bitasuna eta gizakiaren

Jainkoarekiko irudi-izaera nola kudeatu behar zituen aszeta kristauak?

Galdera hori bizirik zuen Frantziskok bere baita: "Kontura zaitez, gizaki hori, zeinen goian jarri zaituen Jainko Jaunak: bere Seme maitearen *irudira* sortu eta eratu baitzintuen gorputzez, eta *bere antzera* espirituz" (Ahol 5, 1). Horren arabera, Frantziskoren humanismoa oso Erdi Arokoa da: Jainko kreatzaileagan du bere sostengua, eta jatorrizko izaera hori norberak berretsi behar du Inkarnazioak Kristogan gorpuztu duen jainko-gizakia berreginez²³. Hor dago, beraz, gizakia bere lekuan²⁴.

Bestalde, jakite eta sinestearen aldetik, bizitzan eta gaixotasunaren aurrean, nola ulertu behar zen mezu biblikoa eta ulerpen horren ondorioz gorputzaren eta osasunaren balioa, espiritualtasun kristau jatorrari bere lekua ere ezagutzen zitzaioala? Egia esan: Frantziskok ere aitortu zuen urrutiegi joan zela bere penitentzietan, gorputza ezindu arte. Modu ezberdinetan ageri dira penitentzien gehiegikeriaz Frantziskok izandako zalantza, kontzientzia eta egoera.

Mortifikazio handiz erabili zuen bere gorputza; osasuntsu ala gaixo aurkitu, laztasun handikoa agertu zen bere buruarekiko, eta apenas inoiz atseginik ematen zion. Horregatik, hiltzeko eguna iritsi zitzaionean, anaia gorputzaren kontra bekatu asko egin zuela aitortu zuen (HLaLe 14).

Biografietan ez da falta neurritz kanpoko jokatibide horretaz diharduenik: "Aldi honetan, Frantzis-

²³ Mendebaldeko Humanismo ezberdinei buruzko oharra (Frantzisko-rena barne): Le Goff, J., 204, *El Dios de la Edad Media*. Madrid: Trotta. 72. Celada, G., "Lecciones sobre las representaciones medievales de Dios", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 91, 2002, 66-100.

²⁴ Matura, T., 1996, "El hombre - Una visión de contrastes", in: ID., 1996, *Francisco de Asís, otro Francisco. El mensaje de sus escritos*. Oñati: Arantzazu, EFA. 95-120. Mathieu, L., 2001, "El hombre en la creación. La visión franciscana", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 88, 2001, 139-147. Forthomme, B., 2011, "La antropología según el espíritu franciscano", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 120, 2011, 381-404.



Xoriekin: mota ezberdinetako abereekin izan zituen "elkarriketak" Frantziskok eta artistek maiz eman zuten guztien berri beren margolanetan

koren gorputza hainbat gaitz jasaten hasi zen, ohi baino larriagoak. Izan ere, bere gorputza gogor zigortu eta urte luzez menpean eduki baitzuen, sarri erasotzen zioten gaixotasunek”; zituen zailtasun eta ezin guztien gainetik, “ez zuen arindu ere diziplinaren laztasuna” (1 Zel 97 eta 2 Zel 210)²⁵.

Egindako demasiak gogoan zituela, anaiei behin eta berriro aholkatu zien laztasunetan neurritz ibiltzeko; bere buruarekin zorrotz, besteekin bihozbera, guztiekin zentzu oneko izaten ahalegintzen zen bitartean (1 Zel 83). Betiko Hiru Lagunek ere azaldu zuten zein gogor zen bere buruarekin; baina, aitzitik, anaiei beren buruekiko begiramendu hobea eskatzen ziela:

Bestalde, aita bihozberak beren buruekin gogorregiak ziren anaiak eta beila, barau eta gorputzeko penitentzia handiegiak egiten zituztenak zentzarazten zituen. Izan ere, batzuek hain gupidagabe hilduratzen zituzten beren buruak haragiaren grinak menderatzeko, bazirudien beren buruei gorroto zietela. Jainkoaren gizonak debekatu egiten zizkien gehiegikeria horiek, exortazio-hitz gozoz eta zentzuzko errietaz, eta anaien zauriak argibide zuhurren sendagaiezt lotzen zituen (HLaLe 59. Ik. LeLu 5, 7).

Asmo, gogo eta zalantza guztien artean, bizitzak aurrera egin zuen, eta sendaketa-saio berriek ere bai. Mediku onenen bila, Sienan heldu zitzairen osteria ere senda-ekinbide berriei. Horren aurretik biografoarengandik jakin dezakegu zein zen egoera:

Hil baino sei hilabete lehenago, begietako gaitzaren tratamenturako Sienan zelarik, bere gorputz osoan larriki gaixotzen hasi zen: urdaila gaixotasun luze batengatik hondatua zuen eta gibelak ere huts egiten zion. Odol asko botatzen zuen eta bazirudien heriotzatik gertu zegoela. Hori jakitean, Elias anaia presaka etorri zen

urrutitik Frantziskoren ondora. Haren etorrerarekin hobera egin zuen aita santuak eta, lurralde hura utzirik, Cortona ondoko Celle-ra etorri zen Eliasekin. Baina hara iritsi eta alditxo batera, osasun-arazoak areagotu egin zitzaizkion: sabelaz puztu zitzaion, zangoak eta oinak handitu, eta urdailak, gero eta hondatuago, ez zion ia jatekorik onartzen. Egoera horretan, Asisa eramanaraz zezala eskatu zion anai Eliasi. (1 Zel 105).

Anaiarteak bihotzez eta samurtaun handiz zaindu zuen Frantzisko, lagun-lagun zituen erizainak eman zizkion; baina halako oinazeen artean zaindu behar zen gaixoak lanak ematen zituen, eta etenik gabeko pazientzia eskatzen zuen horrek ere, eta Mansellik gogorarazten digu inoiz edo beste norbaitek galdu zuela bere egonarrria. Hala ere, gaixoak beti jakin zuen oso maite zutela anaiek, eta pribilegiozko egoera jarri ziotela osasuna zaintzean. Anaia lagun erizainena gehiegizkoa ere izan zitekeela adierazi zuen, eta Bikarioaren eskuetan utzi zuen dena:

Beste aldi batean, uko egin zien bere lagun guztiei eta Bikarioaren eskuetan utzi zituen, esanez: «Ez dut nabarmendu nahi askatasunezko pribilegio honengatik; aurrerantzean edozein anaiak lagundu ahal izango dit bizileku batetik bestera, Jainkoak inspiratuko dion eran». Eta gaineratu zuen: «Orain gutxiitsu bat ikusi dut, bide-erakusle txakur txiki bat besterik ez zuena» (2 Zel 144. Ik. 1 Zel 102; PerLe 50).

Gaixoak artatua izatea merezi du, eta inguruak horretan ahalegindu beharko du, baina dena egin daiteke bihotz beroz, alde batetik, eta apaltasunean eta konformitatean bestetik.

Sufrikarioaren atalburu ez hain ezagunaren ondoren, eta hortxe bere baitan, Frantziskoren poz-bidearena ere ezagutu behar dugu hemen. Sinetsita zegoen tristezia, sufrimendu eta tratatu txarrekin ez zeukatela gizakiaren jatorrizko poza zergatik hauts eta deusezta.

²⁵ Ik. 2 Zel 116; LeLu 5, 4; HLaLe 14, 17, 23; HLaLe 50.

7.2.3. "Poz benetako eta osoa"

Izenburu horrekin itzuli da euskarara hagitx gorarazia izan den Frantziskoren eta anai Leon adiskidearen arteko elkarriketa labur bat²⁶. Anai Leonardoren²⁷ oroitzapen batetik dator pasadizoaren albistea; bere jatorrian Frantziskok izkribaturiko idazkia ez izan arren, haren aholkuen edizioetan bildu izan da²⁸, eta zalantzarik gabe ederki ematen du aditzera Frantziskoren aiurria.

Zorionez, beste zenbait iturrik ere ziurtatzen dizkigu pasarte honetako balioak, Jainkoaren aurrean geureaz harrotzeko ezer gutxi dugula esaten zaigunean (Ahol 5), edo anaiek, sarritan munduan barrena dabiltzala, zaindu behar duten burubidea azaltzean: "Neure anaiei Jesu Kristo Jaunarengan kontseilatzen, oharrarazten eta aholkatzen diet, munduan zehar doazenean, ez dezatela sesiorik eta hizka-mizkarik izan, ez inor juzga; baizik izan daitezela gozo, baketsu eta eratsu, otzan eta apal, denekin oneski hitz eginez, egoki den bezala" (2 Er 3, 10-11).

Erregela berean are tematiago ageri zaigu oraindik Frantzisko portaera jator horri buruz: "Gorde daitezela anaiak inolako harrokeria, handiuste, inbidia, diru-gose, mundu honetako ardura eta axolatik, eta gaizki esate eta marmarrean aritzetik [...]; gauza guztien gainetik zera behar dutela desiratu: Jaunaren Espiritua edukitzea eta haren eraginez obratzea, Jaunari bihotz garbiz etengabe otoitz egitea, pertsekuzio eta gaixoaldian apaltasuna eta pazientzia edukitzea, eta pertsegitzen eta errieta egiten eta salatzen gaituztenak maitatzea" (2 Er 10, 7-10). Gizatasun jatorra lantzeko eta tresna aszetiko gisara ageri zaigu poza Frantziskoren esanetan (2 Zel 125).

Zeharbidezko eta zuzeneko intentzioz beteta dago, zalantzarik gabe "poz benetako eta osoa" ari den kontakizun hau. Esateke ere, bere buruaz ari da lehenengo, eta Anaiarteko arazoez ere bai, aldi berean: gizartetik etorri zitzaizkion erasoei nola erantzun azaltzen du, eta halakoetan zein jarrera izan erakusten. Gogoan ditu, noski, konbertsio ondoko lehen hilabeteetan familiatik eta herritarrengandik jasan zituen isekak, eta otzantasunez lor zitekeen elkarriketa.

Apaltasuna zen, noski, haren espiritualtasun eta minoritatearen oinarri nagusietako bat, baina apaltasun jatorrak ez zuen behar tristeziarik; aitzitik, errealitate elkorri gaina hartzeko baliabidea zen poza. Are gehiago: jarrera pertsonalaz gain Anaiarte osoaren premiazko jarrera izan behar zuen horrek: poza zaindu, alegia, anaia *txiki* izan eta gizarteko harremanak bakean eramateko.

Nahiz eta ez dakigun noizkoa den pozaren aldeko aldarri hau, ongi dator Anaiartean anaiak ugari eta Ordenara sehaska "onekoak" zetozenean kontuz ibiltzeko. Ordenaren bikaintasun sozialak ez du ito behar fraide txikien apaltasun libre eta alaia. 1216-1226. urteetan, Anaiartetik Ordenarako iraganbidean, Frantziskok arretaz gorde nahi zuen lehen orduetako jatortasun ebanjeliotarra da hori ere (1208-1215).

Iruzkina labur honen ondoan du irakurleak hemen gogoan dugun pozari buruzko testua.

²⁶ Musikatua ere badago: <https://www.youtube.com/watch?v=da-TRzLppAB8>.

²⁷ Anai Leonardo hau Frantziskorekin Ekialdera joandako lagunetakoa zen.

²⁸ Delmas-Coyom, F., 2012, "Feliz quien es rechazado por sus hermanos... Una lectura de «La verdadera alegría»", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 121, 2012, 51-64.

Poz benetako eta osoa

Anai Leonardok kontatu zuenez, behin batean,
Frantzisko dohatsua Aingeruen Andre Marian zegoela,
anai Leoni deitu eta esan zion:

–Anai Leon, idatzi.

Honek erantzun: – Prest nago.

– Idatzi, esan zion, zein den benetako poza.

Badator mezulari bat eta Pariseko maisu guztiak

Ordenan sartu direla esaten du. Idatzi: «Ez da benetako poza».

Eta mugaz haraindiko eliz-agintari, artzapezpiku eta gotzain guztiak

Ordenan sartu direla; baita Frantziako erregea eta Ingalaterrako erregea ere.

Idatzi: «Ez da benetako poza».



Orobat, nire anaiek fedegabeen artera joan eta den-denak federa konbertitu dituztela.

Gainera, nik hain grazia handia hartu dudala Jainkoagandik, ze gaixoak sendatzen eta mirari ugari egiten dudala.

Benetan esaten dizut, horietan guztietan ez datza benetako poza.

Zein da, bada, benetako poza?

Banator Perugiatik etxera eta gau ilunean iristen naiz hona.

Negua da, bazter guztiak lokatza, eta hotzaren hotzez ur jelatuzko izotz-kandelak egin

zaizkit tunika-barrenetan,

eta zangoetan jotzen naute etengabe,

eta zaurietatik odola dario.

Eta lokatzez josia, izozturik eta hozmindurik iristen naiz ateraino

eta luzaro joka eta deika jardun ondoren, badator anaia eta galdetzen du:

– Nor da?

Eta nik erantzun: – Anai Frantzisko.

Eta hark orduan: – Alde hemendik! Hau ez duk ordua bidetan ibiltzeko.

Ez haiz hemen sartuko.

Eta nik berriro eskatzean, erantzuten du:

– Alde hemendik! Gizon sinple eta eskolagabe bat besterik ez haiz.

Ez haiz gehiago gurekin ibiliko.

Hainbeste gaituk eta halakoak, ez diagu hire beharrik.

Hala ere, nik ate ondoan jarraitzen dut eta berriro diot:

– Jainkoaren maitasunagatik, har nazazue gaur gauean bederen.

Eta hark erantzun:

– Ez, jauna! Hoa gurutze-eramaileengana eta eskatu han.

– Benetan esaten dizut:

pazientzia izan badut eta ernegatu ez banaiz,

horretantxe datza benetako poza eta benetako bertutea eta arimaren osasuna.

(Frantzisko: Otoitzak, 94. or.)

7.3. Anai-arreba sorkarien artean

Frantzisko ez zen izan bizialdian Izadi eta Naturari ez-ikusi eginez ibili zen gizona; alderantziz, zinez ohartu eta ingurua balioetsita begiratu zuen mundu osoa, eta guztiaren zergatiko, zertarako, norentzako eta nolakoaz galdetuz saiatu zen uler-tzen inguruan topatu zuen unibertsoa, bera ere horren guztiaren parte zela jakin eta horiek guztiak eta bera sorburu beretik zetozela baieztatuz. Erreparatu eta balioztatu egin zituen izakiak oro, bakoitza bere lekuan eta duintasunean²⁹.

7.3.1. Mundu maitagarria

Hain zuzen, Izadiarekiko jarrera ohartu hau gertatu da gure egunotan ekologia kristau jakin baten arnas-emaile (Frantzisko I.a: *Laudato si'. Denona den etxea zaintzeaz*. Erroma, 2015)³⁰. Hala dio Aita Santu honek: "Ez dut entziklika honen gaia eragin-garri izan dakigukeen eredu eder bat aipatu gabe garatu nahi. Erromako Gotzain izendatu nindute-nean, beraren izena hartu nuen neure gidari eta argibide izan zedin. Frantzisko, ahul denaren eta ekologia osoaren zainketa eredurik bikainena dela uste dut, eta hori alaitasunez eta egiaz bizitzearen eredu". Horren aurretik, Joan Paulo II.ak 1979an aldarrikatu zuen Frantzisko Ekologiaren aldekoen Zaindari (*Inter sanctos* gutuna, 1979-11-29)³¹.

²⁹ Schmucki, O., 2001, "La mística de la naturaleza en San Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 88, 2001, 135-138. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/Schmucki-LamisticadelanaturalezaenSanFranciscodeAsis.htm>. Vilanova, E., 1988, "Naturaleza y gracia: ¿Un nuevo equilibrio?", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 49, 1988, 131-143. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/EVilanova-Naturalezaygraciaunnueveoequilibrio.html>.

³⁰ Entziklika honen euskal itzulpena: Frantzisko I.a, 2015, *Laudato si'. Denona den etxea zaintzeaz*. Donostia: Idatz Argitalpenak. (Itzultzailea: Unai Manterola). *Hemen* aldizkariak zenbaki oso bat eman zuen Entziklika honen edukia eta esanahia Euskal Herritik ere begiratzeko: *Hemen. Erlijio gogoetarako aldizkaria*. 50, 2016ko apirila-ekaima. Vitoria-Gasteiz: Frontera. J. Arregi, J. Azkarraga, A. Braceras, A. S. Telletxea eta A. Urresti-ren idazlanak biltzen ditu zenbaki berezi honek. Gogoan hartzekoa da.

³¹ Gutunaren testua: http://www.vatican.va/holy_father/john_paul_ii/

Izaki guztiekin jokabide bertsuak baina kasu bakoitzari egokituak izan zituen: zeruko eta ludi-koekin, bizidunekin eta bizigabeekin, landare eta animalia denekin, eta bereziki esanahi sinbolikoa izan zezaketenekin. Banan-banan kontatutako historia eta istorioak ditu Frantziskok alor honetan.

Besteak beste, *Perugiako Legenda*-k atalburu batean sorkariei zien amodioaz hitz egiten du (PerLe 88), beharbada esperoko ez genukeen izaki bizigabeak aipatzen dituela, eta haiekiko kode kristau-ekologikoa azaltzen digula, Frantziskok beretzat eta gainerako anaientzat ere hobetsita zeukan kode orokorra, hain zuzen:

Era berean, lurrera erortzen zen ura oinpean zapalduko ez zuten tokia aukeratzen zuen eskuak garbitzeko. Harrien gainean ibiltzea egokitzen zitzaionean ere, beldur eta begirune handiz ibiltzen zen, harkaitza deitzen den Harenganako maitasunagatik. [...]. Sutarako egurra egiten zuen anaiari esaten zion zuhaitz osoa ez ebakitzeko; mozteko zati bat, baina beste bat uzteko. Hori bera agindu zion berarekin etxe berean bizi zen anaia bati ere.

Orobat **baratzea** zaintzen zuen anaiari esaten zion, ez zezala lur guztia jateko **barazkiak** landatzeko erabili, baizik eta utz zezala **lur-zatiren** bat bere garaian anaia **loreak** emango zituzten bestelako **landareentzat**. Gehiago esaten zuen oraindik: anaia baratzezainak **baratzearen zati** bat **lorategi** eder bihurtu behar zuela, eta bertan **usain** gozoko **belar** eta **lore** ederreko **landareak** aldatu, honela beren garaian ikusiko zituzten guztiei Jainkoa goastera eragin ziezaieten, sorkari orok oihuka baitu esaten: «Gizaki hori, Jainkoak zuregatik egin nau!»

[apost_letters/1979/index_sp.htm](http://www.vatican.va/holy_father/john_paul_ii/apost_letters/1979/index_sp.htm). Leclerc, E., 1980, "El Santo Patrono de los ecologistas", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 27 1980, 329-333. Ik. Fajdek, B., 2001, "Francisco y la tutela del medio ambiente", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 89, 2001, 295-302.



San Damian: Frantzisko untxiarekin.

*Guk, harekin bizi izan ginenok [anai Leon eta lagunok], ikusten genuen nola pozten zen barrutik eta kanpotik ia sorkari guztiengatik, nola **ukitzen** zituen eta **amultsuki begiratzen**, haren espirituak lurrean ez baina zeruan zegoela ematen baitzuen (PerLe 88. lk., gainera, LeLu 9, 1).*

Pasarte horretan esanak berretsita daude beste zenbait iturritan ere³², inoiz zertzelada berriz jantzi-

ta. Suaren sinbologia bibliko ona gogoan zuen³³ eta zaindu egiten zuen: “pizturik uzten zituen argiontziak, kriseiluak eta kandelak”, betiko *Argia* gogorazten zutelako, La Vernako sute batean, anaia sua erabat ez itzaltzeko eskatu zuen.

³² 2 Zel 165; Perlsp 118; Lelu 9,1.

³³ Biblian suak alde ongarria eta hondatzaila, biak, ditu: su onak garbitu egiten du, Jainkoaren presentziaren adierazgarria da (Sinai) eta Jainkoaren presentziaren beroa ematen du aditzera (Ir 13, 21; Dt 4, 24; Jr 23, 29).

Animalia txikienak ere laztanki zaintzen zituen, Jainkoak sortutako bizi orori zion estimu eta itzalagatik:

Hartxoak ere bidetik jaso egiten zituen, zapal ez zitzaten; eta **erleei** eztia eta ardorik onena jartzeko agintzen zuen, negu gorrian goseak hil ez zitezen. **Animalia orori "anaia"** edo **"arreba"** deitzen zion, nahiz eta abere mota guztien artean otzanak zituen maiteen (2 Zel 165. lk. 1 Zel 77).

Jarrera orokor horren ondoan, izaki eta animaliekiko burubide eta istorioak daude legenda eta biografietan, Frantziskoren geroko oroitzapenean josita gelditu zaizkigunak.

7.3.2. Maite hautatuak

Frantzisko bizidunen maitalea izan zen, landareena eta are maitaleago animaliena. Mirarietan pentsatu gabe ere, badirudi aparteko dohaina zuela animalia batzuekin harreman senidekorak sortzeko, eta inguruko lagunek harrituta ikusten zutela hori, ondoko pasadizoan ikus daitekeenez. Jarrera eta pentsamolde erlijioso eta ekologikoa dago deskribatzen zaigun gertaera honetan, eta ez da falta funtsean ikuspegi sozial kontrajarria: txoriei eman zaien guztia dohainik eman zaien bitartean, gizakiei lanez eta eginez lortzea suertatu zaie (1215). Zergatik? (Frugoni: 1997:105-108):

Esan bezala anaiei kide berri asko elkartzen ari zitzairen bitartean, aita Frantzisko dohatsua Spoleto haranean barrena ibili ohi zen. Behin, Bevagna ondoko toki batera iristean, mota ezberdineko hegazti multzo handia ikusi zuen bilduta: uso, belatxinga eta bela. Jainkoaren zerbitzari Frantziskok ikusi zitueneko, poz-lasterka joan zen haiengana, lagunak bidean utzirik; izan ere, barru gartsuko gizona zen eta behe-mailako izaki adimengabeei ere gupida eta amodio samurra zien.

Aski hurbil zegoenean, zain zituela ohartuz, ohiko eran agurtu zituen. Eta biziki harriturik ohi duten bezala ihes egiteko altxatu ez zirelako, pozez gainezka, Jainkoaren hitza entzuteko erregutu zien apalki. Eta beste gauza askoren artean hau esan zien:

"Ene anaia hegaztiok: gogotik goretsi behar duzue zeuen Egilea eta hura beti maitatu, berak jantzi baitzaituzte lumaz, hegoak eman dizkizue hegan egiteko eta behar duzuen guztia bizitzeko. Noble egin zaituzte Jainkoak bere izakien artean eta aire garbia eman dizue bizilekutzat. Nahiz eta zuek ez erein, ez uztarik bildu, hark zaintzen eta mantentzen zaituzte zuek batere arduratu gabe."

Hitzok entzutean –santuak berak eta harekin ziren lagunek kontatu zutenenez–, hegazti haiek beren erara, harrigarriro adierazi zuten beren poza: lepoa luzatu zuten, hegoak zabaldu, mokoak ireki eta santuari begiratzen zioten. Frantzisko, berriz, atzera eta aurrera ibili zen hegaztien artean, haien buruak eta gorputzak bere tunikarekin ukituz. Azkenik, bedeinkatu egin zituen, gurutzearen seinalea eginez, eta beste nonbaitera hegan egiteko baimena eman zien (1 Zel 58).

Animaliak Jainkoaren opari gisa etorri zitzaizkion eskuetara batzuetan, eta animalia txikitxoaren artean Portziunkulako txitxarrarena kontatzekoa da. Kasu honetan eta gure artean, P. Agirrebaltzategi idazleak eta Gandiaga olerkariak erakutsi digute txitxarraren esangura sinboliko-praktikoa³⁴.

Frantzisko eta txitxarraren artean elkarrizketa bizia egon zen, izan ere konbentzitura baitzegoen animaliek ulertu ere egiten ziotela; horregatik, inoiz

³⁴ Txitxarraren hau euskal poesian Gandiagak ekarri zuen gure artera, parabola bidezko birsorketa batean. lk. Agirrebaltzategi, P., 2011, "Bitoriano Gandiagaren espiritualitate eta inspirazio frantziskotarrak. Ttirittaren parabola", in: Korta, K.; Larrazabal, J. M. (erd.), 2011, *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak*. Bilbo: EHU. 13-77.

esan ere esan zuen damutzekoa zela nola egon zen hain berandu arte hainbat animalia laguni sermoi-rik egin gabe³⁵.

Portziunkulan, Jainkoaren santuaren gelatik hurbil, txitxar bat egoten zen pikondo batean, eta sarri kantuari ematen zion bere ohiko gozotasunez. Egun batean, aita dohatsuak, eskua luzatuz, adeitsu deitu zion beregana: «Zatozkit, ene arreba txitxarra». Hau, adimena balu bezala, santuaren eskuetara igo zen berehala. Santuak esan zion: «Kanta, ene arreba txitxarra, eta goretsi pozkarioz zeure Jaun kreatzailea!» Hura, bizkor obedituz, kantuan hasi zen, eta ez zion kantatzeari utzi, harik eta Jainkoaren gizonak, bere gorespina haren kantuarekin bat egin ondoren, ohiko tokira hegana egiteko agindu zion arte. Eta hantxe egon zen etengabe zortzi egunez, lotu izan balute bezala. Santua gelatik jaisten zen bakoitzean, txitxarra bere eskuez ukitu eta kantatzeko agintzen zion, eta hura beti prest agertzen zen santuaren esana betetzeko.

Azkenean, santuak esan zien lagunei: «Eman diezaigun geure arreba txitxarrari alde egiteko baimena, bere gorespen-kantuekin aski alaitu gaitu-eta [...]».

Eta, baimena hartuta, txitxarrak berehala alde egin zuen eta ez zen gehiago azaldu. Hau guztia ikusirik, biziki harritu ziren anaiak (2 Zel 171. Ik. PerLe 110; LeLu 8, 9).

Txitxarra baino hurbilago, gizakiaren zerbitzu-rako hartutako animalietan bereziki erreparatu zuen, haiek anaiatzat izan zezaketen balioak azpi-marratzen zituela. Ohikoa zenez, fraideak oinez ibiltzen ziren, eta astoan ere bai, horretarako beharra zegoenean; baina debekatu egin zien abereen jabe

izatea eta zaldian ibiltzea, anaiek ez baitzuten izan behar ez “aberats”, ez “zaldun”.

Lehenengo Erregelari atalburu txiki baina aparteko batean idatzi zuen hau: “Anaia guztiei, kleriko nahiz laiko, munduan zehar ibili nahiz lekuren batean bizi, agintzen diet, ez dezatela inolaz ere abererik eduki ez beraiekin, ez besterenean, ez beste inola. Eta ez bekie zilegi zaldiz ibiltzea, gaixotasunak edo premia larriren batek beharturik ez bada” (1 Er 15, 1-2), eta bigarren Erregelara ere pasatu zuen arau bera: “Ez bitez zaldiz ibili, premia nabariak edo gaixotasunak beharturik ez bada” (2 Er 3, 12).

Harreman haiek hautatzean Bibliatik ezagut zitzakeen animalia sinbolikoek biziki hunkitzen zuten, eta abere otzanak maiteago zituen, erasokorrak baino, bildotsak bereziki (1 Zel 77). Ez dakigu Frantziskok nola konprenitu zuen Naturan aurkitzen dugun bizitzeko “katea trofikoak” ohikoa duen indarkeria (hau da, jatekoen lehian ezinbestekoa gertatu den bortizkeria, ehizan eta arrantzan, edo abeltzaintzan).

Arazo hori aurrez aurre suertatu zitzaion; bere konbertsioetik berehala (1206), Gubbio-ra zihoala San Verakundoko monasterioan ostatzuz zegoen batean, “arditxo batek arkumetxoa egin zuen”, eta urdanga oso basati batek berori hil. “Gertatua jakinik, [...] arkumetxoaren heriotza deitoratu zuen, guztien aurrean esanez: «Ai ene, anaia arkumetxo hori, animalia errugabea, gizakiontzat mesedegarri den sinbolo bizia! Madarikatua zu hil zaituen bihozgabea!” (2 Zel 111).

Begetarianoa izan gabe, barau-zalea izan zen (1 Er 3, 11; 2 Er 3.6), eta hiru “garizuma” ezberdin egiten zituen urtero (arauzko bi: Aste Santu eta Gabon aurrekoak, eta San Migelena, hautazkoa). Bestenaz, bizitza arruntean eskueran aurkitzen zuen edozein landare jaten zuen, ongi aukeratzen saiatu gabe; badirudi penitentziaz hartutako ohitura horrek ez ziola batere onik egin bere osasunean.

³⁵ Jacint Verdaguer olerkari katalanaren poema gogoratuko diot hemen irakurleari: “Predicant als aucells”, in: <http://www.fratefrancesco.org/lit/poesia/verdaguer.htm>,



Frantzisko Kristo historikoarekin, aurrez aurre otoitzean

Frantzisko ez zen landarejale hutsa, begetarianoa, eta espresuki eman zien anaiei okela jateko askatasuna: "Premia denean, zilegi bekie anaia guztiei dauden tokian daudela, jendeak jan dezakeen edozein janari jatea" (1 Er 9, 13), edo "Ebanjelio santuaren arabera, zilegi bekie jartzen dizkieten janari guztietatik jatea" (2 Er 3, 14). Hala ere, jaki gozoago edo finagoak jan ondoren (oilasko eta beste), bere burua tripazain lotsagabetzat aurkeztu zuen behin baino gehiagotan Frantziskok bere burua.

Hegazti eta txoriekiko harremana maiz ageri da Frantziskoren istorioetan. Bihotzez maite zituen txoriak, ohikoa duten askatasun hegalariagatik eta duten txorrotxio alaiagatik. Eta, esaten zaigunez, Frantziskok nahi zuen, gainera, txoriekiko politika berri bat, eta ez zitzaizkion falta horretarako jai liturgikoek iradokitzen zizkieten arrazoiak:

Frantzisko dohatsuarekin bizi izan ginenok eta hau guztia idatzi dugunok aitormen egiten dugu sarritan entzun geniola hau esaten:

«*Enperadoreari [Federiko II.ari] hitz egiteko aukera banu, Jainkoaren maitasunagatik eta neure erreaguagatik lege hau idatziz emateko eskatuko nioke: alegia, ez ditzala inork arreba larretxoriak harrapa, ez eta inolako kalterik egin. Era berean, hirietako agintariak eta herri nahiz herrixketako jaunak behartuak egon daitezela beren menpekoei agindu hau ematera: urtero, Jaunaren Jaiotza egunean, garia eta bestelako alea bota dezatela hiri eta herririka inguruetako bideetan, arreba hegatzabalek eta beste txoriek zer jan izan dezaten halako festaburu handian.* (PerLe 14).

Deigarria da Frantziskok larretxori edo hegatzabalekiko izan zuen maitasun aparta, baina ez zen hori kasketa hutsa, baizik eta arrazoiak emanez azaltzen zuen zerbait, ondoko testu hagiografiko hone-tan aurkitzen dugunaren arabera:

Hegatzabala, arrunki "larretxori txanoduna" deitua, beste txori guztien gainetik maite zuen. Hartaz esaten zuen: «Arreba larretxoriak txanoa du erlijiosoek bezala; eta hegazti apala da, pozik joaten baita bidean zehar aleren baten bila, eta, simaur artean aurkitzen badu ere, atera eta jan egiten du. Hegan egitean, kantu biziki gozoz go-resten du Jauna, lurreko gauzak gutxiesten dituzten erlijioso zintzoek bezala: hauek ere zeruetan dute bizitokia eta Jauna gorestea beren helburua. Hegatzabalaren jantzia, lumajea alegia, lurraren antzekoa da, eta honetan ere eredu da erlijiosoentzat, jantzi fin eta kolore-takoak baztertu eta balio eta kolore arruntekoak erabili behar dituztela erakutsiz, lurra ere beste gaiak baino arruntagoa den bezala». Eta haiengan hau guztia ikusten zuenez, oso gustura egoten zen haiei begira. (Perlsp 113).

Larretxorien hurbiltasun eta kideatasuna bizirik ageri da Portziunkula inguruan, Frantziskoren heriotzako memoria bizian; honela: "Frantzisko dohatsua Jaunarengana joan zen ilunabarreko bezperak esan ostean, hegatzabal deituriko txori hauen multzo

handi bat Frantzisko zetzan etxeko teilatu gainera etorri zen eta, mantso hegan eginez, jira-biran ibili ziren teilatuaren inguruan eta beren kantu gozoaz Jauna goresten ari zirela zirudien" (Perlsp 113. Ik. Lelu 14, 6). Honela bada, hil aurretik ere, haren inguruko gertakariak honelako ikuspegi miraritsua hartu zuten.

Larretxorien ondoan badago bestelakorik ere: enarak, usapalak, urretxindorra edo zapelatzak gogoraraziko ditut hemen. Behin batean, predikatzeko asmoz Alvianon zela, enara-aldra bati isiltzeko agindu behar izan zion: "Ene arreba enarok, orain nire txanda da hitz egiteko, zuek nahikoa esan duzue dagoeneko eta" (1 Zel 59).

Beste batean, basoko usapal batzuk hezitzen ere asmatu zuen Frantziskok, *Loretxoei* sinetsi nahi badiogu: San Frantziskok joan eta habiak egin zizkien [jasotako usapal] guztiei. Eta haiek, habiak erabiliz, arrautzak jarri eta kumeak ateratzen hasi ziren anaien bistan. [...] Eta ez zuten inoiz ere aldegin, harik eta San Frantziskok bedeinkazioarekin batera joateko baimena eman zien arte" (*Loretxoak* 22).

La Vernako zapelatzaren istorioa Frantziskoren oroimenean maitagarriago suertatu zen, hango etxola pobreak barau egin eta kontenplazioko ordutegia zaintzen lagundu baitzion. Zelanok kontatutakoa seriotan hartu zuen Bonabenturak ere bere biografia ofizialagoan (ik. LeLu 8, 10):

Frantzisko dohatsua eremitorio batean zegoen [La Verna-n], gizakien begi-bistatik eta harremanetik ihesi, ohi zuenez. Bertan habia zuen zapelatz batek adiskidetasun-itun harri-garria egin zuen santuarekin: gauero, santuak Jauna gorestera jaikitzeke ohitura zuen orduan, zapelatzak bere kantuz eta hotsez abisatzen zion. Oso atsegin zitzaion hau Jainkoaren santuari, zapelatzak berarekiko hartzen zuen ardurak nagikeria oro astintzen baitzion. Baina santua ohi zuen baino gaixoago zegoenean, zapelatzak, begiramenez beteta, ez zion hain

*goiz deitzen, baizik eta egunsentian bere
ahotsaren kanpaia ukitu leunez jotzen zuen,
Jainkoak irakatsita balego bezala* (2 Zel 168).

Inoiz urretxindorra eta Frantzisko elkarren kanta-
lagun izan ziren, bata bestearen lehian abesten
zutela³⁶. Oro har, animaliek Frantziskori agertu omen
zioten esanekotasuna azpimarratu zuten
hagiografoek, "izakiek zioten obediencia" (1 Zel 58-
61), otsoak ere bere esanetara jarri baitzituen.

7.3.3. Otsoen artean: Gubbio

Greccion eta Gubbion ezagutu zituen Fran-
tiskok Unbriako otsoak, eta Gubbioko gertakari
ezagunetara pasatu aurretik, gomuta dezagun
Grecciokoa. Kontatzen zaigunez, "Greccioko biztan-
leak ezbeharra ezbeharraren gain jasaten ari ziren:
alde batetik, otso harrapari taldeek sarraski handiak
egiten zituzten, ez abereetan bakarrik, baita
gizakietan ere; bestetik, urtero, kazkabar-erauntsiek
soro eta mahastiak hondatzen zizkieten, [baina
Frantziskok eskatutako konbertsio-deiari ongi eran-
tzutean] ez otsoek ez kazkabarrak ez zieten
aurrerantzean kalterik egin" (2 Zel 35 eta 36. lk. LeLu
8, 11; PerLe 34). Hortaz, ezbeharrak biziera txarren
ondorio ziren; Gubbiokoan ere ageri da argudio
edo frog hori.

Gubbioko otsoarenak literatura egin du: gazte-
laniaz Rubén Darío nikaraguarrak eman zuen "Los
motivos del lobo" (1867-1916), eta euskaraz Gandia-
gak "Otsoaren arrazoiak"³⁷; era bertsuan. Frantzis-
kori hainbat hizkuntzatan eskainitako poema eta
biografietan Gubbioko gertakari sozial eta sinboli-
koak idazleen arreta irabazi izan du.

Pasadizoa *Loretxoak* liburutik datorkigu, eta bes-
te iturrietan ez da aurkitzen; beharbada, azaltzen
den moduan, istorioak oinarri historiko ziurrik ez du;
hala ere, egia ez bada, ongi asmatua da behintzat,
eta atalburu osoa du *Loretxoetan*.

"Otsotzar handi eta ankerra" zela eta, larria zen
gubbiotarren egoera, hola zioen komtakizunak:

*San Frantzisko Gubbio hirian bizi zen
garaian, otsotzar izugarri eta anker bat agertu
zen Gubbioko konderrian. Otso hark, animaliak
ez ezik, gizakiak ere jaten zituen. Izututa zeuzkan
hiritar guztiak, askotan hurbiltzen baitzen hirira.
Handik irteten zirenean, armaturik joaten ziren
denak, gudura balihoaz bezala. Hala ere,
otsoarekin topo egiten zutenek, bakarrik bazeu-
den behintzat, ez zuten defentsarik haren aurre-
an. Eta otsoaren beldurrez, ez zen inor ausartzen
hiritik kanpora irteten; hartarainoxe iritsi ziren.
(Lo 21).*

Frantzisko, ordea, bidera irten zitzaion otsoari,
herriar guztiak begira zituela, eta irakurtzekoa da
nola joan ziren bien harremanak:

*Eta jende asko begira zegoela –mirari hau
ikustera etorri baitziren–, han zetorren otsoa,
ahoa zabalik, San Frantziskori nondik erasoko.
San Frantziskok, otsoarengana hurbilduz, Guru-
tze santuaren seinalea egin zion, beregana deitu
eta «Zatoz hona, otso anaia! –esan zion–. Kristo-
ren izenean agintzen dizut, ez iezaguzu kalterik
egin, ez niri ez beste inori».*

Eta, gertakari pentsaezina!, otsoa entzun eta
ulertzeko prest agertu zen, Frantziskok beste
hainbat animaliatan ikusi ohi zuen jarrera adeitsu
berarekin:

*Gauza miragarria! San Frantziskok gurutzea
egin bezain laster, otso izugarriak ahoa itxi eta
korrika egiteari laga zion; eta emandako agin-
duaz, bildots bat bezala hurreratu zen mantso-
mantso eta San Frantziskoren oinetan etzan zen.*

³⁶ Di Fonzo, L., "El canto de San Francisco con el ruiseñor", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 101, 2005, 165-176.

³⁷ <http://www.fratefrancesco.org/lit/poesia/92.r.dario.htm>. Madariaga, A., 1928, "Anai Otsoaren gora-beherak", in: *Arantzazu*. 1928, 146-148. B. Gandiagak itzulita: Gandiaga, B., 2003, "Otsoaren arrazoiak", in: ID., 2003, *Justizia eta Bakea. Poemak eta Otoitzak*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak. 63-68.



Asis: Aingeruen Santa Mariako kalostrea

Beraz, otsoarekin ere posible zen mintzatu eta elkarrekin erabakiak hartzea, betiere bi aldean arteko konbenientzia eta hitzarmenak begiratu, adostu eta gordetzea. Hitz egitea zen falta zena, eta bata besteari egindako kalteaz jabeturik, jarrera berriak sortzea, denak elkarren etsai izan gabe, denak denen bakean bizi zitezen:

Anaia otsoa! Kalte handiak egiten ari zara alde hauetan [...] eta lurralde hau dena zeure etsaia duzu. Baina nik, anaia otsoa, bakea egin nahi dut zure eta haien artean, aurrerantzean

zuk inor irain ez dezazun, eta haiek orainarteko irainak barka diezazkizuten; eta gizonek eta zakurrek pertsegitu ez zaitzaten.

Hasteko, ikustekoa zen Frantziskok otsoari eskaintzen zion egoera berria, gizon eta zakurren jazarpenik gabekoa (gehiago gabe), zenbateraino zen onargarria eta segurua anaia otsoarentzat. Zein jarrera hartuko zuen, bada, Gubbioko basoetako otsoak? “[Frantziskok] hitz hauek esan zizkionean, otsoak gorputza, isatsa eta belarriak mugituz eta burua makurtuz, San Frantziskok esaten ziona onartzen zuela eta bete nahi zuela adierazi zuen”.

Lehen pauso zailena emanda zegoen, hortaz; baina bakea ez zen bideragarri izango, harik eta otsoari herritarrek guztien bizitzeko lehian ogibideren bat ziurtatzen ez zioten bitartean, eta Gubbioko herriak hartu beharko zuen ardura hori, bi aldean onerako. Frantzisko bake-bitartekariak iradoki zuen zein zen irtenbide egokia:

–Anaia otsoa, bakeak egin eta bakean bizitzeko ados zaudenez gero, hitzematen dizut ahaleginduko naizela hiriko jendeak, bizi zaren bitartean, behar duzuna etengabe eman diezazun, aurrerantzean goserik ez izateko, ondo baitakit goseak bultzatuta egin dituzula oker guztiak. Baina nik mesede hau lortuko dizudanez gero, anaia otsoa, nahi dut zuk ere agintzea ez diezula kalterik egingo ez gizakiei ez animaliei. Agintzen al didazu hori?

Otsoak, burua makurtuz, garbi adierazi zuen baietz, agintzen ziola. Orduan San Frantziskok esan zion: –Anaia otsoa! Ni horretaz benetan fida nadin, zuk neri promes honen fede ematea nahi dut.

Mintzamena falta zitzaion otsoak bere gisara azaldu zion Frantziskori bat zetorrela proposamenarekin: “San Frantziskok haren fede-ezaugarria hartzeko eskua luzatu zionean, otsoak aurreko eskuineko hanka jaso eta senidetasunez San Fran-

tziskoren esku gainean jarri zuen, eskatutako fedearen ezaugarria bere erara emanaz”.

Hori lortuta, hurrengo urrats diplomatikoa eman beharra zegoen, Frantziskok garbi esan zion: “zalan-tzak utzita, zatoz nirekin eta goazen Jainkoaren izenean bake hau berrestera”. Berrespena ez zegoen, bistan da, Frantziskoren esku, gubbiotarrenean baizik, eta herriko plazan aldarrikatu beharko ziren denen arteko hitzarmenaren onarpena eta ondoko elkarbizitzarako baldintzak.

Guztiak, handi eta txiki, gizon eta emakume, gazte eta zahar, plazara etorri ziren otsoa San Frantziskorekin ikustera. Herri osoa han bildurik zegoela, jaiki zen San Frantzisko eta predikatzen hasi zen, beste zer batzuen artean hau esanez: Jainkoak bekatuengatik uzten zuela halako zorigaitzak gertatzen; eta infernuko sua otsoaren amorrua baino beldurgarriagoa zela, hura kondenatuentzat betikoa zelako eta honek gorputza bakarrik hil zezakeelako.

Bi aldean eta Frantzisko bitartekariaren arteko azken emaitza honela laburtu zuen Loretxoak idazkiak, eta hobeki azaltzea zaila denez, berorren hitzak osorik jasoko ditut hemen:

Predikua amaitu zuenean, San Frantziskok esan zuen: “Entzun, ene senideok! Zeuen aurrean duzuen anaia otsoak agindu dit eta fede eman, bakeak egingo dituela zuekin, eta aurrerantzean ez dizuela kalterik egingo ezertan, zuek ere hitzemen badiozue egunero emango diozuela berak behar duena. Eta honen orde, ni neu egiten naiz erantzule zuen aurrean, berak leial gordeko duela bake akordioa”.

Orduan herri osoak hitzeman zuen aho batez egunero emango ziotela jaten. Eta San Frantziskok, denen aurrean, esan zion otsoari: “Eta zuk, anaia otso horrek, agintzen al didazu beteko duzula hauekiko bake akordioa, hau da, ez diezula kalterik egingo ez gizakiei, ez abereei eta ez beste sorkariei?”

Otsoa belaunikatu zen, burua makurtu, eta gorputza, isatsa eta belarriak mantsoki mugituz, ahal zuen eran adierazten zuen akordio osoa bete nahi zuela. San Frantziskok esan zion jarraian: “Anaia otsoa! Hiritik kanpo promes honen fede eman didazun bezala, nahi dut herri guztiaren aurrean ere eman diezadazula zeure promesaren fede, eta ez nauzula engainatuko zure izenean egin diedan promesan”.

Orduan otsoak eskuineko hanka jaso eta San Frantziskoren eskuan jarri zuen.

Loretxoak liburuak dioenez, hauek izan omen ziren data ezjakin batean Gubbion gertatutakoak. Otso honen eta Gubbio herriaren notizia nonahi aurki dezakegu geroztik; hala ere, ez dago segurtasun handirik gertatutakoen benetakotasunaz, eta otsoaren istorio honek bi interpretazio kontrajarri nagusi ditu historialarien artean:

1) Bata, hitzez hitz gertaera bere horretan ulertu, eta Gubbion benetan balentriak egiten zebilen otso jakin baten joan-etorriak horrelaxe ulertzen dituen, gertaeraren antzezpena benetakotzat hartzen duena, gutxienik bere zertzelada nagusietan. Horren lekukoa da literaturan otso honi eman zaion adierazpidea edo Gubbion ikus daitekeen eskultura.

2) Bestean, gertaerak metafora gisara ulertzen dira³⁸, hau da, gubbiotarren desbiderazio eta burubide txarren ondoko zigorrak izango litzateke otsoa, eta konbertsioaren emaitza, oster, denen arteko bakea. Frantziskoren bitartekaritza, berriz, guztiek onarturiko betekizun ebanjeliotar bezala agertuko litzaguke kontakizun honetan. Guztien etorkizuna ziurtatzeko, salbaziorako, bakeak egin behar dira, zinez onbideratuta.

Bigarren interpretazio honek ez luke esan nahi-ko zinezko otsoren bat egon ez zenik; baina bai ger-

³⁸ Godet-Calogeras, J.F., 2011, “Más que una leyenda: el lobo de Gubbio”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 120, 2011, 431-438.

takari xumeren bati inguru eta balio sinboliko zabalagoak eman zitzaizkiola, istorio antzeztu bat eraikitzeraino, betiere XIV. mendeko frantziskotarren Anaiarte gatazkatsuaeren altzoan. Honela ulertuta, bada, parabola bat izan zen Gubbioko otso eta gertakariena³⁹.

Izakirik ankerrena ere, onbideragarria zen Frantziskorentzat, Jainko Jaunaren borondateari bide ematen baldin bazitzaion, azken funtsean Izadi osoa ona baitzen Jaunaren eskuetan.

7.3.4. "Anaia Eguzki eta Sorkarien Kantika"

Frantziskoren olerki-kantu ezagunena eta iruzkinduena da hau; bertsoen jatorrizko musika galdua den arren, hainbat aldiz izan da berriro musikatua eta ostera ere abestua. Gizon-emakume guztiei Frantziskok honela eskaini zien bere bizialdi osoko barne-ibilera laburbilduta, poema baten bidez eta kasik hilburuko baten gisa. Iruzingile franko izan du kantika honek⁴⁰.

Frantziskoren bertso kantatu hauek urrezko hizkitan idatziak geratu ziren italieraren eta literatura italiarraren sorrerako lorpen onenen artean. B. Migliorini-ren hitzetan esateko: doinua galdua bada ere, hitzak "sublime effusione di preghiera e insieme altissima poesia" dira italieraren historialariaren-

tzat⁴¹. Garaiko erlijiotasun herritarraren barruko latinetik italierarako jauzian sortua da poema hau, Frantziskok eta mugimendu frantziskotarrak batez ere predikuaeren bidez bultzatu zuten hizkuntz jauzi kulturalaren altzoan eta betiere juglareen tradizioan (Migliorini 2004: 202).

Italiako Udaletako (*comune*) kultura burgesaren baitan begiratu behar dira, oro har, hizkuntza italiarra bezala literatura ere. Neurri handi batean, Italiako XIII. mendeko espiritualitatearen bihotzean egon zen mugimendu frantziskotarra, eta une horretan ongi daturik agertzen den lehenengo idazki balio literarioz garbiki ezau-garritzatua da hona dakargun "kantika" hau (1225)⁴²: "Il cantico di frate Sole". Beronekin hasi zen Erdi Aroko frantziskotarren literatura herri-tarra, legendatan hitz lauz, eta olerkietan (Jacopone de Todi, 1230-p. 1306).

Anaia Txikien zeregin nagusietako bat, predikuaarena, Frantziskok bertsogintza eta kantuarekin batera eraman nahi izan zuen, eta eskatu ere bai anaia predikariei, ahal zutela, sermoiaren ondoren juglare edo koplari gisara abes zezatela eskatuz:

Honela adierazi zien bere asmoa: haien artean predikatzen zekienak hitz egin ziezaiola aurrenik herriari eta, ondoren, Jaunaren koplari bezala, kanta zitzatela "Jaunaren Gorespenak". Gorespenok amaitu ondoren, predikariak honela esan behar zion herriari: «Gu Jaunaren koplari gara, eta sari hau nahi dugu zuengandik egin dugunagatik: iraun dezazuela benetako penitentzian». Eta jarraitu zuen: «Zer dira, bada, Jainkoaren zerbitzariak, gizon-emakumeen bihotzak mugitu eta espirituaren pozetara jaso behar dituzten Jaunaren bertsolariak baizik?» (PerLe 83).

³⁹ Bergamaschi, A., 1974, "San Francisco, Gubio, el lobo y la lucha de clases", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 9, 1974, 310-317. <http://www.franciscanos.org/historia/Bergamaschi.htm>.

⁴⁰ Leclerc, E., 1970, *Le Cantique des créatures ou les symboles de l'union*. Paris: Libr. Arthème Fayard. (Gaztelaniaz: 1988², *El cántico de las criaturas*. Arantzazu: EFA. Ik. bertan eman den bibliografia (5-8. or.). *Selecciones de Franciscanismo*-k zenbaki monografikoa osatu zuen bere 13-14. zenbakietan (1976), sinadura ezagunen lumetatik bilduta: Leclerc, Sabatelli, Pozzi, López, Scheffczyk, etab. Santoro, M., 2012, "Una poética de la creación. El cántico de San Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 123, 2012, 387-396. Scheffczyk-ek Theilard de Chardin-en "Himne à la Matière"-ekin alderatzen du kantika: "El «Cántico del Hermano Sol», de San Francisco de Asís y el «Himno a la Materia» de Th. de Chardin", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 13, 1976, 108-122). http://classiques.uqac.ca/classiques/chardin_teilhard_de/hymne_de_univers/hymne_de_univers.pdf.

⁴¹ Migliorini, B., 2004, *Storia de la lingua italiana*. Milano: Bompiani. 135. (Gaztelaniazko Gredos-en edizioan: I, 203).

⁴² Petronio, G., 1990, *Historia de la Literatura italiana*. Madrid: Cátedra. 44.



Asis: San Damianen, Eguzki Anaiaren eta Sorkarien Kantika sortu omen zuen lekua, San Damianen

Koplaritza, ordea, beregaina ere izan zitekeen, hau da, sermoietatik at eta bestelako aitzakiarik gabe landu zitekeena, gozatu eta kantatuz, otoitz, bertso eta doinu.

Iritzi, irizpide eta egitarau jakin batekin azaldu zuen bere gogoia Frantziskok, lagun hurbilek dioten eran: “«Gorengo, ahalguztidun, Jaun onbera» hitzez hasten diren Jaunaren gorespen hauei “Anaia Eguzkiaren Kantika” izenburua jarri zien, eguzkia delako sorkari guztien artean ederrena eta Jainkoa hobekien irudika deza-keena. Horregatik esaten zuen:

«Goizean eguzkia agertzean, gizaki orok hura sortu zuen Jainkoa goratu behar luke, haren bidez argitzen baitira gure begiak egunez. Arratsean, gaua egiten denean, gizaki orok Jainkoa goratu behar luke beste sorkari bate-gatik, anaia suagatik, beronen bidez argitzen baitira gure begiak gauez. Izan ere, denokitsuak bezala gara, eta Jaunak bi izakion bidez argitzen ditu gure begiak. Horregatik, bi izaki hauengatik eta egunero erabiltzen ditugun haren beste sorkariengatik arreta osoz goratu behar dugu beti Kreatzaile aintzatsua»” (PerLe 83).

Frantziskoren kopla-zaletasun horrek Anaiartean bere lekua izan zuen, eta ezagutzen dugu, adibidez, koplari fina izandako bat Frantziskok Anaiarterako irabazitakoa. Ospe handikoa zen berau, Gilen Divini zuen izena: “abitua jantzi zion eta anai Pazifiko deitu zuen” (2 Zel 106). Baliozko gizona zenez, 1217an Frantziara bidali zuen Ordena eraikitza; handik itzultzean, Frantziskoren ondoko lagunetakoa izan zen (1223-1226)⁴³. Gaixotasunek aurrera egin ahala, abes ziezaiola eskatu ohi zion noizbehinka Frantziskok anai Pazifikori: “Hauxe nahiko nuke, bada, anaia: har dezazula isilpean [eskandalurik sortu gabe, alegia] zitara bat maileguz eta, hura lagun, kanta diezadazula

bertso egokiren bat, oinazez josia dagoen nire anaia gorputzari gozamen pixka bat emateko” (2 Zel 126).

Anai Pazifikoren laguntza gorabehera, azpimaratu behar da, gainera, Frantzisko ez zela izan juglarea bakarrik (hau da, inoren koplak kantatzen zituen), baizik eta lehenik koplak jarri egiten zituen, eta ondoren, abestu (trobalaria zen, beraz). Gorago esan dudana bezala, XIII. mendeko trobalaritzak gai ezberdinak izan zituen: amodio gortesaua, aldarrikapen politikoak edo gerra-istorioak, eta ez zen eskas izan erlijio-gaia ere, literatur historietan hain aipatua izan ez den arren.

Garai beretako trobalariek jarrera arras kontra-jarriak ere izan zitzaizketen munduaren, gizadiaren eta politikaren aitzinean. San Frantziskorena izan zen horietako bat; baina beronen hautapena argia- go ulertzeko, garaiko beste trobalari bat ekarriko dut hona.

Okzitaniatik zetozen trobalari hauetakoa bat, handinetakoa, Pèire Cardenal dugu (c. 1180-1278: ehun urte bizi izan omen zen); jaiotzaz, Frantzisko- ren belaun berekoa zen, eta 1216tik aurrerako koplak ezagutzen zaizkio. Trobalari gisa hainbat hiri, gaztelu eta gortetan ibilia, albitarren aurkako gurutzada urteetan ere bere lan kritikoa ausarki oihuka- tu zuen, Okzitanian jazoten ari ziren demasien aurka (1209...). Amodio kantuekin zebilela, Okzita- niaren eta heretiko okzitanien aurkako gurutza- dak harrapatu zuen, eta Elizarekiko kritika moralari heldu zion⁴⁴.

Cardenalen eboluzio pertsonalean gogorra ger- tatu zen azken bilakaera, izan ere “hombre de profunda religiosidad, rayana en el misticismo” abia- puntutik azken itxaropen itsutu bateraino iritsi bai- tzen. Cardenalek deus gutxi espero zuen gurutzada

⁴³ Anai Pazifikoren albisteak: 2 Zel 106, 122, 126, 137. LeLu 4, 9; 13, 10. PerLe 23, 43, 82. Perlsp 59, 60, 100.

⁴⁴ Lafont, R.; Anatole, Ch., 1970, *Nouvelle Histoire de la Littérature occi- tane*. Paris: PUF. I, 173-185. Riquer, M. de; Valverde, J. M., 2007, *Historia de la literatura universal. I. Desde los inicios hasta el Barroco*. Madrid: Gredos. 257-260 (“La sátira de Peire Cardenal”).

armatu hartatik, eta, azkenik, barne-bakea galduta, esperantzarik gabe suertatu zen, ez gizartearen hoberentzian, ez Elizaren konbertsioan sinesten zuela, predestinazio pertsonal eta taldekoaz Jainkoari zuzenean kontu eskatzen ziola⁴⁵.

Ez dut uste Frantziskok Cardenalen obra eza-gutu zuenik; bakoitzak bere bidea urratu zuen, gisa oso ezberdinetan, azkenean emaitza kontrajarriekin; baina garai bereko gizonak ziren. Cardenalen izpiritu kritiko sakon eta ozpindua, alde batetik, eta Frantziskoren Jainkoarekiko jarrera maitakorra eta Elizarekiko sinetsua, bestetik, ezin ezkonduak ziren bata bestearekin.

Urte eta erdiko sufrimenduen artean eta heriotza baino bospasei hilabete lehenago landu zuen Frantziskok Sorkarien kantika hau, bi sostengu nagusiren gainean eraikia, Jainkoa ororen kreatzaile eta aita dela eta sorkari guztiak elkarren senide maitale/maitagarri direla. Ez dago lekurik gorrotorako, sorkariak ez dabilta kosmosean galduta, beren izanean nondik norakoa dutela baizik, eta hasierako erroitik bertatik dira berez senide eta senidetzero deituak. Kristau herriaren bertsolari hau kantari dator, herritarrek nahiago duten bezala, ez dabil teologiako zientzia egiten, heldutasunera iritsi zaion sinetsuenari ahotsa ematen baizik.

Gizakiari sorkarien gain jauntasuna ezagutzen zaio, baina banan-banan guztien hoberako gizon-emakumeek jakin behar dute eskumen hori esker onez, amodioz eta erne erabiltzen. Kosmologia eta ekologia kristaua da hau, sinetsuenetik ulertua, zientzia enpirikoen honagotik ekarria eta harago eramana.

Kantu-olerki honen baitan dena hartu nahi da aintzakotzat: nolabait esateko, Jainkoa eta gizakia, bakoitzari bere lekua ematen dio; argia eta energia

gogorarazten dizkigu Anaia Eguzkiak, eta ortzia ilargi eta izarrez jantzia dugu; jarrera estetiko miretsia ez da falta (*eder* hitza behin eta berriz); eguratsean erreparatu gabe galdu ohi zaizkigu haize, laino eta ostarteak, baina horiek guztiak dira sorkariei mantenua ematen dietenak. Eta badatoz elkarren jarraian izaki preziatuak: ura (apal, bitxi, garbi eta ongarri), ama-lurra (berak mantentzen gaitu), fruituak (lore eta belarrez hornituak); beharbada, sua da espero ez genuena, baina hor dago bera ere, Frantziskorentzat “ederra da, alaia, sendoa eta indartsua” eta gaueko iluna ere argitu egiten du.

Begiratu orokor horren ondoren, gizakiaren bizitza dator bere balio/desbalioekin: amodioak ekar dezakeen barkamena (norberarengan eta gizartearen), gaixotasunean eta sufrikarioan bizi dezakegun eroapen baketsua, Jaunak saritzekoa; etorriko den arreba herioren ondoko itxaropena. Eta azken aholkua: apaltasunez eta fedez zerbitzatu beharra.

Kantika hau Frantziskok nola eta zein egoeratan sortu zuen agertzean, historialariek La Verna ondoren bizi izan zuen haren “gau mistikoa” eta gaixotasun fisikoak gomutarazten dizkigute. Hain zuzen, kantika hau gertatu zitzaion Frantziskori heriotzerako azken-aurreko muga, eta guztiari hemen Bestaldetik so egiten dio: iragan dira oinazeak, bakardade isolatua, Anaiarteko krisia, egitasmo ebanjelistarraren aldeko borroka-ezina, bakea eta azken argia iritsi zaizkio, eta jada “arreba” da hurbil den Heriotza.

Bere aldetik, Gandiaga euskal olerkari frantziskotarrak honela laburtu zuen Frantziskoren azken kantika hau, Pello Zabala-ren doinu eta guzti:

“Bizitzaren azken aldera iritsia zen Frantzisko; 1225eko apirila edo maiatza zen. Frantzisko osasuna hautsita dago, eta ez du ia ezer ikusten. Eta kexu eta protesta egin ordez, kantuari ekiten dio, izadi osoa anaiatzat ematen digun *Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun* ona goresteari. Geroxeago, 1225eko ekainean, barkamena-aren ahapaldia eransten dio kantikari (10-11 tx.ak). Eta heriotzatik hurbil dela (1226ko urrian), arreba heriotzari egiten dio kantu (12-13 tx.ak).” (Frantz. Itz. Taldea 2002: 93).

⁴⁵ Garaiko trobalari eta juglareen mundura lehen hurbilketa: Riquer, M. de, 2004, *Vidas y amores de los trovadores y sus damas*. Barcelona: Acantilado.

Anaia Eguzki eta anai-arreba Sorkarien kantika

- ¹Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona,
zureak gorespenak, aintza, ohorea eta bedeinkapen dena.
- ²Zuri, Goi-goiko horri, dagozkizu bakarrik, eta ez da gizakirik zu aipatzeko duin denik.
- ³Goretsia zu, ene Jauna, zeure sorkari guztiekin, batez ere anaia eguzki jaunarekin:
bera da egun-argia eta berarekin diguzu egiten argi.
- ⁴Eder eta distiratsu da dirdira bizitan:
zure, Goi-goiko horren, irudi da.
- ⁵Goretsia zu, ene Jauna, arreba ilargi eta izarrengatik:
argi, bitxi eta eder dituzu zeruan jarri.
- ⁶Goretsia zu, ene Jauna, anaia haizearengatik,
eta aire, laino, oskarbi eta edozein eguraldigatik:
beronen bidez ematen diezu mantenua zeure sorkariei.
- ⁷Goretsia zu, ene Jauna, arreba urarengatik:
txit ongarri da, apal, bitxi eta garbi.
- ⁸Goretsia zu, ene Jauna, anaia suarengatik:
beronen bidez argitzen duzu gaua eta ederra da, alaia, sendoa eta indartsua.
- ⁹Goretsia zu, ene Jauna, gure arreba ama-lurragatik:
berak gaitu mantentzen eta gobernatzen,
eta hainbat fruitu, lore koloretsu eta belar sortarazten.
- ¹⁰Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dutenengatik barkatzen
eta gaixotasuna eta larrialdia eramaten:
¹¹zorionekoak bakean sufritzen dituztenak,
zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dituzu eta.
- ¹²Goretsia zu, Jauna, gorputzeko gure arreba heriotzagatik:
ez da gizaki bizidunik ihes egin diezaiokeenik.
- ¹³Zoritarrekoak bekatu larrian hilko direnak!
Zorionekoak zure borondate santuan aurkituko dituenak,
ez baitie kalterik egingo heriotza bigarrenak!
- ¹⁴Gorets eta bedeinka ezazue nire Jauna,
eman eskerrak eta apaltasun handiz zerbitza.

Izakien kantari
Frantzisko santua,
Jainkoak espiritu
argiz apaindua,
begi gozoz maitatu
zenuen mundua.

Anai eta arreba
zenuen guztia;
narrastia, hegastia,
arraina, piztia...
guztientzat zenuen
sentipen ezia.

Haizea, eguzkia,
ura, lurra, zura,
izarrak, ilargia,
negua ta uda,
dena ere zuretzat
Jaunaren zeinu da.

Lehor-itsasoetan,
zerupe handian,
nonahi eta beti zinen
aurkitu sendian,
gizaki ta izaki
guztien erdian.

"Gora Jauna -zenion-
eta eskertu bera"
Gauzen aurrean zure
aldarria hauxe da,
argi ikusiz gauzetan
Jaun Onaren xera.

Aintza Jaunari zeruz,
lurrez eta itsasoz,
dena baitago barbar
harek egindakoz.
Izakietan hari
aintza sekulakoz. *Amen.*

B. Gandiaga

Hona nola laburtu zuen B. Gandiagak Kantika.



Rieti: Rietiko bailara eta herria maiteak izan zituen Frantziskok, eskean zebilenean edo bere prediku lanetan.

7. 4. Azken joan-etorriak

Frantziskoren bizitzako urte eta hilabete bartzuetan haren albisteak eskasak edo horiek zehaztasun kronologiko gutxikoak ditugun arren, badakigu orokorrean zeintzuk izan zituen egiteko nagusiak. Zorionez, 1220tik aurrera, hain zuzen Anaiarteko Nagusitza utzi zuenetik, notiziak ugaritu egiten dira, Erregelen idazketa dela eta lan horren inguruko harremanak, Hiru Lagunek eremitorioetako egonaldiak kontatu zizkigutenak.

1224-1226an, jada Frantzisko santu aitortua zen, herritar gailen eta arrunten artean, agintari zibil eta eliztarretan. Gaixoa eta zaindu beharrekoa zenez, beti izan zuen ondoan testigurik, eta geroago halakorik behar izan zenean, Elizako eta Anaiarteko agintariek albisteak biltzeko iturri onak izan zituzten (1228, 1244).

Zorionez, Frantzisko bera da iturri autobiografiko onena, hain zuzen beraren idazkietako hainbatek azken bi urteetako data ziurra duelako: *Gorespenak* eta Anai Leonen bedeinkapena 1224ko irail-urrieta-koak dira; *Sorkarien kantika* bi alditan emana, ia oso-rik 1225eko udaberrikoa, eta agintarien arteko barkamenerako aldarria 1225ekoa dugu, eta heriotzarekiko pasarte gehitua heriotzako bezpera-bezperakoa.

Iritsi da gizona bere gogo-heldutasunera, eta ulertu behar duen guztiaren muin-ardatzetan *Jainkoa* du argi-iturri. Azken egunetako gogo-heldutasunetik, Bibliako Hitza hausnartuta, bizikizun mistikoak tarteko zituela begiratzen zuen Jainkoa bere izanean eta izaki-gizakion sortzaile errukitsu gisa. Erdi Aroko Harekiko bizipen eta pentsamen-duan une aberatsa eta trinkoa dugu Frantziskorena⁴⁶. Hori ikusteko, *Jainko gorenaren gorespenak* deritzan honek merezi du orrialde hauetara osorik ekartzea.

⁴⁶ Frantziskorengan Jainkoak izan zuen lekua ulertuz joateko hona lau idazlan baliagarri, behintzat: Guerra, J. A., 1999, "El encuentro con Dios, experiencia central de Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*, 84, 1999, 435-465. <http://www.franciscanos.org/espiritualidad/Guerra-ElEncuentroConDios.html>. Matura, Th., 1990, *Dieu le Père Trè Saint. Contemplé par François d'Assise*. Paris: Éditions Franciscaines. Torrecilla, J., 2015, "La Alabanzas al Dios altísimo", in: Herranz, J.; Torrecilla, J. (ed.), 2015, *San Francisco de Asís: escritos autobiográficos. Homenaje de José Antonio Guerra y Sebastián López*. Madrid: Fund. Escuela Franciscana de Estudios Franciscanos. 135-175. Frantziskorena Erdi Arokoaren barnean: Le Goff, J., 2005, *El Dios de la Edad Media. Conversaciones con Jean-Paul Pouthier*. Madrid: Editorial Trotta. 27-29.



Portziunkulako Barkamena: 1216an eskatuta, lortu zuen uste denez Induljentzia hau Frantziskok, eta Asisen eta mundu osoan egun jakin batean irabazi ahal izan da. Eliz Hierarkiak ere onartu zuen barkamen hau, eta frantziskotarrek biziki sustatu zuten debozioa, ohikoa zen aitortza-jaunartzeekin ospatua



Jainko Gorenaren Gorespenak

Zu zara santua, Jainko Jaun bakarra,
 mirariak egiten dituzuna.
 Zu zara indartsua,
 zu zara handia,
 zu zara goi-goikoa,
 zu zara errege ahalguztiduna,
 zu Aita santua, zeru-lurren erregea.
 Zu zara hirukoitza eta bakarra,
 Jauna, jainkoen Jainkoa,
 zu zara on, on guztia, on gorena,
 Jainko Jaun bizi eta egiazkoa.
 Zu zara maitasuna, karitatea;
 zu zara jakinduria,
 zu zara apaltasuna,
 zu zara pazientzia,
 zu zara edertasuna,
 zu zara otzantasuna,
 zu zara segurantza,
 zu zara atsedena,
 zu zara poza,
 zu zara gure itxaropena eta alaitasuna,
 zu zara justizia,
 zu zara neurritasuna,
 zu zara gure aberastasun guztia asebetean.
 Zu zara edertasuna,
 zu zara otzantasuna,
 zu zara babeslea,
 zu zara gure zaindari eta defendatzailea,
 zu zara sendotasuna,
 zu zara freskagarria.
 Zu zara gure itxaropena,
 zu zara gure fedea,
 zu zara gure karitatea,
 zu zara gure gozotasun guztia,
 zu zara gure betiko bizia,
 Jaun handi eta miragarri,
 Jainko ahalguztidun,
 Salbatzaile errukiorra.



Frantziskoren heriotzako gela, Aingeruen Sta. Marian.

7.4.1. Testamentuak (1226)

Frantziskok bi testamentu utzi zizkigun, bata hil hurrean 1226ko irailean eta seguruenik Portziunkulan egina, eta bestea Sienan hilabete batzuk lehenago, urte bereko apirilean edo maiatzean emana.

Sienakoaz ari garela, ezagutzen dugu Frantzisko nola aurkitu zen testamentu hori egitera behartuta, gaixo estualdi bategatik eta inguruan zituen anaiek eskatuta:

Behin batean, Frantzisko begietako gaixotasunagatik Sienan zegoela [...], arrats batez, gora-galeak eman zion Frantziskori bere urdaileko gaitzagatik eta egin behar izan zuen indar

handiagatik gau osoan odol botaka aritu zen goiza arte.

Bere lagunek, gaitzaren ahulezia eta oinazeagatik hura hil zorian ikusita, [...] esan zioten: «Zer egingo dugu orain, aita? Bedeinka gaitzazu gu eta beste anaia guztiak. Utz iezaiezu anaiei zeure nahiaren oroigarriren bat». [...]. Orduan, Frantziskok esan zien: «Esan etortzeko Piratroko Benediktori». [...]. Hura etorri zenean, honela esan zion Frantziskok: «Idatzi nola bedeinkatzen ditudan neure anaia guztiak, orain gure elkartean direnak eta mundua amaitu arte etorriko direnak». [...].

Eta jarraitu zuen esaten: «Ahuleziagatik eta gaitzaren oinazeagatik hitz egiteko gauza ez naizenez gero, hiru hitz hauetan agertzen diet laburki ene anaiei neure borondatea: Nire bedeinkapenaren eta testamentuaren oroipen-seinaletzat, maita dezatela elkar, maita eta bete dezatela beti gure andere pobretasun santua, eta bizi daitezela beti Eliza ama santuko agintari eta kleriko guztiei leial eta menpeko» (PerLe 38 eta 39.lk. Garrido 1975: 443-447).

Testamentu nagusia dei dezakegunaren aurre-rapen bat suertatu zen Sienako hori; orain hemen, beste gabe, "Testamentua" aipatuko dugunean beti-ere irailean egidakoaz ariko gara.

Baina zergatik eta zertarako egin behar zuen Frantziskok testamenturik? Bistan da, ez zuela behar bereak ez ziren ondasun materialak inori pasatzeko, hori hogei urte lehenagotik aitaren eta Gotzainaren aurrean erabakita zeukan. Hala ere, Sienako horretan ageri den bezala, biziera ebajeliotar bat asmatu zuenetik (1206, 1209), proposamen haren aldeko defendatzaile eta gidaria zen, agintearekin nahiz aginterik gabe. Eta hori bai zela herentzian uzteko zerbait, segurtaturik uztekoa.

Testamentuak historia bikoitza zuen gogoan: bata, errotiko lehen orduko Ebanjelio-hautapen (1206) eta proposamenarena (1209), talde txikian jaiotakoa; bestea, berorren parean, eta Anaiarte zabalagoaren baitan zetorren asmo juridiko-instituzionalarena. Biak zituen gogoan Frantziskok.

Zalantzarik gabe, maiz berba eginda zegoen Frantzisko Hugolinorekin, Anaiarteari Elizan eman zekioken betekizunaz eta Elizak espero zezakeen Anaia Txikien zerbitzuaz. Segur aski, ongi ulertu zion Frantziskok hori; baina, era berean, fermuki sinetsita zegoen bazuela Jainkoak eskuetan jarri zion Zuzenbidetik haragoko jomuga ebanjeliotarrik. Horrekin leial izateko sinatu zuen batik bat Testamentua.

Lehen hagiografietatik hasi eta gure egunak arte, Testamentuari buruzko literatura tekniko eta espiritual arrunt zabala egon da, Ordenaren barruan bezala XIX-XX. mendeetako historiografia fran-

tziskozalean⁴⁷, nahiz eta produkzio hori ez gutxitan Eliza Erromatarrekiko jarrera kontrajarriek ukituta ageri zaigun. Testamentu honen adiera autobiografiko eta historikoa ongi begiratzekoak dira. Bestalde, Testamentua Erregelarekin batera irakurtzeko ohitura indarrean egon da Anaiartean, Ordena frantziskotar ezberdinetan; hortaz, ez da izan berori iraganeko historia hutsa, astero entzutekoa baizik.

Idazkiak pixka bat denetik du: oroitzapenak, oharra, aholkuak, aginduak edo bedeinkapenak. Iraganari buruz esan edo iradokitako balioespenak daude, ahopean kritikarik ere bai; baina batik bat etorkizunaz kezkatu ageri da Frantzisko. Badu Testamentuak pasarteren bat, datuak ematean, geroko bilakaeraz malenkoniak eta kezkatu ari dena:

Bizimodu hau hartzeko asmoz zetozenek [1208] eduki zezaketen guztia behartsuei banatzen zieten, eta honako hauekin kontentatzen ziren: tunika bakar bat, barru eta kanpo adabatu, gerriko soka eta azpiko galtzak. Eta ez genuen beste ezer eduki nahi. Kleriko ginenok, beste klerikoen erara errezatzen genuen Ofizioa; laikoek, berriz, Gure Aitak esaten zituzten. Eta oso gustuko genuen elizetan egotea. Eskolagabeak ginen eta guztien menpeko. Nik neure eskuz lan egiten nuen, eta egin nahi dut; eta tinko nahi dut, gainerako anaia guztiek ere lan egin dezatela lanbide egoki batean (Test 16-20).

⁴⁷ Jeneralean, Erregelari buruzko ikaslanetan ez da ahazten Testamentuarena. Gaztelaniaz eskuera beronen historiari dagoen ikerlan ona: Esser, K., 1981, *El Testamento de San Francisco de Asís*. Arantzazu: EFA. (Bibliografia batez ere alemanieraz, 23-31. Hemen guretzat bereziki interesgarriak: "La problemática", 33-43. or.; "La importancia y significado del Testamento", 101-239. or.; "El Testamento en la historia de la Orden", 241-246. or.). Argigarria da Testamentuaren esanahi autobiografikoa ulertzeko Garrido 2004: 40-44. Hona, guztia osagarri, azken urteetako baliozko zenbait ikerlan: Hernández, V. J., 2001, "Nuevas hermenéuticas franciscanas. Riesgos y posibilidades", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 90, 2001, 406-454. Manselli, R., 1995, "Del Testamento a los testamentos de san Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 70, 1995, 94-104. Micó, J., 1981, "Reflexiones sobre el Testamento de San Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 28, 1981, 3-52. Ming, E., 1999, "Testamento de san Francisco", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 83 1999 242-270.



Frantzisko, hilzorian, otoitzean laguntzen diotela.

Testamentuko lehen partean (1-24. zenb.), Eliza-ko Hierarkiarekiko esanekotasuna irmoki baieztatuta dago: Eliza santu erromatarrari dagokiona, haren esanera bizi diren edo ez diren klerikoez ari dena (jakin-ezjakinak, bekatari eta jazarleak). Oparia da Fantziskorentzat Jainkoak emandako Erregela: "Goi-goikoak berak agertu zidan Ebanjelio santuko moldearen arabera bizi behar nuela". Eskulan, limosna eta lanbidezko ogibidea, dena ere gizartean bakez eraman behar da: "Bakea dizula Jaunak". Izan ere, ez dago zertaz borrokatu, "anaia txikia" txiro baita eta mundu honetan pasaerako apopilo eta erromes arrotza.

Testamentuko azken atalean (25-41. zenb.), Anaiarte barrukoari dagokion espiritualtasunaz eta biziera jatorraz ari da. Parte honetan daude, laster gatazka sorburu izango diren pasarteak, esaldi zo-

rrotz eta laburretan emanak: anaiak, "dauden tokian daudela, ez daitezela ausartu, ez pertsonaki, ez bitartekoen bidez, Erromako Kurian inolako agiririk eskatzera" (pribilegio eta segurtasunik ez du nahi, alegia)⁴⁸: ez indarrez, ez administrazio politiko ira-bazi behar dute mundua, eta "nonbait onartzen ez badituzte, doazela ihesi beste norabait penitentziatzko bizitza egitera, Jainkoaren bedeinkapenaz". Ministro edo goardianoarekiko obedientziak "tinkoa" izan behar du, inora joateko nahiz zernahi egiteko.

Bere aldetik, Frantziskok Testamentuan esaten dena indar guztiz segurtaturik utzi nahi du, eta Erregela/Testamentuen arteko ondoko lehia eztabaidatuan pisurik handiena duen pasarte gertatuko da ondoko hau:

⁴⁸ Ik. Esser 1981: 202-213.

Eta anaiek ez bezate esan: «Hau beste Erregela bat da», zeren hau gogoragarri, oharpen eta aholku bat baita, eta nire testamentua, nik, anai Frantzisko txiki-txiki honek, zuei, ene anaia bedeinkatuoi, egiten dizuedana, Jaunari hitzeman genion Erregela katolikoago bete dezagun (Test 34).

Testamentu osoko pasarterik zailena da hau (Esser 1981: 226-229). Benetan, Erregelako eta Testamentuko testuek arau-balio bera izango ote dute frantziskotartasuna definitu eta kudeatzeko, taldean eta norberaren kontzientzian? Bere gisara, Testamentua ematean eta idaztean, Frantziskok argi du bien artean ez dagoela funtsezko bitasunik, eta dena bat dela, eta zeharbidezko joko txarrik gabe bere jatorrizko gardentasunean ulertu behar dela guztia:

Ministro jenerala eta gainerako ministro eta kustodioak obedientziaz behartuak beude, hitz hauei ezer ez erantsi eta ez kentzera. Eta idazki hau beti berekin eduki bezate, Erregelarekin batera. Eta egiten dituzten Kapitulu guztietan, Erregela irakurtzen dutenean, irakur bitzate hitz hauek ere. Eta neure anaia guztiei, kleriko nahiz laiko, tinko agintzen diet obedientziaren izenean, ez diezaietela ez Erregelari eta ez hitz hauei oharrik erantsi, esanez: «Honela ulertu behar dira»; baizik eta Jaunak bai Erregela eta bai hitz hauek sinpleki eta garbi esan eta idaztea eman zidan bezalaxe, uler itzazue zuek ere sinpleki eta oharrik gabe, eta bete itzazue azkenean arte jokaera santuz (Test 35-39).

Zer gertatu da Frantziskok honelako jarrera zurruna izan dezan? Ez al da, bada, bera 1210-1220. urteetan otoitza, elkarren ezagutza eta denen arteko elkarriketan Anaiarterako arau osagarriak lantzeko urteroko Kapituluetara deitu eta berauek gidatzen zituena? Bai, noski; baina, behingo batean, nahas-menduren bat sortu zen (1219), fraide jakitunak etorri ziren (1217...), Frantziskok agintea utzi zuen (1220) eta Hugolinok babes-gidaritza hartu (1220...), Erregelaren idazketak buruhauste eta lanak ekarri

zituen (1221-1223), Kuriaren laguntzaz Erregela onartuarekin "Ordena" bihurtu zen Anaiarte (1223), bizikizun mistikoen indarrez Frantziskok bere baitan hitz egiteko azken libertate osoagoa irabazi zuen, La Vernatik Anaia Eguzkiaren kantikaraino.

Testamentua une horretakoa da, krisi eta sufrikario guztien gainetik hegaldi askea, ikusten ari zenaz kezkatuta, umore-aldarte txarren bat ere tartean duela (Esser 1981: 234); baina, nolanahi ere, nondik nora doan dakiena. Herentzia jakina utzi nahi du: Zuzenbidearen aurretik eta ondoren, Ebanjelioarena, betikoa.

Testamentuan, Frantzisko ez da ari legegizon lana egiten, baizik taldearen jatorrian aukeratuakoa bermatzen eta biziera ebanjeliotarrerako anaia guztien askatasun eta ahalbideak zaintzen; gidari zeregina du, beraz. Frantziskok bazekien ez zuela jada eskumen juridikorik; baina, era berean, baita jarraibide idealen aldezkari aitortu eta onartua zenez, "eskubide" eta erantzukizun ezin dimitituak zituela Anaiarte osoan, sare juridikoetan preso erori eta ito gabe jarduten zuela. Frantziskok ulertu du, Ordenak bere eliz bide instituzionala hartuta duela; ez dago horren aurka, eta pentsatu behar da Hugolinorekin gogoeta eta hitz egin ondoren, onartu duela Elizak nahi eta behar duen bide juridiko pragmatikoagoa; baina, Anaiartearen baitan, ez du nahi moztetik biziera ebanjeliotar hertsiaorako bidea. Bide horretatik doa idazki honen bidez Frantziskok esana diguna: "hau gogoragarria da, oharpena eta aholkua, eta nire testamentua", hitzemandako Erregela zintzoago betetzeko.

7.4.2. Azken ordukoak: Heriotza

Aipatutako bi Testamentuen artean (Sienan, 1226ko maiatzean; Asisen, urte bereko irailean), beti oso gaixo eta oinazez biziko da Frantzisko, anaiek maitekiro zainduta, itsu, eta begibista berreskuratzeke itxaropenik gabe.

Sienatik Cortona barrena heldu zen Portziunkulara; baina udako beroetatik ihesi, uztail-abuztueta Bagnara-n eman nahi izan zioten giro hobea, Nocera inguruko mendietan. Egindako guztien ondoren medikuek apenas zuten zer eginik.

Abuztu hondarrean edo irailaren lehen egunetan, osasuna are larriagotzen ari zitzaiola eta, Satriano-n barrena Asisa ekarri zuten, eta Portziunkulan ordeztu Asisko Gotzainarenean artatu. Azken erabaki hau ez zen izan, noski, terapeutikoa, politikoa baizik. Erlikiek asko balio zuten orduan erlijioetasun ofizial eta herritarrean eta hirietako ekonomian ere. Asistarren gogoa zen, San Frantziskoren gorpua jaioterrian gordetzea, eta ahal zelarik hiriko murrue barruan, gainera, garaian ezaguna zen erliki-lapurretarik gerta ez zedin⁴⁹.

Gotzainaren jauregia ez zen, ordea, Frantziskorentzat azken egun edo orduetan itxaroten egoteko egokia. Frantziskok Asisen eta nonnahi maiteena zuen bizilekura itzuli nahi izan zuen, Portziunkulara, Anaiartearen sorlekura. Bertara eramateko eskatu zuen erreguka, eta borondate hura errespetatu nahirik, bertako etxolara eraman zuten.

Frantziskok ondoko egun gutxitan esan eta egindakoak jasoko ditut biografietatik, hauek ohikoak dituzten burutazio hagiografikoetan sartu gabe.

Frantziskoren lehen biografoak, Zelanok, santuaren heriotzaren berri ematean honela hasten du atalburua: "Hogeitau hamar urte igaroak ziren Frantziskoren konbertsioetik, eta, horrenbestez, betea zen Jainkoak [haren heriotzaz Elias-i ametsetan iragarri eta] adierazi zion epea" (1 Zel 109). Heriotzaren esperoan zegoenez, ez da harritzekoa medikuari esandakoa: "Izan adore, mediku anaia, esadazu gainean dudala heriotza, bizirako atea izango baita niretzat" (2 Zel 217).

Urtetan landu zuen espiritualtasunaren bidetik eta Bibliaren Hitzaz baliaturik eraman nahi izan zuen Frantziskok bere heriotzako unea; pausoz pauso bere erara eta anaiekin solas eta otoitzean atondu zuen gertakizuna. Eta hiltzerakoan, zenbait lagun bere ondoan nahi izan zituen, esaten zaigunez: "Hain maite zuen lekuan egun gutxi batzuk atsedenean eman ondoren [Portziunkulan, alegia], heriotzako ordua gainean zuela jakinik, bi anaia, bereziki maite zituen semeak deitu zituen beregana [Aingeru eta Leon]" (1 Zel 109). Jada ezagutzen dugun Jakoba Settesoli-koa ere ondoan nahi zuen, eta honek garai batean egiten omen zizkion opil goxoez gogoratu zen, Erromara dei egin eta larri zegoela eta etortzeko esan ziezaiotela eskatzen zuela⁵⁰.

Horiek, eta beste, ondoan zituenerako, heriotzaren ospakizuna nola eratu erabakita zeukan Frantziskok, aurreko aste eta hilabeteetan ongi pentsatua baitzuen: bi anaia horiei Anaia Eguzkiaren kantika abesteko eskatu zien, aurreko egun batean une horrexetarako gehiturik zuen pasarte jasotzen zutela, hau da, Jaunari diosala eta Herio "arrebari" agurra: "Goretsia zu, Jauna, gorputzeko gure arreba heriotzagatik". Horren osagarri, 141. salmoa abestu zuen: "Jauna, deika naukazu, zatozkit bizkor! / Entzun nire ahotsa, nik dei egitean".

Aurreikusita zuenaren arabera, horrela onartu eta ospatuko zuen, bada, Frantziskok mundu honetako azken agurra, eta beraren fedearen argitan ulertu eta maitatu nahi izan zuen azkenburukoa, itxaropena hamaika aldiz otoitz egindako Jaunaren eskuetan uzten zuela.

Horren aitzinetik, ordea, bere bizierara erakarritako eta bizirik geratuko ziren anaiei etorkizunerako laguntza eta adorea zor zizkien Frantziskok, eta lagun mina zuen Anaiarteko agintari nagusiak hala eskatu zion:

⁴⁹ Geary, P. 1993 [1978], *Le vol des reliques au Moyen Âge*. Paris: Aubier. Cfr. *Revue de l'Histoire des Religions*. 212/1, 1995, 117-119 (M. Zimmermann).

⁵⁰ *Mostacciolo* zen Erromako opil haien izena; almendra, azukre eta eztiz eginak ziren. Ik. Desbonnets 2002: 984-986.



Asis: San Frantzisko Basilikako kriptan hilobiko kapera.

Bazen han anaia bat, santuak izugarri maite zuena eta anaia guztiez biziki arduratzen zena [Anai Elias Bikario Jenerala]. Honek, gertatzen zena ikusiz eta santua hiltzear zela jabetuz, esan zion: "Aita onbera, [...] gogora itzazu umezurtz uzten dituzun semeak, barkatu beraien hutsegite guztiak eta poztu itzazu hemen direnak eta ez direnak zeure bedeinkapen santuaz."

Santuak erantzun zion: "Jainkoak beregana deitzen nau, seme. Anaia guztiei, hemen nahiz urruti direnei, beren hutsegite eta erru guztiak barkatzen dizkiet, ahal dudan neurrian. Eta zuk, gauza hauen berri ematean, bedeinka itzazu denak nire izenean (1 Zel 109).

Hala ere, anaiak atsekabeturik sumatuta, liturgiak iradokitako senidetasun-seinale hau eskaini nahi izan zien: "Ogia ekartzeko agindu zuen, bedeinkazioa esan, zatitu eta puska bana eman zien jateko" (2 Zel 217).

San Damiango deiaren ondoren, ondoko hogeit urteetan, eredu oso eta betea Jesus Nazaretekoa izan zenez eta beronen oroitzapena berritu nahirik, San Joan-en Ebanjelioan erreparatu eta maiz gogoan izandako pasarteak irakurraziti zituen:

Bazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Beta-niara joan zen... [eta abar]. Bazko-Jaia gainean zen. Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaiona. Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean bete-bete maitatu zituen (Jn 12, 1; 13, 1).

Berak sortutako hitz-doinu eta Bibliatik jasotakoekin batera, keinu sinbolikorik ere egon zen azken orduetan: “Bere oinaze guztien azkena eta gailurra izan zen gaixotasun guztiz larri hark jota zegoela, lur gorriaren gainean biluzik jar zezatela agindu zuen” (2 Zel 214). Egoera hori birbideratzeko anaia goardianok beharrezko izan zuen, Frantziskori obedienciazko agindu hau ematea:

Hau ikusiz, [...], Frantziskoren goardianoak [...], arin-arin jaiki, tunika barruko galtzekin eta txanoa hartu eta esan zion aitari: «Jakizu tunika hau eta galtzak txanoarekin maileguz ematen dizkizudala obediencia santuaren izenean. Eta gauza hauetan inolako jabetzarik ez duzula jakin dezazun, kendu egiten dizut horiek inori emateko ahalmena» (2 Zel 115).

Frantziskoren heriotza-aurreko jarrera horretan, sakoneko ezaugarri jakin batzuk aurkitu izan dira: heriotzaren ikusmolde mistikoa; gertakizuna poz eta itxaropenez bizitzea, garaiko eskatologian “bigarren heriotzaren” beldurra hain beltza zen garaietan; salbazioaren segurtasuna; bizitza bezala heriotza ere anaiekin ospatu beharra; heriotza munduko sorkari guztiekin pozez ospatzeko gaitasuna; azken buruan, heriotza bizitzatik bizitzarako atari ireki gisa bizitzea⁵¹.

Txiro izan zena txiro hil zen 1226ko urriaren 3ko iluntzean, igandez. Ez da hemen lekuz kanpo egongo, Frantziskori han-hemendik jasotzen dizkiogun hitz berak erabiliz epitafio hau moldatzea:

***Goretsia zu, Jauna,
gorputzeko gure arreba heriotzagatik.
Zu zara Jainko Jaun bizi eta egiazkoa,
zu maitasuna, edertasuna,
eta gure esperantza,
zu gure azken segurtasuna.***

7.4.3. Hilondokoak

Biharamunean, urriaren 4an, lur eman zioten Frantziskori, Portziunkulan ez, baizik Asis herriko murrueen eremu-barruan, orduko San Jurgi elizan, gaur egun Sta. Klararen basilika dagoen orubean. Bertan egon ziren erlikiak, harik eta 1230ean Asisen San Frantzisko Basilika eraikitzen hasi berrira eramanez zituzten arte.

Erabakia hartzean iritzi ezberdinak egon ziren, J. Giano-koak ohi zuen argitasun eta leialtasunez esaten digunaren arabera:

Anaia txikien Ordenaren lehen fundatzailea, Frantzisko aita zoriontsua, Jaunarengana joan zen Portziunkulako Santa Marian. Eta aita zoriontsuak, Frantzisko dohatsuak, eliza hartan hobiratua izan nahi zuen arren, bertako jendeak eta Asisko hiritarrek, Jainkoak santuaren bidez haren bizitzan nahiz heriotza ostean egin nahi izan zituen mirariak zirela-eta Perugiakoek gorpua indarrez bahituko zuten beldurrez, eramanez eta Asisko harresi ondoan hobiratu zuten ohorez, San Jurgi elizan hain zuzen, gaztetan lehen ikasketak egin eta geroago lehenengo predikua egin zuen eliza berean (GiJor 50).

Hileta egunean gorpua Portziunkulako lautadatik herrira zeramatela pausaldi bat egin zuen segizioak, San Damiango klaratarren monasterioan. Azken egunetan elkar ikusterik izan ez zuten bi adiskideetako batek, Klarak, orduan eman zion azken agurra Frantzisko maiteari, eta Klararekin batera gainerako ahizpek ere. Topaldiak biotz-ikara eta tristura izan zituen, inondik ere; Zelanok berorren berri emanda utzi zigun, ohikoa zen estilo hagiografikoarekin (1 Zel 117).

Asisa iristean hasten da, Frantzisko “Santuaren” historia ofiziala: izan ere, “azkenik, iritsi ziren denak hirira, eta alaitasun eta bozkario handiz gorputz txit santua leku sakratuan ezarri zuten, ordutik aurrera sakratuago bihurtu zen lekuan”, esango digu biografoak (1 Zel 118).

⁵¹ Ik. Schmucki, O. 1977.: “Los dos últimos años de la vida de San Francisco y la renovación de nuestra vida”, in: *Selecciones de Franciscanismo*. 17, 1977, 136-154. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmucki03.htm>.



San Frantziskoren Basilika: Hilobia.

Hugolinok (jada Gregorio IX.a zenak) hiru erabaki nagusi hartu zituen Frantziskoren santu-eredu eta irudia bermatzeko: Tomas Zelanokoari hagiografia bat idazteko agindu zion (mirari eta guzti), eta Asisen San Frantzisko Basilika handia eraiki zedila manatu zuen (1228-04-16an: *Recolentes qualiter* bulda). Ziurki beranduenik 1229an buruturik zuen Zelanok bere lehen biografia; bere aldetik, Anai Elias Ministro Jeneralak (1230-1239) abiarazi eta burutzeko bidean utzi zuen komentu-monumentu itzela: “Sacro Convento” deitua eta Basilika osatuko zuten bi eliza, bata bestaren gainean ezarriak (1230-1253).

Horiek beren zereginean ari ziren bitartean eta lanak aurreratu aitzinetik ere, Frantziskoren kanonizaziorako prozedura bizkortzen ahalegindu zen Gregorio IX.a: lehenengo, egiteko horretarako Bartzordea sortu zuen eta berorrek eginkizuna amaitzean Frantzisko Santu aitortu, *Mira inter nos* buldaren bidez, Asisen bertan, San Jurgi elizaren inguruan (1228-07-16).

Bere usain erdi-arotar soziala batere galdu ez duen pasarte honetan eman zuen biografoak elizkizun haren berri:

Iristen da egun handia, mende guztientzat beneragarria, lurra ez ezik zeruko egoitzak ere pozez dantzarazten dituen. Etortzen dira go-tzainak eta abadeak, eta urrutieneko lurralde-etatik ere Elizako prelatuak biltzen dira; bada

erregerik ere, eta noble eta handikien multzo handia. [...]. Lurralde eta adin guztietako jendea elkartzen da, gogotsu bilkura hartan parte hartzeko. Han dira txikiak eta handiak, morroiak eta libreak.

Gregorio Aita santuak predikua egin zion herri osoari, eta lehenengo Jainkoaren egintza miragarriak iragarri zituen sentimendu eztiz eta ahots ozenez. Gero, hitzaldi oso prestuz aita Frantzisko santuaren goraipamena egin zuen [...]. Hitzaldia –egiazkoa eta guztiz sinesgarria– bukatu zuenean, Ottaviano deituriko Aita santuaren subdiakono batek ahots handiz santuaren mirariak irakurri zituen denen aurrean eta Raniero kardinal diakonoak [...] hitz-etorri santuz eta malkoz haien azalpena egin zuen. Elizaren artzaina pozez zorutzen zegoen, eta, barru-barrutik eta luze hasperen eginez, malkoak ibaika isuri zituen. Beste Elizako prelatuek ere malko-errekak isuri zituzten, beren jantzi oparokak bustitzeraino. Herria ere negarrez ari zen, irrikaz eta artega aldarrikapen handiaren zain (1 Zel 24 eta 25).

Horrela bihurtu zen gure biografia honetako Frantzisko kristauen “San Frantzisko”, geroztik Historian ibilera luzea eta erakarmen azkarra izan duena, bera bezalako herritar xume ezjakinen bihotzetan, eta jakitun anitzen buru eta lumetan.

8. Frantzisko, Historiaren memorian

Frantzisko ez zen hil mundu honetarako bere heriotza pertsonalarekin. Anaiek gogoratu zuten, noski, eta haren irudia eta hagiografia Anaiartean bertan gogoeta eta eztabaida gai izan ziren berehala ("komunitatekoak" eta "espiritualak": 1274...), halatsu Aita Santuekin sortutako tirabiratan (c. 1300-1337) eta aldian-aldian sortutako Adar erreformatuetan (Obserbantzia, 1368...; Oinutsak, 1496; Kaputxinoak, 1525...; Errekoletak, 1595, etab.).

Baina Frantziskoren proposamena eta bizitza ez ziren gertatu bakarrik fraide Ordenen ondare, kontu eginik, gainera, emakumezkoen garrantzizko beste hainbat indar sozio-instituzional hurbil Frantziskoren ingurura bildu zela: Ahizparte ezberdinetan (Klaratarrak, 1212; Sorkundetarrak, 1489; Elisabetarrak), edo Aro Garaikideko gizon eta emakumezko dozenaka Kongregazio txiki eta handitan. Baina, horren guztiaren Historiak urrunegi eramango gintuzke hemen.

Horien ondoan Hirugarren Ordena bietako garapenak bere bidea egin zuen (Erregular eta Sekularrak). Kasu honetan azpimarratu behar da frantziskotartasunaren bokazio laiko ez-klerikalak beti iraun duela indarrean, eta itxuraz Leon XIII.ak Eliza osoko militantzia katoliko sekularrentzako gidaritza eman nahi izan ziola Hirugarren Ordena Sekular horri (1884). Beraz, hain irudi-anitza zen Frantzisko segurtaturik egon da haren lehen sostegua izan diren Ordena eta Kongregazio horietan, eta hirugarrendarren artean (Iriarte 1979: 551-576).

XVI. mendeko Erreforma protestanteak aurrez aurre kritikatu zuen garaiko monakismo katolikoa, eta Eliza berriek bertan behera utzi zuten halako kristau bide instituzionala. XIX. mendeko Erromanizismoaren ondoren Erdi Arokoa berreskuratu nahi izan denean, ordea, Frantziskoren presentzia karismatikoa suertatu da eskaintzarik erosoenetakoa hainbat protestante kezkatirentzat.

XIX. mendeko Frantzisko historikoaren berreskuratze-lana ez zen gertatu ezustekoa, ongi erreparaturik sustatutakoa baino. Alemaniarren ondoren (H. Thode eta K. Müller, 1885), Frantzian E.



X. Alvarez de Eulate: San Frantzisko une jakinetan

Renan-en¹ aholkuak bultzatu zuen Paul Sabatier Frantziskoren idazkiak aztertu eta biografia idaztera (1893). Honek, bere lehen lanetatik aitzina (1893), heldutasunera iritsita zela, idatzi zituen ondoko hitz hauek (1932)²: “San Frantziskok XIII. mendeko Eliza salbatu zuen, eta haren espiritua oso bizirik eta

¹ https://fr.wikipedia.org/wiki/Ernest_Renan#cite_ref-6. Gogora Renan-ek argitara emanda zuela Jesus-en biografia bat (1863): http://classiques.uqac.ca/classiques/renan_ernest/hist_origines_christianisme_t1_vie_de_jesus/vie_de_jesus.html. Era berean, *Revue des deux Mondes* aldizkaritik ohartarazita zuen San Frantziskoren bizitzaz azterlanak egin beharraz (A

² Sabatier, P., 1932, *Etudes inédites sur st. François d'Assise*. Paris: Fischbacher.

indarrean dago gaur arte. Behar dugu bera, eta zinez nahi badugu, itzuli ere egingo da”.

XX-XXI. mendeetako Eliza katolikoaren Historian nabaria izan da Frantziskoren presentzia, ospakizun



historikoetan, Aita Santuen gidaritzan (Pio XI.a, Joan Pablo II.a, Frantzisko I.a), eta munduko arazo handietarako eredu gisara aurkeztu denean: bakea eta erlijioen arteko ekumenismoa (Asis, 1986), Iza-di aldekoen zaindaria eta eredu (1979, 2015), etab.

Frantzisko-zale aitortuen artean dago, adibidez, Mairead Corrigan Maguire³, 1976ko Nobel Sari-duna, **Northern Ireland Peace Movement**-en fundatzailea eta orain eremu zabalagoa duen **Community of Peace People**-ena. Frantzisko ez da geratu, beraz, egun ditugun arazoetatik aldenduta.

³ https://en.wikipedia.org/wiki/Mairead_Maguire.

Frantziskoren nortasun anitzak hainbat idazle eraman du, haren biografiaz eta mezuaz sorkuntza literariorako baliatzera. Dante Alighieri (1265-1321), Italiako olerkari nazionala, izan zen horietako




Euskal historiografia: memoria frantziskotarra.

bat. **Divina Commedia**-ko “Paradisuko” XI. kantuan gogoratu zuen Frantziskoren biografia, haren lagunak izendatu eta biziera goraiatu⁴.

Berori eta beranduko Kronikak bitarteko, Berant Erdi Arotik urruneko zero batean geratu zen Frantzisko, harik eta XIX. mendeko Erromantizismoak eskuratu nahi izan zuen arte, idealizatuta baina erakargarria. Beste eskola batetik, naturalismotik, gaztelaniaz gogoan hartzeko adibidea da E. Pardo

⁴ <http://www.divina-commedia.it/paradiso/11.htm>. (Gaztelaniaz: Dante Alighieri, 2000, *Divina Comedia*. Madrid: Alianza Editorial. 482-487).

Bazán-en San Frantziskoren biografia ere (1882)⁵. Hizkuntza komunitate bakoitzak begiratu ahal izan du, eta batzuetan arreta iraunkorrez, San Fran-



Messiaen, Saint François d'Assise

tziskok eskaini zuen giza irudi kristaua, literatur produkzio ugariarekin (Frantzian, adibidez)⁶.

Esan beharrik ere ez dago Erdi Aroko Letretan eta Arte-lanetan bezalatsu ondokoan frantziskotarrek eragin bizkorra izan duten herrialdeetako arkitektura, margolaritza eta ikonografian San Frantzisko arte-gai errepikatua izan dela. Margolan espainiarretan, Trento ondoren, nahitaezkoa da Greco aipatzea, Frantziskoren irudi kontrarreformista ugari utzi zigulako, baita Euskal Herrian ere, eta Zurbaran nahiz Murillo ez ziren atzera geratu⁷. Honago gatozela, J. Benlliure-k **Loretxoak** 74 koadrotan kontatu zizkigun (1926), eta berrikitan X. Egañak burutu du lan bera (2003). Eskulturara gatozela, adibide ona da Pedro de Mena,

⁵ Pardo Bazán, E., 1882, *San Francisco de Asís (Siglo XIII)*. Madrid: Librería de Miguel Olamendi.

⁶ Vorreux D., 1988, *François d'Assise dans les Lettres françaises*. Paris: Desclée de Brouwer.

⁷ Greco: https://www.google.es/?gfe_rd=cr&ei=d-FzV6mWJ4-t8weP_rOQBg#q=El+Greco+san+francisco. Zurbaran: <http://www.elcultural.com/noticias/arte/Las-diez-obras-estrella-de-Zurbaran/7867>. Murillo: https://es.wikipedia.org/wiki/San_Francisco_abrazando_a_Cristo_en_la_Cruz.

garaiko erlijiotasunaren aukerak artistari nola lagun ziezaiokeen barruntatzeko: honen lehen arrakasta handia, Toledoko Katedralerako landu zuen San Frantzisko izan zen, hain zuzen geroko bide profesionala ireki zion obra.

XIII. mendetik hona datozen Arte plastikoetan Frantziskok izandako presentziak hainbat ikerlan eta azalpen orokor eta berezitu izan du, eta Euskal Herriko Museoetara ere heldu da hori. Irakurle interesatuak artista plastiko bakoitzaren ekoizpenean aurki dezake hamaika adibide, gure egunak arte⁸.

XX. mendean, luma distiratsuek begiratu dute Frantziskoren biografia bere osoan, batzuetan Historiaren arrastoan segitzen diotela (P. Sabatier⁹, J. Joergensen¹⁰), bestetan irudimen libreagoarekin (H. Hesse¹¹, Chesterton¹², Bernanos¹³, J. Green¹⁴), edo norberaren mezu askeren bat azaltzeko erabiliz (N. Kazantzakis¹⁵, J. Saramago¹⁶, D. Fo¹⁷). 1926, 1982 edo 2009ko urteurrenak ez dira izan aukera txarra ekoizpen berrietarako¹⁸.

⁸ Del Buey, F., 1988, "La imagen del Pobre de Asís en el arte medieval y renacentista", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 50, 1988, 193-224. ID., 1988, "La imagen del Pobre de Asís en el arte moderno y contemporáneo", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 51, 1988, 353-383.

⁹ Sabatier, P., 1893, *Vie de saint François d'Assise*. Paris: Fischbacher.

¹⁰ Joergensen, J., 1907, *Den hellige Frans af Assisi*. København: Gyl-dendal.

¹¹ Hesse, H., 1904, *Franz von Assisi*. Berlin: Schuster & Loeffler.

¹² Chesterton, G. K., 1923, *Saint Francis of Assisi*. London: Hodder and Stoutghton. (Frantsesez: ID., 1979, S. François d'Assise. Niort: Dominique Martin Morin, Éditeurs).

¹³ Bernanos, G., 1975, *La Vocation spirituelle de la France*. Paris: Plon. Bertan aurki daiteke Martin Luter eta Frantziskoren arteko bete-kizun historikoen aurkezpen kontrajarria ("Frère Martin").


¹⁴ Green, J., 1983, *Frère François*. Paris: Paris: Éditions du Seuil. (Patrika-edizioa: 1991). http://www.unicaen.fr/recherche/mrsh/sites/default/files/public/laslar/docs/E%20GREEN%20Frere%20Francois%20Riss%20_2_.pdf

¹⁵ Kazantzakis, N., 1956, *Ο Πτωχούλης του Θεού*. Αθήνα: Δίφρος (Gaztelaniaz: ID., 1989, *El pobre de Asís*. Buenos Aires: Ediciones Lohlé-Lumen).

¹⁶ Saramago, J., 1987, *A segunda vida de Francisco de Assis*. Lisboa: Ed. Caminho.

¹⁷ Fo, D., 1999, *Lu Santo Jullàre Francesco*. Torino: Einaudi. (A cura de Franca Rame).

¹⁸ Adibidez: Antonio Fernández, A., 1982, *Antología de poetas hispá-*



Euskal musikariak San Frantziskoren ohorez (1926)

Musikaren Historian ekidin ezina zen Frantziskoren oihartzuna, bera ere koplaria izan zenetik. Orokorrean, kasu batzuk aipa daitezke: Aro Garai-kidean Franz Liszt (1811-1886) har daiteke abiapuntutzat, batez ere Anaia Eguzkiaren Kantika (1862, 1879) eta txoriei egindako predikua (1863) gaitzat hartuta eskaini zizkigunengatik¹⁹.

XX. mendean P. Hartmann-en oratorioak (**S. Francesco**, 1901) arrakasta ona izan zuen, ondoko urteetan. Ondoren, H. Suter suitzarraren orkestrakoruentzako **Le Laudi** daukagu (1924), European

nicos. Homenaje a Francisco de Asís. Madrid: Editorial Cocusla.

¹⁹ [http://imslp.org/wiki/Cantico_del_sol_di_Francesco_d'Assisi,_S.4_\(Liszt,_Franz\)](http://imslp.org/wiki/Cantico_del_sol_di_Francesco_d'Assisi,_S.4_(Liszt,_Franz))

bezala Ipar-Amerikan gure egunak arte eman dena (2000, 2008, 2009). Berrikitan, O. Messiaen-en **Saint François d'Assise** opera gororatu ohi da berezikiago (1975-1983); baina musika-eremu horretan ez da bakarria izan: O. Odori-ren **Francesco d'Assisi** opera lirikoa adibide ona da Italiako produkzio frantziskozale emankorra aurkezteko²⁰. Zabalagoa da, noski, diska ekoizpena, eta dendetan edo Interneten ere hainbat lan dago eskueran; Italiakoa ez da adibide txarra²¹.

San Frantziskoren heriotzako VII. mendeurrenean (1226-1926) musikari euskal herritarrek kantu eta ereserki-bilduma ederra eskaini zioten Frantziskori; tartean ziren izen ezagunak: Valdés (Alejandro, Julio), Mokoroa, Arregi, Urteaga, Almandoz, Zubizarreta, Guridi, Garmendia eta abar (47 ekoizpen)²². Une hartako lanak, aurreko eta ondoko tradizio baten barruan ulertu behar dira, gainera. Arantzazuko bi Musika-Artxiboak horren lelu, XVIII eta XX. mendekoak²³, edo Kaputxinoen ekoizpen zabala, eta San Frantziskori beroriek eskainitako, Aita Donostiarena tartean dela²⁴.

Zinemaren historian hainbat obra estimagarri eta zuzendari on egon da Frantziskoren ibilera



Liliana Cavani-ren filma

biografiko eta erlijiosoa berregin nahi izan duena, batzuetan haren bizialdi osoari begiratua emanez, eta bestetan haren mezu edo gertaera jakinen baten inguruan. Badago zuzendariren bat behin eta berriz gaiari heldu diona, filme eta telesailetan: adibidez, Liliana Cavani (1966, 1989, 2014). Roberto Rossellini-ren **Francesco, giullare di Dio** (1950) eta F. Zeffirelli-ren **Fratello sole, sorella luna** (1972) zinemasale askoren oroimenean geratu dira. **Casablanca** zuzendu zuen M. Curtiz hungariar-amerikarraren ekoizpen erraldoiaren barruan **Francis of Assisi**-k (1961) ez zuen irabazi arrakasta bera, baina zuzendari orogarri baten emaitza da hori ere. Beude bere horretan albiste eskas hauek Frantziskoren oroitzapena Artean zein iraunkorra izan den antzemateko.

XIII. mendeko kristaua izan zen Asisko Frantzisko, hau da, Kristautasunetik bere gisara askatasunik

²⁰ Gogoan hartzekoa da gaiari buruz ERESBIL-en aurki daitekeen albistegia. Eskerrak bertako Zuzendari J. Bagüés-i eskueran jarri dizkidan erreferentziengatik.

²¹ Zimei, F. (zuz.) 2002, *O amor de povertate*. Milano: San Paolo. (Compagnia "Hora decima"). Foà, A. (kantaria); Fabbri, G. (organoa): *I Fioretti di S. Francesco*, Bologna (Vilanova de Castenaso).

²² Varii, 1926, *Homenaje de los Artistas Músicos Vascos al Seráfico Padre San Francisco de Asís en el VII Centenario de su muerte / Asís'ko Serapindar Aita Frantzisko Doneari, bere eriotzaren VII Eunurte mugan*. Barcelona: Boileau eta Bernasconi.

²³ Bagüés, J., 1979, *Catálogo de antiguo archivo musical del Santuario de Aránzazu*. San Sebastián: Caja de Ahorros Provincial.

²⁴ ERESBIL-en daude guztien albisteak. Mila esker J. Bagüés jaunari eskuratu dizkidan albisteengatik. Aita Donostiaren obra osoaz albistegi xehea: Ikus Pérez Aguirre, C.; Pérez de Villarreaga, V., 2000, *Escritores de la Provincia capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón. 1900-2000*. Pamplona: Curia Provincial. 678-715. Eta San Frantziskori buruzko ondoko hitzaldia: Donostia, J. A., 1985 (1944), "San Francisco, inspirador de la música", in: *Obra literaria P. Donostia*. 1985, V, 231-246.

handiengan, garaiko kultura herritarretik, Eskoletako jakiteetan aditua izan gabe sinesmen eta bizipen pertsonaletik Jainkoa, Kristo, izadia, gizadia eta gizarteak ulertu zituenak. Dena koherentzia handiko sintesi pertsonalean.

Ebanjelioetatik birpentsatu zuen errealitatea, otoitzean eta bizipen mistikaraino heldu zen; aurrean aurkitu zuen orori bere balioa bilatu zion eta bakoitza bere izanean hartu zuen aintzakotzat. Bizialdiko ibileraren jatortasunean erro-errotik maitatu zuen dena, eta horregatik balio unibertsalak eta betikoak topa daitezke Frantziskoren hitz eta portaeran.

Gaur egun ere aintzakotzat hartzekoak dira, nahiz eta garaiko janzkera literario hagiografikoak ez digun gehiegi laguntzen: maitasuna, senidetasuna, berdintasuna, botere eta diruak, errukia, tolerantzia, bakea, apaltasuna, txirotasun librea, emakume-gizonen balioa, ezbeharretan eroapena, sinesmen-bizitzen arteko koherentzia, eta azkenik hilondorako itxaropena.



San Frantzisko, Cimabue

Kronologia

1181/1182. Frantziskoren jaiotza

Jaiotegun zehatza ezin izan da ziurtatu: 1181eko abendua edo 1182ko urtarrila? Rusconi-k 1182ko San Joan eguna proposatu du (ekainaren 24a). Berehala izen aldaketa (*Giovanni / Francesco*).

c. 1190/1195. Frantziskoren lehen eskolatzea

Eskolako ikasketak Asisko San Jurgi elizako ikastegian: maila honetako ikasketetan kalkulua eta merkatal matematikak ikasten ziren, alde batetik, eta irakurketa, bestetik.

1193/1194. Klararen jaiotza

Klara Favarone-ren jaiotza. Berau izango da gero (1212...), Frantziskorekin batera, San Damiano emakumezko Ahizparte frantziskotarraren (klaratarrak) sortzaile eta buru.

1195/1196. Frantzisko adin nagusiko

Nagusitasuna aitortzen diote gizarteko arauak, eta aitaren ondoan ardurak hartzen hasi zen, denda-lantegietan, batez ere aita erbestean-edo zebilenean.

1198. Inozentzio III.a

1198ko urtarrilaren 8an hautatu zuten Aita Santutarako Lotario de Conti de Segni, Inozentzio III.a izango zena. Erdi Aroko Aita Santu handien artean jarri ohi da (Gregorio VII.a, 1073-1085; Bonifazio VIII.a, 1294-1303...). Mugimendu pobrezale ebanjeliotar batzuentzat Erromako Elizaren babes juridikoa bideratu zuen: Anaien lehen Erregela onartu zion Frantziskori (1209). Aldi berean, kataroen aurkako Gurutzada armatua sustatu zuen (1209...). Laterango IV. Kontzilioa deitu eta bildu zuen (1215-1216).

1198-1199. Asistarren errebolta

Asisko *minores* edo *homines populi* deituak matxinatu egiten dira sistema feudalaren aurka eta Frantzisko erreboltaren lekuko gertatu zen, bere sendiarekin batera. La Rocca Maggiore gotorlekua desegin eta herriko zenbait etxe-gazteluri eraso zioten erreboltariek. *Comune*-k (udal herritarrek) hartzen du herritarren gaineko agintea (1198).

c. 1199-2002. Klara Perugiako erbestean

Asisko errebolta herritar garailearen ondorioz, Klarak eta sendiak Perugian errefuxiatu beharra izan zuten.

2002-2003. Perugia/Asis-en arteko gerra

Perugia hiria eta bertara bildutako asistar errefuxiatuak bat eginda, Asisko *Comune*-aren kontrako gerrari ekin zioten, eta Asisek bere armada antolatu zuen defentsarako. Frantzisko armada honetako soldadu izan zen. Collestrada-ko guduan menperatuak izan ziren asistarrak, eta Frantzisko Perugiara eraman zuten preso.

1203. Frantzisko gaixo, baina libre

Collestrada-koen ostean tartean egon ziren akordioen ondoren, eta beharbada aitak erreskate-ordaina jarrita etxera itzultzen da Frantzisko.

2004. Gaixotasun larri eta luzea

Gaixoaldi luzeak bide ematen dio gogoetarako eta bere buruari etorkizun pertsonalaz zer egin galdetzeko. Galdurik dabil (otoitz eta bakardadeari ere heltzen diela), betiere erabaki eta irteera berrien bila. Aldakuntza sakonagoen lehen urratsak dira.

1204-1205eko udazken-udaberriak. Pugliarako bidean

Irtenbide kontrajarriak ditu Frantziskok aurrean: bakardadeko otoitzean egingo du biziera berria ala ohikoa zen bidetik zaldun-ibileran gurutzadara joango da? Aita Santuak Pugliarako deia egin du, eta Asisko *miles* zaldun batekin gurutzadara joateko aukera sortu zitzaion. Harako irten, bai, baina Spoleton izan omen zuen amets-ahotsari erantzunez, sorterrira itzuli zen. Beharbada, hilabete hauetakoa da Erromara egindako pelegrinazioa.

1205eko udazken-negua

Bere asmo-berritzeak aitzina egiten duen heinean, inguruko gizartean dituen harreman eta egoera ere arazo bihurtuko zaizkio Frantziskori. Inguruko legendunekin dituen harremanak eraberritu egingo ditu, sendiarekikoak ere beste gisa batean eramatera joko du, ahal dituen ermita edo

elizatxoak zaharberrituko; erabakigarria gertatuko zaio San Damianen Gurutziltzatuaren aurrean "entzundako" deia.

1206ko urtaril-otsailak

Frantziskok bizimodua aldatu du (sendiaren zenbait ondasun xahutu du, utzi ditu sendia eta lantegia, pobreenekin bizi da). Sendiaren eskubideak zaindu nahi dituela eta, aitak auzitegiatarra eramango du: Udaletxera, Gotzainaren epaitegira. Honek babesa emango dio, eta Frantzisko aske izango da bere kabuz Elizaren babespean nahiago duen bidetik jotzeko.

1206ko udaberria

Bakarrik eta bere gisara, Asistik Gubbiorako bidea hartzen du, lehenik San Verekundoko Abadian morroitzat lanean jarduteko aukera du, eta laster Gubbioko legendunen ospitalean egingu du lan.

1206ko udatik aurrera

Asisa itzultzen da, eta lehendik hasita duen bizimoduari segida ematen dio: legendunak artatzen, elizak zaharberritzen jarraitzen du (San Damian, San Pedro, Portziunkula). Ermitau-jantzia soinean jarri, eta biziera berriari ekiten dio; asistarren artean horrela agertuko da. Urte eta erdi edo emango du horrela.

1208ko otsailaren 24a

Berak bakarrik, edo dagoeneko lagun bat ondoan duela, Portziunkulan edo San Nikolas-en Ebajelioko irakurgaia entzuten du (agian, Mat 19, 21, 24, 29 edo Luk 14, 26), eta pobretasun ebanjeliotarra hautatzen du bere bizieraren jomugatzat. Ermitau-jantzia utzi eta predikari oinutsaren janzkera hartzen du (tunika, soka-gerrikoarekin), eta predikulanari hasiera ematen.

1208ko apirilaren 16 eta 23a

Frantziskori lehenengo hiru lagunak inguratzen zaizkio: lehendabizi, Bernardo Quintavalle eta Pietro Cattani, bata aberatsa eta bestea klerikoa, eta gero Portziunkulan Egidio, laiko eskolatugabea.

1208ko urtean zehar

Lehenengo hiru prediku-misioaldien urtea da: 1) Udaberrian, Egidiorekin Ankonako Marketara joaten da Frantzisko. 2) Udazkenean, Rieti-ko bailara hautatzen dute bigarren misioaldirako (Poggi Bustone). 3) Negu-asieran edo, zortzi lagunak binaka doaz predikatzerako, Bernardo eta Egidio Florentziara doazela.

1208ko uda

Hiru lagun berri datoz taldera, Felipe Longo da horietako bat.

1208ko udazkena edo

Zazpigarren lagun batek osatzen du taldea, eta hirugarren misioaldirako Frantziskorekin jada zortzi izango dira.

1209ko lehen asteak

Ibilaldia amaitzean Portziunkulan elkartzen dira berriro zortziak. Harremanek beren emaitzak dakartzate taldera: lau anaia berri datoz, guztien biziera berria onartzen dutela. Hamabietarainoko taldea osatuta dago, beraz.

1209ko udaberria

Frantziskok taldearen biziera berrirako proposamena idazten du, batez ere Ebanjelioetako esaldiekin osatua (*propositum vitae*); hau izango da Anaiarteko lehenengo Erregelak.

1209ko udaberri-udak

Taldeko hamabiak Erromara doaz, Erregelaren onarpena Inozentzio III.a Aita Santuari eskatzera. Denboraldi bat ematen dute Erromako Kurian, laguntzaileak bilatzen eta Aita Santua irabazteko: honek hitzez ematen die bere onarpena. Tontsuratuta, prediku moralerako baimen orokorra jaso eta biziera arautua eramateko moduan dira handik aurrera, Kristandade osoan.

1209ko uda (?)

Asiserakoan, pausaldi bat egiten dute Orte-n, arautu ondoko bizimodua nondik nora eramango duten hausnartzen, bakardadean baina talde-gogoetan.

Azkenik, Rivo Torton aukeratu zuten lehen bizilekuan, batez ere otoitzean eta taldeko lehen proba arautua bizitzen.

1209ko azkena edo

Nekazari batek behartuta, Rivo Torto utzi eta Portziunkulara aldatzen da taldea, eta harrezkero berau bilakatzen da Anaiartearen lehen "leku" iraunkor eta "ofiziala". Bertan bizi eta bertatik egingo dituzte prediku-ibilaldiak, herri eta auzoetan.

c. 1210-1215. urteak: lehen hazkuntza

Urte hauetan gertaera ongi datagarri gutxi dago iturrietan; baina badakigu "hamabiko" lehen taldea osatuz doala, Biltzar Jeneralak (*kapituluak*) urtean bitan edo behin egiten dituztela, Frantziskoren gidaritzapean. Sorrera-urteetako biziera ibiltaria da nagusi, bakardadeetako otoitzarekin batera. Gogoan hartzekoak dira ondoko albisteak.

1211ko uda (1212?)

Herrialde ez-kristauetarako Frantziskoren lehen Misioa: Siriarako ateratzen da; baina, ekaitz bat tarteko dela, Dalmazia/Eslavoniatik itzuli behar izan du, Ankonara. Ez da izango Misiotarako Frantziskoren azken ahalegina.

1212ko martxoaren 18a

Erramu Igandez, Anaiartea ospakuntzarako Portziunkulan bilduta zegoela, Klara Favarone Frantziskoren "biziera" bera hartzera etorri zen, bere sendia utzita. Otoitzez osatutako ongietorrian, Frantziskok adatsa moztu zion, "penitentziarako" edo sagaratzen zuela.

1212ko udaberria

Frantziskok lehendabizi egun batzuetarako San Paolo Abadesenean bilatuko dio babesa Klarari, eta ondoren Panzo-ko Aingeru Santuaren beneditarrenean zenbait astetarako. Azkenik, San Damian-en izango du Klarak bere bizilekua.

1213ko negu-udaberriak

Ankonako Markan eta inguruetan predikari dabil Frantzisko. Trasimenoko Lakuan garizuma-aldia egiten du, barau eginez eta otoitzean.

1213ko udaberria

La Verna: Orlando de Chiusi-k La Vernako mendialdean bakar-leku izan daitekeena eskaintzen dio Frantziskori, eta honek ondoan dituen anaiekin batera onartu egiten du. Hortik aurrera hainbat aldiz etorriko da bera Toskanako baso hauetara.

1213-1214ko urteak

Frantzisko berriro ere Misioetarako ateratzen da, kasu honetan, Maroko-aldera edo/eta Konpostelako Santiagora. Gaixotasun batek jota, atzera Italiara itzuli behar izan du, zein puntutatik ez dakigula. Geroko eta beranduko hainbat kontakizunek lehen iturrietan ez dagoen albistegia osatu nahi izango du bidaia honi buruz.

1215eko azaroa: Kontzilioa

Laterango IV. Kontzilioa (1215-1216). Frantziskoren hango presentziak ez dago segurtasunik, eta Sto. Domingo han ezagutu zuenik ere ez dakigu ziur. Kontzilio hark Erregela berrien debekua ezartzen du.

1116-1127. Honorio III.a Aita Santu

1216ko uztailaren 18an hautatu zuten Aita Santutarako Cencio Savelli, Honorio III.a izango zena. Inozentzio III.aren lerro politiko eta juridikoen arrastoan jarraitu zuen eta Laterango IV. Kontzilioaren arauak betearazten saiatu zen. Gurutzadak aurrera eraman zituen: kristau heretikoen aurka bezala Ekialdean ere. Arretaz begiratu zuen Frantziskoren Anaiarteak, eta Hugolino Kardinalaren bidez begiratu zituen beronen hazkuntza eta hedapena.

1216ko abuztuaren 2a

Portziunkulako Indulgentzia: XIII. mendeko beranduko tradizioek diotenez, urte honetakoa da Honorio III.ak Frantziskori eman omen zion Indulgentzia hau. 1257tik aurrerakoak dira albiste

honetaz ari direnak: kontaera oso eta aitortuena, 1310ekoa da.

1217-1220. Hazkuntzaren urte azkarrak

Urte hauetan Anaiarteak hazkuntza bizkorragoa eta aurpegi anitzagoa izango ditu: etorri berriak asko direlako, sarritan fraidegaiak prestakuntza pertsonal eskolatuagoarekin datozelako, eta anaiek Italiatik Erbestera bideak urratzen hasten direlako.

1217ko maiatzaren 5a

Mendekosteko Kapituluak Portziunkulan bildu eta Italiatik Erbestera Misioak antolatzen ditu: Tunisia, Siria, Alemania, Frantzia... Oro har, Misioak ez du izan arrakasta onik, Alemanian bereziki.

1217ko maiatza

Frantziarako irten zen Frantzisko; baina, Florentzian Hugolino kardinalak aholkatuta, Italian geratu behar izan zuen. Adiskide egiten dira biak, ondoko urteetarako ere. Uste da urte honetan eraiki zirela Anaiartearen lehen Probinziak. Hauen artean Hispania eta Probentza: Euskal Herria (Ipar-Hegoalde) biotan banatuta egon zen, aldi batez.

1219ko maiatzaren 26a

Kapitulu Jeneralean, nahiz eta 1217ko erabakiak atarramendu onik izan ez zuen, berriro anaiak Erbestera misiolari gisa bidaltzea erabakitzen da. Oraingoan emaitza onarekin.

1219ko ekainaren 11

Italiatik kanpo anaiek nozitu dituzten erasoen berri jakinda, Honorio III.ak Erbestera doazenerako aurkezpen- eta babes-agiria ematen du, tokian tokiko Eliz Agintariek ongi hartu eta katolikotzat izan ditzaten: *Cum dilecti filii* bulda (Rieti).

1219ko uda

Frantzisko Ekialderako irteten da Ankonatik, hamabi lagunekin batera, Lur Santuetara iristeko asmoz, Gurutzatuak ere han diren aldi berean.

1219ko abuztua

Egipton Damietta hiria setiatzen ari den V. Gurutzadarekin topo egiten du Frantziskok, eta

pairatuko duten porrota iragartzen die (abuztuaren 29an).

1219ko iraila

Tregoa eta elkarrizketak dauden bitartean, fronteko muga pasatu eta al-Malik al-Kamil Egiptoko Sultanaganaino iristea lortzen du Frantziskok. Azaroaren 5ean Damietta gurutzatuen esku erortzen da.

1219ko udazkena

Frantziskok Aita Santuari Hugolino Anaiartearen babesle ofizialtzat izenda dezala eskatzen dio, eta Honorio III.ak proposamena onartu: aurrerantzean, Hugolino izango da Kuriatik ofizialki Anaiarteaz arduratuko dena.

1220ko urtarilla

Marokon lehen misiolari frantziskotarrak hiltzen dituzte; Anaiarteko protomartiriak dira.

1220ko urtarril-otsailak (?)

Egipto utzita, Frantzisko Akre eta Lur Santuetarako irteten da; baina egiaz ez dakigu nondik nora ibili zen, eta noraino heldu zen. Egon ote zen, gero, Jerusalem?

1220ko udaberri-udak (?)

Ekialdeko egoera politiko-militarra okerragora doala ikusita, eta Italiatik iritsi zaizkion albiste kezkagarrien ondoren (aurreikusigabeko aldakuntzak), bertara itzultzea erabakitzen du Frantziskok, eta Venezian lehorreratzten da (irailaren 29a baino lehen).

1220ko uda-udazkenak

Anaiarteko arazoak bideratzeari ekiten dio, taldeko gobernantza hobeki antolatzeari, betiere Hugolino Kardinalak laguntzen diola, San Migel eguneko Kapituluak bildu aurretik.

1220ko iraila

Honorio III.ak *Cum secundum* buldan nobizio-aldia ezartzen du fraidegaitzat onartzen direnentzat.

1220ko Kapituluak eta dimisioa

Segur aski, halako Anaiarte handiaren gobernuaren eramateko bere ezina sumatzen du Frantziskok, eta Nagusitza uztea erabakitzen du: San Migeletako Kapituluak. Pietro Cattani izendatu zen Anaiarteko Nagusi; baina berau 1221eko martxoan hil zen.

1220-1226, Agintea eta Gidaritza

Hainbat herritan barrena: Borgo Santo Sepolcro eta abar. Frantziskok ez dio uko egin Anaiartean defendatu eta gidatu nahi duen karisma ebanjeliotarraren aldeko jarduerari: Aholkuak, Erregelak, Testamentuak dira jarrera horren lekuko.

1221, maiatza

Kapituluak erabakita, Anai Elias bilakatzen da Anaiarteko Bikario Jeneral eta Frantziskoren Nagusi (1221-1227). Bera izango da azken urteetan Frantziskoren bizitza eta osasunaz arduratuko dena.

1221eko maiatza

Erregela eguneratua idazteari ekiten dio 1209ko proposamena gogoan duela, era berean Kapitulu ezberdinetan hartutako erabakiak, taldearen hazkuntza azkarra, 1219-1220.eko krisia eta alde batetik eta bestetik iristen zaizkion iradokizunak. Hala ere, 1221eko proposamen honek ez du lortzen Anaiartean onarpen osorik, eta bigarren ahalegin bati heldu beharko dio Frantziskok.

1221-1222, Predikuan

Anaiarteko gidaritza espirituala utzi gabe, predikuan ematen ditu asteak eta beharbada hilabeteak: Italiako hegoaldea, Bologna eta abar.

1222-1223ko negua

Frantzisko Fonte Colombo-n Erregela-proposamen berria idazten ari dela, Anai Eliasekin datozkio Ministroak esaten omen den Erregela berriko arau gogorragoak beste gabe ezingo direla onartu esatera.

1223ko udaberria

Frantziskok Hugolinorekin batera begiratzen du Erroman Erregelaren zirriborro berria, Anaiarteko

iritziak, testuaren onargarritasuna eta onarpen-prozedura gogoan hartuta.

1223ko ekaina

Mendekosteko Kapitulura darama Frantziskok Erregela-gaia, eta ukitu batzuekin onartuta geratzen da Erromako Kuriara bidaltzeko.

1223ko azaroaren 29a

Honorio III.ak onarpena eta balio juridikoa ematen dizkio Erregelaren azken proposamen honi, *Solet annuere* buldaren bidez ("Erregela buldatua" deiturikoa).

1223ko abenduaren 24/25a

Greccio-ko Gabon-gaua: herritar eta anaiekin batera, Gabon-gaueko "jaiotza" ospatzen du; antzerti gisan antolatzen du ospakizun liturgikoa: Frantziskok, diakono denez Ebanjelioko pasartea irakurtzen du, eta sermoia egiten.

1224ko ekainaren 2a

Kapitulu Jeneralak Anaiarteko lehen misiolari-taldea bidaltzen du Ingalaterrara.

1224ko abuztu-irailak

Abuztuaren 15ean edo, La Vernara doa Frantzisko, eta iraileko Sta. Kruz inguruan ikuskari batean "zauriak" jasotzen ditu (*estigmatizazioa*). Irailaren azkenean uzten du La Verna.

1224ko urri-azaroak

Mendi hartatik Portziunkularako ibilaldi luze batean herriz herri doa: Borgo San Sepolcro, Monte Casale, Città di Castello eta abar.

1224-1225ko negua

Gaixorik eta minez dela ere, Unbria eta Marketan predikari dabil, abendu-otsailetan.

1225eko martxo-maiatzak

San Damiana doa Klara bisitatzera. Begietako gaitza areagotu egiten zaio Frantziskori. Bertan ematen du aldi bat, gaixorik, kapilauaren etxetxoan edo. Anaia Eguzkiaren lehen atala idazten du. Sendagarriek ez dute gaixoareneko egoera hobetzen.

1225eko maiatz-ekainak

Anaia Eguzkiaren eta Sorkarien Kantikaren atal nagusia osatzen du maiatzean, eta ekainean gehitzen dio Gotzaina eta *Podestà* elkarrekin adiskidetzeko bertso osagarria.

1225eko ekain-irailak – 1226ko martxoa

Hugolino Kardinalak bultzatuta, Rietiko bailarara doa, sendabide hobeak bilatzeko. Aita Santuak eta beraren segizioak ongi etorria egiten diote Rietin. Fonte Colombo-ra biltzen da eta uztail-abuztuetan kauterizatzen dizkiote begi-tarteak, emaitza onik gabe. Ondoko hilabeteak, 1226ko martxoa arte, San Fabiano, Rieti eta Fonte Colombo-n emango ditu, betiere osagarri bila.

1226ko apirila

Berriz ere tratamendu hobeago baten bila, oraingoan Sienara doa, eta gaixotasunek are larriago jotzen duten batean "Sienako Testamentua" (laburra) egiten du Frantziskok, anaiak eskatuta.

1226ko maiatz-ekainak

Sienatik Portziunkulara itzultzen da, Cortonan barrena, baina udako beroetatik babesteko Bagnara-ra eramaten dute Nocera-ko mendialdean giro hobe izan dezakeelakoan.

1226ko iraila

Begietako gaitza areago doala ikusita, Asisa eramaten dute, Nottianon gaindi, eta Gotzainaren jauregian zaintzen egun batzuetan. Baina Frantziskok, heriotza hurbil duela sumaturik, erreguka eskatzen du Portziunkulara eraman dezatela. Aste hauetakoa izan daiteke Frantziskoren *Testamentu* zabala.

1226ko urriaren 3-4a

Urriaren 3an, igande iluntzean hiltzen da Frantzisko Portziunkulan, anaiak inguratuta. Biharamunean, urriaren lauan, egiten dira hileta eta ehorzketa, Asisko San Jurgi elizan.

1127-1241. Gregorio IX.aren Aita Santualdia

1227ko martxoaren 19an hautatu zuten Aita Santutarako Hugolino dei Conti di Segni, Gregorio IX.a izan zena. Hil berria zen Frantziskoren adiskidea izana (1217...), eta honek Honorio III.ari eskatuta Anaiartearen “Kardinal Babeslea” (1220). Artean Kardinal zela, Erregela buldatua idaztean eta onartzean lagundu zuen (1223). Bere lerro nagusietan, Inozentzio III.aren Elizaren politika zaindu zuen. Zuzenbide Kanonikoa sintesi berri batera bildu zuen (*Liber extra*, 1234), eta Erdi Aroko Inkisizioa sortu (1231-1233).

1228ko uztailaren 16a

Gregorio IX.ak Santu aldarrikatzen du Frantzisko, Asisen.

1229: Frantziskoren lehen biografia

Gregorio IX.ak eskatuta, Zelanok San Frantziskoren lehenengo biografia bukatzen du, geroago bigarren baten bidez osatuko zuena (1246).

1230eko irailaren 28a: Erregelaren interpretazioa

Gregorio IX.ak Erregela buldatuaren eta Frantziskoren *Testamentua*-ren lehen interpretazio ofiziala ematen du, Kapitulu Jeneralak eskatuta.

1246-1247: Idazki biografiko berriak

Zelanoren *II. Bizitza* eta *Mirarien Liburua*. Eta besterik: *Perugiako Anonimoa* (De inceptione Ordinis), *Hiru Lagunen Legenda*, *Perugiako Legenda*.

1260-1266: San Frantziskoren biografia ofiziala

Kapitulu Jeneralaren mandatuz (1260), San Bonabenturak San Frantziskoren biografia ofiziala idazten du (*Legenda Luzea* eta *Legenda Laburra*, 1263), eta hurrengo Kapituluak biografia ofizial bakartzat ezagutzen du Bonabenturaren obra historiografikoa (1266).

Bibliografia hautatua

Liburuko bibliografia orokor hautatua hemen dago jasota liburu osorako. Puntuz puntu nahiago diren orrialdeetarakoak bakoitzari dagokion orri-oinetan daude emanda.

Agirrebaltzategi, P., 1976, *Configuración eclesial de las culturas. Hacia una teología de la cultura en la perspectiva del Concilio Vaticano II*. Bilbao: Universidad de Deusto.

Agirrebaltzategi, P., 2011, "Bitoriano Gandiagaren espiritualitate eta inspirazio frantziskotarrak. Ttirittaren parabola", in: Korta, K.; Larrazabal, J. M. (ed.), 2011, *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak*. Bilbo: EHU. 13-77.

Alberzoni, M. P. et al., 1999, *Francisco de Asís y el primer siglo de historia franciscana*. Oñati: Arantzazu/EFA.

Alberzoni, M. P., 1999, "Clara de Asís y el franciscanismo femenino", in: Alberzoni et al. 1999: 227-263.

Antia, M. A., ik. Chérancé/Antia 1995.

Azkue, J. M. (itz.), 1923, *Aita Prantzisko dontsuaren ta bere prailien loratxuak*. Tolosa: Muguerza (J. A. Lizarralderen hitzaurrearekin).

Bartoli, M., 1992, *Clara de Asís*. Oñate: EFA.

Beobide, K., 1966, *Asis'ko loria*. Tolosa: Auspoa Liburutegia.

Bériac, F., 1988, *Histoire des lépreux au Moyen Âge*. Paris: Éditions Imago.

Bonnassie, P., 1983, *Vocabulario básico de la historia medieval*. Barcelona: Editorial Crítica.

Brunette, P., 1993, *François d'Assise et ses conversions*. Paris: Editions Franciscaines. (Gaztelaniaz: 2012, *Francisco de Asís y sus conversiones*. Arantzazu: EFA).

- Capitani, O., 2004, *Storia dell'Italia medievale. 410-1216*. Roma-Bari: Editori Laterza.
- Carlini, F., 2014, *Francesco d'Assisi*. Milano: Mondadori.
- Caroli, E. (ed.), 2002, *Dizionario francescano*. Padova: Messaggero di S. Antonio.
- Casagrande, G., 1999, "Una Orden para los laicos. Penitencia y penitentes en el siglo XIII", in: Alberzoni et al. 1999: 265-285.
- Chérancé, L.; Antia. M. A. [itz.], 1995 [1879], *Aita San Frantzisko Asiskoaren bizitza*. Donostia: Klasikoak. Euskal edizio honen ardura: Ainhoa Beola. (Itxura guztiz, gaztelaniazko itzulpenetik euskaratua: 1883, *Vida de San Francisco de Asís*. Madrid: Rivadeneyra. Jatorrizko argitalpena: Cherancé, F. L., 1879, *Saint François d'Assise*. Paris. Xehetasun gehiago A. Beolaren sarreran, XIV-XV).
- Ciurana, J. V., 1979, "La Orden de Penitencia de San Francisco. Notas sobre sus orígenes y su desarrollo en el siglo XIII", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 22, 1979, 19-54.
- Dalarun, J., 1997, *François d'Assise: un passage. Femmes et féminité dans les écrits et les légendes franciscaines*. Arles: Hubert Nyssen Éditeur (Actes Sud). (G. Miccoli-ren epilogo).
- Delumeau, J.-P.; Heullant-Donat, I., 2002, *L'Italie au Moyen Âge. V^e-XV^e siècle*. Paris: Hachette.
- Desbonnets, Th., 1991, *De la intuición a la institución. Los franciscanos*. Oñati: EFA.
- Desbonnets, Th., 2015, *Guide. Assise et les ermitages sur les pas de Saint François*. Paris: Éditions Franciscaines.
- Desbonnets, Th.; Vorreux, D. (ed.), 2002³, *Saint François d'Assise. Documents. Écrits et premières biographies*. Paris: Les Éditions Franciscaines.
- Di Fonzo, L. et al., 1978, *I Frati Minori Conventuali. Storia e Vita*. Roma: Curia Generalizia OFM CONV.
- Ducange, et al., 1678/1887, *Glossarium ad scriptores mediae et infimae latinitatis*. Niort. <http://ducange.enc.sorbonne.fr/>.
- Englebert, O., 1965, *St. Francis of Assisi: A Biography*. Chicago: Franciscan Herald Press. (Garrantzizkoak dira R. Brown-ek gehitu dizkion eranskinak).
- Esser, K., 1976, *La Orden franciscana. Orígenes e ideales*. Arantzazu: EFA.
- Esser, K., 1980, *Temas espirituales*. Oñate: EFA.
- Esser, K., 1981, *El Testamento de San Francisco de Asís*. Arantzazu: EFA.
- Felder, H., 1948, *Los ideales de San Francisco de Asís*. Buenos Aires: Ed. Desclée de Brouwer.
- Fernández de Pinedo, A. M., 2010, "Apuntes sobre la historia de Francisco de Asís", in: *Selecciones de Franciscanismo*. 116, 2010, 207-255.
- Flood, D., 1996, *Francisco de Asís y el movimiento franciscano*. Oñati: EFA.
- Fortini, A. 1959, *Nova vita di San Francesco*. Assisi: Edizioni Assisi.
- Frantzisko Aita Santua, 2015, *Laudato si'. Denona den etxea zaintzeaz*. Donostia: Idatz. (Itzultzailea: Unai Manterola).

- Frantziskotar Itzultzaile Taldea, 2002, *Asisko Frantzisko. Idazkiak, Biografia eta Garaiko Dokumentuak. Asisko Klara. Idazkiak*. Arantzazu: Edizio Frantziskotarrak.
- Frugoni, Ch., 1997, *Saint François d'Assise. La vie d'un homme*. Paris: Éditions Noësis.
- Garrido, J., 1975, *La forma de vida franciscana. Introducción teológica a la Regla de san Francisco de Asís*. Arantzazu, EFA.
- Garrido, J., 2003, *Meditación del franciscanismo. Relectura de las Florecillas*. Oñati: EFA.
- Garrido, J., 2004, *Itinerario espiritual de Francisco de Asís. Problemas y perspectivas*. Oñati: EFA.
- Guerra, J. A. (ed.), 2013, *San Francisco de Asís. Escritos. Biografías. Documentos de la época*. Madrid: BAC.
- Guerra, J. A., 2017, *Loado seas, mi Señor... Francisco de Asís, una vida hecha alabanza*. Oñate: Ed. Franciscana Aránzazu.
- Habig, M. A. (ed.), 1973, *St. Francis of Assisi. Writings and Early Biographies. English Omnibus of the Sources for the Life of St. Francis*. Chicago: Franciscan Herald Press.
- Herranz Migueláñez, J., 2014, *Francisco de Asís y los lugares franciscanos*. Madrid: PPC.
- Herranz, J.; Garrido, J.; Guerra, J. A., 2001, *Los escritos de Francisco y Clara de Asís. Textos y apuntes de lectura*. Oñati: EFA.
- Intxausti, J. (ed.), 2004a, *Euskal Herriko Erlijiosoen Historia*. Arantzazu: EFA.
- Intxausti, J., 2004b, "Frantziskotarren Euskal Herriko Historia", in: Intxausti 2004a: 347-376.
- Iriarte, L., 1979, *Historia franciscana*. Valencia: Editorial Asís.
- Irizar, R., 2002, "Sarrera [orokorra]", in: Frantziskotarren Itzultzaile Taldea 2002: 21-56. (Frantzisko eta Klararen idazkien sarrera-sintesi historiko egokia).
- Jedin, H., 1973, *Manual de Historia de la Iglesia. IV. La Iglesia de la Edad Media después de la Reforma gregoriana*. Barcelona: Herder.
- Jorda, H., 1999, *Le Moyen Âge des marchands. L'utile et le nécessaire*. Paris: L'Harmattan.
- Lainati, C. A., 2004, *Santa Clara de Asís*. Madrid: Ediciones Encuentro.
- Lambert, M., 2003², *La otra historia de los cátaros*. Madrid: Martínez Roca.
- Le Goff, J., 1999, s. v. "Rêves", in: Le Goff / Schmitt 1999: 950-968.
- Le Goff, J., 2004, *El Dios de la Edad Media*. Madrid: Editorial Trotta.
- Le Goff, J.; Schmitt, J.-Cl., 1999, *Dictionnaire raisonné de l'Occident médiéval*. Paris: Fayard.
- Leclerc, E., 1988, *El cántico de las criaturas*. Oñate: EFA.
- Leclerc, E., 1993², *Francisco de Asís. El retorno al Evangelio*. Oñati: EFA.
- Levillain, Ph., 1994, *Dictionnaire historique de la Papauté*. Paris, Fayard.
- Manselli, R., 1997a [1980], *Vida de San Francisco*. Oñati: EFA.

- Manselli, R. 1997b, *Para mejor conocer a Francisco de Asís*. Oñati: EFA.
- Manselli, R., 1997c, "Paul Sabatier y la «cuestión franciscana»", in: Manselli 1997b: 97-112.
- Manselli, R., 1997d, "Apuntes sobre la religiosidad popular en Francisco de Asís", in: Manselli 1997b: 171-212.
- Matura, Th., 1990, *Dieu, le Père Très Saint. Contemplé par François d'Assise*. Paris. Éditions Franciscaines.
- Meersseman, G. G., 1961 (1982²), *Dossier de l'Ordre de la Pénitence au XIII^e siècle*. Fribourg: Presses Universitaires.
- Menestò, E.; Brufani, S. (ed.), 1995, *Fontes Franciscani*. Assisi: Sta. Maria degli Angeli.
- Merlo, G. G., 2005, *En el nombre de Francisco de Asís. Historia de los hermanos menores y del franciscanismo hasta los comienzos del siglo XVI*. Arantzazu: EFA.
- Micoli, G., 1994, *Francisco de Asís. Realidad y memoria de una experiencia cristiana*. Oñate: EFA.
- Mollat, 2006, *Les Pauvres au Moyen Âge*. Bruxelles: Édition Complexe.
- Nguyen-van-khanh, N., 1993, *Cristo en el pensamiento de Francisco de Asís, según sus escritos*. Oñate: Arantzazu, EFA.
- Niel, F., 1997¹⁵, *Albigens et cathares*. Paris: PUF.
- Omaechevarría, I., 1972, *Las clarisas a través de los siglos*. Madrid: Editorial Cisneros.
- Omaechevarría, I., 1999⁴, *Escritos de Santa Clara y documentos contemporáneos*. Madrid: BAC.
- Rapp, F., 2000, *Le Saint Empire romain germanique*. Paris: Tallandier.
- Rusconi, R., 2002, *Francesco d'Assisi nelle fonti e negli scritti*. Padova: Editrici Francescane.
- Sabatier, P., 1920 [1893], *Vie de saint François d'Assise*. Paris: Fischbacher. (Behin betiko azken testua: Sabatier, P. 1931, *Vie de saint François d'Assise. Édition définitive*. Paris: Fischbacher. Hemen aipu-iturri izango den edizioa 44.a izango da, 1920koa).
- Sabatier, P., 1932, *Études inédites sur Saint François d'Assise*. Paris: Fischbacher. (Hilondoko argitalpena).
- Santarelli, A. M.; Azkue, J. M. [itz.], 1925, *Asistar Prantzisko donearen bizitza*. Bilbao: Dotxao-Urigüen.
- Sarasola, L., 1929, *San Francisco de Asís*. Madrid: Espasa-Calpe. (1960², Madrid: Ed. Cisneros).
- Schmitt, J.-C., 1990, *La raison des gestes dans l'Occident médiéval*. Paris: Gallimard.
- Schmitt, J.-C., 2001, *Les corps, les rites, le rêves, le temps. Essai d'anthropologie médiévale*. Paris: Gallimard.
- Schmucki, O., 1982, "«Soy ingorante e idiota». El grado de formación escolar de San Francisco de Asís", in: *Se-lecciones de Franciscanismo*. 31, 1982, 89-106. <http://www.franciscanos.org/sfa/schmucki.htm>.
- Uribe, F., 1990. *Por los caminos de Francisco de Asís. Notas para el itinerario por los lugares franciscanos*. Oñate: Ed. Franciscana Arantzazu.
- Uribe, F., 2017, *Núcleos del carisma de san Francisco de Asís. La identidad franciscana*, Oñate: Ed. Franciscana Arantzazu.
- Varii, 1977, "François (Ordre de Saint)", in: *Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclésiastiques*. Paris. XVIII, 1977, 824-971.

- Varii, 1979, *Espansione del francescanesimo tra Occidente e Oriente nel secolo XIII. Assisi. Atti del VI Convegno Internazionale. Assisi, 12-14 ottobre 1978*. Assisi.
- Varii, 1994, *Regla y vida. Comentario de la regla y vida de los hermanos y hermanas de la Tercera Orden Regular de San Francisco*. Oñati: EFA.
- Varii, 1999, *Francisco de Asís y el primer siglo de historia franciscana*. Oñati: EFA.
- Varii, 1999⁶, *Guida d'Italia. Umbria*. Milano: Touring Club Italiano.
- Varii, 2008, *À l'origine des Fioretti. Les Actes du Bienheureux François et de ses compagnons*. Paris: Éditions Franciscaines / Éditions du Cerf.
- Vauchez, A., 2009, *François d'Assise. Entre histoire et mémoire*. Paris: Fayard.
- Vicaire, H.-M., 2003, *Historia de Santo Domingo*. Madrid: EDIBESA.
- [Villasante, L.; Zurutuza, J. L. (ed.)], 1977, *Anai Frantzisko. Arreba Klara*. Arantzazu: Arantzazu Argitaldaria.
- Zapirain "Ataño", S., 1981, *San Frantziskoren bizitza*. Tolosa: Auspoa (153).
- Zurutuza, J. L. (itz.), 2003, *Asisko Frantziskoren eta Lagunen loretxoak*. Oñati: Arantzazu. (Edizio paratzaileak: P. Agirrebaltzategi; B. Atxagaren aurkezpena; X. Garridoren sarrera, X. Egañaren marrazkiak).



